

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ELIZA ETA EUSKARA

Jagon jardunaldietako txostenak

OHARRA

«**ELIZA ETA EUSKARA. *Jagon jardunaldietako txostenak***» izeneko separata eta, horren jatorrietako bat den *Euskera*, 2004, 2 dela eta, azalpen hau eman nahi du Euskaltzaindiak: «Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik / El seminario de Vitoria y el euskera antes de la guerra civil» izenburuaren barruan ageri diren *Mateo Múgica Urrestarazu (1870-1968)* eta *José Miguel Barandiaran (1889-1991)* lanak ez dira Andres Ibañez-enak, Gorka Aulestia Txakartegi euskaltzain urgazlearenak baizik, «Hamaika Bide elkarte»arentzat egin zituenak, argitaratzeko edo interneten jartzeko.

Euskaltzaindiak barkamena eskatzen die lan horien egileari eta irakurleei, lanen egiletasuna argi eta garbi utziz.

Euskaltzaindia
Bilbo, 2006ko urria

* * *

NOTA

En relación con la separata «**ELIZA ETA EUSKARA. *Jagon jardunaldietako txostenak***», y la revista *Euskera*, 2004, 2, de donde se reprodujeron los artículos en ella incluidos, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca hace constar que bajo el título «Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik / El seminario de Vitoria y el euskera antes de la guerra civil», aparecen dos trabajos denominados *Mateo Múgica Urrestarazu (1870-1968)* y *José Miguel Barandiaran (1889-1991)*, cuyo autor no es D. Andrés Ibañez sino D. Gorka Aulestia Txakartegi, académico correspondiente de esta Institución, que los realizó para el grupo «Hamaika Bide elkarte» para ser publicados o reproducidos en internet.

Euskaltzaindia presenta sus disculpas por este error tanto al autor de los textos como a sus lectores y deja aclarados los extremos pertinentes a su autoría.

Euskaltzaindia
Bilbao, octubre de 2006

EDUKIA

- VI. Jardunaldiak «Euskara Baiona-Oloroe-Leskarreko Elizbarrutian» *Euskera*, 47, 613-654. orr. [11]
- VII. Jardunaldiak «Euskara Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutietan» *Euskera*, 48, 689-787. orr. [53]
- VIII. Jardunaldiak «Eliza eta euskara Gasteizko Elizbarrutian» *Euskera*, 49, 803-902. orr. [153]
- IX. Jardunaldiak «Euskara Bilboko eta Donostiako Elizbarrutietan» *Euskera*, 50, 911-930. orr. [253]

HITZAURREA

*Andres Iñigo,
Jagon sailburua*

Eskuan duzun liburu hau Euskaltzaindiak, 2002 eta 2005 urteen bitartean, Euskal Herriko elizbarrutietako euskararen egungo egoera ezagutzeko antolatu zituen Jagon Sailaren VI-IX jardunaldietan garatutako txostenak dira.

Euskaltzaindiak bere betebeharrak nagusiak bideratu ahal izateko bi atal ditu, *Iker* Saila eta *Jagon* Saila. Euskara ikertzea dagokio lehendabizikoari eta jagoa, zaintzea bigarrenari. Bigarren honek, *Jagon Sailak* alegia, euskararen erabilera zertan dagoen ikustea eta aztertzea du helburuetako bat.

Gauza jakina da Eliza euskararen euskarri izan dela mendeetan zehar eta bere eragina erabakigarria gure hizkuntzaren erabileran. Baina garaiak aldatzen dira eta garaiekin batera egoerak. Horregatik, Jagon Saileko Sustapen batzordeak, egoera hori hurbiletik ezagutu nahian, komenigarri jo zuen gaurko errealitateari pultsua hartzea, hots, Euskal Herriko elizbarrutietako jardueran zein den euskararen presentzia.

Xedea Euskal Herriko elizbarrutietako egoera aztertzea eta ikuspegi osoa izatea zenez gero, aurrez ikusitako egitaraua pausoz pauso hiruzpalau urtez garatzea pentsatu zen. Euskal Herria bat bada ere, hiru lurralde administratibotan zatitua dago, eta eliz administrazioa oraindik zatituago, zortzi elizbarrutitan: hiru Iparraldean (Baiona, Leskar eta Oloroe), bi Nafarroan (Iruñea eta Tuter), eta hiru Euskal Autonomia Erkidegoan (Gasteiz, Bilbo eta Donostia).

Gure ibilbide honek 2002an hasi zen eta 2005ean bukatu.

- 2002an Hendaian egindako VI. Jardunaldietan «Euskara Baiona-Leskar-Oloroeko elizbarrutietan» lau hizlarik hartu zuten parte:

Mikel Erramuspé «Euskara liturgian» izenburuko hitzaldian elizkizunetan euskarari ematen zaion lekuaz aritu zen eta errealitate hori islatzen zuen mapa baten berri eman zuen.

Xabier Itzainak «Eliza eta euskaltzaletasuna: bost ikuspegi» izan zuen hizpide. Ohiko lau ikuspegiren azterketatatik abiatuta, bosgarren bat azaldu zuen, katolizismo eta euskaltzaletasunaren arteko lotura, alegia.

Jean-Louis Davantek «Euskarak Iparraldeko elizkizunetan duen presentziaren aurrean zer?» txostenean M. Erramuspek azaldutako egoeraren aterabiderako *Fededunak* elkarteak egindako proposamenak plazaratu zituen, eta horiekin batera bere gogoeta pertsonalak ere bai.

Pierres Xarritonek «Eliza eta estatua(k) Euskal Herrietan» gaia hautatu zuen, erakunde horien egitura zaharkituek duten eraginez aritzeko.

- 2003an Nafarroari tokatu zitzaion txanda eta Irunberrin, *Nafarroa Oinez* ospakizunaren inguruko ekitaldietan, egin ziren Euskaltzaindiaren Jagon Saileko VII. Jardunaldiak. «Euskara Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan» gaia bi txostengilek azaldu zuten:

Xabi Lasak «Euskararen erabilera Nafarroako Elizan» txostenean, berak Jardunaldi hauetarako espres egindako azterketa soziolinguistikoa-ren bitartez, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan euskararen erabilerak azkeneko urteetan izan duen bilakaera eta erabilera hori gaur egun zertan den azaldu zuen.

Pello Apezetxeak «Elizaren euskararekiko jarrera Nafarroan» izan zuen hizpide. Elizak nola balioetsi duen euskara azkeneko mendeetan eta nola balioesten duen gaur egun azaldu zuen bere hitzaldi mamitsuan.

- 2004an Gasteizen egin ziren VIII. Jardunaldietan «Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian» plazaratu zen, egungo Euskal Autonomia Erkidegoaren lehendabiziko elizbarrutikoa, alegia.

Sarrera gisa, Jose Luis Lizundiak Elizak Euskal Herrian historian zehar izan dituen lurralde administrazio edo elizbarrutien berri eman zuen.

Joseba Intxaustik «Eliza katoliko erromatarra eta euskara» sakonki jorraturuz, ikuspegi historiko orokor eta zehatza eskaini zuen.

Andres Ibañez «Gasteizko apaizgaitegia eta euskara gerra aurretik» txostenean Mateo Mugica eta Joxe Migel Barandiaranen bizitzen eta lanzen zenbait ezaugarri ematera mugatu zen.

Emilio Perez izan zen euskararen egungo errealitatearen berri eman zuena «Euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoral jardueran» txostenaren bidez.

- Ibilbide hau 2005ean burutu zen, Bilbon egin ziren «Eliza eta euskara Bilboko eta Donostiako elizbarrutietan» IX. Jardunaldiekin. Bi elizbarruti hauetan inkesta soziolinguistikoa egiten ari dira, baina oraingoz amaitu gabe dauzkaten zergo, aurkeztutako txostenetan euskararen erabilerarako dituzten irizpide nagusiak azaldu zituzten:

Angel Mari Untzuetak «Euskararen erabilera Bizkaiko Elizan. Irizpide nagusiak» aurkeztu zuen.

Eustasio Etxezarretak garatutakoa «Euskararen erabilera Donostiako elizbarrutian gaur egun. Euskara idatzia eta ahozko euskara» izan zen.

Uste dugu Euskaltzaindiaren *Jagon Sailak* antolatutako Jardunaldi hauetako helburua, neurri batean bederen, bete dela, nahiz eta elizbarruti guztietako azterketa ez den metodologia berari segituz egin.

Tokian tokiko egoera plazaratzearekin batera beste zenbait alderdi ere azaldu dira, hala nola, euskararen erabilera sustatzeko jartzen diren eta jartzen ez diren baliabideak, erabilera horren aldeko eta kontrako jarrera, sortzen ari diren zenbait arazo eta zailtasun, idazkietan eta kantuetan erabiltzen den hizkuntza kalitatea, etab.

Azken batean, errealitate bakoitza dena da, eta hori zen, hain zuzen, Jardunaldi hauek antolatu zirenean Euskaltzaindiak izan zuen xedea, euskararen presentzia eta erabilera zein den Euskal Herriko Elizaren jardueran.

Jardunaldi hauetako txostengileei esker eskuartearen dugu egungo egoera horren ikuspegi orokorra edo bizkarrezurra. Material hori hemendik aitzina egin nahi diren, eta egin beharko liratekeen, hausnarketarako abiapuntu ona izan daiteke. Hausnarketa horren lagungarri, Euskaltzaindiak interesatu guztien eskura jarri nahi izan ditu edizio berezi honetan, orain arte *Euskera* agerkari ofizialean jardunaldika argitara eman dituen txosten guztiak.

Azkenik, *Jagon Sailak* bere esker ona agertu nahi die lau Jardunaldi horietan parte hartu duten guztiei eta, bereziki, Jardunaldi horien edukia gogotik prestatu duten txostengileei.

VI. JAGON JARDUNALDIAK

VI. JAGON JARDUNALDIEN AGIRIA

2002.eko irailaren 27an, arratsaldeko 4,15etan, Hendaia Udaletxean. Bilduak: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; H. Knörr, buruordea; X. Kintana, idazkaria; B. Oihartzabal, *Iker* sailburua; A. Urrutia, *Jagon* sailburua; P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, A. Eguzkitza, A. Iñigo, E. Larre, J.M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta P. Zabaleta, euskaltzainak; A. Aranburu, L. Baraiazarra, G. Barandiaran, E. Baxok, J. Camino, J.B. Dirassar, E. Etxezarreta, M. Itzaina, J. Kaltzakorta, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, J.A. Mujika, M. Ruiz Urrestarazu eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Euskaltzain oso eta urgazleez gain, beste 35 bat lagun aurkitzen dira Udaletxeko ezkontza aretoan.

Lehendabizi, J. Haritschelhar euskaltzainburuak agurra egiten du Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrenaren karietarat, aipatuz nola duela mende bat, Hendaian eta Hondarribian bildu ziren euskaltzaleak eta orain Euskaltzaleen Biltzarraren azken txanpan egon daitekeenez, horren eraberritzea komeniko litzatekeela, bere heritoza gerta ez dadin. Belaunaldi gazteagoen esku.

Ondoren, A. Urrutia sailburuak, VI. Jagon Jardunaldien aurkezpena egiten du, ildo nagusiak markatuz, alegia, «Euskara Baiona-Oloroe-Leskarreko elizbarrutian» deritzan txostena irakurriaz.

Jarraian, Mikel Erramouspe irakasleak, «Euskara Iparraldeko egungo elizkizunetan». *Fededunak* aldizkarian argitara eman duen lanaren azalpena egiten du.

Segidan, Xabier Itçaina CNRSeko ikerleak, «Erlijio katolikoa eta nazio nortasunaren eraikuntza Euskal Herrian» txostenarekin aritzen da.

Ondoren, Jean-Louis Davant euskaltzainak, «Euskarak Iparraldeko elizkizunetan duen presentziaren aurrean zer?» izeneko txostena irakurtzen du.

Azken hitzaldi gisa, Piarres Charritton euskaltzainak, «Eliza eta estatua Euskal Herrietan» gaia hartzen du, Estatuak hizkuntza txikiez eta Elizarekiko ohi duen nagusikeriaz, besteak beste.

Amaitzeko, bilduen artean, elkarrizketa aberasgarria sortzen da.

Eta honekin amaitzen dira, VI. Jagon Jardunaldiok.

HENDAIA-ko BILTZAR IDEKIA

Hendaian 2002-IX-27

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren agurra

Jaun-Andereak aratsalde on.

Ikusirik hainbeste jende etorri dela gure biltzar ideki honetara ene lehenbiziko hitzak esker-hitzak izanen dira Euskaltzaindiaren izenean. Pentsa daiteke hautatu dugun gaia interesgarria dela.

Egia erran, hiru urteren lana da. Hasten gara Baionako elizarekin, datoren urtean segituko dugu Euskal Autonomia Erkidegoko hiru elizbarrutiek (Bilbo, Donostia, Gasteiz) eta bukatuko dugu Nafarroako Foru Erkidegoko elizarekin (Iruñea eta Tuteran), aztertuz zertan den euskara Euskal Herriko diosetan.

Ez dezagun ahantz duela orain 101 urte orduko euskaltzaleak bildu zirela Hendaian, Hegoaldekoak eta Iparraldekoak eta duela mende bat 1902an Hondarribian. Normalki mendeburua hemen behar genuen ospatu iaz eta aurtan Hondarribian, baina 2001. urtean Bilbon eta Baionan Biltzar nagusi bati esker ospatu ditugu hiru euskaltzale eta euskaltzain haundi, Resurrección María de Azkue, Julio de Urkijo eta Pierre Lafitte. Utzi dugu, beraz, aurtengo Euskaltzaleen Biltzarren mendeurrena, jakinik badela konsortzio bat Hendaia, Hondarribia eta Irunen artean, hautatuz Hendaia mendeurrenaren ospatzeko, kontuan harturik urtero Euskaltzaindia biltzen dela aldi bat Iparraldean, aurtan, Hendaian.

Euskaltzaleen Biltzarra sortu zen orduan Hendaian eta Hondarribian egin ziren biltzarretan biltzarkideen xedea zen euskararen ortografiaren batasuna egitea. Badakigu ez zutela hori lortu, baina azpimarratu nahi nuke euskara batu baten lehen entsegua izan zela.

1918-1919an sortu zen Euskaltzaindia, aspaldidanik amestua izan zen Euskal Akademia. Lehenbiziko xedetan agertzen da ortografia batu baten egitea beste asmu askoren artean hala nola Hizkuntz Atlas eta senditzen zuten euskara batuaren beharra Campión-Broussain-en txostenak salatzen duen be-

zala. Azkue-k proposaturik, abiatu ziren Gipuzkera osatuari buruz, baina ez ziren ados jarri.

Jin zen gerla zibila, katakunbetan egon zen luzaz Euskaltzaindia ; 1948an hamabi kidearik joan zen hemezortzi kideetara Krutwig-en txosten bat onarturik eta 1960eko hamarkadan hogeita lauera joan. Hamarkada horretan Arantzazuko Biltzar Nagusiak ideki zuen bide berri bat, euskara batuarena, euskaldunek balia zezaketen hizkuntza amankomuna, baina ez bakarra. Euskaltzaindiak ez ditu sekulan baztertu euskalkiak eta are gutiago arbiatu. Haien estudiatzea beharrezkoa da hobeki ulertzeko eta aztertzeke zer izan den euskal literatura.

Azken hogeita hamar urteetan lan sakonetan murgildu da Euskaltzaindia, direlarik lekuko *Orotariko Euskal Hiztegia* (14 liburuki argitaratuak), Hiztegi Batua 23.000 hitzekin, Gramatika (5 liburuki), Onomastikako argitalpenekin, Literaturan egin dituen Jardunaldiak eta Biltzar Nagusiak Elissamburu, Oiherart, d'Abbadie, Lafitte... Iparraldeari dagokionez.

Lan horiek kontuan hartuz eta Iparraldeari begira ez dut uste bere hilerian utzi behar den Euskaltzaleen Biltzarra. Badu oraindik zer egin nahiz sortu diren elkarte frango euskararen defentsarako. Ez dakit zer izanen den haren geroa, baina Mixel Itzainak erraiten zuen bezala, Iparraldeko euskal kultur mogimenduaren amatxi da eta amatxi gisa merezi du euskaltzaleen amodio kartsua.

Ez du gure belaunaldiak piztaraziko Euskaltzaleen Biltzarra. Gazteen eskuetan behar da ezarri. Bada gazteria eder bat Iparraldean, behar den bezala hezia Unibertsitatean, prest dagoena ene ustez Iparraldeko euskaltzaleen biltzeko eta asmatzeko ere zeri buruz joan behar duen Euskaltzaleen Biltzarrak. Hori da ene ametsa.

Ez dut gehiago luzatu nahi eta ikusiz hainbeste jende bildu dela gaur Hendaiako Udaletxean sartuko gara egungo gaian hitza emanez Andres Urrutia, *Jagon* sailburu jaunari.

Eskerrak zuei denoi.

VI. JAGON JARDUNALDIAK: aurkezpena

Hendaia, 2002-IX-27

*Andres Urrutia,
Jagon Sailburua*

Dugun atxik eskuara!

Arratsaldeon guztioi.

Urtero-urtero etorri izan da Euskaltzaindia Euskal Herriko Iparralde honetara, bere asmoak eta zereginak plazaratzera eta bertako euskaldunekin bat egitera.

Egunak, hilak, urte osoaren zurrunbiloan murgilduta bizi den Euskal Akademiarentzat badira hamaika lan eta eginahal euskalgintzan. Batzuk distiran egiten ditu; beste batzuk, aldiz, isilean eta ekinean.

Horra, bada, gure gaurko hau, ekitaldi ireki eta zabala. Bateko, eginkizun dugu Euskaltzaleen Biltzarreko ehun urteak gogoratzea eta euskal gizarteari ere gogoraraztea. Besteko, garaiotako arrangurek eraman gaituzte pil-pilean dagoen afera zuen aurrean jartzera.

Izan ere, titulua bera oso adierazgarri zaigu: «Euskara Baiona-Leskar-Oloroeko elizbarrutian». Nondik nora halako gairik? Horixe galdetuko didazue berehalakoan. Erantzuna, bat-batekoa baino, garatu beharrekoa dut.

Herria astekaria izan nuen nik horretan lehen giderra. Gure aspaldiko –eta hala ere, bizi-bizi eta irakurterraza– astekariak eman zidan lehen albistea. Kezka nagusia zen euskararen izatea elizkizunetan. Euskara, maldan behera Elizaren zereginetan. Euskararen betiko euskarria zalantzan eta kinka larrian. Erramouspe irakasle bipilak egina zuen ordurako berebiziko ikerketa, euskara mezatan non eta nola zehazteko. Hori adierazia zuen eliz-arduradunen artean, egoeraren berri izan zezaten. Edonork neur dezake, begi-kolpe batez, Euskal Herrian horrek izan dezakeen pisu eta garrantzia. Ez nolana hiko, jakina, Elizarentzat eta euskararentzat.

Bazen –eta bada, oraindik ere– bestelako eraginik alor honetan. Donostiarako deia jaso eta han bildu ginen, duela bizpahiru hilabete, euskaltzain oso-

ak, ohiko izaten dugun hileroko bilkuran. Bertaratu ahala, aldamenean suertatu zitzaidan Jean-Louis Davant euskaltzainkidea. Hark, leun, aldizkaritxo bat eskuratu zidan. Izena *Fededunak* zuen, eta izana, laster igarriko duzuenez, bide beretik zetorren. Euskara zer, nola eta zertarako Elizaren egitekoetan. Esan gabe doa agudo hartu niola aldizkaritxoa, harpidetza ordaindu eta hango berririk irakurri.

Era-erara genuen gaia; erago, oraino, Euskaltzaindiaren egokiera. Falta zen azken pausoa, eta hori eman zuen Jagon Saileko Sustapen Batzordeak, Xarriton euskaltzainkidea akulari izan genuela.

Batetik zein bestetik, gaiari oratu eta horri buruzko hizlari aproposenak bilatzea geratu zen gure gain. Ordukoak ekarri du oraingoa. Hona hemen, Sustapen Batzordearen ekarriaz, jardunaldi honentzat osatu dugun hizlari eta mintzaldien zerrenda:

- Lehena, Erramouspe irakaslea dugu. Bera da, lehen esan legez, euskararen erabilera ikertu eta zehaztu duena, egunotako meza eta elizkizunetan. Bat baino gehiago harrituko da, segur aski, Erramousperen adierazpenak entzun eta gero. Nolanahi ere, irakasgai ederra mugaz bestaldetik gatozenontzat ere, euskararen biziraupenerako bermaketan behinik behin.
- Euskara betidaniko osagaia izan da Euskal Herriaren nortasunean. Historian zehar halakoek zer ekarri eta nola moldatu diren azalduko digu Itçaina irakasleak, hain zuzen ere, gai horrekin unibertsitate-doktoradutza erdietsi zuena. Haren mintzaldia katolizismoaz eta euskal nortasunaz bilbatuko da.
- Horren hurrengo, Jean-Luis Davant zuberotarra datorkigu esatari. *Fededunak* aldizkariarena aipatu dizuet. Aspaldiko kezka hezurramitu da bertan. Abiaburu dituzte, euren esanetan, berba hauek: «Orain arrapizten da FEDEDUNAK taldea, bere aldizkari honekin, euskarak diosesako elizetan duen leku gero eta hertsia goak horretara beharturik.» Bistan da, hortaz, Davanten hitzek ekarriko diguten mezuaren pisua.
- Azkenez, Xarriton euskaltzainkideak aztertuko du gaia Elizaren eta estatuaaren ikuspegitik. Zin-zinez kezkatzen gaitu guztiok giza eskubideen esparruak. Hor ere, badu zeresanik hizkuntzak. Areago gurean, hizkuntza gutxitu eta gutxiengo batean bizi baikara. Bego horren lekukotza Xarriton euskaltzainkidearen hitzetan.

Aurkezpen soila da hau. Aurkezpena, oraingo ekitaldiarena, eta konpromisoa, osterantzekoena, Sustapen Batzordeak lanean baitihardu, beste euskal elizbarrutien hizkuntza-egoerak ikertu eta plazaratzeko.

Isil bitez nire berbak. Mintzo daitezen hizlariarenak eta hausnar ditzagun guztion artean, hemen azalduko denak euskararentzat izan ditzakeen ondorioak.

Nire egiten ditut, bukatzeko, Jean-Louis Davanten intziriak, *Fededunak* aldizkarian agertuak: «Urtarrilaren 15ean Baionako seminario handian egini-ko biltzarraren ondotik, guregain biltzen hasi gara fededun batzuk, ikusteko zer egin behar den diosesa honetako elizetan euskarari leku egoki baten atxikitzeko edo berriz emaiteko. Horretaz gogoetak egingo ditugu zuekin, proposamenen helarazteko elizako buruzagieri eta giristino guzieri».

Asmo bertsutik gatoz euskararen esparrutik ere, Hiriart-Urruty kalonje zerenaren deiadar zolia ezpainetan ari zaigula:

Dugun atxik eskuara!

EUSKARA LITURGIAN

Hendaiako Udaletxea, 2002-IX-27

Mikel Erramouspé

I. Ikerketa nola eramana izan den

J. Camino Baionako diosesako bikario jeneralaren arrangura zen 2001. urte honetan jakitea zertan zen euskara elizkizunetan. Euskarak badu segur aipaldi denbora hauetan: batzuek diote gibelerat ari dela, besteek, aldiz, aintzina ari dela. Eta elizan zer leku ote du?

Leku hori ttipituz, haundituz ari da? Lekuaz bestalde zer erran nahi emaiten diogu? Komunikabide baten lerroan ote da ala elizak ba ote ditu bere arrazoinak euskarari, frantsesari edo elebiduntasunari honelako edo halako inportantziaren emateko?

Zinodak zerbait erran bazuen ere, hortaz gogoeta funtsezkorik egin ote zen ondotik? Ala bakotzak (apez bakotzak) bere alde bereari segitu ote du?

Galde horiek guziak gogoan bildu ginen beraz eta deliberatu zen lehen lehenik behar zela ahal bezain argi ikertu zertan zen euskararen lekua bederen elizkizunetan.

Horretako Euskal Herriko eliza guzietan iragaiten diren mezak zoin hizkuntzatan diren bai hitza, otoitza eta kantu ikertu izan da.

J. Caminok muntatu du talde bat horren egiteko: Gaxuxa Eppherre, Anne Marie Etcheverry, Graxi Zolorzano, Maité Deliard, Katty Itzaina, Adolphe Antchordoquy, Marzel Recalde, Peio Jorajuria, Mikel Erramouspé eta beste zazpi apez. Bakotzak parropia bat edo bi ikertu ditu galdeginez zer elizkizun zer mintzairatan egiten den jakiteko eta denbora berean ahalaz jakiteko nola egiten zuten mintzaira horien antolatzeko.

II. Emaitzak

Mapa batean eman ditugu emaitzak. 3 kasu berexi ditugu. Parropia batean igandeko meza bat bederen osoki euskaraz bazelarik, kolore xuritan ager-

tu dugu mapan. Meza elebidun bat bederen badelarik titta beltzak agertzen dira. Euskarak ez duelarik tokirik, ordion beltzez agertzen da.

– Meza elebiduna da, hitzaren parte bat euskaraz delarik. Euskarazko kantuek ez dute meza euskalduntzen.

1. Batzuek euskara eta frantsesa mintzairaren uztartze hori traba bat bezala bizi dute kristau elkartearantz. Batasuna hausten duela eta elgar baztertze bat sortzen duela pentsatzen dute. Liturgia denek behar dute ulertu. Beraz, frantsesa behar da baliatu erdaldun bat edo beste agertzen delarik, diote hauek. Beraz, hemen lehentasuna ematen zaio gehiengoari eta honen izenean batasunari.

Beste batzuek diote ez dutela jendeak galdegiten baitezpada euskara. Berdin zaiela. Beraz, ez dute baitezpada ikusten zer egin behar liteken euskaraz. Liturgiaren folklorizatzea dela ere agertu da euskara galduxe den lekuetan. Euskara mezan sartzeak «bitxi» egiten du, artifiziala, ez serioa. Edo zaharkeria bat: aitaxi-amatxien orroitzapen goxo bat. Hori ote da Ebanjelioaren zabaltzeko molderik hoberena?

Erran ez direnak, baina entzunak izan direnak inkesta honetaz bestalde: euskara liturgian politika baten egitea da. Elizak ez du euskararen alde agertzerik, ez dela hau honen egitekoa. Ez ote du elizak aise amor ematen errabiatu batzuen aintzinean?, diote batzuek! Frantzian izanez geroz, euskarazko mezarik ez da behar.

2. Beste apez batzuek diote zer traba kausitzen duten euskararen atxikitzeke:

Oraingo pastoral kontseiluetan, kanpotik jin erdaldun frango bada eta harro-harro mintzo direnak! Euskaldunak uzkurrago agertzen dira eta hauen eraginez euskarak gibelerat egiten du. Laiko euskaldunek diote borroka gogorra behar dela eraman apezaren sustengatzeko eta laguntzeko sail horretan.

Parrokia batzuetan laiko euskaldunak hor dira, baina beste batzuetan kanpotiarrek gaina hartua dukete.

Beraz, ez da errax apez batentzat nehoren sustengua gabe euskararen alde irautea.

3. Beste leku batzuetan iduri du gauzak lanoki pasatzen direla, ez baitezpada ez delakotz problemarik, baina iduri du gauzak antolatua izan direla eta ontsa esplikatuak. Hemen apaizaren nortasunak ainitz egiten duela ez da dudarik. Ez da baitezpada aldekoa edo kontrakoa historio bat baina gehiago indar bat egin delakotz gauzak diren bezala ikusteko, ikertzeko eta erantzun orekatu baten xutik emaiteko. Eztabaidak badira. Batzuetan nork edo nork igortzen du letra bat dena gatz eta biper, baina gehienak ez jakinean ez baitezpada gaxtakeriaz. Elkarriketa (ez beti) baina gehienetan baikorra da eta aterabide bat aurkitzen da.

4. Azkenik, badira minbera direnak: Elizak ele ederrak erabiltzen ditu /baina gero ez dira obratuak. Elizak (apezpikuak?) ez duela deus egiten bere erabakien segitzeko... Euskaltzaleak okaztatuak daude eta gisa guztiz ez dira gehiago elizan ibiltzen, diote batzuek. Beste sinestetan barna eta engaiamenduetan dabilta edo ixil-ixila badoazi ... neherekin samurtu gabe.

III. Gogoetak

Funtsezko gogoeta berritu baten beharra senditzen da. Bide batzu agertu (jadanik egiten direnak argian emanez) eta bide berriak ikertu:

- komunikazione beharra: poblema diren lekuetan ageri da komunikazione eta gogoeta eskasa. Berdin-berdina problemarik ez den lekuetan ohartzen gira apaizak edo pastoral kontseiluak indar haundia egin duela esplikatzeko edo gauzak behar bezala antolatzeko, hala nola mezako orrian irakurgai guztiak bi mintzairetan agertuz. Jenderi esplikatu zen-dako den meza bat euskaraz edo parte bat...
- gogoeta beharra; batek erran duen bezala, pastoral euskaraz ala euskararen pastoral. Ikusiz euskaltzale mundua karraskan elizarenganik urruntzen ari dela. Apez gazterik ez da gehiago euskaldunik. Zendako ez eman hauei urte bat euskararen ikasteko. Hauentzat on liteke eta AEKarentzat ere!
- Ikertu ere Hegoaldeko kristau elkarteek nola egiten duten euskalduntze hori.
- Inkestek erakusten dute jendea ez dela oro har euskararen kontra. Gainera honen erabilpena gune sinbolikoan kokatzen dute gaztetxoek partikulazki. Hortaz bi gogoeta egin behar genituzke duarik gabe.
- Teologia erreberritu bat behar genuke landu partikulazki misionest ditugun euskaldunak lagun. Europaz bestalde badira segur kristauak eta hauen ikusmoldeak ere behar genituzke hartu kulturen eta Ebanjelioaren arteko harreman horien barnatzeko.

Gogoeta horien guzien eramaiteko Fedea eta Kultura taldea berriz muntatu da eta berriki arrapiztu den Fededunak taldearekin lan bat eramaiten dute agian fruitu onak ekarriko dituenak.

ELIZA ETA EUSKALTZALETASUNA: BOST IKUSPEGI

Hendaia, 2002-IX-27.

*Xabier Itzaina
(CNRS-CERVL-IEP de Bordeaux)*

Eliza eta euskaltasunaren arteko loturaren aztertzea ez da ez ariketa erraza, ez intsegu berria (1). Eta nahiz eta Euskal-Herrian, Europa mendebaldeko bertze erresumetan bezala, Eliza katolikoa biziki ahuldu den, gai hori oraino minbera da. Auzia –auzi bat balego– ez dela trenkatua diote batzuk, egiturak oraino azkarrak direla bertzek, aipatzea ez duela merexi bertze batzuk oraino, eta abar. Dena den, ikusiz sekularizazio prozesua zertaratua den gaur Euskal Herrian, pentsa daiteke gai horren jorrazeko momentu ona dela. Alde batetik, tentsione erlijioso-politikoak ez direlaketz orain duela hogeita hamar edo berrogoi urte ziren horiek, eliz-egiturek ez dutelaketz gizartea lehen bezainbat kontrolatzen, eta bertzetik garai hortako aktore nagusiak ikuspegi distantziatu baten emaiteko gai direlaketz orain. Horiek horrela, hemen nahi nituzke laburzki bi puntu aipatu. Alde batetik, gai horri buruz eginak izan diren lanak lau sailetan bildu ditut (1). Ondotik nahi nuke erakutsi ikuspegi desberdin horiek nola balia ditazken bosgarren azterketa batean, gai zahar horri galdera berri zonbeit pausatzeke gisan (2).

1. Lau ikuspegi

Eliza eta euskaltzaletasunaren gaia, orohar, lau moldez aztertua izan dela erran daitaie. Klasifikazione hau arbitrarioa da, alabaina, baina halere lotura egiten du giza zientzietako eztabaida orokor batzuekin. Ikuspegi bakotzak berrekin darama «nortasun narratibo» (identité narrative) bat, Paul Ricoeur-en sentsuan (Ricoeur, 1985, p. 444) (2).

(1) Artikulu honen funtsa Hendaian 2002ko buruilararen 27an Euskaltzaindiaren biltzarrean eman hitzaldi bat da. Milesker Piarres Xarriton-i Euskaltzaindiaren biltzarre hortarat gomiturik. Ni eta Euskal Herriari buruz lanean ari giren frango harekin zorretan gara. Hemen agertzen diren azterketa laburrak beren osotasunean atxeman daitaizke: (Itçaina, 2000) edo bertze artikulu batzutan bildurik (Itçaina, 2001, 2002).

1. Ikuspegi esenzialista: suposatzen da euskal nortasuna eta girixtinotasuna norberaren baitan aurkitzen direla. Nortasun kolektiboaren definizioa primordialista da, eta erlijioaren definizioa biziki zabala: eliz-erakundetik espiritualitateraino. Nortasun etnikoa eta erlixionezkoa bata bertzean nahasiak dira. Euskaldun-fededun. Bada euskal arima bat (*l'âme basque*). Eskola horrek bi bide jorratu ditu. Alde batetik, euskal antropologia klasikoarentzat, euskal gizona erlijiozkoa baldin bada, arrazoina mendez mende atxiki dituen sinemen eta jokamolde berezietan aurkitzen da, eliza katolikoak neurri batean beren gisa utzi dituenak. Eskola horren metodoa arkeologia, ipuinen eta mitoen biltzea da. Euskal gizonaren ikuspegi primitibista bat sortzen da, gaur arte arrakasta ukan duena. Bertze azpi-eskola batentzat hargatik, ixtorioa berriz sartzeko da, baina berdin esenzialista geldituz. Hemen, euskal gizona erlijiozkoa baldin bada, lehen arrazoina da eliza-erakundearen gizona izan delakotz. Berdin ontzat hartzen da euskal herri bat badela, herri hori berez fededuna dela, eta herri hortarik direla atera hunenbertze apezpiku, misionesta, apaiz, eta abar. Ixtorioa gizon haundiena da eta froga estatistikoa da, 1960. urteak arte bederen. Euskaldunaren berezitasunaren onartzeak ez du erran nahi nortasun hori politikoki piztua dela. Eskola hortako apaiz historialari batek hauxe idazten zuen: «Le Basque est foncièrement docile, enseigné par le clergé.» (Moreau, 1981, p. 14). Ikuspegi narratibo horrek komunitatea eliza katolikoaren denbora luzean berriz kokatzen du.

2. Ikuspegi exegetikoa edo teologikoa: irakurketa honen boz-eramaileak elizaren bihotzetik mintzo dira, erran nahi baita testu sakratuak aztertuz. Hemen ere pausatzen da euskal espiritualitate berezi bat badela, baina hermenetika horren bidez galdera zera da: ze leku ematen du erlijioaren mamiak (bai doktrinak bai tradizioak) herrien nortasun kolektiboari? Hari hortarik josten dira bai euskal liturgia edo euskal elizaren inguruko eztabaida eta teoriak, bereziki Vatikanoko II. Kontzilioaren ondotik (inkulturazioa, askapenaren teologia, eta ab.). Erakunde barneko ikuspegi bat da, frangotan kritikoa, baina barnekoa halere. Funtsezko galdera da: gauzak nola hobetu barnetik? Euskal herriaren kasuan, hiru lan garrantzitsu sailka daitezke hemen. Lehenik, J. M. de Lachagak nahi izan du erakutsi 1978ean gutxiengo etnikoak elizan onartzea eliza berezien bidez eginen zela (Lachaga, 1978). Pierre Charritton-en teologiako tesiak, Frantziako Tolosan irakurria izan zena lehenik, eta Montréal-en argitaratua 1979an, gogoeta hori barnatzen du (Charritton, 1979). Lehenik, aztertzen ditu elizaren jokaerak errealitate kulturalen artean, hogeigarren mendeko historio luzean. Gero, P. Charritton-ek molde kritiko batez behatzen du elizaren doktrina herrien autodeterminazioari buruz (*droit des peuples à disposer d'eux-mêmes*). Hirugarren parte aberats batean, idazleak dio elizak behar lituzkeela bere doktrinari erantsi gizazientzia zenbaiten (linguistika, an-

(2) J. Zulaikak euskal antropologiaren historiaren aztertze baliatu du nozione hori (Zulaika, 1996).

tropologia, zuzenbidea, soziologia) ekarpen baliosak. Ondarrean, euskal eta québéc-iar kasuek ilustratzen dute aintzineko diskurtso teorikoa. Lachagak bezala, P. Charrittonek ainitz baliatzen du Jean XXIII. aita sainduaren *Pacem in terris* Entziklika (1963), gizonen eta herrien zuzenbideak berriz sartzen dituen elizaren doktrinaren muinean, prinzipioz bederen. Berrikiago, Felix Placeren teologia tesia, 1998ean publikatua, ekarpen garrantzitsu bat da «barneko ikuspegi kritiko» horretan (Placer,-1998). Kasu honetan, euskal elkarte girixtino batzuk dira aztertuak, eta berezikiago haien girixtinotasunaren bizitzeko proposamen alternatiboa. Zirkulo hermeneutikoaren nozioena baliatua da, ikusteko askapenaren teologia nola egokitzen duten talde horiek Euskal Herriari. Funtsezko galdera hertsia da hiru lan horietan: erakunde katolikoak nola integra ditzake bere barne-egituran eta prinzipioetan elementu kultural eta nortasun kolektibo bereziak? Hiru idazleak ber-denboran posizione zail batean dira: erakundearen bihotzean dira ikusiz zein metodo baliatzen dute –teologia, doktrina, tradizioa eta talde girixtinoen azterketa–, eta erakundearen bazterrean, holako ikuspegi bat laister kritikoa agertzen delakotz. Erlijionearen definizioa hemen *substantiboa* da, barnetik ikusia, eta ez bakarrik *funtzionalista* (ze funtzione betetzen dituen erlijioneak gizartean) (Lambert, 1991).

3. Ikuspegi instrumentalista: arrunt bertez puntan, erlijioea ideologiaren maska edo mozorroa bertzerik ez da. Irakurketa soziologiko estrukturalista edo materialistetan, erlijioea menperatzearen forma bat da, bertez ainitzen artean, oligarkiek kontrolatzen dutena. Garai batez bederen, P. Bourdieu-ren erlijio-arearen soziologia linea horretan sartzen zen, idazten zuelarik erlijioean berriz aurkitzen zirela klase eta talde sozialen arteko indar-jokoak (Bourdieu, 1971). Bertzalde, frantses erlijio-arearen soziologian luzaz nagusi ziren ikuspegi «holistik», bai Durkheim, bai Marx-en eraginez: ideia zen orduan, erlijio-nea, *fait social* (gertakizun soziala?) bezala, zela ulertzen ahal bertez *faits sociaux* batzuk aztertu gabe. Erlijioaren logika berezia, erlijio bezala, arrunt baztertua zen (bederen Max Weber-en lanak berriz deskubritu arte). Euskal Herrian, ohartzen gira ikuspegi hori pixka bat bereganatu zutela lehen euskal soziologoek. Frangotan atzerrian formatuak ziren, bai Parisen, Berlin-en edo Frankfurt-en, 1970. urteetan. Euskal gizartearen lehen «berzilari laiko» horiek baliatzen zituzten ikuspegi funtzionalista, estrukturalista edo materialistak. Eta azken eskola horrentzat bereziki, eliza barnean aurkitzen ziren konfliktuek («kontraesanak») erreproduzitzen zituzten kanpoko konfliktuak. Hierarkia eta apezgoaren «basearen» arteko tirabira gatazka politiko bat bezala irakurria zen, kanpoko gerlen miraila besterike ez zen. Egia erran, kontestu historikoak laguntzen zuen holako irakurketa: frankismo garaiko eliza eta estaduaren uztartzea Hegoaldean, apezpiku gogor bat luzaz Baionan. Irakurketa politikoak ziren zerutik eroriak. Biziki lan garrantzitsuak idatzi ziren garai horretan: oroz gainetik P. Izuetaren tesia, Paris VIIIen aurkeztua 1976ean (Izuetua, 1981), edo nazionalismoari buruz J. Apalategi (Apalategi, 1977) edo E. Lopez-Adanen (Beltza, 1976) lehen lanak. Iparraldean, P. Bidart-ek 1977an argitarazi zuen Baigorriari buruzko tesiak ainitz baliatzen zituen materialismo historikoaren pa-

radigmak, eta gorago deskribitu dugun erlijionearen ikuspegia (Bidart, 1977). Irakurketa horren mereximendua zen ikuspegi esenzialistearik ateratzea. Elizatik kanpoko ikuspegi bat zen (nahiz eta soziologo horietarik frango seminariotik ateraiak ziren). Argatik, ikuspegi horretan aktorearen autonomia eta estrategia –*jokamoldea* hitza da egokiena– desagertzen dira. Hemen estruktura dira nagusi. Eta bertzalde, erlijionearen barneko dinamika berezia ez da baitezpada kontuan hartua.

4. Kritikaren kritika: ikuspegi anexionista. Oraino bertze punta batean, dena erlijionea da. Ideologia ez da erlijionearen molde berezi bat baizik. Hemen, bixtan da aurkitzen direla «erlijione zibila» eta «erlijione sekularren» inguruko eztabaidak. Eztabaida teorikoan ez naiz sartuko hemen. Doi-doia azpimarratuko dut ikuspegi hori biziki baliosa dela nazionalismoen aztertzeo, erlijione sekular bat bezala: bere sinesmenekin, bere liturgiekin, bere erritoe-kin, bere apezekin, bere sakrifizioekin. Euskal Herrian, 1980-1990. urteetako antropologoaren belaunaldi berriak gisa horretako lan eder ainitz atera ditu. Ikus Teresa del Valle (Del Valle, 1994) Korrikaz egin duen irakurketa (korrika beila sekular bat bezala), edo Joseba Zulaika Itziar-eko bortizkeria politikoaz idatzitua (Zulaika, 1988), Josetxu Martinez-en euskal nazionalismoaren azterketa (Martinez, 1999), edo Jeremy Mac Clancy-k erritual karlistekin egin duena (Mac Clancy, 1993). Lan horiek –Zulaikak berak berriz irakurri eta bildu dituenak euskal antropologiaren historia balios batean (Zulaika, 1996)– biziki interesgarriak eta berriak dira. Sinboloei, erraiten ez diren keinu eta jarreari ematen diete garrantzia. Dena ez da indar materialisten arteko lehian iragaiten. Baina erlijioaren kasuan, erlijioaren *erakundeak* –eliza katolikoa, gure kasuan– pixka bat desagertzen dira. Dena erlijiosoa delarik, neurri batean nahasten dira erlijiosoa eta sakratua. Sakratua den guzia ez da erlijiosoa, are gutiago katolikoa. Erakundeak (*institutions*) badira (ikus Weber eta Troeltsch-ek nola berexen dituzten eliza / sekta / mistikoa), eta erakundeek, norma eta erregelak xixtima bezala, badute beren eragina aktoreen eguneroko jokamoldeetan.

2. Bosgarren ikuspegi bat

Ikuspegi horiek guziak baliosak dira, eta denek ukan dute beren arrakes- ta, bakoitxak bere tenorean. Horiek horrela, nahi nuke bosgarren ikuspegi bat proposatu, aintzinekoak baliatzen (eta ez baztertzen) dituen, bakoitza bere neurrian. Lehenik erran behar dut ikerketa horretan ez dudala aztertzen erlijionea eta euskaltasunaren arteko lotura, baizik eta katolizismoa eta euskaltzaletasunaren artekoa, ez baita arras gauza bera. Katolizismoa erlijione berezi bat da, erakunde azkar eta internazionaliki zentralizatua den batekin (protestantismoa ez bezala, adibidez). Eliza katolikoa erakunde bat da, Charles Taylor-ek (Taylor, 1994) hitz horri ematen dioten bi sentsuekin: *erakunde-identifikatzailea*

alde batetik, erran nahi baita aunitz jendek beren burua definitzen dutela katoliko bezala, beraz harreman bat, estua edo laxoa, atxikitzen dutela erakundearekin. Baina bertzalde, *erakunde-instrumental* bat da Eliza, erran nahi baita ez dela erreferentzia espiritual huts bat: egestura katolikoak badira gizartean, izan daitezten eskola, gazte mogimendu, langile elkarte, hedabide, eta abar. Eta ez aipa katoliko inspirazioa edo oinarria zeukaten erakunde sekularizatu guziak. Bertzalde, euskaltzaletasuna aipatzen delarik, euskal nortasun kolektibo *mobilizatu* bat da aztertzen, eta ez bakarrik bere burua euskalduntzat daukanaren egoera. Mobilizazio horrek aunitz forma har ditzake: politikoa, kulturala, ekonomikoa, edo denak nahasirik, militantzia orokor batean.

Hipotesi orokorra liteke erakustea eliz-erakundearen eraginak aintzina segitu duela euskal gizartean egitura katoliko instituzionalak ahuldu eta ere. Militanteen baitan bizirik segitzen dute erlijiozko heziketa batean ikasi balore, sinismen eta pratika zenbaitek, orohar, *engaiamenduaren kultura* batek eta, beharbada, frangotan, *intransjentismo* mota bat: dena ez da negoziatzen ahal, badira gauza batzu egiak direnak, beraz ezin hunkiak. Erlijioaren eragin hori «difusoa» dela erran daiteke, bixtan da. Baina interesanta da ikustea ze neurritan atxemaiten den eliza-erakundearen eragina gaur egun militantzia euskaltzalea egituratzen duten erakunde laikoen historian, eta bereziki sortzean. Lotura aztertzen ahal da bi moldez bederen. Alde batetik, har ditzakegu bi mugimendu edo ideologiaren boz-eramaile argienak: eliza katolikoaren «agente» profesionalak alde batetik, hau da, apezgoa bere antolaketa piramidalarekin, bikariotik Aita sainduraino, eta alderdi eta mogimendu abertzaleak bertzalde. Lehen puntu horren aztertzeko, metodo historikoa da egokiena: hartu mogimendu abertzalearen faseak, eta behatu kasu bakotxean ze harreman izan duen eliz-erakundeekin, bai Hegoaldean bai Iparraldean. Laister ohar gintezke abertzaletasuna ofizialki sekularizatu dela holako eta holako urteetan, baina bertzalde eliz-agintarien hitzak –batez ere apezpikuenak– oraino inpakto politiko azkarra daukala euskal espazio publiko desberdinetan.

Baina lehen desmarta hori ez da aski barnatua. Horretan gelditzea gairen axalaren pherekatzea da. Katolizismoaren eragina ez da bakarrik *erreferentzia* erlijioso esplizito baten bidez pasatzen. Argiki erraiteko, elizaren eragina ez da gelditzen X alderdi politikoak deliberatzen duelarik ez dela gehiago alderdi konfesionala izanen. Euskaltzaletasuna, mobilizazioaren kultura hori lehen lehenik *gaitasun (compétence)* bat da. Eta gaitasun horren eraikitzean du eliza katolikoak eragin handia izan, erran nahi baita euskal militanteen sozializazio edo heziketan. Horrek ez du erran nahi, apentziarik ere, eliz-erakundeak, erakunde bezala, nahitara bultzatu dituela hazten / hezten zituen gazteak euskal mobilizazioei buruz. Bixtan da ezetz. Baina alderantzizkoa berdin gezurra liteke. Erakunde guzietan badira ez-usteko efektu batzu, eta neurri handi batean, euskal militantziaren eraiketa horietarik bat daiteke elizarentzat. Horrengatik dute bi erakundeek, katolikoak eta euskaltzaleak, hain ha-

rreman minberatsua eta konplexua atxiki gaur arte, aspaldiko bikote baten gisa. Mirailaren atzera pasa daiteke, bai politika sailean, bai kultura edo ekonomiko sailetan (3).

Alabaina, eragin horren neurtzea ez da baitezpada josteta. Metodologia aintz baliatu behar dira: erakunde produkzioea, hedabideen diskurtsoa, politikoena... Baina metodo baliagarrienetarik bat izan daiteke metodo biografikoa, hau da, elizarekin harreman estua ukan duten militante zonbeiteri beren biziaren kondaraztea, haurtzarotik hasiz. Hautatu ditugun kasu gehienak seminariotik pasatu dira, eta horietarik gehienek ezagutu dituzte 1960. urte hondarretako krisi larriak, bai Derion, Donostian, Baionan edo Akizen (4). Elkarriketen bidez segitu ahal izan ditugu geroko militanteen biziak, haurtzarotik seminario hondarreraino. Bizi-historio horiek labor bil genitzake hiru urratsetan.

a) *Uzten den mundua*

Haurtzaroaren munduan, bai erlijioak bai euskaltasunak badute berezitasun bat. Frangotan bloke bat bezala aurkeztuak dira: euskaldun eta fededun (lehen ikuspegi esenzialistan bezala). Iparraldeko kasuetan, haur denborako orroitzapenetan, otto apezaren itxura frangotan heldu da ezpainetara. Bertzalde, gehienetan, haur horiek ingurumen euskaldunean bizi ziren, oroz gainetik Iparraldean, ikusiz inkestatu guziak barnekaldeko edo Lapurdi Hegoaldeko herrietarik ateratzen direla. Ingurumen euskaldun hori hizkuntzaren bidez da definitua: euskaraz funtzionatzen zuen gizarte bat. Baina nortasun kolektibo hori «naturala» bezala kontsideratzen dute aktoreek, «teoriarik gabekoa», politikoki piztua ez dena. Kontzientzia, badelarik, hizkuntzari lotua da. 1940. urteetan Hazparne inguruan sortu inkestatu batek dion bezala: «Lehen euskaldunak ginen naturalki, ohartu gabe. M. Jourdain bezala, prosa egiten zuelarik» (elk.). Haurraren ikuspegia? Ez bakarrik. Gizarte baten errealtatea ere hor sendi da. Ahatik, haurtzaroan ere, bereziki Hegoaldean, senditzen da nortasun kolektiboaren irakurketa politikoak badirela (edozein zentzutan: abertzaleak, karlistak, sozialistak...). Alde batetik, hegoaldeko hirietan, alteritate linguistikoaren esperientzia goizago egiten ahal du haurrak Esterentzubin edo Alduden baino. Baina bertzalde, Bizkaia eta Gipuzkoan, gerla zibilaren memoria hor da, bai eta aintzinagoko karlistada eta matxinada desberdinen kondaira ere.

(3) Azken puntu hori dut bereziki lantzen orain, behatuz ekonomiaren konzepzioeen gibelean ze balore xixtima atxemaiten den. Iparraldean eta Hegoaldean jorra ditaizke: a) Ekintza katolikoa eta laborantza munduaren egituratzean, Paulo Iztuetak urratu bidea segituz, b) eliz gizon eta egituren lekua kooperatiben mugimenduan. Emeki emeki, erreferentzia katolikoa desagertu da mundu hortarik, bainan mugimenduen sortzaileen baloreak oraino bizirik dira, bereziki gaur egun aintz aipatzen den ekonomia soziala eta solidarioaren mundu hortan (Itçaina, 2002).

(4) Hautatu kasuak Iparraldekoak, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak dira. Ez dugu arabarrak ezta nafartarrak kontsideratu, azterketaren mugatzeko. Horrek ez du erran nahi, alabaina, ez litaikela gauza bera egiten ahal bi herrialde horietan.

Kultura politiko berezi bat osatu dute historio desberdinek, eta aktoreek beren haurtzaroa berriz irakurtzen dutelarik, sendi dira holako liferentziak.

Katolizismoari dagokionez, hor ere «fededunen» blokea ez da arras bloke bat. Haur denborako orroitzapenetan, erlijionearen konplexutasuna itxurazten dute pertsonen arteko diferentziek: adibidez, erretora eta bikarioaren artekoa. Maiz –hemen bixtan da sinplifikatzen dudala– herriko erretora erlijione gogor eta manatzaile baten seinalea da, «Elizako erlijione horrek kontrolatzen zuen gizarte bat» (elk.)-en barnean. Bikarioa ahatik haurretaz eta gazteetaz arduratzen da, pilotaria da, antzerkiak edo dantza taldeak muntatzen ditu. Idealizazioaren irudi hori frangotan familiako edo herriko misionestek azkarki indartzen dute haurraren irudimenean. Erlijionearen bi ikuspegi, beraz, Gipuzkoako Goierriko kasu batek (1943an sortua) untsa biltzen duena:

«Gero, beharbada hori ere oso lotua zegoen guk garai hartan genuen parrokoa edo apez nagusia oso apez indartsua zan, personalidade haundikoa, formazio haundikoa, doktore bat zan, doktoragoa zuen bat, ez zan edozein. Gure herrian nola erori zen? Gaztiguz. Gaztigatua izan zen politika aferen gatik. Bainan gizon horrek apezpiku izaiteko kapazitate eta preparazio osoa zuen. Argia, hizlaria, inteligentea. Eta aldi berean jansenista zen. Hori zan bere pekatua. Eta orduan jansenismo horrek postura oso gogorak, oso bereziak emaiten zituen, eta enfrentamentuak euki zituen apezpikuarekin, eta han utzi zuen bizi guztirako. Gure herrian egingo zituen 40 urte edo gehiago, apez nagusi bezala. Orduan herria zeukan eskuan, herri guzia mugitzen zuen berak nahi zuen bezala. Eta estrikto dana, disziplina batekin. Horrengatik inor ezin zan haren eskuetatik atera. Nik erran behar dut, adibidez bere azken meza nik lagundu nion. Berak eman zuen bere azken meza bere etxean, ia-ia hiltzear zagola, nik urtetan izan nintzen bere meza laguntzailea. Gazte gazte hasi nintzan, ez dakit, 5-6 urtekin, eta bera hil arte jarraitzen nuen bere inguruan. Nere aita ere, hortako esan behar dut, mentalidade hartakoa zala, bat egiten zuen apezarekin, apezaren jansenismo mentalidade estrikto hori, gogor hori. Eta orduan ni mentalidade hortan, giro horretan sartu naiz. Azken urteetan, gizon hau hiltzear zagola, gure herrira etortzen da beste apez gazte bat, gazte-gaztea, apeztu berria, 23 urteekin apeztua. Eta hori berriz Españako gerra famatu harek kanporatu jende batzuen semea zen. Orduan hemen Iparraldean urteetan gurasoekin bizia. Eta orduan, biziki untsa ezagutzen zuen hemengo giroa, hemengo kantuak, eskual kantu guztiak bazazkien, kantari izugarria, harrigarria zan. Eta aldi berean zan gizon fiña, idealista. Nere herrian egin zituen dozena bat urte edo, eta gero misiora joan zen, eta geroztik misiolari da han, Ekuadorren. (...) Eta orduan gizon hori, duela 10 bat urte etorri zan esanez, erretretan sartzen naiz, eta nahi ditut ene azken urteak Gipuzkoan pasatu, nola hemengoa naizen, eta hemen bizi izan naizen, hemen nahi ditut eman. Egon zan urte bat edo, eta berriz itzuli zan, esan zuen: ez da mundu hau nik nahi dutan mundua. Hango pobreakin eta hango arazoekin askoz hobeto senditzen naiz. Hemengoa etzuen jasaiten. Hemengo bizia, aburgesatua, hautsia, zalapartatsua, etzuen jasaiten. Etzan politikagatik, zeren politika giroan oso airoski sentitzen zan hemen, abertzale munduan bazuen, exilioa pasatua eta dena, bainan, nahi badezu ikusi zuen gizarte hau materializatu egin zala, gizartea urrundu zala. Abere-legea ezarri zala, indarraren, konpetentziaren legea, eta sensu hortan askoz hurbilago

senditzen da hirugarren munduak daukan sinpletasun hortan. Han beharrezkoa naiz, hemen ez. Eta geroztik han da. Bere erabakia hori da. Orduan uste dut neregari influentzi izugarria ukan zuen gazte horrek. Alde batetik, zahar horrekin banuen lotura berezi bat, eta hau heldu zen nik 9 bat urte nintuela, eta orduan, bai, gazte honek egin zituen parrobian haurrentzako koral tipi bat, formazio-eko taldetxo batzuek, gazteekin. Bikario zen. Laguntzailea. Taldeetatik okupatzen zen, baina gazteetatik bereziki. Eta orduan, lanean nola ari zen beste parrokoaren laguntzaile, talde hartan sartu ninduen berarekin. Eta talde hortan sartzean, pribilegiatu nintzen zentzu hortan. Bere formazio-informazio hori jasotzeko, bizitzeko dimentsio hortan. Oso ikuspegi haundikoa zen, eta laister nahi izan zituen bildu apezgaiak, gu gazteongandik apezgai batzuek. Eta bazituen, dozena bat bazituen. Harek hautatuak. Gu prest geunden, oso naturala zen. Apeza ongi ikusia zen gure herrian, haundizki ikusia zen. Irudi haundia zuen apezak. Gizarte hartan toki ederra zuen. Bata, bere jansenismoarekin, eta bestea gaztea, oso idealista zen, giro izugarria jartzen zuten. Desberdinak baina konplementariak behar bada.» (5)

Emeki-emeki, elizgizonek ikusten dute beren aurrean dituzten haurretan zoinak duten ikasketetako jite gehienik, eta selekzio informal batzuen bidez semenario tipiko bidea har-arazten diete. Iparraldean eta Hegoaldean hautatu kasuetan, modelo tradizional hortarik pasatu dira denak, 1960. urteak jin arte. Hemen ere, zaila da ondorio formal baten ateratzea. Haurren eliza-sartzea eta da bakarrik «apez bokazio baten inposaketa», Ch. Suaud-k Vendée eskualdean aztertu zuen bezala (Suaud, 1978)? Erakundeak arraberritzeko baliatzen duen moldea? Gure kasuetan, gauzak ez dira hain argi. Bixtan da dimentsio hori badela, baina motibazioak aise konplexuagoak dira: inkestatu batzuek diote zinez hautatu zutela bide hori, batzutan, kasu batean bezala, familiarren nahikeriaren kontra. Bertze batzuek diote etzutela fitsik hautatu, gauzak negoziatu zirela fraile baten eta aitaren artean. Bertze batzuentzat, hautu libre bat izan zen, baina haur baten erabakiak libre izaten ahal diren neurrian. Sozializazioa, haur denboran ere, ez da beraz transmisio hutsa. Haurrak, lehen sozializazioan ere, hautuak egiten ditu, bere inguruan dituen «pertsonai» (*rôles*) zonen artean hautu batzuek egiten ditu, hautu horiek mugatuak badira ere (ikus H.G. Mead, 1963, Dubar, 1991).

b) *Deskubritzen den mundua*

«Erakunde gauza bat da. Bakotzak ze egiten duen erakundearekin, hori berterik da.» (elk., Bizkaitar apez ondo bat)

Seminarioan iragan urteak izigarri garrantzitsuak dira norberaren nortasun indibidual eta kolektiboaren eraikitzean. Seminarioa berez «erakunde total» bat bezala kontsidera daiteke, erran nahi baita kanpoko mundutik aparte den laneko eta bizi toki bat, non pertsona ainitz elgarrekin bizi diren erakun-

(5) Elkarrizketa. Ondoko elkarrizketa zati guztiak ene tesiaren inkestako grabaketatarik hartuak dira.

deak definitu arau zehatzen arabera (Pinto, 1989). Bainan erakundearen alderdi «total» hori ez da batzuek uste bezain hetsia. Harrokan bezala, erakundearen badira artekak, nundik eraikitzen ahal diren harreman informal azkar batzuk ikasleen artean, edo ikasle eta irakasle zonbeiten artean. Sare informal horien bidez eraikitzen da euskal nortasun kolektiboaren kontzientzia bat. Elgarrekin bizitzea, familiarik urrun, izigarri garrantzitsua prozesu horretan. Adibidez, Iparraldean, itsasuar edo aldudar gazte baten cursus klasikoa da, 1960. urte hondarrak arte bederen: batzutan pasaia bat Baionako *maîtrise épiscopale* haur kantari taldean, gero kolejioa eta lizeoa Uztaritzeko semenarioan (6), gero bi urte Akizeko (Landes) seminario haundian, armada, eta Baionako seminario haundia bururatzeko. Gero, batzuek uzten dute eta bertzeak apezten. Dena den, belaunaldi batek elgar segitzen ahal du urte parrasta batez. Gauza bertsua erran daiteke seminarista gipuzkoar edo bizkaitarrentzat, bakotxa bere sarean. Han ahatik, frankismo garaiak izanki eta, erakundearen alderdi normatibo eta kontrol politikoa azkarrago dira, oroz gainetik seminario diozesanoetan.

Diferentzia ttipi bat azpimarratu behar da halere sozializazio prozesu horretan, apezgo sekularra eta erregularraren artean. Itxura guzieren arabera, –bainan hor ere behar liteke aztertu ordenu bakotxean– zonbeit ordenu erlijiosoe-tan badirudi askatasun gehixago izan zela euskal gaien jorrazteko. Frantxixkanoen adibidea ezaguna da, bai Donapaulen bai oroz gainetik Arantzazun. Hegoaldean, frantxixkano gazteen ibilbidea zinezko inimizazio kultural bat zen. 1940. urteetan sortu haur bat 12 urtetan sartzen zen Arantzazun hiru urterentzat, gero bi urte pasatzen zituen Foruan, bi urte Zarautzen, hiru urte filosofia Olite-Herriberrin, eta berriz Arantzazura teologiarentzat. Toki bakotxean, hortarako jitea izaitekotan, lantzen zituen euskarazko testuak, eta trebatzen zen idazle lanetan. Badakigu, sail horretan, ze harreman estua ukan duten *Jakin* aldizkaria eta Arantzazuk. P. Iztuetak, J. Intxaustik, P. Agirrebaltategik eta bertze batzuk hurbiletik aztertua dute ze garrantzia ukan zuten ordenu erlijioso horiek kultural sailean, euskararen erakundetze prozesuan (7).

Ideen zirkulazioa orduan iragaiten da. 1960. urteetan, ainitz gazte abertzale bilakatu ziren seminario denboran. Bertze hainbertze, alderantziz, ez ziren apentziarik ere ideologia hortara hurbildu. Abertzale bilakatu direnentzat, badira bederen bi kasu. Batzuentzat, oroz gainetik hegoaldean, haurretan errezebitu sozializazioaren segida bertzerik etzen. Bertzeentzat –eta Iparraldeko kasu gehienetan– abertzalegora pasatzera bihotz-berritze bat bezala izan zen. Bihotz-berritzea, P. Berger-en hitzetan, iraganaren irakurketa dramatiko bat da (Berger, 1973, p. 91). Abertzalegoaren deskubritze hori iragan zen erakundearen bazterretan zi-

(6) Horiek oro bariazioekin: batzuk kolejioaren parte bat segitzen dute Hazparnen, bertze baxoa prestatzen Baionako lizeo katoliko batean, etab.

(7) Ikus baita ere, J. Intxaustik bultzaturik, Arantzazun 2002ko ekainean Euskal Herriko ordenu eta institutu erlijiosoen historia biltzarrean eman diren hitzaldiak.

ren presuna batzueri esker, edo kanpotik jinikako prentsaren bidez. Hona adibidez zer dioen 1940. urte hastapenetan sortu seminarista lapurtar batek:

«Orduan gintian gu 18 urtetan. Uztaritzen, lehenean edo bigarrenean. Orduan hasi zian Enbata. Ximun Haran, Jakes Abeberry eta horiek Bordelen zitian ixtudiante, eta horiek muntatu ziteian Enbata. Eta igorri ziteian dohaik, eta guk ukan ginian beti. Neretzat izan zian argi bat piztu balitz bezala. Hori argi ta garbi ikusten diat, eta uste diat bestendako ere. Nik segurik hola bizitu nian. Eskualdun izaitea etzian gehiago *une tare*. Nik ordu artean hola bizitu izan nian. Ambiente hartan, zian *une tare* eskualdun izaitea. Eta hori, jornal hori leitzean, gero gure artean ere hasi gintian mintzatzen, eta hori neretzat izan zian, ene buruan, ene aite-aitamen eta ene baitan naukan kulturaren onartze bat bezala, ene baitan argi haundi bat piztu balitz bezala. Orduan hasi zen. Eta gero, bon, antzerki bat edo bi muntatu ginintian, egin ginian ere Manex Pagolarekin aldizkari ttipi bat... Orduan jatzarri gintian pixka bat.» (elk.)

Pertsonen arteko harreman informaletarik ere pasatzen ahal zen mobilizazio politikoaren dekubritze hori. Adibidez, Hazparne inguruko seminarista honek hona zer dioen bere Akizeko seminarioko egonaldiaz:

«Bazen orduan gurekin Leitzako apez-gai bat, orai apez dena, eta enetzat, lagun bilakatu ginen, eta harek zauzkitan lehendabizikotz euskal ixtorioaren gauzak esplikatu. Harekin kontzientzia hartu nuen Euskal Herria etzela bakarrik hemengo hiru probintziak, baina bestaldeko lauak... Harekin naiz egiazki abertzaletu. Orduan P. ere sartu zen Amaia ikasle kultur talde batean, eta pixka bat Euskal Herriko ixtorioa, kultura ikasten ginintuen, ikerketak. Monzon ere han ginuen eza-gutu jin beitzen mintzatzeraz Euskal Gobernuaz eta 36ko gerlaz. Orduan nintzan abertzaletu. Bixtan da Enbata eta orduan hasi ziren, Enbataren irakurtzen. Neretzat, *c'était une découverte*, hori dena, *une découverte*. Zure nortasunaren kontzientziatzea gauza berria zen, barneko iraultza bezala. Gero iresten duzu emeki emeki, naturalki eskualdunak beiginen. Junta egiten da gero. Baina, gero ene familian ez ziren ideia hortakoak» (elk.)

Bihotz-berritze politiko hori kanpoko gertaeren arabera gerta zitekeen. 1960. urte hastapenetan seminariorat heltzen ziren Iparraldeko euskaldunentzat, Aljeriako gerla bihurgune garrantzitsu bat izan zen, eta -nahi etzen irakurketa hori, apentziarik ere, Ipar Euskal Herriko orduko gazte gehienena-deskolonizazioaren mugimendua Euskal Herrira aplikatzen ahal zela pentsatzen zuten. Eta eliza sartzen zuten irakurketa horretan. Hona zer dioen hain uxuen gai horretaz baxenabartar seminarista ohi honek:

«Baxorik ukan ez ginuenek Aljeriako gerlarat joan behar ginuen. Artetik erraiteko egia da, nik pertsonalki orduan, prest nintzala joaiteko, eta halako informaziona edo intoxikaziona ginuen biltzen denbora hartan, nun gu prest ginen bertzeak bezala, frantsesen alde borrokatzerat joaiteko, eta deus ikusteko ez ginuen lurralde hartan. Behintzat guk, deus ikustekorik, frantsesek bazuten ba, bezekiki dirudunek bazuten ikusteko. Kolonia zen eta ixtorio. Erraiteko denbora hartan, Uztaritzeko kolejoan ere ze informaziona pasatzen zen. Eta formakuntza militarra Uztaritzeko zelaian, jostalekuan egiten ginuen. Irakasle bat baginuen, apez bat, eta hori dena erakusteko da ze girotan bizi ginen, eliza eta armada elgarri lo-

tuak alabainan, eta Aljeriako kasuarekin anitzez gehiago. Eta egoera bera bizi izan ginuen Hazparneko kolegioan Indochinako gerla ari zelarik. Geroztik, ikusi eta orroitzen beitzira gauza horietaz, ikusten duzu ze lotura, ze informazio, ze intoxikazio izugarria izaiten zen. Alabainan, komunixten kontra, nolaz ez, eta ixtorio. Denak onetsiak ziren, apostolu horiek dena, eliza ofizialak onesten zituen, eta gero pratikarat emaiten, alabainan. (...) Akizeko egonalditik goiti, hor hasi ginen ainitz gauzeri ohartzen, eta bon, Aljeriako gerla uste dut bururatua zen, eta hango... ainitz gauzeri oharturik, Euskal Herria ere kolonia bat zela, eta ixtorio, hor gure pentsamoldea idekitzen joan zen, eta gero elizako pentsamoldearen aldetik ere, gu hasiak ginen oldartzen ere, egia da, zeren eta ikusten baiginuen eliza katoliko, erromano, apostoliko horren pentsamolde integrista biziki hetsia zela, eta gure herriak bazuela beste pentsamolde idekiago, gizatiarrago baten beharra eta ixtorio. Horiek denak, uste dut gatazka bete-betean ginen hor, 1968ko maiatza ere prestatzen ari zen nunbeit, emeki emeki, alde guzietarik, ideia berriak sartzen ari ziren. Eta guk 68ko maiatza, nahi baduzu, 1966-7an egin ginuen Baionako semenarioan. Gure heinekoa, batere 68koari pentsatu gabe, bixtan dena.»(elk.)

Erakundearen ez usteko efetu baten bidez, ainitz gazte orduan militante bilakatu ziren. Nahitaez, etxetik urrun bizi ziren *ideien mundu batean*, prinzipioen mundu batean. Seminarioan sartzea lehen haustura bat zen gazte horientzat, eta hausturatik atera zitekeen gogoeta. Haien aintzinagoko bizimoldea kultura bihurtzen zen: problematizatua zen. Eta eliz-erakundeak azkartzen zuen harreman bikoitz hori. Alde batetik, semenarioko antolaketa hierarkiko hori ainitzek ez zuten gehiago jasanen eta oldartuko ziren. Baina bertzalde, seminarioan iragan urteak heziketa urteak ziren, euskaltzaleatasunaren jorrazteko parada bat, informalki baldin bada ere. Seminarista gipuzkoar batek azpimarratzen zuen ambiguitate hori oroitaraziz liburu marxistak debekatuak zirela seminarioan, eta liburutegian kolorezko xingola berezi batekin seinalatuak zirela. Debekatuak ziren, baina hor ziren, eta ez bertze nonbait. Tentsione horietatik aterako zen krisia.

c) *Munduen arteko lehia: erlijionearen krisia eta nortasunaren krisia*

Tentsione horien guzien aurrean, bulta baten buruan, norberak berriz negoziatzen du erakundearekin daukan harremana. Bertze ainitz jokoaren artean, ainitzek hiru jarrereren artean hautatu dute, A. Hirschman-en tipologia segituz: atera, mintzatu, edo leial egon (*exit, voice, loyalty*).

Lehen kategoria batentzat, eliz-erakundearen egoitea eta euskal militantzia ezin josiak dira. Bi konfliktuak arrunt nahasiak dira. Adibidez, Baionako seminarioako 1967-8ko konfliktuan (edo Donostian 1966an, edo Derion 1968an) barne izan zirentzat hori aski argi da. Ordutik harat, ainitzek seminarioa utzi zuten, bai eta elizarekin zuten harremana. Bertze batzuentzat aldiz, nahiz eta beren apezgo egitasmoa baztertu, ez zituzten elizarekin harreman guziak puskatu. Entseatu ziren eliza barnetik aldatzea, adibidez, Donostian bezala 1965-67an, edo Akizen 1970-72etik goiti seminarioen bizi-baldintza eta pedagogiak

berrituz. Batzuk, nahiz eta laikoak bilakatu, aintzina segitu zuten elizako militante bezala, baina militantzia hori beren euskaltzaletasunari uztartuz. Beren gerlak: euskararen lekua kateximan, mezan, apezpikua kontseilatzea euskal gaitan. Laikoaren konzepzio kontzilioarioak hori indartzen zuen. Hirugarren kategoria batek hautatu zuen erakundearen baitan egoitea bururaino, apez bilakatzuz, baina leialtasun egokitu batean: apez euskaltzaleek tententzia bat osatzen zuten (eta dute) diozesako apezgoaren artean, eta azpi-egitura bereziak sortu zituzten (Euskal Herriko Apaizen Koordinakundea, edo Herriarekin Iparraldean, adibidez). Barne militantzia bat bultzatzen zuten, euskararen alde jokatzuz elizan, mugaz gaindiko harremanak bultzatzuz elizan edo hitza hartuz arazo politikoeri buruz.

Aktoreak berak eliz-heziketaren eragina neurtzeko tenorean ez dira elgarrekin ados. Batzuentzat, euskal militantziara pasatzea eliz-erakundearen kontrako oldartze bat izan da, ontsa berexiz «erakundea» eta «Krixtoaren mezua». Militante gogorren kasua da frangotan, baina ez bakarrik. Berriz hartzen dituzte girixtinotasunaren alderdi gogorrenak: sakrifizioa, martirioa, bekatuaren sententzia. Bertze batzuentzat, urruntze baketsu bat izan da. Harremanak atxiki dituzte elizarekin, baina gehiago sartuz euskal militantzian. Eta, nahiz eta gutxiengo ahul batentzat bi engaiamenduek ez duten pitsik ikustekorik elgarrekin, gehienak ados dira lotura baten ikusteko beren heziketa *girixtino* (*katoliko* baino gehiago, kasu huntan) eta beren militantziaren artean. Hona zer dioen adibidez Akize eta Baionako seminarista ohi honek, geroztik bere engaiamendua kantuen bidez landu duena:

«Halaere, nik erran dezaket ene partetik, eta uste dut hori aski argi daukatala ene buruan, enetzat, gizonaren aldeko borroka batean, fededun batek, kristau batek, lehen lerroan behar duela. Eta nik, erran nezake, abertzale balin baniz da kristau naizelako, edo fededun naizelako. Abertzale naiz fededun naizelako. Erran nahi baita gizonaren aldeko borroka batean, fededunak, kristauak lehen lerroan behar du. Eta hau da gure kulturaren defenditzea, gure hizkuntzaren defenditzea, gizonaren aldeko borroka. Eta hor elizak lehen lerroan behar du. Nik uste dut hori aski argi daukatala, eta erran dezaket hola hitz laburrez, ni gaur egun abertzale balin baniz, da fededun naizelako.»

Idea bertsua adierazten du gero ekonomia sozialean, ikastoletan eta euskal kulturaren aktiboa izanen den militante baxe-nabartar honek, Baionako seminarioko krisia barnetik ezagutu zuena 1967-68-ean:

«Ene iduriko, jarraipen hutsa da. Nik ez dut Elizaren egitura ofiziala utzi dutalaketz, ez dut utzi Kristoren mezuak ni baitan sortu duen gogoeta, ikusmoldea eta engaiamendua. Ezina zen. Bestenaz, etzuen zentzurik. Ordu arte ikasiaren ukatzeak ez du zentzurik. Ez, ez, ordu artio zinez gure gain hartua ginuen, ene kasuan, ene gain hartua nuen eliza egitura batek eman dautan formakuntza hori, bere ongai guziekin, baina dudarik ez da gaitz senditzen nituenak ukatu ditudala eta oldartu naizela horien kontra, baina bon, hori dena atxiki dutala praktikoan emaiterat entseatu, eta horren iturria nun den erranez, hori dudarik gabe»

Bertze batzuentzat, lotura bat bada bainan ez da hain argia. Eliz-erakundeetan pasatzea izan daiteke ikasketa negatibo bat ere: erran nahi baita han ikasi dutela erakunde azkarregietaz mesfidatzen. Eta batzuek erakaspen erlatibista hori aplikatu dute gero alderdi politiko edo sindikatetan.

Hemen aipatzen den desmartxa ez da baitezpada berria zientzia sozialean. Frantziari mugatuz, lan mota bertsuak eginak izan dira Bretaniako CFTC militanteeri buruz (Berlivet, Sawicki, 1994) edo alderdi sozialisteko katoliko-erakunde buruz (Donegani, 1979). Euskal Herrian, bertze tokitan bezala, beti interesanta da behatzea aktoreek nola eraikitzen dituzten beren «mundu sozialak», Berger eta Luckmann-en sentsuan (Berger, Luckmann, 1986), eta oroz gainetik nola justifikatzen dituzten gaur egun mundu horiek. Diskurtso auto-biografikoan, frangotan koherentzia emaiten da iraganari. Lehen *uste* nuen eta orain *badakit*. Gauzak konplikatua goak dira ikusiz euskaraz frantsesaren *croire* aditza bi hitzez itzul daitekela: *ustea* edo *sinestea*, baktotxa bere sentsuarekin. Jakitea, *ustea* eta *sinestea*: erlijioaren «eragina» gogoaren hiru joko horien artean kokatzen da nonbait.

* * *

Erreferentziak:

- APALATEGI J. (1977), *Nationalisme et question nationale au Pays Basque, 1830-1976*, PNB, ETA, Bayonne, Elkar.
- BELTZA, *El nacionalismo vasco, 1876-1936*, Donostia, Txertoa.
- BERGER P. (1973), *Comprendre la sociologie*, Paris, Resma.
- BERGER P., Luckmann T. (1986?), *La construction sociale de la réalité*, Paris, Méridiens Klincksieck (?)
- BERLIVET L., Sawicki F. (1994), «La foi dans l'engagement. Les militants syndicalistes CFTC de Bretagne dans l'après-guerre», *Politix*, 27.
- BIDART P., *Le pouvoir politique à Baigorri, village basque* (préface de G. Viers), Bayonne, Ipar.
- BOURDIEU P. (1971), «Genèse et structure du champ religieux», *Revue française de sociologie*, 12, p. 295-334.
- CHARRITTON P. (1979), *Le droit des peuples à leur identité. L'évolution d'une question dans l'histoire du christianisme*, postface québécoise de Guy Bourgeault, Montréal, Fides.
- DEL VALLE T. (1994), *Korrika, Basque ritual for ethnic identity*, Reno, University of Nevada press.

- DONEGANI J.-M., «Itinéraire politique et cheminement religieux. L'exemple de catholiques militant au Parti socialiste», *Revue française de science politique*, 29 (4-5), p. 693-738.
- DUBAR C. (1991), *La socialisation. Construction des identités sociales et professionnelles*, Paris, Armand Colin.
- ITÇAINA XABIER (2000), *Catholicisme et identités basques en France et en Espagne. La construction religieuse de la référence et de la compétence identitaires*, Thèse pour le doctorat en science politique, Université Montesquieu, Institut d'Etudes Politiques de Bordeaux.
- (2001), «Catholicisme et construction identitaire basque: retour sur le postulat d'une sécularisation achevée», *Lapurdum*, 6, p. 353-366.
- (2002), «Catholicisme, économie identitaire et affinités électives: les coopératives basques comme groupements volontaires utopiques», *Social Compass, revue internationale de sociologie religieuse*, 49 (3).
- IZTUETA P., *Sociología del fenómeno contestatorio del clero vasco: 1940-1975*, Bayonne, Donostia, Elkar.
- LAMBERT Y. (1991), «La tour de Babel des définitions de la religion», *Social Compass*, 38(1), p. 73-85.
- MAC CLANCY J. (1993), «An approach to political ritual: an example from Navarre», in Marc Abélès, Werner Rossade (dir.), *Politique symbolique en Europe, Symbolische politik in Europa*, Berlin, Duncker & Humblot, 1993, p. 119-132.
- MARTINEZ MONTOYA J. (1999), *La construcción nacional de Euskal Herria. Etnicidad, política y religión*, Donostia, Ttarttalo.
- MEAD H. G. (1963), *L'esprit, le soi et la société*, Paris, PUF [*Mind, self and society*, 1934].
- MOREAU R. (1981), *L'âme basque*, Bordeaux, Ulysse (2^e éd.)
- PINTO L. (1989), «Expérience vécue et exigence scientifique d'objectivité», dans Patrick Champagne, Rémi Lenoir, Dominique Merllié, Louis Pinto, *Initiation à la pratique sociologique*, Paris, Dunod, p. 7-52.
- PLACER F. (1998), «Creer en Euskal Herria, la experiencia creyente de la Comunidades Cristianas Populares y de la Coordinadora de sacerdotes de Euskal Herria», 1976-1996, Bilbao, *Herria 2000 Eliza*, 1998.
- RICOEUR PAUL (1985), *Temps et récit 3: le temps raconté*, Paris, Seuil, 1985.
- SUAUD CHARLES (1978), *La vocation: conversion et reconversion des prêtres ruraux*, Paris, Minuit.

TAYLOR CHARLES (1994), «Les institutions dans la vie nationale», *Esprit*, mars-avril, p. 90-102.

ZULAIKA JOSEBA (1988), *Basque violence, metaphor and sacrament*, Reno, Las Vegas, University of Reno Press.

— (1996), *Cromañon y carnaval. Los Vascos como museo antropológico*, Donostia, Erein.

EUSKARAK IPARRALDEKO ELIZKIZUNETAN DUEN PRESENTZIAREN AURREAN ZER?

Hendaia, 2002-IX-27

Jean-Louis Davant

Mikel Erramuzpe jaunak aurkeztu duen inkesta horrek astindu eta inarrosi gaitu kristau euskalzaleak.

Apaizgaitegiko biltzarretik nola jalgi zen jendea? Arranguratua, kezkatua, kexu eta haserre ateratzen zen. Euskararen aldeko erabakiak eta deliberoak igurikitzen zituen, eta horrelakorik ez zen agertu.

Ondotik, gogoeta zenbaiten egiteko, Baionan bildu ginen laster, urtarrilaren hogeita hamarrean, hamalau lagun. Solas franko erabili genuen biltzarrikideak. Zenbait aipatuko ditut hemen, agian beharrenek, ezen denak ados ginauden puntu premiatsu batean: zinez apal joana dela euskararen lekua iparraldeko euskal elizetan, eta ez dugula onartzen ahal bide horretarik jarraiki eta segi dezan, beti behera.

Haatik zuhurtziazko bertze egia hau ere gogoan dugu: gero eta gutiago direla hemen apaizak, eta beraz ahal bezala ari direla, gure herririk ugarietan eliza eta basilika asko zerbitzatuz. Ez ditugu kritikatu behar, baina lagundu. Agerian dago frantzimantak (frankofono hutsak) dituztela maiz inguruko laguntzaileak, edo euskararen tokiaz batere axolatzen ez diren jendeak.

Biltzarkide batzuek deitoratu dugu elizatik bazter egoiten dela maluruskiko euskalzale anitz. Bertzeek ihardetsi digute zertako joanen diren euskalzaleak bizkarraz itzuli zaien eliza batera.

HIZKUNTZEN ALDE ZER DION ELIZAK

Oroitarazirik izan da Erromako Eliza orokorrak irakaspen zorrotza duela populuen eta hizkuntzen alde, txikienak barne, hortik baitabila jendeen gano errespetua. Beraz Euskal Herrian ere doktrina ofizial hori ezagutu behar genuke, baita praktikan ezarri.

Azpimarratu dugu, aho batez, inoren aurka ez doala gure xedea. Aitzitik, Elizako buruzagi eta apaizak lagundu nahi ditugula, jaun apezpikua lehen lehena, giristino soil eta fidel egonez, eta gure proposamenak eginez libreki. Be-

raz fermuki bezain apalki entseatuko gara euskararen alde, gurea ere den Eli-zan. Eta hor politikaz ari garela erran lezakeenak, gezurra erran lezake.

Bistan dena, euskararen sustatzeaz bertze arrangurarik badugu kristau bezala, eta hori ere agertu da bilkuran. Nahiago genuke gure fedea bakean barnatu eta inguruan hedatu. Hemengo eliza husten ari delarik, deitoratzen dugu indar batzuen higatu beharra hor ere hizkuntzaren alde. Maluruski ez dugu bertze hauturik, behartzen gaitu egoera ezinago ilun batek. Gainera ikusten dugu eliza ez duela jendez betetzen frantsesak ere, izaitekotan gehixeago husten euskalzaleak urrunduz.

«FEDEDUNAK» ELKARTEA

Baionako biltzar horretan, multzo txiki bat hautatu genuen gutartean, georari buruz xedeen eta bideen prestatzen hasteko, taldearen hedatzeko eta eskualdeka finkatzeko, baita proposamenen egiteko bertze kristauei eta elizako buruzagiei.

Baionako bilkuran pentsatu genuen «Fededunak» izeneko mugimendua berpiztu behar genuela, eta horri buruzko urratsak apailatu zizkigun ondoko asteetan delako talde antolatzaileak. Biltzar nagusi bat apaindu zuen maiatzaren hamazortziko, Belokeko fraide etxean, larunbat arratsaldekarri, eta hor bildu ginen hogeita hamar bat lagun.

Solas franko erabili zen hor ere, zenbait bederen aipatuko dizkizuet urruntxeago. «Fededunak» elkarte berriz indarrean ezarri genuen eta bulego bat hautatu: lehendakaria Pello OSPITAL kantari ezaguna, idazkaria Edurne ALEGRIA anderea, diruzaina Xan ERROTABEHERE.

Oroitarazi behar dizuet larri-larria, bastan eta zirriborroan, zer izan zen «Fededunak» mugimendua, 1968an sortua. 1968ko maiatz hartan, Hazparden etxera jin zitzaidan Marcel Mendiboure hazpandar apaiza, Baionan zagoena kargutan. Ikasleez zuen kezka, ez unibertsitateko, horrelakorik ez baitzegoen oraino hemen, baina seminario handiko apaizgaiez, «istudianteez» hitzaren zentzu zaharrean.

Ez ziren Pariseko ikasleen beha egonak, beren mugimendua aitzineko urtean hasia zuten, 1967an. Horren arrazoa: euskararentzat toki bat nahi zuten beren formakuntzan. Ez zuen onartu zuzendariak. Orduko apezpikua Mgr Vincent baitzen, haren bermea ukan zuen. Mugimenduaren buru agertu ziren lau apaizgaiak apendiz bezala igorri nahi izan zituzten Frantzia behere horretako erroter batzuen gana. Orduan lau gazte horietatik biga seminariotik atera ziren beren baitarik, alde bat. Urruntzea onartu zuten bertze biek, haatik azkenean kanporatu zituzten Baionako buruzagiek. Ondotik husten hasi zen apaizgaitegia. Bitartean hortik joanak ziren irakasle batzuk, haietan Jean Hiriart-Urruty,

gero euskaltzain hautatuko genuena, eta haren anai gaztea, André, idazle fina hura ere, Parisen tristeki hondatuko zena 1987an. Bestalde Housset garaztarra, gaur Montauban-eko apezpikua dena.

Beraz krisi larria zen Baionako seminario handian, eta Marcel Mendi-bourek eman zidan aholku hau: elkartu gintezen ekintza katolikoan sartuenik ginen laiko batzuk, afera horretaz gogoeten egiteko, eta ahalaz bitartekari edo ararteko lanetan sartzeko. Kide andana bat bildu genuen Angeluko Haritxagan, eta hortik sortuko zen geroxeago «Fededunak» elkarte, Baionako suprefetur-
ran ofizialki deklaratu dagoena. Lehenbiziko arartekari lan hartarik aitzina, bere xedea zabaldu zuen euskararen alde iparraldeko euskal eliza guzira. Gogoetak egin zituen sail horretarik at ere, bereziki *Fedegintza* aldizkarian, Euskal Herriaz, euskal elizaz, askatasunaren teologia baten beharraz hemen ere...

Teologia horren aldekoak ziren bereziki Mañex Erdozaintzi Etxart eta Klaudio Harluxet, ez ordea Jean Hiriart Urruty, eta hirugarren zenbakian gelditu zen aldizkaria. 1976. urtean gertatu zen hori guzia.

Gainera, katiximen bi hizkuntzetan agertzeko langile bezala ezagutua zuen elkarte orduko apezpikuak, eta eginkizun hori bete zuen garai hartakotzat. 1986an etorri zitzaigun oraiko apezpikua, Pierre Molerés, eta ikusirik gure helburuekin bat zegoela, haren esku utzi zuen gure bulegoak horien bilatzea, eta 1987an gelditu zen «Fededunak» izeneko mugimendua, hargatik ezabatu gabe. Berriz indarrean jartzeko, ez zuen beraz papereria berri baten beharrik iragan udaberri horretan. Gainera ber izeneko aldizkari bat moldatzen du, eta bi zenbaki baditu jadanik agertuak.

BULEGOAREN PROPOSAMENAK

Maiatzaren hamazortziko biltzar nagusiaren ondotik bildurik, han erran zirenak moldatuz, Fededunak elkarteko bulegoak azaldu ditu iparraldeko elizari egiten dizkion proposamen hauek.

A) *Epe laburrean*. Duela 10 urte Sinodoak erabakiak praktikan eman:

1. *Il est demandé de mettre en oeuvre une pastorale adaptée aux milliers d'enfants et de jeunes scolarisés en langue basque (4. artikulua, 40. orientazioa, 401. proposamena).*

Hortarako beharko da euskal pastoralaren arduradun bat izendatu, laiko talde batekin euskarari buruz hartu erabakien jarraipena eginen du.

2. *Garantir à chaque communauté la liberté de célébrer dans sa langue (4. artikulua, 40. orientazioa, 401. proposamena).*

Horrek ematen dio euskaldun bakoitzari meza euskaraz entzuteko ahala, bere hurrekin, hauentzat egokia den tenorean, ez bazter herrietan soilik, baina zentroetan ere, 10 1/2tan, frantsesezkoekin aldizkatuz. Ez da ahanzi behar frantsesezko mezak diren eliza anitzetan, euskaldunek egiten dutela gehiengoa.

Meza elebidunak, ezinbestean baizik ez dira emanak izanen. Kasu haue-
tan elebitasuna ez da kantuetan mugatuko. Gutierrez eskaintza eta esker onez-
ko otoitza euskaraz izanen dira.

3. Mezak prestatzen dituztenen laguntzeko, berriz agertuko dira Andia-
zabalen liburuxkak.

Lazkaoko lana egokituko da hemengotzat, hosto bat atera astero.

Beren prediku eta prestakuntza makinaz joiten duten apaizak gomitatzen
ditugu beren lanaren interneten sartzera, besteak ere balia ahal dituen lan ho-
rretaz.

4. Parropietako aldizkarietan euskarari emanen zaio sinbolikoa baino
gehiago daitekeen toki bat.

5. Euskarari interesatzen diren apaizak, euskara baliatzen den tokietan
izendatuak izan daitezten.

B) *Hiru urte barne:*

1. Adin guzietako haurrek izanen dute kolorezko liburu bat euskaraz.

2. Euskaraz dakiten haur guziek katixima euskaraz izanen dute.

3. Hegoaldeko giristinoekin harreman ofizialak izanen dira, lehenago,
euskal liturgia egin zelarik izan ziren bezela.

4. Apaiz gazteek urte bat izanen dute euskaraz ikasteko AEKAn eta ho-
rretarako bakarrik, lizentzia bat edo berziklatzea egiten delarik bezela.

5. Katixima egile gazte euskaldunentzat, formakuntza bat izanen da eus-
karaz, ordaindua.

6. Katetxean eta apezpikutegian idazkari elebidunak izanen dira.

7. Dirua: Horiek denek dirua beharko dute. Aitzinkontuan dirutza bat sar-
dezan apezpikutegiak euskarazko pastoralarentzat eskatzen dugu.

HORIEK DENAK EGINEN DIRA BATERE GETORIK SORTU GABE.

Euskaldunak noiz nahi eta non nahi sartzen dira frantsesezko elizkizune-
tan, aspalditik, nehoari arazorik sortu gabe edo aldaketarik eskatu gabe. Bes-
taldetik dira arazoak eta tolerantzia eskasak.

* * *

Hara beraz «Fededunak» elkarteko bulegoaren proposamenak.

Osoan hartu ditut, hitzez hitz, arras gutitan baturantz egokituz: bainanbaina, apez-apaiz, buxet-aitzinkontu, bakotxa-bakoitza, girixtino-giristino, xoi-lik-soilik, preparakuntza-prestakuntza...

BABEL ETA MENDEKOSTE

Nire aburu eta iritzi sakonena eman aitzin, auzi hau goratu eta zabaldu nahi nuke, gure sinestearen iturrietara itzuliz, hor ikusten baitituz oinarrizko bi gertakizun eta sinbolo, bata Itun Zaharrean, bertzea Itun Berrian: Babel eta Mendekoste.

Babelen, hizkuntza bakarra zuten jendeek. Baina urguluak, handi nahiak, izariz kanpoko xede zoro batek zatitu zituen, eta ezin zuten gehiago elkar ulertu ez konprenitu. Hor ikasgai nagusi bat ikusten dut, bertze batzuren artetik: ez duela deus onik indarrez eginiko basa unibertsalismo batek, porrot eta banarrotera deramala zuzen-zuzena.

Alderantziz Mendekostez, denek bat egin zuten nahitara, beren arteko diferentzien gainetik, bakoitzak bere nortasuna ukatu gabe: apostoluen mezua batbederak bere hizkuntzan entzuten baitzuen. Horrela ikusten dut egiazko batasuna: gisa guzietako jendeen elkartasuna, bakoitzak hoberenik duen hura ekarriz eta bertzeekin partekatuz, gure ostatu zaharretan egin ohi zen bezala. Ostaleraren esku salda, edariak eta kafea. Eta badakigu zein ona eta eskuzabala den gure ostaler nagusia, denak hartuko gaituena, oxala, bere mahaian, betiereko egoitzan.

NIRE ABURU SAKONA

Ez omen dago hizkuntza sakraturik. Beraz erdara ere ez de sakratua! Baina pertsona bakoitza bai, sakratua da: errespetua zor zaio, eta errespetu hori, hizkuntzatik ere pasatzen da, bere hizkuntzari esker pentsatzen baitu, edo gutienez pentsatzen duena adierazten.

Otoitza bihotzez egiten da buruz baino gehiago. Bertzela zer Jainko da otoizten duguna? Filosofoen Jainko hotz, urrun eta geldia, adibidez Voltaire baten arkitektoa edo erlojugilea, Ala Abraham, Isaias eta Josuaren Aita mai-tekorra?

Nik bederen ezin dut egiazki eta sakonki otoitz egin euskaraz baizik; ametsak ere euskaraz egiten ditut, hau baitut bihotzeko eta bihotzaren hizkuntza, aitamenganik ukana hatsa bera bezala. Bertze hizkuntzetan (latin, frantses, gaztelaniaz), formula hotz batzuk errezatzen ditut ezpain punteaz; orazione hi-

lak dira niretzat, kontserbuzko janariak bezala, gustu eta vitamina gabeak, ezin bertzean, bertzerik ezean, «a minima» balia ditzakedanak.

Leku handia du euskarak euskaldunen izaitean eta bizitzan, araberakoa behar du elizan ere. Gainera ez gaude hemen Charentes edo Touraine eskualdean, Euskal Herria da hau, bere nortasun berezia daukana zalantza barik: euskara dugu hemen lehenbiziko hizkuntza, herriko tontor eta erreka guziek mintzo dutena toponimia guzian. Ez da zuzen ez egoki euskara bere kabiatik bota dezan bigarren hizkuntza dugun erdarak, kukuak egin ohi duen bezala.

Elizari ez diogu eskatzen ahal Estatuari baino gutiago. Gobernuen ganik baino justizia gehiago iguriki dezakegu elizako buruzagien ganik, elizakoak izanez gu ere, horretan ez dugu dudarik.

Beraz esperantza handia dugu, bai fedearen alde, bai euskararen alde, hau baitugu espirituaren moldatzailea. Gisa batez, euskararen alde doa gaur jendarteko dinamika, batzuek ikusten ez dutena. Ûrrüstoiko herri ñimiñoan adibidez, bederatzi haurño kondatzen baititut, horietatik sei Sohütako ikastolan sartu edo sartzekoak dira, beste hiruak soilik eskola publikoan. Bertzalde BAB frantzimant horretan ere, euskara irakastearen alde agertu da berriki jendeen gehiengoa aburu ikerketa batean. Nork erran dezake, zuhurtasunez, zaharkeria bat dela euskara? Nik uste gure hizkuntza mespretxatzen dutenen iritzia dela zaharkeria bat, zabarkeria bat ere bai, ukatzen gaituena. Beraz horren aldatzen lagundu behar ditugu Elizaren baitan ere.

ELIZA ETA ESTATUA(K) EUSKAL HERRIETAN

Hendaian 2002-IX-27

Piarres Xarriton

Euskaltzaindiaren *Jagon* Saileko lagunok, orain duela zenbait aste, arratsalde honetako egitasmoaz solasean geundelarik ikusteko Eliza eta euskara deritzon hiru urteko azterlanaren barnean nola banatuko genuen gaurko egin-kizuna, Andres Urrutia, Mikel Erramouspé, Xabier Itzaina eta Jean-Louis Davanten aldiaren ondotik etorri zen ene txanda: «Eta hik, Piarres, zertaz duk behar hitzegin?» galdatu zidaten lagunek.

Nik berehala ihardetsi: «Eliza eta Estatua(k) Euskal Herrietan».

Eta oixtion, ene aitzinetik adiskide Jean-Louisek erraiten baitzuen ez zuela politika hunkitzeko gogorik, nik berehala aitortzen dizuet politikaren erdi-erdian sartzeko asmoa dudala.

Eta zergatik ote? Zeren alde batetik gure belaunaldiak ezagutu duen mai-su miresgarri batek, Karlos Santamaria gure bidegile eta bakegile paregabeak, liburu eder bat idatzi baitzuen, monseigneur Huyghe Arras-eko frantses apez-pikuari haren izena lapurtuz, *La Iglesia hace politica/Elizak politika egiten du*, deitu zuena eta agertuz geroz higatu ez dena.

Bestalde aitortu behar dut oraino, bizpahiru urte honetan, hitzemana du-dala Politikaz liburu baten egitea eta, jadanik parte ordaindua izan zaidala. Baina erdiminetan nenbilela, ziberotar adiskide batek jalgi dit berrikitan bere aita xirulariaren ganik bildu erran zahar hau: «Musika txarra, aitzinetik paka-tüa!» Badut, beraz, beldurra ene musika txarra izanen den.

Alta bada, ene liburu eta paper zaharrei, bai eta aspaldiko oroitzapenei gainbegirada bat eman orduko, konturatzen naiz baduela engoitik 60 urte, bigarren Aintzina-ren 1941-1942ko urteez geroztik, Piarres Andiazabal euskaltzain kalonje adiskideak berrikitan eskuratu dizkidan Piarres Lafitte gure irakasle ohi zenari, Matthieu Aguerre, Roger Etchegaray eta Pierre Charriton apezgaiek, bakoitzak gure aldetik, bidaltzen genizkion gutunen arabera, urrundik daramatzagula, barna bihotzean sarturik, Elizaren eta estatuen harremanek euskaldunen gogoetan pizten dituzten galde berak edo bertsuak.

Nitaz beste bat liteke ordea gure Jagon Sailak galdezkatu behar lukeena aipatzen ditugun gai guztiez. Herenegunez geroz, hots, laurogei urteak bete dituzenez geroztik, bere kargu orotarik erretiratu baita Roger Etchegaray kardinala eta menturaz gertatu baitzaio, beste kargudun batzuei bezala, kargua utziz geroz, mihia luzatzea edo soilik elhea askatzea. Baluke ziur zer konda.

Bizkitartean, egun berean, bera ongi ezagutzen dukeen *La Croix* egunkari-ko kazetari batek zioen ez dugula nehoiz ikusiko berriketari askok amets litzakeen euskaldun kardinalaren «*memorabilia*»-rik.

Hain zuzen, gogoratzen zait, duela 25 bat urte, aita René Laurentin Paris-eko kazetari ezagunak jalgi zidala, bapatean, Saint-Amand-eko apeztexean, ateraldi hau: *Je me demande toujours quand le Vatican va se décider à régler le contentieux qu'il a depuis si longtemps avec le Peuple Basque.*

Jakin nahi zuenaz geroz noiz Vatikanok auritu nahiko zuen aspaldian Euskal Herriarekin duen auzia, kondatu nion ene adiskideari zenbait urte lehenago, Erroman ikasle geundelarik Etchegaray eta biok, Clément Mathieu Akizeko apezpiku hazpandarrak eraman gintuela berekin Pio XII.aren oinetara, haren benedizioarekin berezia errezebitzera. Eta gero, aita santuarekin buruz buru solastaturik, atera zitzaigularik gure apezpiku ona, erranez PioXII.ak ez ziola besarkadarik eman nahi izan, gripearen kutsurik ez emaitzatik, galde ausarta egin genion berari: «Barka Jauna, jakin daiteke noiz argitaratuko dituzun 36eko gerla denboran Euskal Herriko egoeraz Erromara bidali omen dituzun txostenak?»

Erantzuna jin zitzaigun argi eta zorrotz: «Argitaratuko nik? – Sekulan ez, kalte gehiegi egin liezaioke Elizari!»

Segur eta fida naiz ez duela oroitzapen hori ahantzia Etchegarayek eta ez dugula, beraz, haren paperik ere ikusiko.

* * *

Goazen hala ere, bakoitza gure aldetik, iraganean gora zenbait urratsen egitera!

II. Mundu gerlatik landako urte haietan antolatutako baitzen Biarritzen Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Biltzarra, Pierre Narbaitz gure irakasle ohiak eskaturik parte hartu genuen Erromatik, bedera lanekin, bi ikasle lagun gazteok: nihonek alabaina argitaratu berria nuen *Petite histoire religieuse du Pays Basque* eta gai beretik zerbait erran nukeen.

Roger Etchegarayk, aldiz, egin zuen beste lan bat, nihaurk erran behar banu, enea baino aberatsagoa, Erromako bulegoetan berak ordukotz egiten zekien bezala, bildu baitzituen Euskal Herri osoko elizbarruti eta kongregazioek misio tokietan zerabiltzaten baliabideen kontu zehatzak. Ez zen ordea argitaratu *L'effort missionnaire des Basques à travers les siècles* deitu haren

lan hura eta, galdutzat emana izan zen. Baina hona non, suertez, Uztaritzeko Insausti baitan, Jean-Claude Larrondek aurkitu berri duen haren kopia bat eta laster argitaratuko omen du Biarritzeko Biltzarraren beste lan askorekin batean.

Dena den, dokumentu hori baliagarri izan daiteke oraino, geroztik eza-gutu ditugun Mateo Mugica eta Clément Mathieu bi apezpiku zenduen beste paper batzuek bezala, konduen ordua etorriko delarik. Ezen Gernikako hautsak oraino bero beroak zirelarik eta Pio XII.aren Erromako liburu saltegieta saltzen zelarik Jacques Maritain de Gaulleren enbaxadore «heretikoa» salatzen zuen *De Lamennais à Maritain la crise du libéralisme catholique* Argentinan argitaratu liburu frantsesezkoa, Maritain, Bernanos, Mauriac, Mounier, Congar, Journet edo don Sturzo iduri fededun ausart batzuek, gostaiarik gosta, euskaldunen alde mintzatzeko herabe izan ez baziren, aitortu behar da elizagizon gehienek nahiago zutela Lisboako edo Toledoko kardinalen urratsei jarraiki, Suitzan aterbeturik zegoen Tarragonakoaren bideari baino.

Nahiz Italiako Errepublikak lehen urratsak egiten ari zituen eta kristau demokraziak Ameriketako haizea alde zuen, Vatikanoko buruzagiek, aitzineko Mussolini, Pilsudski, Salazar, Hitler, Duplessis, Pétain eta bakoitza bere gisako estatuburu batzuekin hain ongi konpondu zirenek, aparteko konkordatu bat antolatzeraz zoazen II. mundu gerlako garailek apur bat zokoraturik zeukaten Franco jeneralari eskua luzatzeko xedearekin.

Kontzilio berririk ez zen aipu ere oraino eta aski genuen aita Boyer jesuita edo aita Garrigou Lagrange dominikarra entzutea zenbait urte geroxeago goraiatuak izanen ziren aita Teilhard de Chardin, aita de Lubac edo aita Congar batzuez hitz egiten, asmatzeko zer ziren Juana Arkekoaren edo Savonarolaren denboretako inquisitoren edo zer izan behar zen de Lancre jujearen eta Etchaz apezpikuaren euskal herrietan estatuak eta elizak, eskuz esku, zeramaten «sorgin ihizia».

Ez genituen oraino irakurriak behin fraile xahar batek idatzi zituen hitz hauek: *Elizarengatik paira daitekeena deus ez da, Elizarengatik pairatzen denaren aldean* eta, menturaz, horrengatik, ikustearekin Loiolako, Xabierreko edo Garaikoetxeko semeen odol bereko zenbat eta zenbat seme eta alaba hitz egiten ziren munduan barna eliza amaren zerbitzutan, eliza horren esker txarra jasan behar zutela gure herritar anitzek eta oroizat gure Euskal Herriak, ez genezakeen onets.

Ordu berean bizkitartean Pio XII.ak argitaratu zuen «Jesus Jaunaren gorputz misteriozkoa besterik ez den Elizaz» diharduen *Mystici corporis* deitu gutun famatua eta aita Zapelena Iruritako gure irakasle maitagarriarekin landu genuen gure fedearen hazkurri eskaintzen zitzaigun testu berri hori.

Zurrunmurraren arabera, delako gutunaren idazlea aita Tromp gure irakasle holandarra omen baitzen, laster ohartu ginen ez zutela batere gure bi ira-

kasleek egun berean finkatzen Eliza amaren sorteguna: jesuita holandarrak erranarazi nahi zion Aita Sainduari, Ostiral sainduz, Gurutzefikatuaren saihetetik jaio zela Jesusen gorputz misteriozkoa, jesuita nafarrak aldiz, tradizio osoari jarraikiz, gogor zeukan Mendekoste zela egiazko elizaren sortegun zuzena. Azkenean, Pio XII.ak berak jakinarazi zuen ez zuela batere eztabaida horretan sartzeko xederik izan. Beharrik!

Baguenen alabaina beste irakasle bat, aita Bertrams/jesuita alemana. Honen eskaintzen zizkigun teologia politikazko ikastaldiak, baina, egia erran, ez zitzaion entzule multzorik hurbiltzen. Bizkitartean ez dezaket ahantz, egun batez, bere biziko esperientziak sustaturik, agian, honelako hitzaldia atera zuela:

«Jaunak, ez dakit zuek guztiok apeztko zareten, baina uste dut guztiok nahiko duzuela kristau zintzo izaten saiatu. Jakizue, beraz, Jainkoaren lehen mamenduak eragozten diola idolatria kristau orori. Mende bakoitzak baditu ordea bere idoloak eta, gure mende honek estatua du bere idoloa. Ez zarete arauz nehoiz belaunikatuko estatuaren aitzinean!»

Gregorianako Unibertsitatetik eta Erromako harresietarik landa baziren bestalde, lan ixilean ziharduten teologoak eta, goiz edo berant, beren lanak argitaratzen zituztenak; hala nola, de Lubac-en *Catholicisme* edo aita Congar-en *Vraie et Fausse Réforme de l'Eglise*. Urrun zen ordea oraino Vatikanoko II. Kontzilioa eta urrun ere *Mystici corporis*-en irakaspenak garatuz, Kontzilio horretatik etorriko zen irakaspena, hots, Eliza dela, «Israelgo Populuaren ondarea eta, Jainkoaren Herria» adierazi zuen *Lumen Gentium*-en aldarrikapena.

Orduz geroz, gainera, Parisen nengoelarik, 1965/75eko hamarkadan, aita de Lubac-en ikasle ohi jesuita saboiar gazte bat aski hurbiletik ezagutu nuen, Michel de Certeau (1925-1986) zena: Fede handiko eta jakitate zabaleko gizon horrek idatzi zuen behin:

«L'Eglise ne se réduit pas à ce qu'on en voit, mais elle ne peut récuser ce qu'on voit d'elle. Ce que les observateurs constatent est indissociable de ce qu'elle est, c'est-à-dire, un signe réel de Dieu dans le monde.»

Hori bera euskaraz erran nezake:

«Eliza ez da mugatzen hartatik ageri den horretara, baina hartatik ageri den hori ezin du berak nehondik ukatu. Behariek ikusten dutena ez da bereizten ahal izatez den hartatik: hura baita Jainkoak munduari helarazten dion egiazko zeinua.»

Michel de Certeau adiskideak zioen bezala, kristauaren «eguneroko» esperientzia, laburbildu nahi banu, erran nezake berak proposatzen zuen definizio horrek bere baitan biltzen zituela Pio XII.ren, eta Vatikanoko II. Kontzilioaren irakaspenak, bai eta ere etxetik beretik ikasi eta sinetsi duguna, hots, Eliza dela gure «Ama Saindua».

Horra zergatik, Eliza bera eta Elizaren buruzagiak bide zuzenetik dabil-tzan beren herritarren beharrei ohartzen direlarik eta, adibidez, ogirik, etxerik,

lanik, eskolarik, aterperik, ohorerik gabe direnei heltzen zaizkielarik. Aitortuko dut/beraz/gogotik, Kontziliotik lekora, Jainkoaren Herria hurbildu zaiola, asko gisetara, herri xeheari eta jende xumeari: *Pacem in terris eta Populorum progressio*-k, adibidez, izan zuten eraginik munduan zehar eta, gutarik hurbilago, Franco hil aitzineko urte berean, 1974an. Eta *Kristautasuna herrientzat salbabidea* izan behar zela irakatsi zuelarik Añoveros Bilboko apezpiku jaunak, mezu horrek harrotu zituen bazterrak. Apaiz edo fraile eta euskaldun arrunt askori iduritu zitzaion, ezohiko mezua bidaltzen ziola, aspaldiko zorra ordainduz, Erromako elizak gure Herriari.

Bizkitartean ez dezaket ahantz, bizpalau hilabete lehenago, 1973ko abenduan, ildo bertsutik zozan tesia aurkeztu bainuen. Tolosako fakultate katolikoaren aitzinean, aita René Coste jaun irakasleak lagundurik eta, besteak beste, Pierre Eyt kardinale beharrak epaiturik, nola entzungor egin zuten ez bakarrik Baionako apezpikutegiak baina bai ere Pariseko irakasle edo argitaletxeek.

Lan hura bera atseginekin onartu zidan ordea Montréal-en, *Fides* argitalexeak eta argitaratu *Héritage et Projet* bere liburu-sortan, Guy Bourgeault Montréal-eko Unibertsitateko irakasleak eskaini aitzin-solas laburrarekin eta solas-ondo mamitsu batekin, *Le droit des peuples à leur identité* izenburupean.

Bazirudien orduan memento ona zela, Québec-en eta Euskal Herrian eta, menturaz, beste leku askotan, zenbaitek aipatzen zuten *Askatasun Teologia*-ren bidetik, Elizaren eta Estatuaren ohiko harreman hertsiegiei, Jainkoaren Herriaren eta herrien onetan, beste itxura baten emateko. Horra zergatik sartu nituen ene liburuan bi aipamen hauek:

«1. aipamena, jadanik aipatua dugun adiskide batena: kontzilioari hurbiletik jarraiki ondoan Pierre Eyt teologo gazteak idatzi zuen La Nouvelle Revue Théologique delakoan «*Le tournant politique de la théologie*» artikulua (1971-XII), adierazteko «orain arte, teologiaren alorrean, politika arazoketaz bazter xoko itsu, mugatu bat baizik ez baldin bazuten hartzen, hemendik aitzina gai horiek berak teologiaren erdi-erdiko lekuan jarri behar zirela eta bihurtu horren ondorioak noizbait ageriko zirela».

«2. aipamena aldiz, Jean Delumeau historialari ezagunarena: Kristau zintzo eta argi honek argitaratua zuen alabaina, 1977an, Parisen, *Le Christianisme va-t-il mourir?* liburu ausarta. Argi eta garbi erraiten zuen Jesus Jaunak berak erran baldin bazuen: «Ene erreinua ez da mundu honetakoa», Salbatzailearen irakaspen garrantzitsu hori, zorigaitzez, hamabost mendeetan barna, ahantzia izan dela historiaren arabera. «Botereaz jabetzea izan da alabaina, Elizaren bekatu nagusia eta ondorioz, askatasun, zuzentasun eta bake bidegile izan beharrean, jendearen indar zapaltzaile bilakatu da bera frangotan.»

Badu engoitik mende laurdena gogoeta horietan murgildurik gabiltzala eta geroztik anitz gauza gertatu dira: Jean Delumeau jauna, adibidez, Deustuko Unibertsitateak Doctor Honoris Causa, bere ohorezko irakasle izendatu du orain duela zenbait urte.

Pierre Eyt Bordeleko kardinal zena gazterik hil izan zaigu eta Larunseko semea bere sorterrian ehortzi dutelarik, gure ustez galtze handia izan da Ama Elizarentzat eta herriarentzat: tarteka baitirudi, Heletako bestaberrietan bezala gure dantza-jauziek egiten dutela: urrats bat aitzina egin orduko, beste bi urrats gibelera.

Ez dezagun bederen nehoiz ahantz bizitze iraganak eman irakaspena!

Badaukat ene paperetan gutun bat, nihaur Hazparnetik Parisera bidali nindutelarik 1965ean eta Erroman Biblia ikasten ari zelarik, André Hiriart-Urruty zenak handik bidali zidana, Jean-Paul Vincent, Lyonetik etorri, Baionako apezpiku berriarekin ezagutzak egin ondoan. Hona, komentariorik gabe, azken le-roak:

«Baionako apezpikuarekin afalduak gira duela bulta bat. Ez daut Hazparneko superior ohirik ez haren letrarik aipatu, Etxaluzen afera hortaz arras grïña haundia du, iduriz. Zerbaiten egitera entseatu dela erran daut, bainan ez duela deus ardietsi; funtsean libraraztea ardiets balezate ere, ez omen luke Baionako suprefetak Etxaluz eskola libroetan irakasle ikusi nahi.

Gauza batek nu harritu: apezpiku berri hau oraino aitzinekoa baino beldurtiagoa dugu naski. Kontzilioko eta diosesako beste gora-behera guziek baino grïña gehiago emaiten dako «eskualdun zombaiten politikak»: ez du berak airtortzen, bainan jateko artetik sujet hori dit gehienik aipatu. Eskualdun gazteria arrunt nahasten hasia omen da; funtsean Lafitte bera arras errebelatua dauka! Eskuarazko liturgia ez du zombaiten gosearen tronpatzeko baizik akulatu: zerbait musuikatzerat eman behar zen... kabalen arthotik begiratzeko!

Bego hortan gure Jaun Apezpikua eta, gauden gurean! Esperantza dut Hazparnetik eraman arregurak laster despeituko dituzula, zure sail berriari karraskan lotzeko. Izan kuraie zure lan handiari buruz, eta ez adiorik!»

* * *

Denok badakigu nola bururatu zen gau hartan Erroman hasi elkarrizketa hura eta geroztik zer izan ziren, hoguei bat urtez, Baionako apezpiku zenak Hiriart-Urruty André eta Jean bi anaia apaiz euskalzale zenduekin ibili urratsak. Beste komentariorik gabe, honetan bego gaurko solasa!

* * *

Eta azkenik, Erromako alde haietan euskaldunik baldin badago entzuteko eta ihardesteko nor denik eta, hari berari eginen diogu iragan hilabeteko *La Croix* kazetan Pirineo Atlantiketako fededun ezezagun batek egiten zuen galde hura bera, ea, noiz ote Erromako Elizak uko eginen dion Vatikanoko Estatuaren egitura eta lotura zaharkituari. Egoki ahal baita eta zuzen, Jainkoaren Herriak izan dezan ez estatu arteko estatutxo baten itxura, baina bai estatu guztien azpitik edo gainetik elkartzen dituen herri desberdinen antza.

**NAFARROA OINEZ 2003 DELA ETA, EUSKALTZAINDIK
ANTOLATURIKO VII. JAGON JARDUNALDIK: EUSKARA
ETA IRUÑEKO ETA TUTERAKO ELIZBARRUTIETAN**

Irunberri/Lumbier, 2003-IX-19



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

IRUNBERRI / LUMBIER

**"Nafarroa Oinez 2003" dela eta,
Euskaltzaindiak
antolatutako ekitaldiak**

*Actos organizados por la
Real Academia de la Lengua Vasca /
Euskaltzaindia con motivo del
"Nafarroa Oinez 2003"*

**2003ko irailaren 19a
Udaletxeko Hiriaren Aretoa**

*19 de septiembre de 2003
Sala de la Villa del Ayuntamiento*



AYUNTAMIENTO DE LUMBIER
IRUNBERRIKO UDALA



JAGON SAILA
SECCIÓN TUTELAR

Sailburua / Director: Andres Urrutia

Sustapen batzordea / Comisión de Promoción

Batzordeburua / Presidente:	Andres Urrutia
Idazkaria / Secretario:	Andres Illigo
Kideak / Miembros:	Erramus Bacok Pierre Charrignon Aingeru Epaltza Henrike Knörr Juan M. Lekuona Erramus Osa Manuel M. Ruiz Urrestarazu
Aholkulariak / Asesores:	Jose Luis Lizundia Juan San Martin

Onomastika batzordea / Comisión de Onomástica

Batzordeburua / Presidente:	Andres Illigo
Idazkaria / Secretario:	Mikel Gorrotxategi
Kideak / Miembros:	Patxi Galé Pierre Charrignon Henrike Knörr Jose Luis Lizundia Txomin Peillen Patxi Salaberri Zaratiegi Juan San Martin Amaia Usabiaga

Antolaketa batzordea / Comisión Organizadora

Andres Illigo Pello Telleria Amaia Okariz Gema Insausti
--

Laguntzaileak / Colaboradores

Isabel Elizalde, Nafarroa Oinez 2003ko koordinatzailea Iruñerriko Arangoiti Ikastola

NAFARROA OINEZ: BIENVENIDA A EUSKALTZAINDIA

Lumbier/Irunberri, 19-IX-2003

*Jose Enrique Garcés Allo,
Presidente de la Ikastola Arangoiti*

Todas las familias que formamos la Ikastola Arangoiti les damos la bienvenida a Lumbier a los miembros de la Real Academia de la Lengua Vasca y les queremos agradecer la organización de estos actos con motivo del *Nafarroa Oinez 2003*.

Gracias de antemano también a todos los ponentes y asistentes y al Ayuntamiento de Lumbier por su presencia y su colaboración.

Eusebio Rebolé en su libro «Historia de la Villa de Lumbier» dice «Que el euskera es la lengua materna de Lumbier no es difícil probarlo... Son los mismos lumbierinos del siglo XVII quienes nos darán noticias sobre el uso de la lengua vasca.» «En el archivo diocesano hay dos procesos que figuran la cuestión lingüística como motivo de litigio para provisión de vicarías en Lumbier.»

«Aún siendo la lengua madre de Lumbier el euskera, según testimonios en aquellos años la mayoría de la población del Lumbier era bilingüe conociendo la lengua romance y la vascongada, si bien existía numeroso grupo de personas que sólo conocían la lengua vascongada.»

Hoy iniciado ya el siglo XXI, después de la pérdida de nuestro idioma materno hace más de 200 años, Lumbier empieza a ser de nuevo bilingüe. La aparición de un centro de enseñanza en euskera hace 23 años y el trabajo de organizaciones de alfabetización de adultos como AEK, están haciendo posible que recuperemos el que fue nuestro idioma original durante cientos de años.

Sin el trabajo que realiza Euskaltzaindia de cuidado e investigación del euskera, esta recuperación del euskera, no como adorno cultural, sino como vehículo de comunicación, no hubiera sido posible. Agradecemos nuevamente la organización de estos actos en Lumbier por el apoyo que supone para la Ikastola y para la recuperación del euskera.

VII. JAGON JARDUNALDIEN AURKEZPENA.
VII JORNADAS DE LA SECCIÓN TUTELAR DE
LA R.A.L.V./EUSKALTZAINDIA

Andres Urrutia,
Jagon Sailburua
Irunberri/Lumbier, 19-IX-03

Egunon / Buenos días

Como Presidente de la *Sección Tutelar* de Euskaltzaindia me cumple hoy presentar junto con la directora de la ikastola Arangoiti de Irunberri/Lumbier Doña Nora Uribeetxebarria y mi compañero el académico de número y delegado de Euskaltzaindia en Navarra, Don Andrés Iñigo, los actos organizados por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia con motivo del *Nafarroa Oinez 2003*.

Dado que mis compañeros de mesa se extenderán mas en detalle sobre las actividades a desarrollar por Euskaltzaindia el próximo viernes en Irunberri/Lumbier, permítanme centrarme aquí y ahora en el tema que va a reunir a la Sección Tutelar de nuestra academia en sus séptimas jornadas.

Muchas veces se piensa en Euskaltzaindia como una institución de rango y ambiciones únicamente filológicas, carente de cualquier preocupación por el empleo social de la lengua. Nada más lejos de la realidad. Desde su propia fundación, allá por el año 1918, Euskaltzaindia ha desarrollado su labor a través de dos grandes secciones, la de investigación (*Iker Saila*) y la de Tutela (*Jagon Saila*), intentando abarcar no solo el cultivo de lo lingüístico, sino también lo relativo al empleo del euskera en los diferentes territorios de lengua vasca.

Es éste uno de sus rasgos característicos, que demuestra su personalidad y los objetivos de sus fundadores. Así, la Academia se preocupa del empleo de la lengua por las diferentes instancias e instituciones que hoy tienen repercusión en la vida de los euskaldunes.

Ni qué decir tiene que una de esas instituciones, de capital importancia para la vida de la lengua, ha sido y lo es la Iglesia Católica. Las necesidades de predicación y catequesis de una población que en muchos casos no conocía otra lengua que el euskera, llevaron en fechas tempranas y especialmente tras el Concilio de Trento, a dictar diversas disposiciones que garantizaran el uso del euskera en los quehaceres eclesiásticos.

La larga nómina de autores y obras religiosas en euskera resulta la confirmación evidente de lo dicho. Pero la historia no se detiene y dentro de la

Sección Tutelar, la Comisión de Fomento de Euskaltzaindia decidió el año pasado iniciar una ronda de exposiciones sobre el empleo actual del euskera en las diferentes diócesis de los territorios de lengua vasca. Tras Baiona-Oloron-Lescar, le toca ahora el turno a Iruñea-Tutera y el próximo año a Gasteiz-Bilbo-Donostia, todo ello en un intento, desde el respeto a las pautas propias de cada institución, de hacer una radiografía fidedigna y veraz de la presencia del euskera en la actividad pastoral de la Iglesia Católica.

Tengo que dar las gracias a los que con su impagable labor han posibilitado estas jornadas y especialmente a la ikastola y pueblo de Irunberri/Lumbier, a los conferenciantes y asistentes y sobre todo, subrayar una vez más el vínculo de Euskaltzaindia con Nafarroa, vínculo que se refuerza con nuestra presencia y nuestro ánimo para el *Nafarroa Oinez*.

* * *

Luze eta zabal mintzo daiteke Elizak euskararekin izan duen jokabideaz. Jakina denez, historiak eta euskalgintzak etengabe erakusten digute haren eragina gure hizkuntzaren bilakaeran.

Iraganak, hala ere, ez gaitu itsutu behar. Argilunak baditu ere, askoz esanaratsua da oraingoa eta, zer esanik ez, gerogarrenkoa. Bi horiek ditugu xede eta helburu, Euskaltzaindiaren *Jagon* Saileko Sustapen Batzordean. Hartara ere, etorri gara Irunberrira, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan euskarak zer eta nola hausnartzeko eta gizarteratzeko.

Sarritan gertatzen da, halakoak ikertzerakoan, baiezko eta ezezkoaren alde temati jartzea, egoera baten errudun bakarrak erakundeak balira bezala. Ez da hori gure asmoa. Aitzitik, gogoz eta jardunez gaia jorratu eta zuen aurrean izango dituzue horretarako adituak, haienak entzun eta barrura ditzagun.

Argigarrien txanda ere izango da, erruz eta ugari emango zaizkigun xehetasunak banan-banan eta ezari-ezarian ehotu beharko ditugulako.

Eskerrak azaldu ditut lehen, gaztelaniazko berbalditxoan, Euskaltzaindiaren izenean, jardunaldi hau bideratu duten hainbatentzat. Aparte utzi dut, beharbada nire kutunkeriaz, osterantzeko eskerrak eta laudorioak ematea. Halakoak merezi dituzte egunerokotasunaren zama pisutsua daramaten apez euskaldunek. Zilegi beraie artean nire omena Jose Mari Satrustegi euskaltzainkide nuenari zuzentzea. Haren antzera, eredugarri egiten duzue zuek Euskal Herriaren hiri eta herri euskaldunetan, euskara eta fedearen barne-muina elkarturik eta uztarturik bizitzea.

Horien eskuetan egon da eta badago, egun ere eta neurri batean bederen, euskararen etorkizuna Nafarroan. Beste neurri handi batean, ikastolen zabalitze eta hedatzean. Horra hor, herriz herri, Euskaltzaindiak azken urteotan agurtu dituen nafar ikastolak. Horiei luzatzen die gaur Euskaltzaindiak bere abegi eta harrera osoa, euskararen aurrerakuntza bidean lankide, esku zabalik eta prest ikus eta senti dezaten Euskararen Akademia.

Mila esker zuen arretarengatik!

EUSKARAREN ERABILERA NAFARROAKO ELIZAN

Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan egiten den euskararen erabilerari buruzko azterketa soziolinguistikoa

Iruñea, 2003-IX-19

Xabier Lasa

I. EUSKARAREN ERABILERA IRUÑEKO ETA TUTERAKO ELIZBARRUTIETAN: EGOERA OFIZIALA

Euskarari edo euskararen erabilera pastoralari buruzko eliz-doktrinaren azterketa bat egitean denboran oso atzera jo genezake, horrela nahi izanez gero. Izan ere, euskara aztergai eta eztabaidagai izan da betidanik Nafarroako Elizan, gure lurra kristautu zen antzinako mendeetatik, hain segur. Anitz gauza idatzi daiteke ikuspegi historiko zabal horretatik, eta anitz gauza legoke oraindik esateke.

Baina gure asmoa ez da historialariarena, apalagoa baizik. Gaur egungo egoera aztertzea mugatzen gara eta, bigarren atalean eskainiko dugun datuen ikuspegiari begiratu aitzin, eguneroko lanean eragin saihestezina duen elizbarrutiko arautegiari so egin nahi izan diogu. Errealitatea kokatu eta bere neurrian aztertu ahal izateko nahitaezko lana baita. Horregatik ez gara denboraz oso atzera joanen; azken hogeita hamar urteetako egoera ofiziala aztertzea mugatuko gara.

Izan ere, Nafarroako pastoraltzaren erantzule nagusiek, Apezpikuek eta kuriako erakunde nagusien arduradunek, alegia, ardua izan dute, oro har, euskararen erabilpenari buruzko iritziak emateko. Ideia, gogoeta eta arau horiek maila teoriko batean kokatzen gaituzte betiere, eta kontuan hartu behar da alde teorikoak, praktikari aurre egiten diolarik, hainbat arazo eta eragozpenekin talka egiten duela. Errealitateak, batzuetan, ez du zehatz-mehatz isladatzen alde aurretik pentsatu den portaera. Dena den, alde teorikoak ezagutzeak aukera ematen du ofizialki esaten dena zertan datzan ikusteko eta eguneroko errealitatearen zerizana behar bezala aztertzeko.

Euskararen erabileraren inguruko begirada ofizial hori ezagutzeko azken hogeitamar urteak hartu ditugu erreferentzia gisa, izan ere, diktadura garai ilunetan ezer gutxi esan zen praktikan baztertua eta askotan pertsegitua zegoen gure hizkuntzaren erabilera liturgiko eta pastoralari buruz. Egia da egoera gogorrenetan ere badirela euren komentzimendu sakonei eusteko prest egoten di-

ren pertsonak, eta zerrenda luze bat osa genezake frankismoaren garai ilunetan euskararen aldeko lan isil eta handia egin zutenen izenez. Baina lantxo honetan alderdi publiko eta ofizialera mugatuko gara.

Azken hogeita hamar urte hauetan hiru Artzapezpiku izan ditu Iruñeko Elizbarrutiak: Jose Mendez, eta berarekin batera, Jose Maria Larrauri, Apezpiku laguntzaile gisa; Jose Maria Zirarda eta gaur egun Artzapezpiku karguan jarraitzen duen Fernando Sebastian.

1. JOSE MENDEZ ARTZAPEZPIKUAK ETA JOSE MARIA LARRAURI APEZPIKU LAGUNTZAILEAK SINATUTAKO «IRUÑAKO APEZPIKUTEGIAK EUSKERARI BURUZ PASTORALGINTZA ALDETIK» IZENEKO OHAR PASTORALA (1)

Ohar pastoral horrek hasiera bat markatzen du euskarari buruzko arautze ofizialari dagokionez; izan ere esan daiteke hori izan zela Nafarroako Apezpiku batek, modu ofizialean, euskararen erabilerari buruz zerbait agintzen zuten lehen aldia. Ondoren etorri diren beste irizpide eta gogoeta gehienek idazki horren esanak erreferentzi gisa hartzen dituzte.

Agiria hiru ataletan banatua dago: «I. Egoera», «II. Argibideak», «III. Zer egin».

Egoera aztertzean, I. atalean, hiru puntu interesgarri hartzen ditu kontuan: norik erabiltzen duen euskara, euskara nafar kultur ondarea eta euskararen erabilerak azken denboretan egin duen atzerapena (2):

- «Nafarroako kristau erriak erabiltzen dituen izkuntzetako bat da euskera... Ori gertatzen da, batez ere, *Euskarazko Pastoraltzako Lurraldea* deitutakoan, baita Pirineo aldeko leku batzuetan ere, eta ezin aztu dezakegu Iruñan eta Iruña-inguruan bizi diran ainbat euskaldun.
- Kultura eta kondaira aldetik nafar erriak dituen ondasunetako bat euskera du. (...)
- Azken aldiotan, euskerak atzeraldi kezagarri egin du. Askok izan dira atzeraldi orren eragileak, batzuk geiago, besteak gutxiago. Zergatik gertatu den ori, ez da emen aztertzekoa, bañan bai bere gordin guzian aitortzekoa; orregatik erantzukizuna guztiona bait-da, baita Elizarena ere, egoki jokatu bearra dugu gure izkuntzaren geroari buruz».

Hitz hauetatik ondorio batzuk atera ditzakegu:

- Euskararen erabilera pastoralak barnean hartu behar duen lur-eremuaren lehen zedarritze bat seinalatzen du, oso orokor eta zehaztapenik ga-

(1) 1974ko abuztuaren 15ean sinatua eta 1974ko iraileko Elizbarrutiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 545-550 or.

(2) Testuak aipatzean jatorrizko idazkiak erabiltzen duen euskara errespetatu da.

bea izan arren. Honakoa litzateke: Euskarazko Pastoraltzako Lurraldean (ez da zehazten zein den); Pirinio aldeko leku batzuk; eta Iruñea eta Iruñerria.

- Bereziki aipatu egiten da euskararen erabilerak atzera jotzen duela modu kezagarriaz. Egoera sakontasunez aztertu ez arren, aipatzen du Elizak ere bere erantzukizuna izan duela emandako atzeratze-prozesu horretan eta, aurrerantzean, egoki jokatu beharko duela «gure hizkuntzaren geroari buruz».

Argibideetan, II. atalean, beste hiru iritzi esanguratsu eskaintzen zaizkigu:

- «1go. (...) gure Elizak euskera erabili bearra dauka bere erriko kristau eskaldunei ebanjelioa ots-egiterakoan eta kristau ikasgaiak ematerakoan. (...)
- 2en. Elizak... erriari zor dion leialtasunagatik, aitortzen du eskubide dutela gure erriak eta erriko guziek beren izkuntza erabiltzeko egunoroko bide bezala Jainkoarekin eta gizonekin dituzten artu-emanetan; baita beren kultur-aldeko zañei sendo eusteko ere, beren izaera beraren zati berezi bait-dire zaña oiek.
- 3en. Are geiago: gogoan izanik euskerak gure artean dituen oztopoak, Napparako Elizak uste du, bereziki leiatu eta saiatu bear duela zaintzen eta lantzen gure gizonek eta kristauak duten kultur-ondasun aundi au.»

Hitz horietatik ondorio hauek atera daitezke:

- Elizak euskara erabili behar du ebanjelioa hots egitean. Horretarako *Gaudium et Spes* Vatikanoko II.eko Konstituzioa aipatzen da bereziki.
- Euskararen erabilera herritarren eskubide bat da, eta erlijio- zein eliz-eremuetara eraman behar da.
- Eliza saiatu behar da euskara bereziki zaintzen, arriskuan dagoen kultur ondare bat baita.

Ohar pastoralaren III. atalak, «Zer egin» izenekoak, arau konkretu batzuetan laburbiltzen du lehen aipatu den euskararekiko jarrera praktikoa bideratzeko planteamendua. Honako hauek dira:

- «1go. (...) Jakingarrien diren Elizbarrutiko agiri guztiak gaztelaraz eta euskeraz argitaratuko dire.
- 2en. Legezko balio ematen zaie Eliz-landan euskeraz idatzitako agiriari.
- 3en. «La Verdad» delakoaren zati bat (irakurletan euskaldunak zenbat diren araberan) euskeraz argitaratuko da.
- 4en. Oso-osoan euskaldun diren errietan liturjia euskeraz egin bearra da, jakina.

- 5en. Bi izkuntzetako errietan, geienek euskera erabiltzen dutelarik, euskera erabiliko da geien liturji elizkizunetan (...)
- 6en. Euskera garbiki atzera egiten ari den errietan, ikus bedi nola lortu laiken arentzat toki egoki bat elizkizunetan.
- 7en. (...) beharrezkoak dire euskerazko elizkizunak Iruñan eta beste erri batzuetan ere (...)
- 8en. Beilak direla-ta, edo erromes joatea dala-ta, nabarmena delarik euskaldunen taldea, gogoan izan bitez emen azaldutako iritziak eta eman bezaio euskerari dagokion tokia.
- 9en. Liturjirako emandako iritzi aukerak balio dute kristau-ikasbidea delarik gai (...)
- 10en. Ikasle euskaldunak dituzten Elizako ikastetxeetan gogoan izan bearko dute egoera ori, naiz liturjirako, naiz beste elizkizunetarako. (...)
- 11en. Euskaldunak artzen dituzten erietxeetan, eta batez ere Iruñako eritegi nagusienetan, izan bitez eri euskaldunei ongi serbi dezaieketen euskaldun apez eta erlijiosoak.
- 12en. Euskaldunak naiz biltzen diren Naparroako Santutegi nagusienetan, onona izango da euskerazko elizkizunak egitea, eta aitortzak euskeraz entzun dezaketanak izatea.
- 13en. Pastoralgintzako arau aukerak bete bear dituzten etxeak dituzten erlijiosoen nagusiek al guzia egin bear dute euskaldunei ongi serbituko dieten erlijiosoak izan daitezen».

Euskararen erabilera non gauzatu behar den esaten saiatzen dira arau horiek. Hala ere konprezio maila oso orokorra da. *Zereginak* atalean euskararen erabilera gauzatzeko burutu behar diren ekimen hauek aipatzen dira:

- Garrantzizko eliz agiri guztiak elebiz argitaratzea.
- Zati bat euskaraz argitaratua La Verdad astekarian.
- Liturgia eta elizkizunak euskaraz egin herriaren euskaldun-kopuruaren arabera.
- Kristau-ikasbidean edo katekesian euskara erabili herriaren euskaldun-kopuruaren arabera.
- Elizako ikastetxeetan burutu daitezkeen balizko elizkizun eta beste ekimenak euskaraz ere eskaintzea.
- Gaixoei zerbitzua euskaraz eskaintzea.
- Erromesaldi eta santutegietan aitortzak euskaraz egiteko aukera eskaini, euskaldunen presentziaren arabera.

Pertsona eragileak: agiria irakurri ondoren, lana bere gain hartu behar duten pertsonetako batzuk seinlatu daitezke:

- La Verdad-en kolaboratzen dutenak.
- Apezek, zentzu onak gidatuak, antolatu behar dute euskaraz eman beharreko zerbitzua herrietan.
- Itzulpen ofizialak eta Iruñe-Iruñerriko euskarazko elizkizunak antolatzearaz «Euskarazko Pastoralgintza Zerbitzua» arduratuko da.
- Ikastetxeetako arduradunak.
- Erietxeetan zerbitzua ematen duten apez eta erlijiosoak.
- Santutegi Nagusietako arduradunak.
- Erlijiosoen nagusiek, euren ordenetako komentuek aipatu toki edo zerreginetan inplikatuak badaude.

Gogoeta batzuk:

- Ohar pastoral horren azterketaren ondorio gisa esan daiteke, euskararen erabilerari dagokionez, gertaera garrantzitsu baten aurrean aurkitzen garela. Nafarroako Elizak, bere maila gorenetik, euskararekiko kezka eta konpromisoa agertzen ditu instituzio gisa. Zentzu horretan azpimarratu beharrekoa da Nafarroako Elizaren jokabidea, 1974. urte horretan, aurrekari bat kontsideratu daitekeela; izan ere instituzio zibilen aldetik oraindik maila sinbolikoa gaintzen ez zuen ekitaldiren bat baizik egiten zelarik, Elizak bere baitarako ardurak gisa hartu eta euskararen erabilerari arautze positibo bat emateko ausardia izan zuelako. Frankismoaren azken urte horietan ez zegoen euskarari buruz hain argi mintzo zen gizarte-erakunde ofizialik.
- Ohar pastoralaren lehenbiziko arauak esaten duenez (3) «nolabaiteko garrantzirik duten Elizbarrutiko agiri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira». Hitz horiek ofizialtasun oso zabala ematen diote euskarari.
- Gaineratu daiteke, era berean, emandako arau horiek hutsuneak dituztela. Horietako nabarmen bat tokiak eta arduradunak aipatzean erakusten duen konkretzio falta litzateke. Dena den, garaiko egoera eta ikeritze sozio-linguistikorako baliabideak kontuan hartuta zaila zen oro gaur

(3) Iritziak iritzi, aipatu behar da kasu honetan euskarazko itzulpena ez dela oso zehatza, jatorrizko testuak –segur aski erdaraz idatzia- horrela baitio: «todos los documentos eclesiales diocesanos de relativa importancia se publicarán en castellano y en euskera»; itzulpenak, ordea, horrela dio: «jakingarrien diren Elizbarrutiko agiri guztiak gaztelaraz eta euskeraz argitaratuko dire».

egun onargarri egiten zaigun konkrezio-maila batera iritsi ahal izatea. Bestaldetik, pentsatzekoa da Elizak horrelako erabakiak hartzean, kontzientea zela apezen eta erlijiosoen joeren aniztasunaz. Ohar pastoral hori ematean zuhertasunaz jokatu zuten.

- Seinalatu daitekeen beste hutsune nabarmena Seminarioaren arazoa litzateke, ez da ezer aipatzen apezgaien heziketaz eta, oro har, teologia Elizbarrutiko ikastetxeetan ikasten dutenen programetan euskarak izan beharko lukeen tokiaz.

2. JOSE MARIA ZIRARDA, IRUÑEKO ARTZAPEZPIKU JAUNAK SINATUTAKO «OHAR ZONBAIT EUSKERARI BURUZ PASTORALGINTZA ALDETIK» IZENEKO OHAR PASTORALA (4):

Jose Maria Zirarda Artzapezpikuaren ohar pastoral horrek bere egiten du bere aurrekoek esandako guztia eta, horiek arautua utzi zutenetik abiatua, 1981. urteko errealtate berriari egokitzeko asmoa agertzen du (5). Ohar pastoralara sarreratxo batekin hasten da eta hiru ataletan banatua dago: «I. Oinarri Orokorrak»; «II. Gaurko Giroa»; eta «III. Ekintza-arauak». Hirugarren atala beste hiru azpi-ataletan berezita dagoela.

Oinarri Orokorrak izeneko I. atalean, funtsean, Jose Mendezen ohar pastoralaren lehenengo atalean esandakoa gogoratu eta horren balioa berretsi baino ez da egiten. Horrela, herriak eta herritarrek Jainkoarekin eta gizonekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea gogoratzen da, euskara nafarren kultur ondare bat dela esaten da eta, euskarak bizi duen atzeratze-egoeraren aurrean, Elizak euskararen erabileraren bultzatzaile izateko eginbeharra duela azpimarratzen du. Azken baieztapen horri garrantzia berezia ematen zaio eta Elizaren euskararen aldeko joera seinalatzen duen paragrafo bat gehitzen du:

«Iltzeko zori larrian dagon egiazko oroigailu bizia baldin bada euskera, buruz eta gogoz ahal egin behar dugu denok, Eleiza barne, beraren salbatzeko, Naparroak ondorez izan dituen erti-aberastasun diren hainbat oroitarri salbatzera lehiatzen garen bezala (6)».

(4) 1981eko irailaren 8an sinatua eta urte bereko urriko Elizbarrutiko aldizkari ofizialean argitaratua, 309-316 or.

(5) «Gure egun hoketan gaurkotasun haundiagoa du orduan esan eta aginduak. Iruñen eta Naparroako herri batzuetan ikastolak ugaritu diren hortan, *lingua navarrorum*, naparren izkuntza berezia deitutako euskerak, kultura eta kondaira aldetik, egunetik egunera oniritzi haundiagoa iritxi bait du bere alde. Egoki da, beraz, delako argibidearen puntu eta egi nagusiak oroitaraztea eta gaurkoratzea, gure egunetako egoera eta Eleizaren erabakiak kontuan edukiz; Liturgi-liburuak euskeratzeko eta beste herri-izkuntzetara itzultzeko eman ziren erabakiak bereziki». Ik. Elizbarrutiko aldizkaria, 1981eko urria, 313.or.

Gaurko giroa izeneko II. atalean, ohar pastoralak dio Jose Mendezen arauak argitaratu zirenetik pasa diren zazpi urteotan ez dela toki guztietan lan berbera egin eta, horregatik, ondorioak ez dira herri guztietan berdinak izan. Apezen erantzukizunak erabaki du, azken unean, euskararekiko pastorgintza-ren nondik norakoa. Zentzu berean gogoratzen da, 1980eko ekainean, Presbiterio-Kontseiluak egindako bileran, apez euskaldunek egoerari erantzun egokibat emateko eskatu zutela. Horren ondoren, Pastortzazko Bikaritza Nagusiak hainbat bilera burutu zuen lehengo arauak berrikusteko eta «egunean eguneko beharren arabera indarberritzeko (7)».

Ekintza-arauak izeneko III. atalak euskararen erabilerari buruzko hamasei arau ematen ditu. Hiru azpi-atal edo multzoetan banatzen dena: «I. Euskararen legezko balioa»; «II. Liturgi ospakizunak»; «III. Ezi Pastorgintza» (Hezkuntza-Pastorgintza). Hona hemen baieztapen garrantzizkoenak (8):

I. Euskeraren legezko balioa

- «(...) euskera erdara bezala, Eleizaren izkuntza ofiziala izanen da Naparroan. (...)
- Euskeraz idatzitako agiri eta Sakramendu-Liburuei legezko balio emanen zaie eleiz-landan (...)
- «La Verdad» orriari argitaratuko da, orain arte bezala, igandeetako Ebanjelioaren argipena. Beste zombait berri ere emanen dira euskaraz.

II. Liturgi ospakizunak

- Oso-osoan euskaldun diren herrietan, liturgia euskeraz egingen da. (...)
- Bi izkuntzetako herrietan, gehienik erabiltzen dan izkuntza erabiliko da gehienbat irakurgai, kantu eta sermoietan. Elizkizun berean bi izkuntzak erabili daitezke, behar neurrian (...)
- Euskera garbiki atzera egiten ari den herrietan, euskera oso gutxi erabiltzen dutenetan, apaizek zentzuz eta zuhurki begiratuko dute euskerak xoko atsegin bat ukan dezan, eleizan bederen, herrian gelditzen diran euskaldunendako, euskal kantu eta otoitz herrikoiei ezagutuenak erabiliaz.
- Iruñean eta jenderik gehiena erdalduna dan herrietan sakabanaturik bizi diran euskaldunentzat (...), elizkizun bereziak eratu dituzte.
- Beilak direla, edo erromes joatea dala, nabarmena bada euskaldunen taldea, emanen zaio euskerari dagokion lekua elizkizunetan.

(6) *Ibidem*, 313.or.

(7) *Ibidem*, 314.or.

(8) *Ibidem*, 314-316.or.

- Naparroako zombait lekutan: Orreaga, Aralar adibidez, biltzen dira kristau euskaldunak. Egoki da holakoetan aitortzak euskaraz entzuteko apaiz euskaldunak bertan izatea.
- Eri-etxeetan, bereziki Iruñekoetan, beharrezkoak dire zombait apaiz euskaldun, eri euskaldunen serbitzuko, bereziki eri euskaldunak konfesatzeko.
- (...) euskera ez dakiten apaiz, erlijioso eta kristauek ahal guzietan egin behar lukete euskerazko kantu eta liturgiko erantzun zombait ikasteko. Hala adieraziko dute heuren senide-atxikimendu eta begi ona Eleiz-Barrutiko kristau euskaldunekin.

III. Ezi-pastoralgintza

- (...) Euskal lurraldeko eskola bildu eta ikastetxetan, eta Naparroa guziko ikastoletan euskera erabiliko da kristau-ikasbidea ematean. (...)
- Eleizaren eskoletara joaten diran ikasle euskaldunak, izanen dituzte heurandako elizkizun zombait euskaraz (...)
- Ezi-arau hauek bete behar dituzten etxeetako erlijioso-nagusiek eginen dute ahal guzian bertara biltzen diran ikasleek ukan ditzaten gisaz begiratu dituzten apaiz eta irakasleak».

Oro har esan daiteke Jose Maria Zirardaren arau horiek 1974. urtean Mendez Artzapezpikuak emandakoak berretsi eta osatzen saiatzen direla. Badute, hala ere, aipagarri den ekarpen berri bat: euskara, gaztelaniarekin batera, Nafarroako Elizako hizkuntza ofizial bezala hartzen dute.

Gogoeta batzuk:

- Esan dezakegu arauak euskararen erabilera non, zertan eta nork gauzatu behar duen erantzuten saiatzen direla. Non gauzatzeari dagokionez gauzak ez dira gehiegi aldatzen; lehen esandakoa errepikatzen da eta, herri euskaldun, erdi euskaldun eta euskara atzeraka dabilen herriez mintzatzen da. Lehen bezala santutegi eta ospitaleak euskal pastoraltzaren gune bezala seinalatzen dira. Hala ere, santutegiak aipatzean Aralar eta Orreaga seinalatzen ditu espreski. Erietxeek mintzatzean Iruñekoak bereziki aipatzen ditu. Eta azpimarragarria da ohar pastoral honek Elizaren ardurapeko eskolak bereziki aipatzen dituela kristau-ikasbidea euskaraz emateko gune berezi gisa.
- Egin beharreko lanari dagokionez honako hauek aipatzen dira:
 - herri euskaldunetan liturgia euskaraz eginen da;
 - bi hizkuntzak erabiltzen dituzten herrietan euskara zein gaztelania erabili beharko da elizkizunetan, irakurgai, kantu eta predikuetan, behar den neurrian;

- euskara atzera egiten ari den herrietan euskarak toki atsegin bat izan behar du elizkizunetan, kantu eta otoitz ezagunenak erabiliz;
 - Iruñean eta euskaldun multzo sakabanatua duten hiri handietan elizkizun bereziak antolatuko dira euskaldunendako;
 - kristau euskaldunak biltzen diren santutegietan (Aralar eta Orreaga bereziki) aitortza sakramentua euskaraz egiteko aukera eskaini behar da. Gauza bera eskainiko da Iruñeko ospitaleetan;
 - ikastetxe eta ikastoletan kristau-ikasbidea euskaraz eskainiko da eta Elizaren ikastetxeetara joaten diren ikasle euskaldunek aukera izanen dute haiendako elizkizun batzuk euskaraz izateko; horretaz gain, Elizaren ardurapeko eskola-zuzendariek ahalegin bat egin beharko dute euskara eta euskal kultura suspertzeko.
- Lan hori egiteko pertsonak ere aipatzen dira eta badira hainbat gauza bereiztekoak. Euskararen erabilera pastoralala bultzatzeko eragile nagusiak apezak izanen dira. Horien ardura da euskara «La Verdad» astekarrian erabiltzea, liturgia-azalpenetan eta berriak ematean. Haien ardurapean dago herrietako liturgia antolatzeako erantzukizuna eta euskaraz zein erdaraz eginen diren gauzak zehaztea. Hala ere, Iruñeko euskarazko elizkizunak antolatzea Pastoralatzako Bikaritzaren esku geratzen da, artzapez eta erretoreekin batera (9). Agiri ofizialak eta liturgia-liburuak euskaratzeko, Euskarazko Pastoralgintzarako Idazkaritza bat sortuko da (10). Bereztasun gisa seinalatu behar da euskara ez dakiten apez, erlijioso eta kristau laikoei ahalegin bat eskatzen zaiela («senide-atxikimendua» esaten da zehazki) hainbat euskal kantu eta otoitz herritarrak ikasteko, elizkizun inportanteenetan euskaldunekin batera konpartitu ahal izateko. Hezkuntza arloan egin beharreko lana eliz-ikastetxeetako erantzule diren erlijiosoen nagusiengana jotzen da; haiek arduratu behar dira euskarari dagokion ikasketak gauzatzeko gai diren erlijioso edo irakasleak bilatzeaz (11).
 - Ohar pastoral horren arabera, Elizak euskararen babesean egin behar duen ahalegina deigarria da. Eliza ez da gizarte-arazo horren aurrean kanpo geratzen, ahal duen neurrian eta, betiere, bere lan-eremura mugatua, baina euskararen defentsarako jarrera aktibo bat hartzeko borondatea erakusten du. Aurrekariekin konparatua hezkuntza arloari ematen dion garrantzia beste ekarpen bat litzateke. Lehenengo ohar pastoralean aipamen xume bat egiten zen 10. arauan; orain azpi-atal oso bat eskaintzen zaio gaiari, hiru artikuluz osatua. Aipagarria da, halaber, erlijiosoei, eliz-ikastetxe askoren arduradunak diren neurrian, bereziki

(9) 8. araua.

(10) 1. araua.

(11) 16. araua.

egiten zaien euskal pastoraltza bultzatzeko erantzukizun eskaera. Hutsune bezala, jadanik aipatua izan den erabilera-guneak zehazterakoan duen konkretzio faltaz gain, berriz ere, Seminarioaren eginkizuna aipatu gabe gelditzen da.

3. ELIZBARRUTIKO SINODOA ETA EUSKARA:

1987-1989 urteen artean, Iruñe eta Tuterako Elizbarrutiek Sinodo bat ospatu zuten. Sinodoa gertakari handia izan zen gure Elizaren bizitzan eta Elizbarrutiaren zeregina eta norabidea birplanteatu nahi izan zituen kristau guztien ahotsak entzunez. Asmo horretan ez zen faltatu euskarari buruzko hausnarketa.

Sinodoa, gertakari handia izanik, fase diferente eta progresibotan garatu zen. Lehenbizi parrokia eta elkarteetan lana burutu zen. Horretarako Nafarroako Eliz eta gizartearen errealitatean sakontzea ahalbidetzen zuten bederatzai gai prestatu ziren. Aipatu behar da gai horien arteko 9.ak «Fedea eta kultur aniztasuna Nafarroan» izena zeramala eta, besteak beste, euskara eta bere erabilera aztertzen zuen. Lehenbiziko fasetik Sinodoko batzarre nagusietan, bigarren fasean alegia, ordezkariak eztabaidatu eta bozkatu beharko lituzketen proposamenak aterako lirateke. Euskarari dagokionez zortzi proposamen eraman ziren batzar nagusietara (12):

152. *Elizbarrutiko Euskal Pastoraltzaren Idazkaritza sor dadin, erakunde horrek euskara hizkuntza ofizial bezala onartzen zuten 74ko 8aren 15an argitaratutako Euskarari buruzko Pastoral eta 81eko 9aren 8ko ohar pastoral bultzatzea eta praktikara eraman ditzala.*
153. *Euskarara itzultzeko talde bat existitu dadila, Elizbarrutiko agiri ofizial eta argitarapen guztiak, baita liturgi eta katekesi materialak, baldintza berberetan zabal daitezzen, bai gaztelaniaz, bai euskaraz.*
154. *Euskarazko katekesia arretaz zain dadin eta apez euskaldunak izenda daitezela eskatzen duten Ikastetxe guztietan lan egiteko.*
155. *Euskararen eskubideak aldarrika daitezzen, bere zapalketa salatuz, eta eska diezaiela Nafarroako instituzioei behar duen laguntza guttia eman dezaten.*

(12) Ik. Sinodo Pastoralerako proposamenak, 152-159. Proposamenak gaztelaniaz idatzita daude eta itzulpena gurea da.

156. *Elizbarrutietan dauden Zentro Sozial publikoetan (ospitaleak, kartzela, erreformatorioak, psikiatrikoa...) kaperauak izenda daitezzen, apez ministerioa euskaraz gauzatzeko.*
157. *Ahal den parrokia guztietan sakramentuak euskaraz ospatu ditzakeen apez bat egon dadin eta parrokia guztietan eukaristia eta hileta-elizkizunak euskaraz ospa ahal izan daitezzen.*
158. *Egin daitezela pastoral-ekimenak eta ospakizun liturgiko elebidunak, gertakizun aberasgarria eta tolerantzia eta bizikidetzaren sortzailea izanen delakoan.*
159. *Elizbarrutiak euskara gehiago erabil dezala bere zerbitzu pastoralean, batez ere ospakizun liturgikoetan, ez bakarrik sinestunak euskaldun diren tokietan, baizik eta –modu egoki batez– euskaldunak minoria direnetan ere, esaterako Xabierraldietan.*

Esperatzekoa zenez, proposamen horiei buruzko eztabaida aberasgarri eta, une batzuetan, gogorra ere izan zen. Euskara entzun zen batzarrean, baita proposamen horien kontra mintzatzeko ere. Azkenean, bozketetan, proposamenek emaitza eskasa lortu zuten. Gehienek ez zuten bozken %50a gainditzea lortu. Bakar bat onartu zen, lehenengoa, Euskal Pastoraltzaren Idazkaritza baten sorrera eskatzen zuena eta beharrezkoa zen bi herenen bozkak lortu gabe. Hala ere Sinodoko zuzendaritza-batzordeak ahalmena zuen bi herenak gainditu ez zuten proposamenen artetik, bozketen erdia baino gehiago lortua balute, onartzat emateko, eta kasu honetan horrela egin zuen (13).

Sinodoak ez zuen ekarpen deigarririk eman; aitzitik, eztabaidaren egoera bere gordinen agertu zuen. Dena den euskararen inguruko pastortza egiaz bultzatzeko tresna bat sortzeko agindua eman zuen, horixe baitzen, hain zuten ere, Euskal Pastoraltzaren Idazkaritzaren zeregina.

4. EUSKAL PASTORALTZAREN IDAZKARITZATIK FERNANDO SEBASTIAN ARTZAPEZPIKUAK SORTUTAKO EUSKAL PASTORALTZAREN SAILERA:

4.1. Euskal Pastoraltzaren Idazkaritza:

1991ko azaroaren 17an Jose Maria Zirarda Artzapezpikuak Euskal Pastortza Idazkaritzaren sorrera agindu zuen dekretu baten bidez (14). Erakunde berraren sorrera aurrerapauso handi bat izan zen euskara pastorgintza-lanera era-

(13) Ik. Nafarroako Elizaren Sinodoaren Estatutu Nagusiak, 10. or.

(14) Ik. *Elizbarrutiko Aldizkari Ofiziala*, 1991eko abendua, 775-778. or.

mateko helburuari begira. Baina dekretuak bere garrantzia du, hain zuzen ere bertan ordura arte agertu ez ziren hainbat elementu berri atzeman baitaiteke.

Dekretuaren testu batzuk:

«Elizbarrutiko Pastoral Sinodoak eskatu zuen Euskal Pastoral Idazkaritza bat, Jose Maria Mendez Jaunak 1974-ko Abuztuaren 15-ean eta neronek 1981-eko Irailaren 8-an argitaratutako Argibideen arauak aurrera eramateko.

Argibide hoién arabera, euskera, erdara bezala, Elizaren hizkuntza ofiziala izanen da Elizbarrutian (...)

Arau hauen arabera, argitaratu ditu gure elizak azken urte hauetan euskaraz eta erdaraz herriari zuzendutako gotzaien idazkiak; euskeratu ditu liturji liburua eta kristau ikasbideak, beste euskal elizbarrutiek elkar lanean; «La Verdad» astekarian idazten dira zenbait lan euskaraz.

Garrantzi berezia du gai honek gaurregunean. «Ley del Vascence» delakoak eskakizun berriak planteiatzen ditu: alde batetik, Kristau ikasbidea euskaraz erakusteko irakasleak behar dituzten ikastola eta elebidun ikastetxe berriak sortzen ari dira; bestaldera, berri, euskara eta erdara era berean ikasten duten haur eta gazteen kopurua handiagotzen doa, euskara indarberritzen hasten dela (...)

IDAZKI HONEN BITARTEZ:

- Sortzen da Iruñe-Tuterako Elizbarrutian euskarazko Pastoral Idazkaritza;
- Idazkaritza honen elburua hau izanen da: planifikatu eta burura eraman kome-ni diran ekinbideak Nafarroako euskal eta elebidun kristau elkarteén pastoral zerbitzurako;
- Apezpikuaren Ordezkarri bat izanen da Idazkaritzaren buru. Honi lagunduko diote Idazkari Orokor batek eta liturji, pastoral itzultzaile..., alorretako arduradunek;
- Idazkaritzak Elizbarrutiko Gotzai-Kontseiluarekin bat eginik bere lana eginen du gai orokorretan, eta Elizbarrutiko Idazkaritzekin gai berezietan».

Ohar pastoralen aginduak ez ziren erabat bete, noski; hala ere esan behar da zenbait ekimen burutu zirela Idazkaritza honen bitartez eta bideratua zegoen, dagoeneko, euskal pastoraltza aurrera eramateko erantzukizuna izanen zuen Elizbarrutiko baliabide nagusia.

4.2. Euskal Pastoraltzaren Saila:

Euskal Pastoraltzaren Idazkaritzak hiru urteko bizitza izan zuen. Izan ere, 1994an, ordurako Iruñeko Artzapezpikua zen Fernando Sebastianek, Idazkari-

tza zena Sail edo Departamentu bihurtzea erabaki baitzuen (15). *Status* aldaketa hori 1994ko azaroaren leian emandako dekretu baten bidez gauzatu zen (16). Dekretuak, horrelako agirietan gertatzen den bezala, Eliza eta euskararen arteko harremanen historia egiten duen sarrera batez hasten da; bertan Elizak kultur arloan euskararen alde egindakoak nabarmentzen ditu:

«(...) gure Elizak aitzin-aitzinatik erabili du euskara (...) gogora dezagun euskal literaturaren testu klasiko buruenak elizgizonek idatzi dituztela eta, askotan, pastoral eta erlijio helburu bakarra bilatuz.

(...) Pastoralta arloan Elizak euskara erabiltzeak badu, baita ere, garrantzi handia ahozko tradizioan, nahiz predikuan, nahiz katekesian, nahiz sakramentuen ospakizunetan, eukaristiarenean bereziki. (...) Elizak euskararen erabilpenean egin duen ahalegin berriena, Bibliaren itzulpen ekumenikoa izan da»: *Elizen arteko Biblia* (17).

Sarreran bertan, aurrerago, Apezpikuak argi uzten du zein den Elizaren asmoa euskarazko pastoralta bultzatzean:

«Euskararen erabilpen honek Elizaren bizitzan eta bere lan apostolikoetan, erlijio eta pastoral helburua bilatzen du lehenik. Baina baditu garrantzi handiko balio eta kultur ondorioak ere; gure euskara beneragarria aberasten, duintzen eta zabaltzen laguntzen baitu» (18).

Beraz, Elizak ez du euskararen aldeko lana interes kultural huts batengatik egiten, ezta beste motako interesengatik ere. Elizak helburu pastoralak bilatzen ditu lehenik. Horrek ez du esan nahi bestelako ondorio baikor eta onuragarriak ekar ez ditzakeenik, baina lanaren asmo nagusia argi eta garbi utzi behar da. Honetan dekretuak argitasunez hitz egiten du. Segituan aurrekari doktrinalak gogoratzen dira eta 1991tik aurrera Idazkaritzak egindako lana goraiatzen.

Sarreraren ondoren, dekretuak EPSren eraketa eta etorkizunean izanen duen izaera berria definitzen ditu azalpen batzuen bidez; ikus ditzagun:

- Eraturik geratzen da Euskal Pastoraltzaren Saila (EPS), Elizbarrutiko Gotzain-Kontseiluari zuzenean loturik.
- Elizbarrutiko Ordezkaritzek eta Idazkaritzek prestatu eta proposatutako egintza pastoralak euskal lurralde eta taldeetan bultzatzea eta koordinatzea da EPSren egitekoa.
- (...) EPSko bazkideak Elizbarrutiko Ordezkaritzetan edo Idazkaritzetan parte hartuko dute, erakunde horien kompetentziek euskal parrokiaren eta taldeen pastoralta ohizkoarekin edo apartekoarekin zerikusi zuzenik baldin badute.

(15) Elizbarrutiaren organigraman, Idazkaritza izateak Gotzain-Ordezkaritza baten menpe egotea suposatzen du; Saila izaten, ordea, zuzenean Gotzain-Bikaritzaren menpe geratzen da, tarteko hierarkia gehiagorik gabe.

(16) *Elizbarrutiko Aldizkari Ofiziala*, 1994ko abendua, 800-804.orr.

(17) *Ibidem*, 802.or.

(18) *Ibidem*, 803.or.

- EPSkide baten presentzia ezinbestekoa izanen da honako erakunde hauetan:
 - Kristau Hezkuntza Ordezkaritza: Katekesi arloa eta Irakaskuntza arloa.
 - Liturgia Ordezkaritza.
 - Apostolutza Sekularraren Ordezkaritza: Gizarte-Idazkaritza, Cáritas, Gaixoen Pastoraltzaren Idazkaritza.
 - Apezen Heziketa eta Biziera Ordezkaritza: Bokazio Pastoraltzaren Idazkaritza.
 - Gizarte Komunikabideen Zerbitzua.
- (...) EPSren garrantzizko egiteko bat zera izanen da: liturgi testu guztiak euskarara itzultzea, fededun euskaldunentzat baliagarriak izaten ahal diren beste dokumentu eta gai pastoralak egokitzea eta, halaber, lagungarri propioak eratztea. Lan horretarako bere itzulpen zerbitzu bat izanen du EPSk.
- EPSk harreman hertsia izanen du CSETekin eta Elizbarrutiko Apezgaitegiarekin, zenbait teologi gai euskaraz eman daitezen aukeragarri bezala eta, halaber, euskal hizkuntza eta kulturaren ezagupen egokia eskaini ahal dadin.
- EPSk harreman hertsia izanen du, baita ere, biztanlego euskalduna daukaten beste Elizbarrutiek lankidetzazabal baten bitartez (...) (19)

Dekretuaren harira gogoeta batzuk egin daitezke:

- EPSren helburua definitzean badira diferentziak aurrekoarekin konparatzen badugu. Jose Maria Zirardak sortutako Idazkaritzak «Nafarroako kristau-elkarte euskaldun eta elebidunen zerbitzu pastoralerako ekimenak planifikatu eta burura eraman behar zuen»; Euskal Pastoraliza Sailak, ordea, honako helburu hau izanen du: «Elizbarrutiko Ordezkaritzek eta Idazkaritzek prestatu eta proposatutako egintza pastoralak euskal lurralde eta taldeetan bultzatzea eta koordinatzea». Idatzitakoaren arabera Idazkaritzak planifikatu eta burutu behar zituen ekimen pastoralak; Sailak, ordea, ez du ekimenik asmatu behar; Elizbarrutiko gainerako erakundeek, Ordezkaritzek eta Idazkaritzek proposatutakoa betetzeko tresna bat da.
- Gauzak horrela, dekretuak garrantzi handia ematen dio EPS eta Elizbarrutiko Erakundeen arteko lotura instituzionalari, EPSren ardura baita ekimen pastoralak euskal parroketan eta taldeetan gauzatzeko. Horregatik EPSk ordezkaritza bat izanen du: Kristau-Hezkuntzan, Liturgian, Sekularren Apostolutzan, Apezen Heziketa eta Bizieran eta Gizarte-Komunikabideetan, eta Ordezkaritza horien guztien menpe dauden Idazkaritzetan. Indartua ateratzen da Euskal Pastoraliza Sailaren presentzia pastoraliza-eremu guztietan.

(19) *Ibidem* 803-804.or.

- Bestalde, dekretuak itzulpen-lana ere indartzen du; liturgi testuak euskaratzeko agindua ematen du eta itzuli behar dira, halaber, euskaldunentzat baliagarriak diren beste dokumentu eta material pastoralak. Hori guztia 9. puntuari zehazten da eta hemen ere atea irekita uzten da, beharrezkoa denean, material lagungarri propioak atera ahal izateko.
- 10. puntuak orain arte ukitu gabe zegoen gai bat plazaratzen du: euskara apezgai eta teologia ikasleen heziketan. Horretarako eskatzen zaio harreman hertsia manten dezala CSETekin eta Seminarioarekin, euskara eta euskal kulturaren ezagutza eta irakaskuntza bideratzeko eta, are gehiago, zenbait teologi arloak euskaraz emateko aukera aztertzeke eskatzen zaio.
- Bukatzeko arautua geratzen da EPSek lankidetzat bultzatu eta eskaini behar diela beste euskal Elizbarrutiei elkarrekin lan egiteko aukera.

Konstatatu behar da EPSek egindako bidea ez dela beti erraza izan, diferentzia nabarmenak eta nolabaiteko hausturak ere gertatu direla iritzi kontrajarriek eraginak. Hala eta guztiz ere uste dugu egindako lana eta ahalegina estimagarria izan dela. Gaur egun Zuzendari batek, Zuzendariordeak eta Idazkariak osatzen dute EPSren partaidetza osoa.

5. IRUÑEKO OSPAKIZUN LITURGIKOAK ETA EUSKARAREN ERABILPENA:

Euskara liturgian ongi erabiltzea eta bultzatzea betiko asmo bat izan da. Hala ere, horrelako asmoek, burutuak izateko, konkrezio-arauak behar dituzte. 1995ean Apezpiku-Kontseiluak helburu hori betetzeko agiri bat publikatu zuen Elizbarrutiko Aldizkari Ofizialean (20). Agiriak bataio, jaunartze, sendotza eta hileta-elizkizunetan jarraitu beharreko irizpideak ematen ditu, batez ere horiek elebidunak direlarik. Lau puntu hauek zehazten dute jarraitu beharreko prozedura:

- Irizpide orokorrak:
 - Ospakizuneko pertsona edo pertsonen egoera linguistiko-kulturala.
 - Familiaren edo ingurune familiarren egoera linguistiko-kulturala.
 - Ospakizunean parte hartzen duten gutxi gora beherako portzentaia... Erretoa izanen da hartu behar den erabakien erantzulea.
- Euskararen erabilpenaren balizko uneak: orientazio gisa... euskara erabil daiteke ospakizunaren hurrengo ataletan: sarrerako monizio laburra; damu-otoitza *Erruki Jauna* abestuz; Hitzaren irakurgaiaren bat; aipamen laburra homilian; es-

(20) EAO, 1995eko abendua, 799-801 or.

kariren bat Herriaren Otoitzean; *Gure Aita* abestia; abesti herrikoiren bat jaunartzean; azken agurraren monizioa.

- Euskarazko mezak: beharrezkoa da parrokia guztietan publikoki jakinaraztea mezak euskaraz ospatzen dituzten hiriko elizen zerrenda eta dagozkien egun eta orduak...
- Liturgia-liburuak: gomendagarria da parrokia guztiek *Meza Liburua* eta *Elizen arteko Biblia*, bederen, izan ditzaten... (21)

Fernando Sebastian Artzapezpikuak euskarari buruz esandakoak osatzeko 1999an idatzitako «Euskara Elizan» izeneko gutun pastorala aipatu behar da. Dena den, guk ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, gutun pastoral hori ez zen, ohikoa denez, Elizbarrutiko Aldizkari Ofizialean argitaratu, beraz ez zen ezagutzera eman eta ez zitzaion ofizialtasun publikorik eman. Horregatik eta gure azalpen hau Iruñeko Artzapezpikuen agiri ofizialetara mugatu nahi izan dugunez, ez ditugu bertan esandakoak aztertu. Hala ere, Fernando Sebastianen apaiz-ordenazioaren 50. urteak bete diren honetan, haren omenezko liburu bat berriki atera da. Liburu horretan Apezpiku izendatu zutenetik berak egindako idazki pastoral guztiak biltzen dira eta euskarari buruzko gutun pastorala argitaratzen da (22).

(21) *Ibidem*, 801.or.

(22) Gutun pastorala irakurtzeko ik. Sebastian Aguilar, Fernando, *El euskera en la Iglesia*, in Gonzalez Carderal, Olegario, *La verdad del Evangelio*, Salamanka, 2003, 665-668.or.

II. EUSKARAREN ERABILERA IRUÑEKO ETA TUTERAKO JARDUERA PASTORALEAN

Iruñea, 2003-IX-19

Xabier Lasa

AURKEZPENA

Iruñe eta Tuterako Elizbarrutiak bost Zonalde edo Bikaritzetan banatua daude: Mendialde, Iruñea, Pirinio-Erdialdea, Lizarra eta Erribera.

Nafarroako Elizbarrutietako egituraren antolaketa:



Zonalde bakoitza lurralde-unitate txikiagotan bereizten da: artzapezbarrutiak, eta horiek parrokitan. Beraz, parrokia da eliz-egituraren maila konkretuen eta oinarrizkoena. Parrokiak, bizilagun-kopuru gutxiko izateagatik, pas-

toralgintza-lanerako urriegi geratzen direlarik, Parroki Unitateetan biltzen dira, parrokia txikiez osatutako parroki multzo batean, alegia. Horrela gertatzen da, batez ere, populazioaren barreiatzea oso altua delarik.

Ikerketaren mugak:

Ikerketa honek Nafarroan, Eliza mailan, dagoen euskararen erabilera neurtu eta horren berri ematea du helburu. Asmo horretaz ikerketak zedarritu ditu euskarak eraginik edo erabilpen pastoralik dituen lurraldeak. Printzipioz Nafarroa osoa kontuan hartu nahi izan da, baina, zehaztasunak ematean, euskararen erabilpena ia tokirik ez duen lurralde-eremu zabala ikusita, eragina nabarmendu daitekeen zonaldeak kontsideratu ditugu bereziki. Horrela egin da konkrezio-maila on bat bilatu nahi izan delako. Bereziki aztertu ditugu Mendialde, Iruñea eta Pirinio-Erdialdeko iparraldea (Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar, Auritz, Orreaga, Luzaide), Pirinio-ibarrak deitu dugun lurraldea. Azterketa zehatzetik kanpo geratu dira Lizarra eta Erriberako bikaritzako osoak eta Pirinio-Erdialdeko tarte zabal bat, Artzibar, Orotz-Betelu, Urraul Goiti eta Nabazkoze osatzen duten ipar-ardatzetik Erriberako mugetaraino biltzen den lurraldea, hain zuzen.



Hala ere, kanpo utzitako lurralde horretan parrokiaren batek, era minimoan bada ere, euskara erabiltzen badu, txostenean sartu dugu. Horregatik Zangoza, Tafalla, Lizarra eta Tuterako bezalako biziguneek duten garrantzia

dela eta, gure ikerketaren egitasmoan sartzen dira, euskara erabiltzen duten beste herriak bezala: Agoitz, Irunberri, Gares eta Oibar, hain zuzen. Izan ere, bizigune horietako eliz-bizitzan, proportzioren batean, euskara erabili egiten da edo azken urteotan erabili izan da eta, neurri batean, gehien-gehien eraldun diren lurraldeetan egin daitekeen euskararen erabilera pastoralara erakusten dute.

Ikerketa gauzatzean jarraitu den prozedura:

Tokian tokiko egoera zehatza ezagutzeko, lehenbizi, inkesta bat prestatu dugu bizitza pastoralari buruz interesgarri izan daitezkeen datu guztiei buruz galdetuz. Konkretuki sei aldagai hartu dira kontuan:

- euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezetan;
- euskararen erabilera gainerako sakramentu eta elizkizunen ospakizunetan;
- euskararen erabilera katekesian;
- euskararen erabilera parroki kudeatzean;
- euskararen erabilera artzapezbarrutiko bilera pastoraletan;
- euskararen erabilera parrokiatiko eliz-komunikabideetan.

Esan bezala, inkesta Mendialde, Iruñea eta Pirinio zonalde pastoraletako parrokiatan eta aipatutako bizigune nagusietan arduradun diren erretoreei igorri zaie. Berrehun eta berrogeita hamarretik goitiko inkesta osotara. Eta nabarmendu behar da erantzuna ona izan dela eta toki gehien-gehienetatik eskatutako datuak jaso ditugula. Horrela gertatu ez den kasu bakan batzuetan, ahal izan denean, beste iturri batzuetara jo dugu, hala nola, parrokia horien bizitza ongi ezagutzen dituzten pertsonengana edo erretore ez den beste apezarengana. Egiaztatu behar dugu, egon badirela eskuratu ezin izan ditugun datuak, baina hutsune horiek ez dute inoiz ere lurralde konkretu baten behin betiko emaitza zalantzan jartzen. Parrokia gutxi dira eta kasu ia guztietan, txikiak bizilagun-kopuruari dagokionez. Emaitzak azaltzean aipatzen ditugu hutsuneei buruzko zehaztasunak.

Konkretatuz berrehun eta hogeita hiru parrokiatiko datuak jaso dira, Mendialde, Iruñea eta Piriniotako zonaldeetatik eta muga horietatik kanpoko garrantzi nabarmeneko beste hirietatik. Emaitza onargarria dela uste dugu eta Nafarroako Elizaren barreneko euskararen erabilera pastoralaren egoera, lehen aldiz, sistematikoki neurtzeko fidagarria.

DATUEN AZALPENA ZONALDEZ ZONALDE

1. EUSKARAREN ERABILERA MENDIALDEKO BIKARITZAN:

Kokapen geografiko eta eklesiala:

Mendialde deituriko Zonaldeak udalerri hauek hartzen ditu barnean:

- Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Ergoiena, Etxarri-Aranatz, Lizarragabengoa, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte-Arakil, Irañeta, Arakil eta Irurtzun.
- Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Imotz eta Basaburua.
- Leitza, Areso, Goizueta eta Arano.
- Ezkurra, Eratsun, Saldias, Labaien, Urrotz, Oitz, Donamaria, Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbilla.
- Bertizarana.
- Arantza, Igantzi, Etxalar, Lesaka, Bera.
- Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubi.
- Ultzama eta Atetz.

Agerikoa denez Mendialde zonaldea Sakanatik hasten da mendebaldean, eta Baztan, Ultzama, Atetz eta Imotzek markatzen dute muga ekialdean. Seinlatu behar da hemen dauden udalerri gehienak Nafarroako Euskararen Legeak eremu euskalduna deitutakoan sartzten direla; denak bat izan ezin, Atetz, hain zuzen, azkeneko hori «Mistoa» deitutako eremuan kokatzen baitu.



Udalerrri horietan dagoen parrokia-kopurua ehun eta hogeita hamahirukoa da. Horietatik zortzik bakarrik gainditzen dute 1000 biztanleen kopurua eta batek bakarrik (Altsasuk) 5000 biztanleena. Beraz populazioaren barreiatze-portzentaia handia da ezaugarri nabarienteko bat. Bizigune txiki ugarietan barreiatuak egoteak, alde batetik, eta apezken eskasia eta pastoralgintzaren eskema berrien aplikazioak, bestetik, parrokia txikien zerbitzuak Parroki Unitateetan biltzera eramaten du. Horrek suposatzen du gaur egun ez direla zerbitzu pastoral guztiak parrokia guztietan betetzen. Anitz kasutan katekesia zentralizatua dago (Basaburua, Ultzama...) eta, neurri txikiagoan, igandeko mezaren ospakizuna ere bai. Dena den, gure ikerketan parrokia guztiak, txikienak barne, hartu dira oinarri gisa, eta ez Parroki Unitateak; izan ere, Parroki Unitate horiek ezartze-prozesuan daude eta denbora falta da oraindik egiazko errealitate sendo bilaka daitezen.

Inkestari dagokionez, Mendialdeko ehun eta hogeita hamahiru parrokietatik ehun eta hamaikak erantzuna igorri digute, eta gainerako hogeita biek ez. Baina bidali ez duten horietatik hamalauk 100 biztanle baino gutxiagoko herrietan daude, zazpik 200 baino gutxiagoko herrietan eta bakar batek 300 bizilagunak gainditzen ditu. Konkrétuki zonalde osoak barne hartzen dituen 51764 biztanleetatik, erantzun ez duten parrokiek 1914 bizilagun hartzen dute barnean, ikertutako populazioaren %4a, alegia.

1.2. Mendialde zonaldeko datu orokorrak:

Mendialdeko datu orokorrak aurkezteko hiru aldagai aukeratu dira:

- euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezetan;
- euskararen erabilera beste sakramentu eta elizkizunen ospakizunetan;
- euskararen erabilera parroki kudeatzean.

Ikerketan kontuan hartzen diren beste hiru aldagaiak, era konkretuago batez ikertzen dira gero, artzapezbarrutikako azterketan.

1.2.1. Euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezaren ospakizunetan:

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	83	%51
Gaztelaniaz	40	%25
Elebiz	39	%24
GUZTIRA	162	%100




- Mendialde zonaldean, osotara, igandetako mezen kopuru erdia euskara hutsez ospatzen da, laurden bat elebiz eta beste laurdena gaztelaniaz. Datu hauek analisi sakonago bat merezi dute, horregatik, artzapezbarrituen datuak aztertzean, berriz ere haztakatzen dira.
- Agerikoa denez, ikerketak ez du kontuan hartzen meza horietan parte hartzen duten sinestunen portzentaia, ez zen hori gure helburua. Dena den, datu osagarri gisa, jakin behar da Nafarroako Elizak, 1998an egin-dako azterketaren arabera, Mendialdeko bikaritzan biztanleen %31,3a joaten dela mezara igandean.

Segituan Mendialdeko bikaritzan asteburu eta festa egunetan elebiz ospatzen diren 39 mezak atalka aztertuak eskaintzen ditugu. Elebizko meza bat zertan datzan ezagutu ahal izateko ospakizuna sei ataletan bereizi dugu eta atal bakoitzean erabiltzen den hizkuntzaz galdetu dugu.

Mezaren ataletan erabiltzen den hizkuntza adierazten duten koadro eta grafikoa:

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Kantuak	%39	0	%61
Oharrak/monizioak	%11	%26	%63
Irakurgaiak	%7	%36	%48
Homilia	%4	%36	%60
Eukaristi Otoitza	%48	%4	%48
Bukaerako oharrak	%21	%29	%50



- Koadroak elebizko meza bat zertan datzan ulertzea ahalbidetzen digu. Izan ere zaila da batzuetan meza elebiz ospatzen dela esatean, egiaz hizkuntzari ematen zaion balioa zein den jakitea. Datuek erakusten duten arabera, Mendialden meza elebiduna esatean, kantuak eta eukaristi otoitza gehienbat euskaraz egiten direla esan nahi da eta oharrak, irakurgaiak eta homilia gehienbat gaztelaniaz.


1.2.2. Euskararen erabilera beste sakramentuen ospakizunetan:

Eukaristiaz gain, parroketan ospatzen diren beste sakramentu edo elizkizunak eta ospakizun horietako hizkuntza-erabilera:

	Euskaraz		Gaztelaniaz		Elebiz	
Bataioak	56	%52	25	%24	25	%24
Lehen Jaunartzeak	69	%65	11	%10	27	%25
Sendotzak	58	%64	5	%5	28	%31
Hileta elizkizunak	61	%56	17	%15	32	%29
Aitortzak	55	%53	23	%23	24	%24

Kasu honetan, datu eta portzentaiak ez dira ospakizun-kopuru osotik ateratzen baizik eta parrokia-kopurutik.

Sakramentu eta ospakizun horietan erabiltzen den hizkuntzaren koadro konparatua:



Emaitzen arabera sakramentu guztien ospakizunetan euskara da nagusi, gaztelania nahiko proportzio baxuan erabiltzen da, kasu batean ere ez da %24tik igotzen, eta sendotza eta lehen jaunartzetan nabaritzen da gehien euskararen nagusitasun liturgikoa.

1.2.3. Euskararen erabilera parroki kudeatzean:


Parroki kudeatzea edo lan administratiboa, batzuetan ezkutuan dagoen lana izan arren, hagitz inportantea da parrokiaren bizitzan. Hemen sartuko lirateke, besteak beste, sakramentu-liburuen kudeatzea, bataio- eta ezkontz-agirien tramitazioa, aurrekontuak, e.a. Aldagai hori neurtzeko hiru datu hauek hartu ditugu kontuan:

- euskararen erabilera parroki liburuen erregistroak idaztean;
- parroki zigiluaren hizkuntza;
- parrokiak inprimatzen dituen orri eta gutunazalen idazpuru edo menbreteen hizkuntza.

A. Parroki liburua:

Parrokiaren kudeatzean sakramentu-liburuak eramatea da lan nabarietako bat. Historiarako uzten den testigantza garrantzizkoa da, halaber. Ikus dezagun zer eragina duen hizkuntza bakoitzak lan horretan:

	Euskaraz		Gaztelaniaz		Elebiz	
Bataio-liburuak	25	%24	30	%29	50	%47
Sendotza-liburuak	28	%27	31	%29	45	%44
Ezkontza-liburuak	24	%23	31	%29	50	%48
Hilen liburuak	24	%23	32	%30	49	%47



- Kudeatze lanean erregistratze elebiduna nagusitzen da. Kasu honetan elebiz egiten dela esateak ez ditu gauzak gehiegi argitzen, izan ere normalean erregistro bakarra idatziko da eta hizkuntza batean. Gure ustez litekeena da elebiz esaten delarik inprimakia elebiz egotea, nahiz eta datuak gaztelaniaz idatzi. Beraz, elebiz dagoena liburua da baina erregistroa gaztelaniaz egiten da gehienbat.

B. Parroki zigilua:

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	37	%38
Gaztelaniaz	51	%52
Elebiz	10	%10
GUZTIRA	98	%100



C. Parrokietako orri eta gutunazalen idazpuruak:

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	13	%36
Gaztelaniaz	13	%36
Elebiz	10	%28
GUZTIRA	36	%100



Idazpuruekin hizkuntzen arteko pareko erabilera nagusitzen da.

1.3. Datuak Mendialdeko artzapezbarrutietan:

Mendialdeko bikaritza bi artzapezbarrutietan bereizten da ofizialki: Baztan-Bidasoa eta Aralar. Hala ere, praktikan hiru artzapezbarruti bailiran jokatzen da. Izan ere, tradizioaz eta hurbiltasun geografikoaz, Sakanak zonalde berezi bat osatzen du eta Larraunek eta bere inguruek beste bat. Horregatik, ikerketa honetan hiru eremu bereiziko ditugu Mendialde barrenean: Baztan-Bidasoa artzapezbarrutia, Larraun ko-artzapezbarrutia eta Aralar ko-artzapezbarrutia.

Artzapezbarrutiz artzapezbarruti aurkezten dugun datu-azalpen honetan lau aldagai hartu dira kontuan:

- euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezetako ospakizunetan;
- euskararen erabilera katekesian;
- euskararen erabilera bilera pastoraletan;
- euskararen erabilera parrokiako komunikabideetan.

1.3.1. Baztan-Bidasoa artzapezbarrutia:

Baztan-Bidasoa artzapezbarrutiak barne hartzen ditu Baztan harana, Zugarramurdi, Urdazubi, Etxalar, Bera, Lesaka, Igantzi, Arantza, Sunbilla, Doneztebe, Bertizarana, Donamaria, Oitz, Urrotz, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Labaien, Saldias, Eratsun eta Ezkurrako udalerrietan dauden eliz-komunitateak eta beren parrokiak.


Eliz-egiturari dagokionez aipatu behar da, osotara, hogeita hemezortzi parrokia sartzen direla artzapezbarruti honen barrenean; horietatik bik 100 biztanle baino gutxiago dituzte; hogeita seik 100 eta 500 biztanle artean; zazpik 500 eta 1000 artean; eta lauk, Elizondok, Doneztebek, Berak eta Lesakak, 1000 biztanle baino gehiago dituzte. Ondorioz, biztanlegoa sakabanatua egon arren, badira bizigune inportanteak eta ez da Mendialdeko beste lur-eremutako populazioaren barreiatze-dentsitatera iristen. Artzapezbarrutian dagoen biztanle-kopuru osoa 21870 lagunekoa da.

Ikerketa burutzeko erabili ditugun datuak hogeita hemezortzi parrokiakoak dira. Horrek esan nahi du Baztan-Bidasoako erretore guztiek guk igorritako inkestari erantzun diotela eta segituan ematen ditugun datuak hagitx fidagarritasun altua dutela.



A. *Igande eta jaiegunetako mezak Baztan-Bidasoa artzapezbarrutian:*

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	45	%69
Gaztelaniaz	4	%6
Elebiz	16	%25
GUZTIRA	65	%100



– Meza guztiak euskaraz ospatzen dituzten parroketako udalerrriak:

Udalerria	Kopurua
Eratsun	1
Ezkurra	1
Ituren	2
Zubieta	1
Etxalar	2
Labaian	2
Saldias	2
Sunbilla	2
Elgorriaga	1
Arantza	2
Igantzi	2
Donamaria	1
Urrotz	2
Oitz	1

– Elebizko edo gaztelaniazko mezak ospatzen dituzten parroketako udalerrriak:

udalerria	euskaraz	gaztelaniaz	elebiz
Baztan	14	2	9
Zugarramurdi	1	0	1
Urdazubi	0	0	1
Bertizarana	3	0	1
Doneztebe	0	0	3
Bera	3	2	2
Lesaka	1	0	2

- Baztanen kasuan hamabost parroketatik hamarrek euskara hutsez ospatzen dute meza; Elbete, Elizondo, Arizkun, Irurita eta Oronotzen gaztelaniazko edo elebizko mezak ospatzen dira euskarazkoek gain.
- Bertizaranan parrokia guztietan euskara hutsez ospatzen da meza Oieregin izan ezik, bertan elebiz egiten baita.
- Malerrekan Doneztebe parrokiako mezak elebiz ospatzen dira.
- Euskara erabiltzen da nagusiki liturgian. Ez dago meza gehienak gaztelaniaz ospatzen dituen parrokiarik.

B. Katekesia Baztan-Bidasoa artzapezbarrutian:

Segituan Baztan-Bidasoan katekesian erabiltzen den hizkuntzaren koa-droa eta grafikoa eskaintzen ditugu. Bertan ikus daiteke zenbat parrokiek ematen duten katekesia maila bakoitzean eta zer portzentaietan erabiltzen duten euskara eta gaztelania maila horietan. Katekesi-maila batzuetan katekesia gaztelaniaz eta euskaraz ematen dute hainbat parrokiek; horien berri ere ematen da:

	Parroki kopurua	euskaraz	gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Jaunartzea	35	31 %89	0 0	4 %11
Sendotza	34	27 %79	0 0	7 %21
Helduak	9	4 %44,5	4 %44,5	1 %11
Ezkont. Ikas.	20	14 %70	2 %10	4 %20
Bataio. Gur.	27	21 %78	2 %7	4 %15
Jaun. Guras	29	22 %76	0 0	7 %24
Send. Guras.	29	23 %79	1 %4	5 %17

Katekesi mailetan erabiltzen den hizkuntzaren grafiko konparatua:



- Katekesi mailen konparaketak erakusten digu helduen katekesia dela gutxien ematen dena eta, portzentuarki, helduekin erabiltzen da gaztelania gehien. Dena den datu horrek kontraste egiten du bataio, lehen jaunartze eta sendotzako katekesiko gurasoenarekin, zeren eta, orduan bai, euskara erabiltzen baita gehien. Beraz, horrek esan nahi du helduen katekesian gaztelania erabiltzearen arrazoia bilera beraren dinamikan, materialetan edo beste gauzetan bilatu beharko dela; segur aski, ez euskara ez jakitean.

- Katekesian nabaritzen da gehienbat euskarak eremu honetan duen nagusitasuna.

C. Bilera pastoralak Baztan-Bidasoa artzapezbarrutian:

- Apaizen erretiroak artzapezbarruti mailan antolatzen dira eta euskaraz egiten dira.
- Artzapezbarrutiko bilerak (katekistak, e.a.): erdaraz egiten dira.
- Pastoralta-kontseilua duten parrokien datuak:

	Parroki Kopurua	euskaraz	Gaztelaniaz	elebiz
Pastoralta-Kontseilua	13	6 %46	1 %8	6 %46

- Kasu hauetan elebiz esatean, bileraren hasieran kantuak eta otoitzak euskaraz egiten direla adierazi nahi da, baina gaien azterketa normalean gaztelaniaz.
- Katekesi lanetan euskarak nagusitasun handi bat erakusten badu ere, katekisten prestakuntzarako erabiltzen diren bilerak elebiz egiten dira.
- Artzapezbarrutiko Pastoralta-kontseilurik ez dago; hala ere, artzapezbarrutiko katekisten bileretan Pastoralta-kontseiluari dagozkion gaiak aztertzen dira eta horren funtzioak betetzen dira behin-behineko moduan. Bilera horiek gaztelaniaz egiten dira.

D. Eliz-komunikabideak Baztan-Bidasoa artzapezbarrutian:

	Parroki kopurua	euskaraz	gaztelaniaz	elebiz
Orri / aldizkariak	20	9 %45	0 0	11 %55
irratsaioak	3	3 %100	0 0	0 0

- Parrokiek prestatzen dituzten komunikabide idatzietan euskara da nagusi; hala ere gaztelaniaz ere bere tokia du elebiz argitaratzen diren idazkien bidez.
- Elizatik kanpoko komunikabideetan, irratietan alegia, euskara bakarrik erabiltzen da.

1.3.2. Larraun ko-artzapezbarrutia:

Larraun ko-artzapezbarrutiak barne hartzen dituen udalerriak: Goizueta, Arano, Leitza, Areso, Basaburua, Ultzama, Atetz, Imotz, Larraun, Lekunberri, Betelu eta Araitz. Udalerri horiek guztiak Nafarroako Euskararen Legeak eremu euskalduntzat hartzen ditu, Atetz izan ezik, azken hori mistoa deritzon eremuan kokatzen baitu.

Eliz-egiturari dagokionez aipatu behar da, osotara, hirurogeita lau parroquia hartzen dituela barne; horietatik berrogeita lau, 100 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokatuak daude eta hiru bakarrik, Lekunberri, Leitza eta Goizueta, 500 biztanletik gorako herrietan. Beraz, populazioaren barreiatze handiko eremua da.



Ikerketa burutzeko erabili ditugun datuak berrogeita sei parrokiakoak dira; horrek esan nahi du hemezortzik ez diotela inkestari erantzun. Hori-en artean Betelu herria eta Araitz, Imotz, Atetz eta Larraungo herrixka batzuk daude. Horregatik Betelu ikerketatik kanpo geratzen da eta aipatu diren ibarretan hutsuneak kontuan hartu beharko dira; horrela egiten da datu konkretuak azaltzean. Osotara, inkestaren datuetatik at gelditzen den parrokiaren biztanle-kopurua 1354 lagunekoa da; ko-artzapezbarrutiko biztanle-kopuru osoa 10042koa denez, biztanleriaren %13,5a ikerketatik kanpo geratu da.

A. Igande eta jaiegunetako mezak Larraungo-artzapezbarrutian:

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	28	%53
Gaztelaniaz	14	%26
Elebiz	11	%21
OSOTARA	53	%100



– Meza kopurutik %100a euskaraz ospatzen duten parroketako udalerriak:

Udalerrria	Kopurua
Goizueta	3
Arano	1
Areso	1
Basaburua	9
Araitz (*)	2
Larraun (*)	5

(*) Larraun udalerrriaren kasuan hamar herri geratu dira zenbatu gabe; beraz emandako datua ez da oso esanguratsua.

(*) Araitzen kasuan 6 herritatik 4 geratu dira zenbatu gabe; honetan ere emandako datua eskas geratzen da.

– Elebizko edo gaztelaniazko mezak ospatzen dituzten parroketako udal-
lerriak:

Udalerrria	euskaraz	gaztelaniaz	elebiz
Leitza	2	1	1
Lekunberri	1	2	2
Imotz (*)	3	0	3

(*) Imotzen kasuan hiru herri gelditu dira ikerketatik kanpo, baina horrek ez du emaitza nabarmenki aldatzen.

– Parrokien meza gehienak gaztelaniaz ospatzen dituzten parrokien uda-
lerriak:


Udalerrria	euskaraz	gaztelaniaz	elebiz
Ultzama	1	9	3
Atetz (*)	0	2	2

(*) Atezen kasuan bost herri gelditu dira ikerketatik kanpo, baina joera berbera mantendu-
ko dute segur aski.

- Datuek erakusten dute liturgia gehienbat euskaraz ospatzen dela Larraun-
en.
- Leitza eta Lekunberri bezalako herri handietan meza gehiago eskain-
tzen dira eta horietako batzuk gaztelaniaz eta elebiz.
- Gainerako lurraldeetatik hegoalde-ekialdean dauden Ultzaman eta Ate-
tzen gaztelania nagusitzen da.

B. Katekesia Larraungo artzapezbarrutian:

	Parroki kopurua	euskaraz	gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Jaunartzea	29	18 %62	0 0	11 %38
Sendotza	26	12 %46	0 0	14 %54
Helduak	3	3 %100	0 0	0 0
Ezkont. Ikas.	16	7 %44	2 %12	7 %44
Bataio. Gur.	17	7 %41	0 0	10 %59
Jaun. Guras	22	7 %32	5 %23	10 %45
Send. Guras.	19	4 %21	5 %26	10 %53



- Euskara da katekesian gehienbat erabiltzen den hizkuntza.
- Badira katekesian bi hizkuntzak erabiltzen dituzten parrokiak asko.
- Helduen katekesian, grafikoan %100a agertzen da euskaraz, hala ere datua ñabartu behar da, izan ere kontuan hartu behar dugu hiru parrokitan bakarrik ematen dela.
- Gaztelaniaren erabilera hazten da gurasoekin egindako katekesian eta oso neurri txikian erabiltzen da haur eta gazteekin.

C. Bilera pastoralak Larraungo artzapezbarrutian:

- Apaizen erretiroak ko-artzapezbarruti mailan antolatzen dira eta euskaraz egiten dira.
- Ko-artzapezbarrutiko bilera pastoralak (katekistak, e.a.): euskaraz egiten dira.

	Parroki kopurua	euskaraz	gaztelaniaz	Elebiz
Pastoraltza-kontseilua	9	7 %78	2 %22	0 0

- Pastoraltza-kontseilua duten parrokiak honako hauek dira: Leitzako Parroki Unitatea, Goizuetako Parroki Unitatea, Ihaben, Beruete eta Lekunberri.
- Horietatik bilerak euskaraz egiten dituzte Leitza, Goizuetan eta Beruete eta gaztelaniaz Ihabenen eta Lekunberrin.

- Ko-artzapezbarrutiko Pastoral-tza-kontseilua badago eta bilerak euskaraz egiten dira. Aipatu behar da Ultzamako eta Atezko parrokiek ez dutela parte hartzen ko-artzapezbarrutiko bilera horietan guztietan.

D. Eliz-komunikabideak Larraungo artzapezbarrutian:

- Parrokiako orriak edo aldizkariak zabaltzen dituzten parrokiak honako hauek dira: Etxaleku, Eraso, Gartzaron-Erbiti, Orokieta, Uztegi, Azpirotz, Errazkin, Gaintza, Beramendi, Udabe, Itsaso, Goldaratz.
- Parrokoak irratsaioetan parte hartzen duen parrokiak: Etxaleku, Leitza, Lekunberri. Hiru kasuetan euskaraz.

	Parroki kopurua	euskaraz	gazelaniaz	elebiz
Orri/aldizkariak	13	9 %69	0	4 %31
Irratsaioak	3	3 %100	0	0

- Nabarmentzekoa da parrokiek egiten dituzten orri edo aldizkarien artean euskara dela nagusi.
- Parrokietatik kanpo antolatzen diren komunikabideetako partehartzeak euskaraz izaten dira.

1.3.3. Aralarko artzapezbarrutia:

Aralarko artzapezbarrutiak barne hartzen dituen udalerriak: Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Lizarragabengoa, Ergoiena, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte-Arakil, Irañeta, Arakil eta Irurtzun.


Eliz-egiturari dagokionez seinlatu behar da, osotara, hogeita hamaika parrokiak hartzen dituela barne; horietatik hamaikak 100 biztanle baino gutxiago dituzte; hamabik 100 eta 500 biztanle artean; hiruk 500 eta 1000 artean; lauk mila eta 5000 artean eta batek (Altsasu) 5000 biztanleen kopurua gainditzen du erraz. Guztira 19852 bizilagun. Aipagarria da 100 biztanle-kopurua gainditzen ez duten herriak Arakil eta Ergoiena ibarretan biltzen direla gehienbat. Bestaldetik esanguratsua da oso Altsasuren kasua, bertan 7281 bizilagun biltzen dira, artzapezbarrutiak hartzen dituen kopuru osoaren %37a, alegia.

Ikerketa burutzeko erabili ditugun datuak hogeita zazpi parrokiatik jasotak dira, beraz lau parrokiek ez diote inkestari erantzun: Arakil udalerriko hiruk eta Irañetakoak. Dena den, parrokiak horietako udalerriek biltzen dituzten biztanle kopurua 560koa da, biztanleria osoaren %3a. Datua kontuan hartuz, esan daiteke ikerketaren emaitzek Sakanako parrokiatiko kristau-elkarte ia denak hartzen dituela barne.



A. Igande eta jaiegunetako mezak Aralarko-artzapezbarrutian:

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	10	%23
Gaztelaniaz	22	%50
Elebiz	12	%27
GUZTIRA	44	%100



– Meza kopurutik %100a euskaraz ospatzen duten parroketako udal-
lerriak:

Udalerria	Kopurua
Arruatzu	1
Lizarragabengoa	1

– Elebizko mezak ospatzen dituzten parroketako udal-
lerriak:

Udalerria	euskaraz	gaztelaniaz	elebiz
Ergoiena	3	0	2
Etxarri-Aranatz	1	0	2
Lakuntza	1	0	1
Bakaiku	0	0	1
Urdiain	1	0	1
Arbizu	2	0	1

– Meza gehienak erdaraz ospatzen dituztenak:

Udalerria	euskaraz	gaztelaniaz	elebiz
Arakil (*)	0	6	3
Iturmendi	0	1	1
Irurtzun	0	4	0
Olazti	0	2	0
Ziordia	0	1	0
Uharte Arakil	0	2	0
Altsasu	0	2	2


(*) Arakilgo Hiriberri, Ihabar eta Satrustegi ikerketatik kanpo geratu dira.

- Gaztelania da nagusi Aralarko liturgian eta euskara hutsezko meza ko-
purua ez da laurdenera iristen.
- Euskara gehien erabiltzen da Arruatzutik Urdiainerako tarte geografi-
koan, Iturmendiren salbuespenarekin. Beraz Uharte Arakilek ekialdean
eta Altsasuk mendebaldean zedarritzen dute euskararen eta gaztelania-
ren arteko muga.

- Nabarmentzekoa da Uhartte Arakil, Olazti eta Irurtzungo kasuan, bizigune handiak izan arren, bertan ospatzen diren meza guztiak gaztelania hutsez izatea. Euskarak, beraz, oso toki gutxi du herri horien eliz-bizitzan.

B. Katekesia Aralarko artzapezbarrutian:

	Parroki kopurua	euskaraz		gaztelaniaz		Bi hizkuntzez	
Jaunartzea	21	8	%38	7	%33	6	%29
Sendotza	16	7	%44	3	%19	6	%37
Helduak	6	2	%33	3	%50	1	%17
Ezkont. Ikas.	18	3	%17	11	%61	4	%22
Bataio. Gur.	19	3	%16	12	%63	4	%21
Jaun. Guras.	20	3	%15	12	%60	5	%25
Send. Guras.	12	3	%25	7	%58	2	%17



- Euskara haur eta gazteen katekesian erabiltzen da gehien, jaunartze- eta sendotza-katekesian batez ere.
- Helduen katekesian, ezkontza-ikastaroetan eta gurasoekin egiten den katekesian gaztelania erraz nagusitzen da.

C. Bilera pastoralak Aralarko-artzapezbarrutian:

- Apaizen erretiroak artzapezbarruti mailan antolatzen dira eta elebiz egiten dira.

- Artzapezbarrutiko bilerak (katekistak, e.a.): elebiz egiten dira.
- Pastoraliza-kontseilua duten parrokiak:

	Parroki kopurua	euskaraz		gaztelaniaz		elebiz	
Pastoraliza-kontseilua	9	3	%33	6	%67	0	0

- Artzapezbarrutiko Pastoraliza-kontseilurik ez dago; hala ere, artzapezbarrutiko katekisten bileretan Pastoraliza-Kontseiluari dagozkion gaiak aztertzen dira eta horren funtzioak betetzen dira behin-behineko moduan. Bilera horiek elebiz egiten dira.
- Artzapezbarruti mailan bilera guztiak gaztelaniaz egiten dira nagusiki, euskal otoitzak eta kantuak tartekatu arren.

D. Eliz-komunikabideak Aralarko artzapezbarrutian:

	Parroki kopurua	euskaraz		gaztelaniaz		Elebiz	
Orri/aldizkariak	13	0	0	9	%69	4	%31
Irratsaioak	2	2	%100	0	0	0	0


- Parrokiek moldatzen dituzten komunikabideetan, orri eta aldizkarietan alegia, gaztelania erabiltzen da hagitz proportzio nagusian.
- Kanpotik antolatzen diren irratsaioetan euskaraz egiten da.

1.4. Mendialdeko artzapezbarrutien azterketa konparatua:

Orain arte datuak artzapezbarrutiz artzapezbarruti bereizita aurkeztu ditugu; segituan azaldutako aldagaiak modu konparatuan aurkezten ditugu:

1.4.1. Igande eta jaiegunetako mezak:

- Baztan-Bidasoan euskararen erabilerak nagusitasun handia erakusten du: mezen %69a.
- Larraunen euskaraz ospatzen diren mezen kopurua erdia justu-justu gairitzen du: mezen %53a
- Aralarren euskarazko meza-kopurua ez da laudenera iristen: %23a.



1.4.2. Katekesia:

- Haur eta gazteen euskarazko katekesia hiru artzapezbarrutietan nagusitzen da, Aralarren justu samar ibili arren.
- Helduen katekesian –Larraungo datu bitxia alde batera utzita– gaztelaniak gorako joera erakusten du eta Aralarren erabateko nagusitasuna du.

1.4.3. Artzapezbarrutiko bilera pastoralak:

- Apaizen erretiroak euskaraz ospatzen dira Baztan-Bidasoan eta Larraunen. Aralarren, ordea, euskarazko atalak sartu arren, gehienbat gaztelaniaz egiten dira. Horrek erakusten du apez erdaldunek eragina izaten dutela bilera horietan.
- Katekisten bilerak eta gainerakoak euskaraz egiten dira Larraunen eta erdaraz Baztan-Bidasoan eta Aralarren. Aztertu beharko zen horren arrazoiak, katekistek hainbat gaietarako duten hizkuntza-hutsunea edo euskarazko materialen falta ote den.

	Baztan-Bidasoa	Larraun	Aralar
Apezen bilerak	euskaraz	euskaraz	gaztelaniaz
Katekisten bilerak	gaztelaniaz	euskaraz	gaztelaniaz

1.4.4. Eliz-komunikabideak:

- Hiru artzapezbarrutietan erabiltzen dira, neurri batean, komunikabideak. Parrokiak prestatutako orri eta aldizkarien kasuan euskara nagusi da Baztan-Bidasoan eta Larraunen. Gaztelaniak sarbidea du bertan elebiz egiten direnetan, gehienak Baztan-Bidasoan eta gutxienak Larraunen. Aralarren, ordea, oso gutxi dira elebiz egiten direnak, %31a, eta gainerako guztiak gaztelania hutsez egiten dira.
- Irratsaioetan parte-hartze guztiak euskaraz egiten dira, tokian tokiko irratiek euskaraz emititzen dutelako.

1.5. Mendialdeko egoerari buruzko ondorio batzuk:

- Oro har esan daiteke Mendialdeko parrokiak euskara neurri egokiaz erabiltzen dutela beren lan pastoralak gauzatzean. Dena den tokian tokiko egoera linguistikoak baldintzatzen du parrokiaren jokatze hori.
- Euskararen erabilera pastoralak murriztuz doa geografikoki hegoaldera jotzen dugun heinean, horrela Baztan-Bidasoan da euskara gehien erabiltzen duen artzapezbarrutia, Larraunen proportzioa, ona izan arren, baxuagoa da eta Aralar da euskara gutxien erabiltzen duena.
- Larraunen kasuan Ultzama eta Atetz dira salbuespena. Ibar horietan gaztelania nagusitzen da nabarmenki eta horrek ko-artzapezbarrutiaren datuak baldintzatzen ditu. Argi dago bi pastoral mota diferenteak planteatu behar direla hizkuntzari dagokionez, Larraun ko-artzapezbarrutiko parrokiak gehienetan euskara errealitate nagusitzat hartu behar da eta horrela tratatu. Ultzama eta Atetzen, berriz, euskara berreskuratzen ari den hizkuntza da, gazteek eta adin zaharrekoek ezagutzen dute gehien eta adin tarte horiei begira planteatu behar da gehienbat euskarazko pastoraltza, beste adin tarteak alde batera utzi gabe.
- Aralarko-artzapezbarrutian euskarazko pastoraltza Urdiandik Arruatzura doan tarte geografikoan gauzatzen da. Ereku horretako herrietan euskara ohizkotasunez erabiltzen da pastoral-bizitzaren alor guztietan. Gainerakoetan, salbuespen batzuk kenduta, euskara ia ez da kontuan hartzen. Harrigarria da lurralde horietako herri handi batzuen jokaera (Olazti, Uhartea Arakil, Irurtzun) non euskarak ia ez duen tokirik eliz-bizitzaren barrenean. Herri horiek, nagusiki erdalduak badira ere, euskaldunen proportzio altuak dituzte eta euskara sarbideratzeko ahaleginaren bat egin beharko lukete.
- Parrokia kudeatzean euskarak ez du beste arloetan adina garrantzirik. Kontuan hartu behar da parroki liburuak erdaraz bakarrik argitaratzen

zirela duela gutxira arte eta gaztelaniaz soilik daude parrokia aunitzetan. Liburu elebakarrak liburu elebidunez ordezkatzeko joera ez da nagusitzen. Etorkizunari begira informatika sartuko da eremu horretan eta zaindu beharko da euskarazko baliabideak eskaintzea.

2. EUSKARAREN ERABILERA IRUÑEKO BIKARITZAN

2.1. Kokapen geografiko eta eklesiala:

Iruñea izeneko zonalde pastoralak Nafarroako hiriburua du erdigune nagusia. Baina barne hartzen du, halaber, Iruñerria osoa eta hiriburutik urrunxego dauden beste anitz udalerrri: Esteribar, Anue, Etxauri, Goñi, Lantz... besteak beste.



Iruñean eta Iruñerrian biltzen da Nafarroa osoko biztanleriaren erdia. 2002ko populazio-datuen arabera, Iruñeko biztanle-kopurua 189364koa da. 1996ko neurketaren arabera, iruindar euskaldun eta ia euskaldunen kopurua 23982koa da, horrek esan nahi du biztanleriaren %13ak euskaraz dakiela. Hala ere, datua ñabartu behar da, izan ere bi neurketen arteko tartea sei urtekoa izanik, pentsatzekoa da denbora horretan zehar euskaldunen kopuruak gora egin duela eta, horren ondorioz, hiriburuko euskaldunen portzentaia zertxobait igo dela. Horrexegatik euskaldunen kopurua altuxeagoa litzateke gaur egun.

Aipatzekoa da 2001ean azken zentsu orokor bat egin zela Nafarroa osoan, baina emaitzak ez dira orain arte argitaratu. Ageri denez euskaldunen zenbakia esanguratsua da eta datuei begira, Iruñea eta bere inguruak nafar gehien biltzen duen tokia izateaz landa, Nafarroako euskaldun gehien biltzen duen kokagunea da ere bai.

Giza kontzentrazio handi horrek eragin zuzena du eliz-egituretan. Hiriko parrokiak handiak dira, barne hartzen duten sinestun-kopuruaren aldetik; ez dago 1000 beherako biztanle biltzen duen parrokiarik eta, gaur egun, bere pastoral-eremuan 14000 biztanle baino gehiago biltzen duena ere bada. Egoera hori bestelakoa da, nabarmenki, Iruñeko inguru urrunean barreiatua dauden herri txikietako parroketan, ezen bakar batzuk iristen baitira 500 biztanleko jo mugara.

Zonalde pasterala sei artzapezbarrutietan bereizten da: Iruñea-Egues ekialdean, Iruñea-Elo hegoaldean, Iruñea-Zizur hego-mendebaldean, Iruñea-Barañain hiriaren mendebaldean, Iruñea-Berriozar ipar-mendebaldean eta Iruñea-Zubiri iparraldean. Esan bezala Iruñea eta Iruñerriaz gain, inguruko ibar batzuk barne hartzen ditu.



Errealitate diferenteak kontuan hartu behar dira azterketa egitean. Horregatik Iruñeko zonalde pastoraleko datuak ematean, hasteko, Iruñea eta Iruñerriko biziguneak hartu dira kontuan. Gero, bigarren momentu batean, urruneko udalerrri batzuen datuak aztertzen dira. Gutxi batzuenak bakarrik: Anue,

Lantz eta Esteribar, izan ere, horietan bakarrik atzeman daiteke euskararen presentzia xumeren bat jarduera pastoralean. Horiek dira, gainera, Nafarroako Euskararen legeak eremu euskaldunean kokatzen dituenak.

2.2. Iruñeko artzapezbarrutien deskribapena:

Zonalde honetako egoera ikertzean Iruñeko parrokia guztiak eta 1000 biztanle baino gehiago dituzten Iruñerrikoak aztertu dira. Horrela deskribatu daiteke artzapezbarruti bakoitzak bere barnean hartzen dituen udalerrri eta parrokiak:

Iruñea-Egues artzapezbarrutia:

Ekialdean kokatua dago eta honako auzo eta eskualde hauek hartzen ditu barne:

- Iruñeko Alde Zaharra, Bigarren Zabalgunea eta Mendillorri.
- Eguesibarra, Olatzibarra eta Aranguren ibarreko alde bat.
- **Gure ikerketan kontuan hartutako parrokiak:** *Iruñeko Done Agustin, San Lorentzo, San Nikolas, San Zernin, San Migel, San Frantzisko Xabierkoa, Kristo Errege eta Gure Aita (Mendillorri).*

Iruñea-Elo artzapezbarrutia:

Hegoaldean kokatua dago eta honako auzo eta eskualde hauek hartzen ditu barne:

- Iruñeko Arrosadia.
- Beriain, Elortzibar, Elo, Ibargoiti eta Aranguren ibarreko alde bat.
- **Gure ikerketan kontuan hartutako parrokiak:** *Iruñeko San Henrike, San Fermin, Ugandako Martiri Santuak, Arangurengo Mutiloagoiti eta Mutiloabeiti, Beriain, Potasas eta Elortzibarko Noain.*

Iruñea-Zubiri artzapezbarrutia:

Iparraldean kokatua dago eta honako auzo eta eskualde hauek hartzen ditu barne:

- Iruñeko Txantrea.
- Burlata, Atarrabia, Uharte, Ezkabarte, Olaibar, Odieta, Lantz, Anue eta Esteribar.

– **Gure ikerketan kontuan hartutako parrokiak:** *Iruñeko Done Kristobal, San Jose, Santa Teresa eta Done Jakue; Burlatako San Joan Bataiatzailea eta Done Bladi, Atarrabiako San Andres eta Uharteko San Joan Ebanjelaria.*

- Anue, Lantz eta Esteribarko parrokiak bigarren atalean aztertzen dira.
- Txantreako San Jose parrokiak ez du ikerketan parte hartu.

Iruñea-Berriozar artzapezbarrutia:

Ipar-mendebaldean kokatua dago eta honako auzo eta eskualde hauek hartzen ditu barne:

- Iruñeko Arrotxapea eta Sanduzelai.
- Berriozar, Antsoain, Goñibar, Olloibar, Itza Zendea, Xulapain, Berriobeiti, Atetz ibarreko tarte bat, Orkoién, Oltza Zendea eta Etxauri ibarra.
- **Gure ikerketan kontuan hartutako parrokiak:** *Iruñeko Done Salvatore, Karmelgo Andre Maria, Ibaiko Andre Maria, Done Jurgi eta San Pedro; Berriozarko Done Eztebe, Antsoaingo San Kosme eta San Damian eta Orkoiengo San Jose Langilea.*

- Antsoaingo San Kosme eta San Damian eta Iruñeko San Pedro parrokiek ez dute parte hartu gure ikerketan.

Iruñea-Barañain artzapezbarrutia:

Mendebaldean kokatua dago eta honako auzo eta eskualde hauek hartzen ditu barne:

- Iruñeko Donibane, Ermitagaina, Mendebaldea eta Etxabakoitz.
- Barañain.
- **Gure ikerketan kontuan hartutako parrokiak:** *Iruñeko Pilarreko Andre Maria, Andre Mariaren Zeruratzea, Done Bizente Paulekoa, San Alberto, Baratzeko Andre Maria, Corpus Christi, Ermitagainako Andre Maria eta Familia Santua; eta Barañaingo Done Paulo eta Andre Maria.*

Iruñea-Zizur artzapezbarrutia:

Hego-Mendebaldean kokatua dago eta honako auzo eta eskualde hauek hartzen ditu barne:

- Iruñeko Iturrama.

- Zizur Nagusia, Zizur Zendea, Zabaltza.
- **Gure ikerketan kontuan hartutako parrokiak:** *Iruñeko Jesusen Bihotza, Bakearen Andre Maria, San Frantzisko Asiskoa, San Joan Bosko, San Raimundo Fiterokoa, Sta. Bizenta Bikuña, Zizur Nagusiko Doniantzuko Itxaropenaren Andre Maria.*
 - Jesusen Bihotzaren parrokiak ez du gure ikerketan parte hartu.

Esan bezala Iruñea Zonaldeko datuak azaltzean bi alde bereiziko ditugu:

- 1.–Iruñeko eta Iruñerriko 1000 biztanletik goitiko parrokiek euskararen erabileraz duten jarduera aztertzen duena;
- 2.–Anue, Esteribar eta Lantz udalerrietako parroketan eramaten dena.

2.3. Euskararen erabilera Iruñea Zonaldeko 1000 biztanletik goitiko parroketan:

Lehen aipatu dira atal honetan parte hartu beharko luketen parrokien ize-nak, berrogeita bederatzi guztira, baina horietatik lauk ez dute datu biltzeari erantzuteko borondaterik erakutsi; beraz kanpo geratu dira. Horrez gero ikerketan parte hartu duten berrogeita lau parroketako datuak erabiltzen dira. Azpimarratu beharreko datua da hori, zeren eta hemen eskaintzen diren kopuru eta portzentaiak berrogeita lau parroketan oinarritzen dira, ez parroki multzo osoa osatzen duten berrogeita bederatzietan.

Egoeraren berri emateko, ikerketaren ardatz gisa hartutako bost aldagaien emaitzak eskaintzen dira:

- euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezetan;
- euskararen erabilera beste sakramentu eta elizkizunak ospatzean: baitaioak, lehen jaunartzeak, sendotzak, hileta-ehorzketak eta aitortzak;
- euskararen erabilera katekesian;
- euskararen erabilera parroki kudeatzean
- euskararen erabilera parrokiako komunikabideetan.

2.3.1. Euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezaren ospakizunetan:

Kopuru eta portzentaiak Iruñea eta Iruñerriko parroketan ospatzen diren meza-zenbakia kontuan hartuz:

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	6	%3
Gaztelaniaz	209	%96
Elebiz	3	%1
GUZTIRA	218	%100



- Agerikoa denez, ikerketak ez digu ematen meza horietan parte hartzen duten sinestun-kopuruaren berri, ez zen hori gure helburua, hala ere 1998an Elizbarrutiak egin zuen mezetako partehartze-kopuruari buruzko neurketak adierazten du Iruñeko zonalde pastoralean mezara joaten diren lagunen portzentaia populazio osoaren %29,9koa dela.
- Koadroa egitean, parrokiatako mezak bakarrik zenbatu dira; kanpoan gelditu dira erlijiosoen komentu eta elizetan ospatzen direnak bi kasu izan ezik: jesuitak eta Alde Zaharreko klaretiarrak (korazonista izenez ezagutuak), horiek beren elizetan meza euskaraz ospatzen dutelako. Kasu horietan euskarazko meza euren eremuko parrokiaren meza kopuruari gehitu zaio, Kristo Erregeri eta Done Agustini, alegia.
- Meza euskaraz ospatzen duten parrokiak: Iruñeko Corpus Christi, San Frantzisko Asiskoa, Kristo Errege (jesuitak) eta Done Agustin (klaretiarrak); Burlatako Done Bladi eta Barañaingo Andre Maria.
- Jesuitetan ospatzen den meza egunero egiten da; hori da Iruñeko zonaldean dagoen asteguneko euskarazko meza bakarra.

- Meza astero elebiz ospatzen duten parrokiak dira: Andre Mariaren Zeruratzea, Berriozarko Done Eztebe eta San Fermin.
- Andre Mariaren Zeruratzean eta Berriozarko Done Ezteben meza euskaraz ospatzen da hilean behin.
- Ikerketaren datuak nahiko esanguratsuak dira: euskarazko eta elebizko mezek kopuru osoaren %4a osatzen dute; gainera, parrokia ez diren komentu eta erlijiosoen elizetan ospatzen diren mezen zenbakia kontuan hartuko bagenu portzentaia zertxobait jaitsiko litzateke oraindik.

Bestaldetik, elebiz ospatzen diren 3 mezak nahiko era diferentean planteatuak daude eta kontuan hartu behar da, betiere, hiru kasuetan apezek ez dutela euskara menperatzen:


- Donibane auzoko Andre Mariaren Zeruratzearen parrokiaren elebizko meza euskarazko katekesian parte hartzen duten haur eta gurasoei begira pentsatua dago gehienbat. Kantu guztiak euskaraz egiten dira, oharrak katekistek egiten dituzte euskaraz eta gaztelaniaz, irakurgaiak bi hizkuntzez, homilia erdaraz baina bukaeran katekesi-arduradunak euskarazko laburpen bat ematen du, eukaristi otoitza gaztelaniaz gehienbat, eta bukaerako oharrak euskaraz.
- Berriozarko Done Ezteben, elebizko meza propio bat ospatzen dela esan baino, seinatu behar da igandetako meza gehienetan ohikoa dela euskarazko kantuak tartekatuta eta oharrak eta eskariak elebiz egitea.
- Arrosadiako San Fermin parrokiaren, igandeko meza batean, euskarazko kantuak tartekatuta besterik ez da egiten. Elebizko mezatza hartzea gehiegizkoa da beharbada.

2.3.2. Euskararen erabilera beste sakramentu eta elizkizunen ospakizunetan:

Eukaristiaz landa, Iruñeko zonaldeko aztertutako berrogeita bost parrokiatan ospatzen diren gainerako sakramentuak horrela sailka daitezke hizkuntzen erabilerean arabera. Aldez aurretik esan behar da, kasu honetan, oinarritzotzat hartutako datua ez dela sakramentu bakoitzeko ospakizun-kopurua baizik eta sakramentu hori hizkuntza bakoitzean ospatzen duten parrokia-kopuruarena:

	Euskaraz		Gaztelaniaz		Elebiz	
Bataioak	1	%2	36	%82	7	%16
Lehen Jaunartzeak	1	%2	24	%56	18	%42
Sendotzak	0	0	36	%88	5	%12
Hileta elizkizunak	0	0	27	%61	17	%39
Aitortzak	0	0	35	%83	7	%17

Sakramentuen ospakizunetan erabiltzen den hizkuntzaren koadro konparatua:



- Sakramentuak gaztelaniaz ospatzen dira nagusiki Iruñean; euskara hutsezko proportzioak testigantzaokoak dira. Parrokia batek bakarrik ospatzen ditu, horrela eskatzen diotelarik, bataioak eta lehen jaunartzeak euskara hutsez; gainerakoek elebizko ospakizunak hobesten dituzte.
- Elebiz ospatzen direnetan portzentaia dezente igotzen da sakramentu hauetan, igandeko eukaristien datuekin konparatua. Kontuan hartu behar da sakramentu hauek ez direla astero ospatzen, batzuk urtean behin bakarrik eta bestetzuk noiz edo noiz. Bestalde kopuru altua dirudi, kasu honetan parrokien zenbakia hartu baita oinarri eta ez ospakizunen kopurua, mezen kasuan egin dugun bezala.
- Elebiz gehien ospatzen diren elizkizunak lehen jaunartzeak eta hiletak dira; bi portzentaia %40 inguru daude. Neurri txikiagoan, %20ra hurbiltzen baina iritsi gabe, bataioak eta aitortzak daude eta sendotzak dira elebiz gutxien ospatzen diren sakramentuak.
- Oro har, iduri du Iruñeko parrokietan zabaldua dagoela sakramentuak elebiz ospatzeko aukera eskaintzeko joera, parrokoek sinestun euskaldunak atzematen dituztelarik.

2.3.3. Euskararen erabilera katekesian:

Katekesia da euskararen erabilpena hobeki garatua dagoen pastoral-arloa; izan ere Iruñeko eta Iruñerriko euskaldunen portzentaia handi bat haur eta gaztetxoena da. Alor pastoral honek, gainera, antolaketari begira tradizio handia izan du betidanik gure elizbarrutietan. Adin horietan ematen den katekesia lehen jaunartzekoa da eta, neurri txikiago batean, sendotzakoa. Bada salbuespen bat, heldu eta gurasoen katekesian euskara erabiltzen duen parrokia bat, Barañaingo Andre Maria, baina kasu bakarra da Iruñea eta Iruñerri osoan.

Bestalde, seinlatu behar da ez dagoela katekesia euskaraz bakarrik ematen duen parrokiarik. Katekesia gaztelaniaz eman ala bi hizkuntzen artean aukeratzeko posibilitatea eskaintzen da.

Iruñea eta Iruñerri osoan katekesia gaztelaniazko ala bi hizkuntzekoen artean aukeratzeko posibilitatea eskaintzen duten parrokien kopuru eta portzentaia buruzko koadroa:

	Kopurua	Portzentaia
Gaztelaniaz	29	%66
Elebiz	16	%34



- Parroki kopuruari dagokionez, euskara katekesian erabiltzen duten parrokiak herena baino gehiago dira. Hala ere euskarazko katekesia ez da, oro har, katekesi maila guztietan eskaintzen.

– Datuak artzapezbarrutika:

• **Iruñea-Egues:**

	Kopurua	Gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Lehen Jaunartzea	8	6 %75	2 %25

– Euskaraz ematen duten parrokiak Kristo Errege eta Mendillorriko Gure Aita parrokiak dira. Bi kasuetan haurren katekesia bakarrik.

• **Iruñea-Elo:**

	Kopurua	Gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Lehen Jaunartzea	6	5 %83	1 %17

– Katekesia eskaintzen duen parrokia San Fermin da, haurren mailetan bakarrik eta, katekista euskaldunen faltagatik, urte batzuk eman gabe utzi da.

• **Iruñea-Zubiri:**

	Kopurua	Gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Lehen Jaunartzea	7	3 %43	4 %57
Sendotza	7	5 %71	2 %29

– Jaunartzeko katekesia euskaraz eskaintzen duten parrokiak Done Kristobal, Done Jakue, Burlatako Done Bladi eta Atarrabiko San Andres dira. Azken biek Sendotzakoa ere bai.

• **Iruñea-Berriozar:**

	Kopurua	Gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Lehen Jaunartzea	6	3 %50	3 %50
Sendotza	6	5 %83	1 %17

– Jaunartzeko katekesia euskaraz eskaintzen duten parrokiak Berriozarko Done Eztebe, Ibaiko Andre Maria eta Done Jurgi; azkenekoak euska-

razko katekesia eskaintzeari utzi dio urte batzuek katekista euskaldunen faltagatik.

• **Iruñea-Barañain:**

	Kopurua	Gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Lehen Jaunartzea	10	7 %70	3 %30
Sendotza	10	9 %90	1 %10
Jaunar. Gurasoak	9	8 %89	1 %11
Sendo. Gurasoak	9	8 %89	1 %11


– Lehen Jaunartzeko katekesia euskaraz eskaintzen da Andre Mariaren Zeruratze, Corpus Christi eta Barañaingo Andre Maria parrokietan; azken horretan Sendotzako eta lehen Jaunartze zein Sendotzako gurasoena ere bai.

• **Iruñea-Zizur:**

	Kopurua	Gaztelaniaz	Bi hizkuntzez
Lehen Jaunartzea	6	3 %50	3 %50

– Jaunartzeko katekesia euskaraz eskaintzen da San Frantzisko Asisko, San Raimundo Fiteroko eta Zizur Nagusiko Doniantzuko Itxaropenaren Andre Maria parrokietan.

• Koadro konparatua artzapezbarrutika:




- Koadroak agertzen duenez euskarazko katekesia artzapezbarruti guztietan ezarria dago. Proportzioa ez da berdina ordea; Zubirik, Berrioza-rrek, Barañainek eta Zizurrek portzentaia altuagoak lortzen dituzte Egu-esek eta Elok baino. Gainera Eloko artzapezbarrutiaren kasuan urte batzuk deus eskaini gabe egon da.
- Euskarazko katekesia haurren kontua da Iruñean; Sendotza edo gazte katekesia lau parrokiatan bakarrik ematen da eta helduena parrokia bakar batean.

2.3.4. Parrokiaren kudeatzea:

Alor hori ikertzeko hiru aldagai hartu dira kontuan: parrokia-liburuen hizkuntza, parroki zigiluarena eta parrokiako orri eta gutunzaletan erabiltzen den idazpuru edo menbreteena.

Parroki liburua:

	Gaztelaniaz		Elebiz	
Bataio-liburuak	40	%93	3	%7
Sendotza-liburuak	39	%93	3	%7
Ezkontza-liburuak	39	%93	3	%7
Hilen liburuak	40	%95	2	%5



Parroki zigilua:

Kopurua	Portzentaia	
Euskaraz	1	%2
Gaztelaniaz	42	%95
Elebiz	2	%3
GUZTIRA	45	%100



Parroki tinbreak, orri eta gutunazalen idazpuruak:

	Kopurua	Portzentaia
Euskaraz	0	0
Gaztelaniaz	39	%91
Elebiz	4	%9
GUZTIRA	43	%100

- Parroki liburuen kudeatzeak, baita zigilu eta tinbreen erabilerak ere, erakusten dute lan hori gaztelaniaz egiten dela ia bakarrik Iruñeko zonaldean. Euskara idazpuruetan erabiltzen da gehien, horiek elebiz dauzlarik, eta %10era iristen ez den portzentaian.

2.3.5. Parrokiako eliz-komunikabideak:

	kopurua		gaztelaniaz		elebiz	
Parroki orria	35	%78	31	%89	4	%11
Parroki aldizkaria	13	%22	10	%77	3	%23



- Iruñe eta Iruñerriko parrokia gehienek komunikabide propioen bat erabiltzen dute eta horietatik %11ak euskara erabiltzen du, neurriren batean.

2.4. Euskararen erabilera Lantz, Esteribar eta Anue udalerriko parrokiatan:

Lantz, Esteribar eta Anue, geografikoki, Nafarroako ipar-ekialdean daude kokatuak, Baztan eta Erroibarraren artean. Eliz-egiturari dagokionez Iruñea-Zubiri artzapezbarrutian daude sartuak baina, euren ezaugarri pastoralengatik, ezer gutxi dute ikusterik Iruñean eta bere inguruan dauden parrokia handiekin alderatuak. Administratiboki Nafarroako Euskararen Legeak eremu euskaldunean kokatzen ditu; horregatik pentsatu dugu komeni zela ikuspegi pastoraletik ere euskarak bertan duen presentzia neurtzea.

Udalerrien deskribapena:

- Lantz: herri bakarra da; 1996ko neurketaren arabera 122 bizilagun ditu, horietatik 35, %29a, euskaldun edo ia euskaldunak dira. Mezara joaten direnen kopurua %31,3a da.

Aztertzen ari garen bost aldagaiei dagokienez emaitzak honako hauek dira:

- Igande eta jaiegunetako mezak: bi meza egiten dira, biak gaztelaniaz, euskarazko hainbat kantu tartekatuz.
- Beste sakramentu eta elizkizunak: denak gaztelaniaz.
- Parrokiaren kudeatzea: dena gaztelaniaz.
- Katekesirik ez dago.
- Eliz-komunikabiderik ez dago.

- Anue: Aritzu, Burutain, Egozkue, Etsain, Etulain, Leazkue eta Olague herriez osatua. Herri horietako parrokia guztiek erantzun diote gure inkestari. 1996ko neurketaren arabera 441 lagun ditu, horietatik 172, %39a, euskaldun edo ia euskaldunak dira. Mezara joaten direnen kopurua %31,3a da.

Aztertzen ari garen bost aldagaiei dagokienez emaitzak honako hauek dira:

- Meza guztiak gaztelaniaz ospatzen dira kantuak izan ezik, horiek elebiz egiten baitira.
- Beste sakramentu eta elizkizunak: denak gaztelaniaz.
- Parrokiaren kudeatzea: dena gaztelaniaz.
- Katekesirik ez dago.
- Eliz-komunikabiderik ez dago.

- Esteribar: Agorreta, Antxoriz, Akerreta, Errea, Ezkirotz, Eugi, Gendulain, Idoi, Ilarratz, Inbuluzketa, Iragi, Irotz, Larrasoaña, Leranotz, Oloki, Osteritz, Saigots, Sarasibar, Setoain, Urdaitz, Urtasun, Usetxi, Zabaldika, Zubiri eta Zuriain herriez osatua. Herri txikiak dira, denak 100 bizilagunetik behera Zubiri izan ezik. 1996ko neurketaren arabera, guztira 1452 biztanle ditu, horietatik 181, %12a, euskaldunak edo ia euskaldunak. Mezara joaten direnen kopurua %28,3a da. Gaur egun parrokia guztiak Zubiriko Parroki Unitatean bilduak daude.

Aztertzen ari garen bost aldagaiei dagokienez emaitzak honako hauek dira:

- Igande eta jaiegunetako mezak: guztiak gaztelaniaz egiten dira. Zubirin kantuak elebiz egiten dira eta gainerakoetan gaztelania hutsez. Beste meza-atalak gaztelaniaz.
- Beste sakramentu eta elizkizunak: dena gaztelaniaz.
- Parrokiaren kudeatzea: dena gaztelaniaz.
- Katekesia: ematen den parrokia gutxietan gaztelania hutsez ematen da.
- Eliz-komunikabideak: ez dago.

2.5. Iruñeko bikaritzaren egoerari buruzko ondorio batzuk:

- Euskarak presentzia du Iruñeko artzapezbarruti guztietan, baina ez neurri berean, diferentzia nabarmenak daude horien artean. Ildo horretan, Iruñea-Barañain eta Iruñea-Zubiri dira, oro har, euskara gehien erabiltzen duten artzapezbarrutiak; Iruñea-Egues, Iruñea-Zizur eta Iruñea-Berriozar neurri txikiagoan erabiltzen dute eta Iruñea-Elo artzapezbarruti-an euskarak ia ez du presentziarik, parrokia bakar batera mugatzen da; bertan, noiz edo noiz, euskarazko kantu batzuk mezetan eta urte batzuetan lehen jaunartzeko katekesia euskaraz eman da.
- Sakramentu eta elizkizun bereziak elebiz ospatzeko aukera zabalagoa da. Kontuan hartu behar dugu bataioak, lehen jaunartzeak, hileta-elizkizunak... ez direla usu astero ospatzen, urtean behineko edo noizean behinekoak izaten dira. Oro har, Iruñeko parrokia gehienetan ez dago elebitasuna onartzeko arazo handirik ospakizunetan inplikatuak dauden euskaldunak badira eta horrela eskatzen badute. Azpimarratu behar da kasu honetan, igandeetako mezen kasuan bezala, ospakizun elebidunaren ideia ez dela berbera parrokia eta erretore guztientzat eta euskaraz egiten diren atal edo tarteak asko aldatzen dira parrokien arabera.
- Katekesia da euskararen aldetik hobeki antolatua dagoen eskaintza pastoral. Hamasei parrokietan eskaintzen da, hau da, parrokien herenean baino gehiago. Katekesia euskaraz ematen da kristau-sarbiderako sakramentuetan bereziki: lehen jaunartzea eta sendotza (bataioan katekesia gurasoei zuzendua baitago) baina, batez ere, lehen jaunartzean. Horrek esan nahi du Iruñean eskaintzen den euskarazko katekesia hurrei zuzendua dagoela gehienbat eta, neurri txikiagoan, gazteei. Helduen mundua kanpo geratzen da erabat. Artzapezbarrutiei begira Iruñea-Zu-

biri, Iruñea-Berriozar eta Iruñea-Barañain dira, euskarazko katekesiaren arloan, eskaintza gehien egiten dutenak.

- Parrokiaren kudeatzeari dagokionez euskararen presentzia hagitxurritza da; esan daiteke euskara ez dela parroki kudeatzerako erabiltzen den hizkuntza.
- Parrokiek banatzen dituzten orrietan euskarak presentzia eskasa du Iruñeko Zonaldean, lau parrokiek bakarrik sartzen dute testuren bat euskaraz eta arrunt proportzio txikian.
- Lantz, Anue eta Esteribarko udalerrietan euskarak oso presentzia murriztu du, pastoral bizitzari dagokionez. Kontuan hartu behar da parroki txikiak direla eta, bai katekesia, bai mezatik aparteko sakramentu eta elizkizunak, eskasak izaten direla. Euskararen presentzia parroki batzuek mezetan sartzen dituzten kantu batzuetara mugatzen da. Eskualde horietan %25 inguruko euskaldun-kopurua dagoela kontuan hartuz, ekimen horiek urri geratzen dira.

3. EUSKARAREN ERABILERA PIRINIO-IBARRETAN:

Nafarroako Elizbarrutietan bereizten diren bost zonalde pastoraletako handiena "Pirinio-Erdialdea" izenekoa da. Tafalla litzateke hiri nagusia eta barne hartzen ditu Pirinioetatik Erribera arteko mugetara sartzen den lurralde zabala.



3.1. Kokapen geografiko eta eklesiala:

Pirinio-ibarrek euskararen galera sekulakoa pairatu dute azken mendean zehar eta XIX. mendera arte tradizio handia zuten Erronkaria eta Zaraitzura bezalako euskalkiak desagertuak edo desagertzear daude gaur egun. Nafarroako Euskararen Legeak, hala ere, ez ditu Erronkari eta Zaraitzu ibarrak eremu euskaldunaren barrenean kokatu, Mistoa deitutakoan baizik; eta Erroibar, Luzaide, Orreaga, Auritz eta Aezkoako udalerriak Eremu Euskaldunean.

Pirinio-Erdialdeko zonaldea hain zabala izanik, bertan daude kokatuak, Zangoza, Agoitz, Irunberri, Erriberri eta Tafalla bezalako hiri handiak, baina horiek hurrengo kapituluan, "Euskararen erabilera beste errealitate pastoralean" izenekoan, aztertzen dira.

- Segituan aurkezten dugun ikerketak honako udalerri hauek barne hartzen ditu: Erronkariko Izaba, Garde, Burgi, Erronkari, Urzainki, Bidankoze eta Uztarroze;
- Zaraitzuko Otsagi, Itzaltzu, Ezkaroze, Espartza, Orontze, Eiaurrieta, Galoze, Sartze eta Gortza;
- Aezkoako Aribe, Garaioa, Hiriberri, Abaurregaina, Abaurrepea, Orbaitzeta, Orbara, Aria eta Garralda;
- Orreaga aldeko Luzaide, Orreaga eta Auritz;
- eta Erroibarko Orondritz, Aintzinoa, Esnotz, Mezkiritz, Bizkarreta, Auritzberri, Zilbeti, Erro, Lintzoain, Loitzu eta Ardaitz.

Nafarroako ipar-ekialdean kokaturiko hogeita hemeretzi herri osotara.



Eremu geografiko handi bat da, baina biztanleria gutxi eta oso barreiatutakoa. Ez dago 1000 pertsonetik goitiko herririk eta bik bakarrik, Otsagik eta Izabak, 500 biztanleak gainditzen dituzte justu-justu.

Eliz-izaerari dagokionez, nabaritu behar da eremu honetan mezara joaten direnen portzentaia %40 ingurukoa dela. Parroki Unitate aipagarri batzuk egon arren, alderdi honetako eliz-egiturak beste eremutako baino baliabide gutxiago du; biztanleria adin zaharrekoa da gehienbat, eta horrek eragiten du katekesi eta kristau-sarbiderako sakramentu gutxi erabiltzea. Euskararen erabilera, ikusiko denez, ez du beste lurraldeen maila bera.

Orain aurkezten dugun ikerketak aipatutako udalerrietan dauden hogeita hemeretzi parrokiak barne hartzen ditu. Horietatik hogeita hamaikak ihardetsi diote inkestari. Kanpoan geratu dira Zaraitzuko parrokia gehienak (sei), Aezkoako bat (Garralda) eta Erroibarreko bat (Loitzu). Erronkari eta Orreaga aldeko gutziek erantzun diote. Dena den, ikusiko denez, praktika pastoralak nahiko berdintsua da toki gehienetan, horregatik zortzi parrokia horien hutsuneak ez ditu aipatzen diren joera orokorrak sobera aldarazten.

Egoeraren berri emateko, ikerketaren ardatz gisa hartutako bost aldagai hauen emaitzak eskaintzen dira:

- euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezetan;
- euskararen erabilera beste sakramentu eta elizkizunak ospatzean: bataioak, lehen jaunartzeak, sendotzak, hileta-ehorzetak eta aitortzak;
- euskararen erabilera katekesian;
- euskararen erabilera parroki kudeatzean;
- euskararen erabilera parrokiako komunikabideetan.

3.2. Euskararen erabilera igande eta jaiegunetako mezetako ospakizunetan:

	gaztelaniaz		Elebiz	
erronkari	7	% 100	0	0
zaraitzu	3	% 100	0	0
aezkoa	8	% 100	0	0
orreaga aldea	1	% 33	2	% 67
erro	10	% 100	0	0

- Ez dago euskara hutsezko mezak ospatzen dituen parrokiarik. Meza gehienak gaztelaniaz ospatzen dira eta Luzaiden ospatzen diren biak bakarrik egiten dira elebiz.

- Dena den esan behar da, kasu honetan meza bat elebizkotzat hartzeko gutxienez mezaren bi atal euskaraz egitea eskatzen dela. Horregatik elebizko kantuak bakarrik tartekatzen dituzten parrokiak kanpoan geratu dira.
- Zenbaki absolutuetan, ospatzen diren meza guztien artetik 2, %6a, bakarrik egiten dira elebiz.

Mezen atalei dagokienez aipatu behar da meza askotan kantuak elebiz egiten direla, horrela gertatzen da hamazazpi parrokitan. Beste batean, Luzaiden, kantu guztiak euskaraz egiten dira. Erronkariko zazpiak, Aezkoako Orbara eta Aria eta Erroibarko Bizkarreta, Orondritz, Aintzinoa eta Esnotz dira euskarazko kanturik erabiltzen ez duten parrokiak.

Gainerako meza-atalak gaztelania hutsez egiten dira parrokia guztietan, Luzaiden izan ezik.

3.3. Euskararen erabilera gainerako sakramentu eta elizkizunen ospakizunetan:

- Bataioak: elebiz egiten dira Luzaiden bakarrik.
- Lehen Jaunartzeak: elebiz egiten dira Orbaitzetan, Arian eta Auritzen eta euskara hutsez Luzaiden.
- Sendotzak: elebiz egiten dira Orbaitzetan, Auritzen eta Luzaiden.
- Hileta-elizkizunak: elebiz egiten dira Orbaitzetan, Arian eta Auritzen eta euskara hutsez Luzaiden.
- Aitortzak: konfesatzeko bi hizkuntzak erabiltzen dituzten parrokia bakarrik dira Luzaide eta Orreaga.
- Orbaitzeta, Aria (Aezkoa), Luzaide, Auritz eta Orreaga dira sakramentu eta beste ospakizunetan euskara erabili ohi diren parrokiak.

3.4. Euskararen erabilera katekesian:

Luzaide da euskara katekesian erabiltzen duen parrokia bakarra. Horrela egiten du lehen Jaunartzeko, Sendotzako eta Bataioko katekesian.

3.5. Euskararen erabilera parroki kudeatzean:

Parroki liburuak elebiz eramaten dira Luzaiden bakarrik. Parroki zigilu eta orrien idazpuruak gaztelaniaz daude parrokia guztietan.

3.6. Euskararen erabilera eliz-komunikabideetan:

Oso gutxi dira parroki orri edo aldizkaririk ateratzen duten parrokiak eta horiek guztiek gaztelania hutsez egiten dute.

3.7. Pirinio-ibarrak zonaldeko egoerari buruzko ondorio batzuk:

- Pirinio-ibarretako parroketan igande eta jaiegunetan usu egiten diren ospakizunetan euskararen erabilera parrokia batzuetan tartekatzen diren kantueta mugatzen da. Ez dago euskara hutsez ospatzen diren mezak eta elebizko bi meza bakarrik Luzaiden egiten dira.
- Eskualdeko datuen arabera Erronkarin ez da euskara erabiltzen bizitza pastoralaren ezein arlotan. Zaraitzun eta Erroibarran euskararen erabilpena parrokia batzuek mezetan sartzen dituzten kantueta mugatzen da. Aezkoako eta Orreaga aldeko parrokia batzuetan euskara sakramentu batzuk ospatzean erabiltzen da eta Luzaiden haurren katekesian ere.
- Luzaide da euskarazko zerbitzuak usu eskaintzen dituen parrokia bakarra: mezak, sakramentuak, katekesia eta parroki kudeatzean ahalegintzen baita.

4. EUSKARAREN ERABILERA NAFARROAKO BESTE ERREALITATE PASTORAL ESANGURATSUETAN:

Mendialde, Iruñea eta Pirinio-ibarrez gain, euskara Nafarroako beste lekuan ere agertzen da, nahiz eta proportzioak asko jaitsi. Gure txostena osatua izateko kontuan hartu behar beste errealitateak; horregatik hainbat parroketara jo dugu datu eske. Alde batetik hiri nagusienetara: Tuter, Lizarr, Tafalla eta Zangoza; bestetik, euskara euren lan pastoralean nolabait erabiltzen dutenetara: Agoitz, Irunberri, Erriberri eta Oibar.

4.1. Errealitate pastoral horien azalpena:

4.1.1. Tutera:

Ez dute erantzunik igorri, beraz Tuteran ez dela euskararen erabilpen pastoralik egiten ondorioztatu daiteke. Gauza bera esan daiteke Erriberako parroikia guztiez.

4.1.2. Tafalla:

Euskararen erabilera pastorala lehen jaunartzera mugatzen da. Lehen jaunartzeko ospakizunak elebiz egiten dira eta elebiz ere lehen jaunartzeko katekesia.

4.1.3. Lizarra:

Lizarran hiru parroikia hartu behar dira kontuan: San Pedro, San Migel eta San Joan Bataiatzailea. San Pedro eta San Migelen ez da deus egiten euskaraz. San Joan Bataiatzaile parrokian bai, baina uko egin diote gure inkesta erantzuteari.

4.1.4. Zangoza:

Zangozan ez da deus ere egiten euskaraz parrokiako bizitza pastoralean. Hala ere egon badago ikastolaren gurasoen inguruan antolatutako lagun talde bizi bat; horiek urtean zehar hainbat hitzaldi antolatzen dute eta urtean behin euskarazko meza bat. Hala ere eragozpen handiak pairatu behar dituzte lan hori burutu ahal izateko.

4.1.5. Erriberri:

Erriberriko frantziskotarren komentuan euskarazko meza ospatzen da abuztuko igande guztietan.

4.1.6. Oibar:

Mezetako kantuak euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira.

Jaunartzeak eta Sendotzak elebiz ospatzen dira.

Parroki liburu guztiak elebiz eramaten dira.

Katekesia gaztelaniaz egiten da.

4.1.7. Agoitz:

Igandeko meza batean euskarazko kantuak tartekatzen dira.

Bataioak euskaraz ospatzen dira gurasoek horrela eskatzen dutelarik.

Katekesia gaztelaniaz ematen da.

4.1.8. Irunberri:

Lehen jaunartze eta sendotza ospakizunetan euskara tartekatzen da hainbat ataletan: oharretan, haur edo gazteen aurkezpenean, herriaren otoitzean...

Aitortzak: ikastolan dabilzan hurrek euskaraz egiten dute.

Lehen Jaunartzeko katekesia gaztelaniaz eta euskaraz ematen da.

Orri eta gutunazalen idazpuruak elebiz daude.

Parrokiak banatzen duen orrian beti artikuluren bat agertzen da euskaraz.

III. EUSKARAREN ERABILERA ELIZBARRUTIETAKO ERAKUNDE ETA ZERBITZUETAN

Iruñea, 2003-IX-19

Xabier Lasa

Gure parrokien egoera aztertu ondoren instituzio mailari begiratuko diogu oraingoan. Ez da izanen aurrekoa bezain lan zehatza; egiten den euskararen erabileraren zerrendatze bat baizik. Beraz konparazioak eta gaztelaniarekiko portzentaia ez dira agertuko, jarduera eta ekimenen aipamen hutsa baizik.

Horretarako Eliz mailako organigrama hartu eta bertan bilduak dauden zerbitzuetatik euskararen erabileraren bat egiten dutena aipatu eta, konkretuki zer egiten duten azalduko dugu.

1. EUSKARA ERLIJO-IRAKASKUNTZAN:

Nafarroan D eredia duten ikastetxe publiko guztietan erlijio-heziketa arloa eskaintzen da hautazko ikasgai bezala. Berdin gertatzen da gaztelaniazko ereduetan. Irakasle horiek Nafarroako Gobernuak kontratatuak dira baina izendatzea Iruñeko Artzapezpikutegiak egiten du, bertan dagoen Hezkuntz Ordezkaritzaren bidez. Gaur egun Nafarroan irakaskuntza publikoan dauden 190 erlijio irakasleetatik 47 euskaraz aritzen dira.

Ikastola batzuetan ere erlijio eskolak ematen dira: hala nola, Elizondo, Zangoza, Bera eta Iruñeko Paz Ziganda, San Fermin eta Jaso.

Erlijosoen zentroak pribatuak dira eta horietan euskara ia ez du presentziarik. Bakar batzuek eskaintzen baitute A eredia.

2. EUSKARA BI UNIBERTSITATEETAKO JARDUNBIDEAN:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoa:

NUPa Unibertsitate Publiko bat da eta, beraz, ez du inolako lotura instituzionalik Eliza Katolikoarekin. Hala ere, badira, egon, NUPen eta Iruñeko

Artzapezpikutzaren arteko kolaborazio-akordio batzuk. Akordio horietan esaten da, alde batetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Erljio-Zerbitzu bat izanen duela unibertsitatean unibertsitari-komunitateari beharrezko diren zerbitzu pastoralak eskaini ahal izateko; esaten da, halaber, erlijioa ikasgai edo hezkuntza-arlo bezala eskainiko dela magisteritzako diplomaturetako espezialitateetan.

Gaur egungo egoera:

Erljio-Zerbitzuak ez du euskarazko zerbitzurik usu eskaintzen, ez egunero ematen den mezan, ezta burutzen dituen gainerako jarduera pastoraletan ere. Bulegoaren errotuluak eta orri eta gutunazalen tinbreak elebiz daude; gizarte-ekintza sekzioak (unibertsitari batzuek eramana eta Erljio-Zerbitzuari erantsita) euskararen erabilera kontuan hartzen du antolatzen dituen ekimenetan.

Alderdi akademikoari dagokionez erlijioarekin lotutako honako ikasgai hauek eskaintzen dira NUPen:

- Erljioaren Pedagogia / Pedagogía de la Religión: euskarazko ikasleendako euskaraz eta gaztelaniazkoendako gaztelaniaz.
- Erljioa / Religión: euskarazkoentzat euskaraz eta gaztelaniazkoentzat gaztelaniaz.
- El Hecho Religioso: gaztelaniaz bakarrik.
- Síntesis de la Fe cristiana: gaztelaniaz bakarrik.
- Sentido religioso del hombre de hoy: gaztelaniaz bakarrik.
- Nafarroako Unibertsitatea:

Alor akademikoan:

- Euskara ikastaroak eskaintzen dira 1964. urtetik.
- Filologia Hispaniar ikasketen barrenean Euskal Hizkuntzazko bi irakasgai eskaintzen dira 1970. urtetik.
- Arlo berean, 1996tik aurrera, ikasgai batzuk euskaraz eskaintzen hasi dira: Euskal Ikasketa eta Euskal Hizkuntza mintegiak, besteak beste. Horiek hautapen librekoak dira eta, beraz, edozein lizentziatura ikasten ari den ikasle orok hautatu dezake bere ikasketa-kurrikuluma osatzeko.
- 1994-95 ikasturtetik Nafarroako Unibertsitateak Euskal Ikasketetako Diploma eskaintzen du. Berariazkoa da eta 45 kredituzko programaz osatua dago. Hala ere eskolak gaztelaniaz ematen dira.
- 1999-2000 urtean kazetaritza-ikastaro bat ospatu zen euskaraz: «Euskal kazetaritza: hiru ikuspegi» (Joseba Iriondo, Martxelo Otamendi eta Asier Aranguren).

Kultur arloa:

- «Abarrots» taldeak euskal kultur astea antolatzen du urtero: hitzaldiak, bertsolariak, narrazio eta olerki lehiaketak...
- Donostian dagoen Nafarroako Unibertsitateko Ingenieritza Eskolan ikasle eta irakasle talde batek (Euskal Kultur Taldeak) euskara eta euskal kultura bultzatzen ditu: euskaraz argitaratzen den aldizkari bat egiten dute bi hilabetero. Han bertan «euskara zientifikoa» izeneko ikasgaia ematen da euskaraz.
- Donostian dagoen Zuzendaritza idazkari ikasketarako zentroan hautazko ikasgai batzuk euskaraz ematen dira: «Enpresarako euskara I eta II», «Administrazio Publikoa Euskal Autonomi Erkidegoan».
- 2001-2002 ikasturtetik Radio Universidad de Navarrak «Kultura lapiko» izeneko saioa eskaintzen du euskaraz.
- 2003ko apirilean, Historia Departamentuak 2. Narrazio historiko lehiaketa antolatu du Nafarroako batxilergoko ikasleentzat; gaztelaniaz eta euskarazko modalitateak daude.
- Filosofia eta Letrazko Fakultateak olerki lehiaketa bat antolatzen du urtero unibertsitateko ikasle guztiei zuzendua. Lehiaketak gaztelaniaz eta euskarazko modalitateak ditu.

3. EUSKARA NAFARROAKO OSPITALEETAKO ZERBITZU PASTORALETAN:

- Nafarroako Gobernuak ospitaleetako kaperau zerbitzu bat eskaintzen du bere ospitaleetan. Artzapezpikutzak egiten ditu lan horretarako apezzen izendapena eta horrela dago banatua:
 - Bideko Andre Maria eta Nafarroako ospitaleetan lau kaperau dago. Horrietako bat euskalduna da. Kaperau hauek beren zerbitzuak eskaintzen dizkiete eskatzen dituzten eri guztiei. Gaixoak euskaldunak direnean, eta beraiek nahi izanez gero, kaperau euskaldunari jakinarazten zaie eta bera da haiengana joaten dena.
 - Tuterako ospitalean kaperau bat dago eta ez da euskalduna.
 - Lizarrako ospitalean beste bat eta ez da euskalduna.
- Horri apezek euren herrietako gaixoei usu egiten dizkieten bisitak gehitu behar zaizkio.

4. EUSKARA IRUÑEKO SEMINARIOAN:

Iruñeko Seminarioan Elizbarrutiak bi irakaskuntza-zentroak ditu:

- **CSET** (Centro Superior de Estudios Teológicos): apezgaiei zuzendua. Bertan apez izateko prestatzen diren apezgaiek teologia ikasketak burutzen dituzte, bost kursoz osaturiko karrera eginez. Bigarren kursoan euskara ikasgaia ematen da ikasketa-programaren barrenean. Kurtsu osoan zehar astean bi orduz.
- **Xabierko San Frantzisko Institutua**: teologia ikasketak ematen ditu laiko eta erlijiosoei zuzendua. Bertan ez da euskarazko klaserik ematen.

5. EUSKARA ARTZAPEZBARRUTIKO KURIAN:

Nafarroako Elizak, instituzio bezala, bere erakunde ofizialak ditu elizbarrutietako antolakuntza kudeatzeko. Bulego gehienak Iruñeko Artzapezpikute-gian biltzen dira. Euskarari dagokionez, modu laburrean, horrela aurkez daitezke:

- Euskal Pastoraltzaren Saila: 1991an sortu zen Idazkaritza moduan eta 1994an Saila edo Departamentu izatera pasatu zen. Bere eginbeharra da: «Elizbarrutiko Ordezkaritzek eta Idazkaritzek prestatu eta proposatutako egintza pastoralak euskal lurralde eta taldeetan bultzatzea eta koordinatzea». Beraz euskarazko zerbitzuak eskaintzeko erakunde nagusia da Elizbarrutian. Gaur egun Zuzendaria, Zuzendari-ordea eta Idazkaria osatzen dute lan taldea. Egiten dituen lanak horrela zerrendatu daiteke:
 - Agiri eta idazki instituzional eta pastoralen itzulpena.
 - Ordezkaritzek eta beste eliz-erakundeek prestatzen dituzten hainbat lan liturgiko eta pastoralen itzulpena.
 - Euskaraz egiten diren egitasmo pastoralak koordinatzea.
 - Euskarazko argitarapenak moldatzea.
 - Elizaren komunikabideetan egiten diren euskarazko kolaborazioak gainbegiratzea.
 - Beste elizbarruti euskaldunekiko elkarlana koordinatzea.
 - e.a.
 - Bulegoa egunero irekia dago Iruñeko Artzapezpikutegian.

- **Gotzain-ordezkaritzak:**

Honako hauek dira:

- Apezen heziketa eta apez-bizitza: kartelak elebiz ateratzen ditu.
- Liturgia ordezkaritza: hainbat material eta argitarapen liturgikoak euskaraz prestatzen ditu.
- Katekesia: antolatzen dituen ekitaldietan euskarak presentzia du beti. Euskarazko katekesiaren antolaketa EPSrekin batera egiten du. Publikatzen dituen katekesirako materialak elebiz egiten dira beti.
- Hezkuntz Ordezkaritza: euskarazko erlijio irakasleak kontratatzen ditu. Horien formazioa gaztelaniaz egiten da.
- Gazte, Unibertsitari eta Bokazio pastoraltzaren Ordezkaritza: ekitaldi guztiak gaztelaniaz antolatzen ditu.
- Famili Pastoraltzaren Ordezkaritza: ateratzen dituen materialak eta jardunaldi berezietarako kartelak eta zerbitzu liturgikoak elebiz egiten ditu.
- Sekular Apostolutzaren Ordezkaritza: gaztelaniaz egiten du lan gehienbat.
- Misio Ordezkaritza: DOMUND eta beste jardunaldi berezietarako materialak elebiz ateratzen ditu. Xabierraldietan material pastoralak elebiz ateratzen da eta ospakizunetan euskarak presentziaren bat du kantu edo eskakizunen bidez.
- Gizarte-Pastoraltzaren Ordezkaritza: lana gaztelaniaz egiten du.
- Ekumenismo Ordezkaritza: lana gaztelaniaz egiten du.

6. BESTE ELIZ-ERAKUNDEAK:

- **Elizbarrutiko Caritas:** herri euskaldunetan Caritasko taldeek euskaraz eta gaztelaniaz lan egiten dute. Iruñean lana gaztelaniaz egiten da, hala ere Caritasen izenean antolatzen diren ekimen eta pastoral-jardunaldietan euskarak presentzia du eta material liturgiko eta pastorala elebiz ateratzen da.
- **Bidare eta COSPLAN zentroak:** lana gaztelaniaz egiten da.
- **Elizbarrutiko liburutegiak:** euskarazko argitarapenen sekzioa dago.

- **Presbitergo- eta Pastoraliza-Kontseiluak:** bilerak gaztelaniaz egiten dira. Hasierako otoitzak elebiz egiten dira eta kontseilukideei igortzen zaiei deialdi eta informazio guztia elebiz egiten da.

7. ELIZBARRUTIKO KOMUNIKABIDEAK:

- **Elizbarrutiko Aldizkari Ofiziala:** Apezpikuak idazten dituen gutun pastoralak, nahiz ez denak, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen dira. Nekrologikoetan, hildakoa euskalduna delarik, bi hizkuntzak erabiltzen dira. Euskal Herriko Apezpikuek ateratzen duten gutun pastoral mardula bi hizkuntzez argitaratzen da.
- **La Verdad:** 24 orrialdeetatik bat euskaraz idazten da. Horretaz gain *Egia* izeneko gehigarria (lau orrialdekoa) banatzen zaie Mendialdeko parrokiei, Euskal Autonomia Erkidegoko harpidedunei eta eskakizuna egiten duten gainerako guztiei. Datuak emategatik: *La Verdade*-ek 7.300 ale argitaratzen du astero, horietatik 1100, %15a, *Egiarekin*.
- **Popular TV:** hasieretan dagoen proiektua da eta orain arte Nafarroan egiten diren programazio-orduak oso gutxi dira, gainerakoa Madrilgo programazioarekin betetzen da eta horretan ez dago euskararen presentziarik. Nafarroako Gobernuak eman behar dituen Telebista-lizentziatarako eskaria egin du eta aurkeztutako memorian programazioan tarte bat euskaraz sartzeari aurriztatu da.
- **Euskal Telebista:** ETB1ek igandero eskaintzen duen «Meza Santua» izeneko saioa hiru aldiz ematen da Nafarroako herri batetik, aldi bakoitzean hiru igandez. Elizbarrutiak emanaldien antolaketan eta transmisioan laguntzen du.

8. EUSKARA ELIZBARRUTIKO ARGITALPENETAN:

Iruñeko Elizbarrutiak argitalpenak egiten ditu aldizka. Kasu gehienetan liturgiarekin lotutako liburuak (erritualak, e.a.), Apezpikuak idatzitako liburuak edo esanahi pastoral berezia dituzten obrak izaten dira. Azken urteotan honako argitalpenak egin dira euskaraz:

- *San Migel Goiaingeruaren bisitarako liturgia* liburua.
- *Kristau Sarbiderako Gidaliburu Pastoral*
- *Familiaz mintzo gaitzen*, Artzapezpikuak ateratako liburua elebiz.
- *Elizen arteko Biblia:* Euskal Herriko beste elizbarrutiek batera burututako Bibliaren itzulpen ekumenikoa.

- Laster, urrian, «Feria-egunetako ospakizunak apaizik ez denean» izeneko liturgia-lagungarria eta *Bizitza sinesmenaren haritik* izeneko liburua agertuko dira. Azken honek Fernando Sebastian Artzapezpiuak Nafarroan egondako urteetan idatzi eta euskaratu diren gutun pastoralak biltzen ditu.
- Heldu den urterako Vatikanoko II. Kontzilioaren testu guztiak euskaratuak argitaratuko dira. Lan hori Elizbarruti euskaldun guztien arteko elkarlanaren ondorioa da.

ELIZAREN EUSKARAREKIKO JARRERA NAFARROAN

Irunberri, 2003-IX-19

Pello Apezetxea Zubiri

Edukiaren eskema:

1. Ohar gisa: gai eztabaidagarria, zailtasunak
2. Euskararen balioa nire ikuspuntutik:
 - 2.1. Altxorra
 - 2.2. Euskal komunitatea
 - 2.3. Fedea eta kultura
3. Elizak nola balioetsi du euskara aitzineko mendeetan:
 - 3.1. Latina eta erromantzea euskararen gainetik
 - 3.2. Euskararen erabiltze publikoa
 - 3.3. Euskararen tresnatasuna: aldeko eta kontrako ondorioak
 - 3.4. Euskara bera mezua da
4. Elizak nola balioetsi du euskara, gaur egun:
 - 4.1. Vatikanoko II. Kontzilioaren soinu berriak
 - 4.2. 1980ko hamarkada: lehengo bidean eta gibelka
 - 4.3. Azken hamarkada
5. Hondar gogoeta: Elizaren zentralismoa

1. OHAR GISA

Badakit gaia nahiko eztabaidagarria izaten ahal dela. Eta, dudarik gabe, nik erranen dudanak aldeko eta kontrako entzule edo irakurlerik izanen dela. Hitzaldiak kritika kutsua ere izanen du, eta hori ez zaigu inori atsegingarri gertatzen. Hutsegiteak aipatzea, mingarri gertatzen da, eta min horrek salakuntza eta salatzailea gaitzestera edo ukatzera eramaten gaitu, anitzetan. Elizak profetismo deitzen den gizarteko zuzengabeak salatzea bere eginkizun-

tzat dauka, eta ni ere ados nago horretan, baina profetismo hori eliza barnekoari aplikatzea ez du aise onartzen. Oro har gertatzen den antzera, bertzeak kritikatzeko erraz egiten dugu, baina autokritika nekez. Dena den, nik ere egiten dudana kritikaren asmoa zein den agertu nahi dut: errealitatera hurbiltzea eta ez ukatzea, batetik; eta, bertzetik, elizak euskararen alde egiten duena baino anitz gehiago egin dezakeelako, egin behar duelako, eta egitea nahi dudalako. Ez dute denek horrela ikusten, ezta eliztar eta euskaltzaleen artean ere.

Jarrera egintzetan agertzen da. Nazareteko Jesusen Ebanjelioko erranaz baliatuko naiz: Fruituetatik ezagutuko duzue zuhaitza; elorritik ez da mahatsik biltzen. Baina egintzen zerrendak mendeetan zeharreko luzera baldin badu, elizak duen bezala, hainbat egoera kultural eta soziopolitiko ezberdinetan gauzatu, konplexuago da jarrera zehaztea. Eliza bera ere konplexua baita. Eliza hitza erabiltzen dudanean, zertaz ari naiz? Hierarkiaz, batez ere, hau da, apezpiku, apez eta erlijiosoez, erabaki eta eragin handienak hauengandik heldu direla iduri baitu. Ez laiko sinestunak gutxiesten ditudalako. Dena den, eliza solasa soilik erabili beharrean, xeheki zer elizaz edo zer eliztar taldeaz ari naizen argituko dut, ahal den neurrian. Bertzalde, azterketa eta juzkua beti da zaila, aztertze eta juzku egokia egitea, alegia. Nola, ordea, norbaiten jarreraz mintzatu, inolako juzkurik gauzatu gabe?

Joseba Intxaustik duela 16 urte idatzia da:

«Gaur egun dakizkigunekin oso erraza izango litzateke, errazegia, lehenik elizaren alde sekulako mintzaldi apologetikoa egitea, eta biharamunean, ordu eta toki berean, hizlari berberak, halaxe nahi balu, haren kontra egundoko hitzaldia moldatzea. Alde baterako nahiz besterako materialik ez baita falta: azken buruan, gaia behar bezala aztertu gabe ote dagoen susmoa sortzen zaio nornahiri: ezagutu, ez ote dugun oraindik ongi ezagutzen, alegia, elizak hizkuntzaren aldetik gure euskal hitzunean izan duen burubidea» (1).

Azken urteetan, euskararen historia ezagutza handitu da, baita elizarekin zerikusi duenaz ere. Dena den, egintza garrantzitsu batzuen jakiteak nahiko argi uzten ahal digu pertsonak edo erakundeak daraman edo eraman duen norabide nagusia ikusteko. Salbuespenak salbuespen, eta zenbait ñabardura gorabehera, ildo nagusi horri begiratuko diot.

Eta ezin ahaztu kulturak, erlijioak eta politikak badutela zerikusia bataz bertzearekin jendearengan, eta jendartean gurutzatuak eta nahasiak daudela. Nola ez bilakatu eztabaidatsu, alderdi horiek denak ukitzen dituen euskara bezalako errealitate bat?

Norbaiten jarreraz solastatzean, jende horren pentsatzea eta jokatzeko modua den eta berau egokia edo desegokia den agertzea da nire ideia. Egokia-

(1) Joseba Intxausti, «Eliza, euskararen historia sozialean», *Herria 2000 Eliza*, 88. zk., 1987.

ren baieztatzea edo ezeztatzea, berriz, guk egokiaz dugun ideia eta ereduak eragiten du.

Zein dira euskarari dagozkion ideia eta balorazio egokiak? Zein dira nik, behinik behin, egokitzen jotzen ditudanak? Hori azaltzea izanen da lehenbiziko ahalegina.

Eta bigarrena: Zer ideia eta zer balorazio ditu elizak euskarari buruz? Gal-demodu hauek begi bistan edukiz saiatuko naiz gaiaren azterketa objektibora hurbiltzen. Jakitun, honetanxe bertan badaukagula eztabaidarako iturria.

2. EUSKARAREN BALIOA NIRE IKUSPUNTUTIK

2.1. Altxorra

Denak ados daudela uste dut, euskara ondasun, aberastasun eta altxor preziatua dela baieztatzean; hizkuntza zaharrenetakoa, mendeetan barrena aginte eta kultura anitzen artean, eta menean, bizirik iraun duen errealitate berezia, etab. Gaurko Nafarroako agintariak bezalakoentzat ere onargarri den kontzeptua, 17. mendeko liburu bat 200 mila euro ordaintzeraino, Leizarragaren *Testamentu Berria*. Elizako idazkeran ere ikusten dira horrelakoak:

«Euskara salbatzen lehiatu behar dugu, Nafarroak ondarez izan dituen arte- aberastasun diren hainbat oroitarri salbatzera lehiatzen garen bezala».

Jose M. Cirarda apezpikuak 1981ean (2).

Antzinateko altxor hau ikerlarientzat langai interesgarria bilakatzen da, historia nahiz hizkuntza arloetan. Euskara, ordea, ikerketa-gai baino zerbait gehiago da. Museo interesgarrirako gauza baino zerbait gehiago. Euskara aspaldiko zerbait ez ezik norbait ere bada. Lehengo eta oraingo norbait. Oxemiel Barandiaranek dioena gogoratuz (3), munduko lorategiko loreetako bat da Euskal Herria, baina ez idortutako lorea, edo ihartua; lore bizia baizik, bizi den euskaradun jende osatutako herria.

2.2. Euskal Komunitatea

2.2.1. Euskara, bada, zerbait baino gehiago da, gauza baino gehiago. Hizkuntza hizkuntz komunitatea da, hiltunen komunitatea. Euskara euskaldunak gara, euskara euskal komunitatea ere bada. Hizkuntza jendearen eta herriaren beraren izaerarekin lotua dago, jendearen eta herriaren izaerari zor zaion be-

(2) 1990ko *Iruñe eta Tuterako Elizbarrutietako Boletín ofiziala*, 62. or.

(3) José María Sánchez Carrión «Txepetx», *Un futuro para nuestro pasado*, 328. or., 24. oharra.

girunea da hizkuntzaren eskubidea. Giza izaerari berez dagokion zerbait. Miguel Ugarte Chamorrok erran bezala, «Hizkuntza espiritua bera baita, jendearen ahoan hitz bihurtua» (4).

Euskal Komunitateak egiten du euskara eta euskarak egiten du euskal komunitatea. Beraz, euskara aipatzen dugunean, euskal jendea eta euskal komunitatea aipatzen dugu. Euskarari zor zaion harrera eta onarpenaz ari garenean, euskal pertsonaren eta Euskal Herriaren eskubideez ari gara. Eskubide horiek ezagutzetik eta onartzetik sortzen da, berezko ondorio dena, euskara gehiago erabili beharra.

2.2.2. Euskalduna onartzeak eta Euskal Herria onartzeak euskararekiko eskakizun handiagoa ere ekartzen du: ez, erabiltze hutsa, baita euskara eta euskal kultura berreskuratzen ari beharra ere; euskara indartzeko ekimen eta bidak zabaltzea ere. Gaur, anitzetan, nolabaiteko oreka eskaini nahi izaten da euskaraz eta erdaraz egitean, bati eta bertzeari eskubide berdina aitortu beharko litzaiokeelakoan. Bertze irizpide hau ere bai: gehiengoaren araberrako erabilera dela zuzena.

Sasi-justizia denari egiazko justiziaren iduria eman nahi zaio horrela. Amak urte bateko haurrari ematen dion laguntza eta ordu kopurua 18 urtekoari emandakoa baino handiagoa da. Injustizia deituko diogu horri? Euskarari ez zaio erdararekiko dedikazio eta erabiltze neurri berdina eskaini behar, baik eta handiagoa. Ez baitzaio zaintza egokia ematen, bertzela. Ahantzi gabe, hizkuntz komunitate guztiek dutela eskubidea lurralde propio bat izateko (5), eta beren hizkuntza lurralde propioko eginkizun guztietan erabiltzeko, beren hizkuntza osoa izateko. Hizkuntzaren egoera normalizatua deitzen dena.

2.2.3. Euskalduna onartzeak euskararen normalizazioa oztopatzen duten legeak ez onartzea ere eskatzen du; baina, ez onartzeaz gain, zuzengabekeria eta zapalketa den legedi hori salatzea. Nafarroako Vasueneren Legea, errarterako, Nafarroa hiru eremutan banatzen duena, gaitzesgarri eta salagarria da. Eta bertze hau: 2000. urtetik nafar gobernuak gogortutako eraso etengabearen aitzinean ez da isilik gelditzen ahal.

2.3. Fedea eta kultura

Elizaz ari garenez gero, eta eliza fededunen elkartearen denez gero, fedearen ikuspuntua ere aintzat hartu beharrekoa iduritzen zait, elizaren euskararekiko jarriera egoki aztertu nahi badugu. Kristau fedea eskaintzen digun ikuspegia, kristau ikuspegia, kreaioarekin eta Jainkoa gizon egitearekin lotua dago. Kristau fedea Jainkoa aitortzen du gauza eta jendearen egile, baina bere aniztasun eta ez-

(4) Ibid. 329. or., 25. oharra.

(5) Ibid. 306. or.

berdintasunekin. Bibliako *Genesi* edo *Hasiera* liburuan, Itun Berriko *Eginak*-ean eta *Apokalipsian* hizkuntza eta herri aniztasuna nabarmentzen da.

Hasiera liburuko 10. atalean, eurite handiaren ondotik gelditutako jendeak aipatzen dituenean, Noeren hiru semeen ondorengoak, alegia, «leinu eta herri bakoitzak bere lurraldea eta bere hizkuntza ditu» erraten digu. Hiru aldiz (6). Babelgo dorrearen istorioa ezagunagoa da, beharbada, nahiz eta ulertze desberdinak izan dituen. Gaurko exegesiaren arabera, istorio horren erranahia zera litzateke: ez da Jainkoaren gogokoa hizkuntza bakarreko eta aginte bakarreko gizarte antolakuntza. Hizkuntza desberdinak eta herri desberdinak izateak, bata-bertzearen nortasuna hobeki errespetatzen du (7).

Eginak liburuan, Pentekoste egunean Espirituaren etorreraz ari dela, Jerusalemen bildutako jende artean Asia, Afrika eta Europako herri eta hizkuntza multzoaren izenak dakartza. Baina han, denek ulertzen omen zuten berri onaren mezua, nahiz eta hizkuntza desberdinak izan. Aniztasuna ez zen elkar ulertzeko oztopo (8). Apokalipsiaren arabera, berriz, zeruan nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea izanen da (9).

Bertzalde, elizak aitortzen duen Jainkoaren Semea, gizon egin nahi, eta herri eta kultura jakin batean haragitu zen. Eta, hain zuzen, ez konkistatzaile erromatarren hizkuntza eta kulturaren. Nazareteko Jesusen hizkuntza ez baitzen grekoa edo latina izan, bertako jende arruntaren aramearra baizik.

Lehenbiziko kristauen artean urte gutiren buruan sortu zen fede eta kulturari buruzko eztabaida, kultura greko eta juduen artean. Apostoluak, kristauen lehen gidari taldea, juduak ziren. Greziarren artean kristautasuna hedatzen hasi eta, greziar horiek judu kultura ere bereganatu behar ote zuten planteatu zen. Paulok ezezko sendoa agertu zuen, juduek judutar kulturaren bezala, greziarrak greziar kulturaren kristautu behar zirela (10). Apostoluek bat egin zuten Pauloren jarrerarekin. Irizpide hori azaltzen dela uste dut Jose Maria Setienen aspaldiko azalpen honetan:

«Herriaren balio kultural, ekonomiko eta politikoak, alderdi erlijioso nahiz politikoen aukeraketaren aurrekoak dira, eta alderdi erlijioso edo politikoen aukeraketa honek herri-balio haiek bereganatu eta garatu beharko ditu, egokia izatekotan» (11).

Hori dena gogoan, kristau fededunak ez du ahanzten ahal jendearen eta herrien izaera eta nortasun aniztasuna Jainkoarena dela, kultura eta hizkuntza antitza Jainkoaren nahia dela. Eta eliza osoak eduki behar du gogoan hori, egi-

(6) Bibliako *Hasiera*, 10, 5.20.31.

(7) *Ibid.* 11, 1-9.

(8) Bibliako *Eginak*, 2, 1-11.

(9) Bibliako *Apokalipsia*, 7, 9.

(10) Bibliako *Eginak*, 15.

(11) Eugenio Ulayar, 1980ko Apez Kontseiluaren bilkuran, *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 436. or.

azko kristau fededunen elkarteak izan nahi badu, eta Jesu Kristok agertu digun Jainkoaren mezularitza egoki bete nahi badu.

Orain artekoa, euskarari buruz nik dudak ikuspegia da, nire ustez euskarari dagokion balioa.

3. ELIZAK NOLA BALIOETSI DU EUSKARA AITZINEKO MENDEETAN

Aipatutako iritzi horiek, euskara euskal komunitatea bezala ikustea eta errespetatu beharra, eta sinesmen eta kultura arteko harremanak, elizak ez ditu, oro har, aintzat hartu, ez lehen eta ez orain, ez bada toki eta memento jakin batzuetan, eta eliztar jakin batzuegandik. Ekar ditzagun gogora Elizaren balorazio hau egiaztatzen duten gauza batzuk:

3.1. Latina eta erromantzea euskararen gainetik

Hogeigarren mendera arte, anitz mendez, kristautasuna Euskal Herrian sartu zenez geroztik, hizkuntza arrotzez egin du liturgia elizak, latinez: meza eta bertze sakramentuetako irakurgaiak, kantu nagusiak ia denak, otoitzak. Gure egunak arte. Eta jendeak pribatuan erabiltzeko otoitz formulak ere, Pater noster, Avemaria, Salve Regina, eta Kredoak, latinez irakasten zituzten apezek 17. mendean sartu eta gero ere. «Jendeak, papagaiek bezala, errepikatu bai, baina tutik ere ulertu gabe». Horrela dio, 1626an gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako *Doctrina Christiana* argitaratu zuen Joan Beriainek. Hau, bertze hainbat datu bezala, Jose Maria Jimeno Jurioren *Navarra, Historia del Euskera* liburuan ikusten ahal dugu (12). XVI. mendean, Luteroren Erreformarekin, protestanteak elizkizunetan herri hizkuntzak sartzen hasi ziren, Biblia bertako hizkuntzetara itzuli, Leizarragarena erraterako, eta jendeari irakurtzen irakasten. Eliza katolikoak, ordea, Trentoko Kontzilioan bildutako apezpikuek, gaia aztertu, eta latina mantentzea erabaki zuten. Eta euskara, lehen bezala, liturgiari kanpo (13).

1586ko Sinodoan Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Gipuzkoako apezek ere gaztelaniaz egin zuten. Oraindik Nafarroako gehiena euskalduna zenean, kleroaren mintzaira erdara. Gipuzkoarrek Sinodo horretan erran zuten, Pro-bintziara joaten ziren eliz ikuskatzaileek euskaraz ez zuten jakiten. 1590ean Iruñean bildu zen Sinodoan ez da, ez euskarazko ez euskarari buruzko aipamenik ere. Latina eta erromantzea soilik izan ziren hizkuntzak. Nafarroan eta Gipuzkoan euskaldunak ez balitz bezala (14).

(12) José María Jimeno Jurío, *NAVARRA Historia del Euskera*, 79-80.orr.

(13) *Ibid.*, 71-72.orr.

(14) *Ibid.*, 82-83.orr.

XVI. mendeko azken urteetan hasitako parroketako erregistroa, 400 urtez, gaztelania hutsez idatzia dago. Hamaseigarren mendera arte eliz epaitegi-etako hizkuntza izan zen latina, erromantzeak ordeztu zuen, eta euskara baztertuturik gelditu zen, berriz ere (15).

XVI. mendetik XX.era arte, Irigoien erratzuarra kenduta, euskaraz ez zekiten apezpikuak izendatu dituzte Nafarroarako, eta egun ere berdin jarraitzen dute. Gaztelak Nafarroa konkistatu eta agudo, apezpikuak izendatzeko pribilegioa eskuratu zuen enperadoreak Aita Santuarengandik. Jose Goñi Gaztanbidek dioenez, Nafarroako eliza erabat gaztelaniatzeko baliatu zuten erregeek aukera hori (16). Jose Maria Larreak diglosiaren iturburutzat jotzen du eliza (17). Iturburu ez dakit baina eragile izan dela, dudarik ez.

3.2. Euskararen erabiltze publikoa

Hamaseigarren mendean, hala ere, Protestanteen Erreforma eta Trentoko Kontzilioa zirela eta, batez ere, ohartzen hasi bide zen eliza jendearen ezjakinaz eta jakin beharraz, eta horretarako herriaren hizkuntza erabili beharraz, oraindik neurri ttikian bazen ere. Orain arte dakigunez, euskarazko lehenbiziko dotrina liburua Eltsoko Santxoren *Doctrina christiana* da, 1561ean Lizarran inprimatua. Herri hizkuntzei ateak irekitzea ez zen denen gogokoa, baina anitzek bidezko ikusten zuten. «Mila eta bortzehun urte lehenagotik egin behar zen», Martin Azpilkueta Nafar Doktoarearen solasetan. Hamazazpigarren mendean ugaritu ziren apezpikuen aginduak, Iruñetik eta Kalahorratik, euskaraz ere dotrina irakasteko eta horretarako liburuskak idazteko. Apezpiku eta bikarioek parroketara egin zituzten bisitaldietan utzitako aginduak –gaztelaniaz idatziak–, herriari bere hizkuntzan jakitera emateko ere bai (18).

3.3. Euskararen tresnatasuna: aldeko eta kontrako ondorioak

3.3.1. Hizkuntza komunikaziorako tresna dela azpimarratu da, behin baino gehiagotan, hizkuntzaren bertze alderdiak itzalean utzita. Elizan, hain zuzen, euskara tresnatzat onartu da, anitzetan, berak komunikatzeko beharrezko duen neurrian. Horregatik izan zen hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetako aurrerapausoa, katekesian batez ere. Eta hala erabili behar dela pentsatzen du gaur egun eliztar gehienak, kristau mezua ezagutarazteko baliagarri den neurrian, alegia. Norbaitek zorioneko pragmatismoa deitu dio elizaren

(15) Ibid. 78. or.

(16) Ibid. 72. or.

(17) José María Larrea Muxika, *Euskaldungoa erroizturik*, 21. eta ondoko orr.

(18) José María Jimeno Jurío, op. cit., 79. eta 105-109. orr.

jokaera horri, mendeetan barrena euskara mantentzeko lagungarri izan delako. Ezin dugu ukatu aitzineko denboretan horrela izan dela. Jimeno Juriok 17. mendeko apezek zera dio, euskaraz hitz egiten zutelako honen iraupenaren alde egin zutela. Baina bertze hau ere badakar: apez haien euskaraz egitea ez zela arrazoi kulturalengatik izan, ez zela euskal komunitateari zor zitzaion begiruneagatik izan, baizik eta dotrina irakatsi beharra betetzeko nahitaezko zutelako euskara, jendeak gaztelania ez zekien eta (19).

Gaztelaniari bidea egiten lagundu ziotela ere erraten du Jimenok, sermoiak erdaraz egitea maiz samar gertatzen baitzen, entzuleak ez ulertuta ere. Populazio euskaldunetan auzitegira jo zuen jendeak, behin baino gehiagotan, apezek euskara erabil zezaten, gaztelaniaz mintzatzeko joera handia zutelako. Jendeak bere herritik bertze batera aitortzak egitera joan beharra ere izaten zuen, euskaraz ez zekiten apezak bidaltzen zituztelako, zenbaitetan, herri euskaldunetara (20).

Irunberrin, hain zuzen, 1627 eta 1661ean protestak egin zituzten herritarrek apez erdaldunengatik. Hiru urte lehenago, 1624an, apezak eta herria Leirera joan ziren errogatiba eginez, euria eskatzeko. Fraideekin oihuka eta joka ibili, eta Trinitateko ermitauak prozesioko gurutzea eskutan hartu zuen, eta erran: *Indac onat maquil ori, nik adicuto* (sic, *adituko* ordez) *diat fraide hoc*. Izan ere, nahiz eta populazio erdaldunak hurbilean izan, Irunberrin euskarak luze iraun zuen, ia XIX. mendera arte, Eusebio Rebolek, bertako historialariak, dioenez. Nardozeke apezak gertaera berezizat jotzen zuen Irunberrin euskaraz hainbertze egitea, hain herri handi izan eta zegoen tokian kokatua egonda (21).

Apaiz erdaldunei buruzko anekdota badakit, behar bada Jose Mari Jimenok ezagutu ez zuena: XVI. mende erdialdera, Gaztelako Juan Villeda siguentzatarra izendatu zuen Aita Santuak Etxalarko erretore, erregeak hala proposatuta. Euskaraz ez jakiteak zekarkion hemen lan egiteko ezintasunaz ohartu zelako-edo, hori ez da garbi ageri paperetan, ez zen etorri parrokiara. Baina baldintza batekin: bizi zen arte, urteko 45 dukat ordaindu behar zizkiotela. Herriko Batzarrak adostasuna eman zuen (22).

3.3.2. Lehen erran bezala, apezpikuek, erdaldunak eurak, herriarendako utzitako aginduak, jendeari bere euskal hizkuntzan jakinarazteko agintzen zioten erretoreari. Tresnatasuna zen hemen ere arrazoia. Udaletxeetara agintari zibilen ordezkariak bere ikustaldia egiten zuenean ere, gauza bera agintzen zion alkateari, haren aginduak herritarrei beren euskal hizkuntzan jakinarazteko. XIX. mendeko Independentzia gerra deitutakoan, Iruñean gobernadore zen

(19) Ibid., 104, 106, 189 or.

(20) Ibid., 109. eta 112-114 or.

(21) Ibid., 129-130 or.

(22) *Libro de Autos Concejales de la Villa de Echalar* (1725-1828), 1769/06/13.

Reille Konte eta jeneral frantsesak berak iritzi hori aintzat hartu zuen, eta bandoa euskaraz eta erdaraz idatzi (23). Ez gara hasiko, horregatik, armada frantsesa euskararen aldeko zela erraten. Honekin ez dut konparatu nahi batak eta bertzeak egindakoa, baizik eta arrazoi mota berdinak bulkatzen zituela, zerbait komunikatu beharrak, ez herriaganako begiruneak. Zeren eta, Elizak harreman gehiago zuen jendearekin, maizago mintzatu zen haur, gazte nahiz helduekin, bere irakaste eta ospatzeak betetzeko, eta euskara anitzez gehiagotan erabiltze horregatik bertze erakundeekin parekatu ezinezko eragina izan zuen, euskararen iraupenean. Joseba Intxaustik erran bezala, elizaren aldeko laudorio zerrenda luzea egiten ahal izanen litzateke.

3.3.3. Baina baliagarritasunaren arrazoia nahikoa eta egokia ez dela azimarratu nahi dut. Gaztelania sartu ahala, herrietan euskaldun elebakarrak baztertuak izan ziren, gero eta gehiago, zerbitzu publikoetan, baita elizakoetan ere.

Baliagarritasunak eta tresnatasunak euskararen erabilerari lagundu dio, alde batetik, baina erdara eta erdaldunak ugaltzera ere bultzatu du. XVIII. hondarrekotik XIX.ean zehar nabarmen egin zuen goiti apezten artean gaztelaniaren erabilerak (24). Gaur den egunean, euskaldun elebakarrak desagertzeko zorian daudenean, baliagarritasunaren izenean gero eta gutiago exijitzen ahal dugu euskararentzat eta euskaldunentzat. Ia deus ez. Horregatik, euskara gizarterako tresna bertzerik ikusten ez duenarentzat, gauzak gaur ez daude, beharbada, hain desegoki. Eta euskara, jendeari kristau mezua ulertarazteagatik bakarrik erabiltzeak, euskararen heriotza onartzea darama berekin. Ez da hau parroketan eta elizetan gertatzen ari? Ez dabil euskara herrian eta gizartean baino motelago tenpluan eta tenplukoengan?

3.3.4. Hamaseigarren mendetik hogeigarrenera arte idazlan gehienak elizgizonenak izatea gogoratzen da, elizak euskararen alde egindakoa goraiatzeko. Hori ez du inork ukatzen, noski. Idazte tradizioa hortik etorri da, batez ere eta lehenbizi Iparraldean, eta kalitate handieneko testuak sortu ere bai. Gaurko hizkuntzaren lantzeko lagungarri ez ezik oinarri ere badira hainbatetan testu horiek. Berriz ere, ordea, aitortu beharrean gaude gure ohore eta esker ona merezi duten idazle hauek bere ekimen pertsonalak eraginda jokatu dutela, normalean; ez elizako arduradunek markatutako jarraibideak zirela medio. Eta, anitzetan, ez euskara suspertzeagatik, lehen ere erran dudana bezala. Fernando Sebastian apezpikuaren 1994ko hitzak berak hartuta, «askotan, pastoral eta erlijio helburu bakarra bilatuz» idatzi dute (25). Hala ere, idazle eliztarrei esker gizarteko egitura zibilak baino anitzez gehiago egin du elizak euskararen alde. Lehen, behinik behin.

(23) Hermilio de Olóriz, *Navarra en la guerra de la Independencia*, 346.or.

(24) José María Jimeno Jurío, op. cit., 189-191.orr.

(25) Fernando Sebastián, Iruñeko artzapezikua, «Euskal Pastoralta Sailaren Sortze Dekretua», *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1994ko abendua, 802.or.

3.3.5. Zeren eta oraingoa bertze istorioa da. Gaur egun, izan ere, lehen ez bezala euskara irakaskuntzan eta komunikabideetan nahiz administrazioan sartu denean, neurri mugatuan bederen, elizak protagonismoa galdu du euskaren erabileran, eta, beharbada horregatik, Bibliako Loten emaztearena egiten du gero eta gehiago, gibelera begiratu, gibeledu iduri bihurtuta gelditu. *Eliza eta euskara* gaia aipatzen den aldiro, aitzineko mendeetan egin duena nabarmentzen da, batez ere. Iaz Iruñeko apezpikuari zuzendutako kritikei erantzutean, Elizbarrutiko Euskarazko Pastoraltza Saila hamaseigarren menderaino joan zen (26). Ez ote da horrela gertatzen, gaur den egunean behar adina egiten ez duelako? Eta hau, tresnatasunaren arrazoiak balioa galdu duelako, elbakarrak desagertzean?

3.4. Euskara bera mezua da

Hizkuntza tresna dela aitortu beharra dago, jakina, pertsonak elkarri bere pentsamenduak eta sentimenduak jakinarazteko balio duenez gero. Ezin dugu erran, ordea, euskara, bertze edozein hizkuntza bezala, tresna hutsa denik. Mezua ailegarazteko tresna ez ezik mezua bera ere bada hizkuntza. Nik hartzen dudak idazkiak, edo entzuten dudak solasak, ez dit mezu bera ailegarazten, gazteleraz edo euskaraz idatzia eta errana izan. Testuaren eta solasaren edukia bera izanda ere. Euskaraz idatzitakoak, edo euskaraz mintzatutakoak, nitaz eta nire izaeraz ohartu dela jakinarazten dit eta errespetatzen nauela. Erdaraz egindakotik, berriz, alderantzizko mezua hartzen dut.

Horregatik, kristauarentzat euskara ez da berri onaren ezagutarazteko tresna hutsa, baizik eta euskara bera ere berri ona da. Jainkoa maitasuna dela baldin bada Jesusen ebanjelioko mezu nagusia, erakutsi hori ez da sinesgarri izaten ahal, euskaldun kontziente batentzat behinik behin, ez bada euskaraz adierazia. Jainkoak euskaldun jendea ere maite duela eta onartzen duela ezin dugu egoki ezagutarazi, euskal hizkuntzaren ordez bertze hizkuntza eta kultura batean aditzera ematen badugu.

Areago, gure kultura eta hizkuntza irensten ari den gaztelaniazko kultura eta hizkuntzan emanez gero, ustezko berri ona berri txar bihurtzen da; euskalduna ez duela onartzen erakusten baitio preseski. Bertze hizkuntza batean aldarrikatzen bazaio euskaldunari Jainkoaren berri ona, zera adierazten ari zaio: Jainkoak euskalduna onartzekotan, alegia, honek bere kultura eta izaera propioari uko egin eta bertzea bereganatu behar duela. Nolako maitasuna eskaintzen ahal diogu norbaiti, maitatzekotan bertzeak bere izaera utzi behar duela eskatzen badiogu? Horri, maitatze ordez, menpean hartzea deitu beharko diogu. Horregatik, berri onaren eduki eta eskakizuna da euskara bera, euskaraz egitea, eta euskara errespetatzea, berreskuratzea eta zaintzea.

(26) «La Iglesia y el euskera», *Diario de Noticias*, Iruñea, 2002/5/17.

4. ELIZAK NOLA BALIOESTEN DU EUSKARA, GAUR EGUN

4.1. Vatikanoko Kontzilioaren soinu berriak

4.1.1. Vatikanoko II. Kontzilioak, hogeigarren mendearen bigarren erdialdian, aurrerapauso nabaria eman zuen: mendetako latinaren erabilera moztu eta herri hizkuntzei atea ireki. Kontzilioak dioenez, *lotura anitza da salbamen mezua eta kulturaren artean* (27).

Lehentxeago, Joan XXIII aita santuaren *Pacem in terris* (Bakea lurrean) dokumentuan:

«gutxien adierazpen ahalmenaren kontrako jokaera justiziaren aurkako hustegite larria da. ... Gutxien bizimodua hobetzeari ekin behar diote agintariek, hizkuntza eta kulturari dagokionean, batez ere» (28).

Kontzilioaren ondoren eta ondorioz prestatu ziren euskarazko liturgia eta katekesirako testuak, eta artxibategirako liburu elebidunak. Biblia ere euskaratu zen, beranduago. Eta honetan Nafarroako elizbarrutia Euskal Herriko bertze elizbarrutiek lankide izan zen.

4.1.2. Kontzilioaren ondorioztat jotzen ahal dugu 1974an Jose Mendez eta Jose Maria Larrauri apezpikuek Iruñean argitaratutako idazkia, «Ohar zenbait euskarari buruz» izenburupean (29). Bertan adierazten da herriak eta herritarrek badutela eskubidea, ez bakarrik hizkuntza erabiltzeko; baita beren kultur zainei sendo eusteko ere; eta euskara erabiltzeko eta kultur zainei sendo eusteko arrazoi hau ematen du:

«herritarren izaera beraren zati berezia baitira zain horiek». Vatikanoko Bazar Nagusiak errana biltzen du ondoren: «Elizak gogorazten die guztiei baduela zerikusia kulturak gizon bakoitzaren izaerarekin, elkartarekin eta gizarte osoarekin». Bertze hau ere irakurtzen dugu idazkian, euskararen atzerakadaren erantzukizuna «guztiona» dela, «baita Elizarena ere». Eta gero: «Elizak uste du bereziki lehiatu eta saiatu behar duela zaintzen eta lantzen kultur ondasun handi hau».

4.1.3. 1981ean Jose Maria Cirarda apezpikuak 1974ko izkribua, ia osoa, eman zuen berriz elizbarrutiko Boletinean, zerbait berri gehituta, errate baterako, ofizialtasun hitza. Mendez eta Larrauriren dokumentuan errana zen «Legezko balioa ematen zaie Eliz-landan euskeraz idatzitako agiriei». Cirardarenean honela dio:

«Euskera, erdara bezala, Elizaren hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroan». Eta bertze hau: «Hiltzeko zori larrian dagoen egiazko orogailu bizia baldin bada euskera, buruz eta gogoz ahal egin behar dugu denok, Eliza barne, beraren salbatzeko» (30).

(27) Vatikanoko II. Kontzilioa: *Gaudium et spes* (Constitución Pastoral sobre la Iglesia en el mundo actual), 58.zk.

(28) Joan XXIII, *Mater et Magistra*.

(29) Jose Méndez eta José María Larrauri, Iruñeko eta Tuterako apezpikuak, «Nota pastoral sobre el Euskera», *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1974, 545-550.orr.

(30) Jose Maria Cirarda, Iruñeko eta Tuterako apezpikua, «Ohar zenbait euskarari buruz». *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1981eko urria.

4.1.4. Testu hauetan, altxor eta tresnatasun kontzeptuak neurri batean gainditu, eta jende izatearekin eta elizaren eginbeharrarekin zuzenean lotua gelditzen da euskara. Garrantzitsua. Baina, zenbat testu ederrek betetzen ditu apalategiak edo armairuak, gizarteko hainbat alorretan bezala elizan ere? Ondorio batzuk ekarri zituzten idazki horiek, bai. Testu elebidunen bat edo bertze ikusten hasi ginen elizbarrutiko Boletin ofizialean, zenbait «Gure Aita» hemen eta han entzuten ere bai, ospakizun eta bilkura nagusi batzuetan, eta *La Verdad* astekariko orrietan euskarazko zerbaite sartu zuten. Hain zuzen, astekari honetan leku zabalagoa eman diote euskarari, azken urtean. Ikastola frankok izan dute elizaren geriza. Apezpikutegiko bulego batzuetatik zenbait testu elebidun eta zenbait kartel banatzen dira. Aipatu beharrekoa, katekesi taldeak Iruñeko hainbat parrokiatan sortu eta hedatu izana, Euskal Pastoraltzaren Idazkaritzak lagunduta anitzetan. Baina ia-ia hortxe bukatu da dena.

4.2. 1980ko hamarkada: lehengo bidean eta gibelka

4.2.1. Nahiz eta Vatikanoko II. Kontzilioak aitzinerako bulkada eman, eta aipatu dugun zenbait ondorio eragin, hizkuntza eta kulturaren arloan; bertze gai batzuetan bezala, honetan ere galgatze nabaria sumatu zen, urte gutiren buruan, berritze mugimendua gelditzeraino. Gertaera bat edo bertze gogoratuko ditugu.

4.2.2. 1980ko Apaiz Kontseiluaren bilkuran, Kontzilioa bukaturik 15 urte zirela, Mendez eta Larrauriren euskarari buruzko dokumentuak 6 urte zitu-ela, Euskaldun deitutako eremuko apez taldeak honela zioen: «Ebanjelizatze-kotan, herriaren kultura bereganatu eta onartu beharra dauka Elizak. Eta ondotik:

«Nahiz liturgia eta bertzetan lan ona egin den, ez da aski. Kultura bereganatze eta onartzeak euskararen erabilpena eskatzen du eliz zerbitzuetan, eta euskal kultura esparri guztietan mantentzen laguntzea. Nafarroako Elizak euskal komunitatea onartu behar du» (31).

Hori eskatu bazen, betetzen ez zelako eskatu zen. 1981ean eta 83an, anzeko salaketa eta eskaerak egin zituzten apezek.

4.2.3. 1981ean, Baztan, Malerreka, Bortzirriak eskualdeetako apez taldeak argitaratutako izkribuan, Nafarroako erakunde publikoak salatu zituen, euskararen zapalketa zela eta. Elizari epeltasuna aurpegiratu zion, zapalkuntza ez salatzeagatik eta eskaintzen zuen laguntza murriztagatik. Egunkarietan argitara eman zuten idazkia, ez ordea *La Verdad* elizbarrutiko astekarian, nahiz horretara ere bidali (32).

(31) *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1980ko iraila, 436-440.orr.

(32) *Egin*, 1981/6/23.

4.2.4. 1983an Apaiz Kontseiluak betetako bilkuran, 1980.eko antzeko gauzak eskatu zituen: euskararen berreskuratzea bulkatu eta euskararen alde ari zirenak lagundu behar zituela Elizak; eta euskararen aurka jokatzeko duten erakunde eta alderdi politikoak salatzeke. Eta bertze hau ere bai: Elizbarrutiko elizak bere epeltasun eta koldarkeriaz barne gogoeta, eta sinesmen eta kulturaren arteko ulerpen egokiagoa gauzatu beharra (33).

4.2.5. Adierazgarria da 1984an Elizbarrutiko Irakaskuntza Ordezkaritzak argitaratu zuen oharra, Jose Maria Cirarda artzapezpikuak onetsia. Nafarroako Legebiltzarrak onartutako dirulaguntza-banaketa kritikatu zuen, zeinean ikastolei laguntza handiagotu egin zien eta erlijiosoen ikastetxeei ez. Ikastolei laguntza murriztu zaienean berriz isilik egon da.

Ez zuen, ordea, elizak euskararen kontra agertu nahi. Horregatik hitz hauek...:

«Elizaren onespén eta lankidetzá izanen du beti, gure Foru nahiz Udal agintariek euskararen alde egindakoak, bidezko baita Antso Jakitunak «lingua navarrorun» deitu zuen gure milurteko euskal hizkuntza zaindu eta bulkatzea, halako kultur altxorra denez gero».

Begira, ordea, bertze hauek: «Nafarroako Eliza, bere aldetik, ahal duen gutzia laguntzen ari da euskararen alde, eginkizun horretan, liturgiako liburu gutziak euskaratuz eta meza eta sakramentuak euskaraz eginez, eliztarren nahiarekin bat eginda». Testu honen arabera, liturgian bakarrik erabiliz, elizak bete du euskararekiko duen eginbeharra. Ulertze kaxkarra, hauxe, 1974 eta 1981eko apezpikuen oharrena. Ulertze kaxkarra edota ukatzea. Hemen dugu, berriz ere, tresnatasunaren arrazoia.

Goiko datuetan ikusten denez, elizak ez bide zuen aitzinera egiten euskararen alde. Eta galgatzeaz gain, banaz bertze, gibelerako joera hartzen joan zela erranen nuke nik.

4.2.6. 1986ko Apaiz Kontseilua. 1986ko ekainean iragandako apaiz Kontseiluaren bilera izan daiteke adierazgarri bat. «Fedea eta kultura Nafarroan gaur» zuen Kontseiluak aztergai (34). Apezpikua aitzindari, Elizaren jokabidea onestea eta justifikatzeari ekin zioten 50 batzarkidetik gehienek, elizak lehen egindakoari begira, lehen egindako hori egokia izan delakoan; hondar urtetako euskal mugimendua, berriz, itsustu egin zuten, euskaltzaleak fedearen eta elizaren etsaitzat jo, eta kontseilukide batzuen jarrera euskaltzaleari gehiegikeria deitu. Hain zuzen, aurkako jarrera horretan apez euskaldun eta herri euskaldunetan zeuden batzuk nabarmendu ziren.

Bilkura hartan aurkeztutako euskal kultura eta hizkuntzaren inguruko zazpi proposamenek, ez zuten errekonozimendua lortu, ezezko botoek baiezkoko bikoiztu baitzituzten. Hara zein ziren proposamenak:

(33) *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1983ko maiatza, 223. or.

(34) *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1987, 97-101.orr.

1. Apez Kontseiluak Nafarroako kultur aniztasuna egiaztatzen du, eta euskal kulturak azken denboraldietan, batez ere, jasandako atzerakada deitoratzen du, estatuaren ideia zentralistaren ondorioz; herriak diskriminatu eta bere kultura inposatu baitie.

2. Nafarroako elizak bere erantzukizun zatia aitortzen badu ere, gertaera horretan, aintz kristauren (apaiz, erlijioso, laikoen) ekarpen positiboa ere eza gutzen du.

3. Apez Kontseiluak bertako kulturaren berreskuratze lanean parte hartze-
ra dei egiten die sinestun guztiei.

4. Euskarari dagokionez, gureak egiten ditugu apezpikuek 1974 eta 1981ean burututako gogoetak.

5. Nafarroako kultur aniztasuna onartuta, premiazko deia egiten die Kontseilu honek pastoraltza eragile guztiei, zintzo bete ditzaten aipatutako apezpikuen arauak.

6. Hizkuntzak herrien identitatea zaintzeko duen garrantziaz oharturik, Apez Kontseiluak biziki eskatzen die arduradunei, irtenbide egokia eman diezaioten eskola eta administrazio publikoko elebitasunari.

7. Apaiz Kontseiluak erlijio egoera eta kultur arazoa aztertzea erabakitzu-
du, honi buruzko gaurko desbideratze batzuk barne.

Goian erran bezala, Kontseiluko apezpen bi herenek ez zieten beren onespena eman proposamenei. Dena den, Kontseiluaren buru zirenak hain konforme gelditu ez zirelako edo, emaitza horrekin, lotsagarri samar eta apezpikuen aitzineko dokumentuekin kontrajarriak bilakatzen zirelako, lehenengo aktan ez zen agertu proposamen horien bozketa eta ezeztea. Hurrengo aktan sartu zituzten, erreklamazioak egin zirelako.

4.2.7. Sinodoaren jokaera penagarria. Gertaera hau, ordea, ez zen ezusteko salbuespena izan, 80. hamarkada horretako azken urteetan ikusten ahal dugunez. Nafar Elizaren Batzarre Nagusi edo Sinodoa bildu zen, elizbarrutiko elizaren bilkura nagusia, teorikoki behinik behin. Nafarroan zehar 1200 taldek egin zituzten bilerak, zenbait hilabetez. Bileretarako gaiak Batzarreko Batzorde baten eskutik hautatuak eta prestatuak izan ziren. Horietatik zortzi, talde guztiek aztertu beharrekoak, nahitaez. Bertze gai bat edo bertze ere eskaini zitzaizkien taldeei, baina aukerazkoak, Apez Kontseiluak eskatuta. Horien artean sartu zuten «Fedea eta askotariko kultura Nafarroan». Nafarroako gizartea eta kristau elkarteak kezkarazten eta astintzen zuen gai nagusietako bat izanik, zergatik izan zen baztertua, eta ez hautatu beharrezkoen artean? Mila eta gehiago taldeetatik berrogeik soilik hartu zuen gai hau gogoetarako.

Hori alde batetik. Gero, ordea, gaia landu zuten taldeen proposamenak bozkatzerakoan, talde guztiek hartu zuten parte, denek izan zuten boza. Kon-

tuan hartu beharra da, gainera, Sinodoak bere egiteko proposamen bat, bi herenen botoa behar zuela, Sinodoaren itzala eta indarra izan zezan. Boz erdiak baino gehiago jasotzen zituen proposamena, gehiengoarena bai, baina bi herenera ailegatu gabe, aintzat hartu ahalko zen, elizbarrutiko erakundeek kome-nigarri joz gero. Ez ziren bada betebeharrekoak. Hori aski ez, euskarari bu-ruzko proposamenen aurkezpenari berari, bigarren mailako harrera eman zitzaion, proposamenen egile kopurua ttikia izan zela erranez, horrela beraiei balioa kendu nahiz bezala. Bilkura nagusietan euskaraz mintzatzea bera justifi-katu egin behar zen.

Hondarrean, zer? 1989ko abenduan bozketara aurkeztutako proposame-nen artean, Nafarroako kulturari zegozkionak, honako hauek izan ziren:

152. Euskara ofizial aldarrikatu zuten 1974 eta 1981eko apezpikuen tes-tuak betearazteko, Euskal Pastoraltzarako Elizbarrutiko Idazkaritza sor dadila.

153. Euskararako itzulpen taldea sor dadila, elizbarrutiko dokumentu ofi-zial eta argitalpen guztiak zein liturgia eta katekesiko materialak, baldintza berdinetan heda daitezen, gartzelaniaz nahiz euskaraz.

154. Egoki egin dadila euskarazko katekesia, eta eskatzen duten ikaste-txe guztiei apaiz euskaldunak eskain dakizkien.

155. Erreklama daitezela euskararen eskubideak, bere zapalketa salatu, eta behar duen laguntza osoa nafar erakundeei eskatu.

156. Kapelau euskaldunen zerbitzua eskain dadila gizarte zaintzako etxe publikoetan (ospitale, kartzela, erreforma-etxe, psikiatrikoak eta abarretan).

157. Ahal den parrokia guztietan izan dadila, euskaraz sakramentuak egi-ten ahal dituen apaizen bat, eta parrokia guztietan izan dadila eukaristia eta hiletak euskaraz ospatzeko aukera.

158. Egin daitezela elebizko pastoralta ekitaldiak eta liturgia ospakizun-ak, gertakari aberasgarri eta elkarkidetzarako lagungarri.

159. Euskara gehiago erabil dezala elizak bere pastoralta zerbitzuan, li-turgia ekitaldietan batez ere, ez soilik eliztarrak euskaldunak direnean, baita hauek gutien direnean ere, Xabierraldietan erraterako (35).

Zentzuzko proposamenak iduri izanagatik, eta neurritsuak, horietako ba-kar batek ere ez zuen Batzarre Nagusiko bi herenen onespenez lortu, eta, on-dorioz, bakar bat ere ez zen Sinodoaren proposamen bilakatu. Hiru herenena ez, baina erdiena baino gehiagoen aldeko boza lehenengo proposamenak ba-karrik jaso zuen, 74 eta 81eko Iruñeko apezpikuen euskarari buruzko doku-mentuak betearazteko Euskal Idazkaritza sortzea eskatzen duena.

(35) *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1990, 152. or.

4.3. Azken hamarkada

Ez dira gauzak hobetzen joan azken hamarkadan.

4.3.1. Jokaera anbiguo eta kontrajarriak. Edo, behar bada, erran eta idatzi anbiguo eta kontrajarriak.

Jose Maria Cirardak ez zekien euskara gehiegi, baina zerbait bai, eta Euskal Herrikoa zen. Haren ondotik Fernando Sebastian apezpiku izendatuta, 100 apezpek sinatutako idazkia igorri zitzaion, 1993ko apirilaren 20an datatua, bera Iruñera etorri baino lehenago. Nafarroako kultur anitzeko errealitatea azpimarratzen da testu horretan, apezpikuak euskaldun behar duela izan, ebanjelizatzeak euskara eskatzen duela, etab. Ez zuen erantzun idatzirik eman, baina aski jakinarazi zuen ez zuela onartu.

Nafarroan sartu eta hilabetea baino lehen apez euskaldunen bileran zera bota zigun: «Zuek euskara klabe politikoan interpretatzen duzue». Ez naiz egun hartaz aisa ahantziko, halako harridura eta mina sumatu bainuen. Aitzinetik, topaketa berean, hastapenean egiten zen otoitzaldia erdaraz egiteko agindu zuen, ordu arte euskaraz egiten zena. 1993ko ekaina zen.

Hala ere, euskara ikasten zerbait aritu zen, eta, hori gauza berria zenez gero –apezpiku bat euskara ikasten ordu arte ez genuen ikusi–, une batean euskararen aldeko jarrera hobetzen ari zelako ustea sortu zuen, zenbaitengan. Ez ziren urrats handiak izan, ordea.

1994an Euskal Pastoralta Sailaren sortze dekretua eman zuen, non Kontzilioaren eta Paulo VI.aren erran interesgarriren bat irakurtzen ahal dugun, baina baita tresnatasun arrazoiak eta lehengo mendeei buruzko gogoeta eza-gunen errepikatzea (36).

2000. urtetik Nafar Gobernuak euskararen erabilera murrizteko eta oztopatze-ko hainbat dekretu ematen hasi, hala nola, euskarazko lanpostua hautatzen duenak, ez duela gaztelaniazkorik eskuratzetik izanen, bi hizkuntzetan zeuden Iruñeko izen publikoak gaztelania hutsez uztea, euskararako dirulaguntzak ttititzea, etab. Manifestaldi jendetsuek Iruñeko karririk bete zituzten, Udalen erreklamazioak nafar Gobernuari eraman, Mendialdeko 38 apezpek salaketa sinatu eta egunkarietan argitara eman (37). Hori bai, ez zen sumatu elizbarrutiko arduradunen salaketarik. Isiltasuna ezagutu dut nik beti apezpiku eta inguruko aldetik, isiltasuna erran nahi dut agintarien euskararekiko jokaera okerrari dagokionez.

Baina, zer eta 2002an, egunkarietan, Iruñea eta Tuterako apezpikuak idatzitako hau irakurri genuen: «Ez da euskarak jazarpenik jasaten duenik erraten ahal, ez Euskal Autonomia Erkidegoan, ez Nafarroako Foru Erkidegoan»

(36) *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, 1990, 802-804.orr.

(37) *Egunkaria*, 2001/1/19, 4.or.

(38). Baieztapen horrek erantzun kritikoak jaso zituen, apez eta laikoen alde-tik, Mendialdeko 23 apezzen izenean, bat (39).

4.3.2. Sentiberatasun desberdinak. Iruñeko Artzapezpikutegiak duen Euskarazko Pastoraltzarako Sailak, «Eliza eta Euskara» izenburuko idazkiarekin erantzun zien, egunkarietan, urte bereko maiatzean, apezpikua kritikatu zutenei. Honela dio bertan:

«Onartu behar da, Elizaren lana zail eta neketsua suertatzen dela batzuetan, kontuan hartuz gaur egun nafar gizartean dagoen zatiketa handia. Izan ere, batzuek hizkuntza politika ofiziala kritikatzan dute euskara lehenesten duela esanez, eta, beste batzuek, aldiz, euskararekiko politika hori urria eta zekena izateagatik gaitzetsi egiten dute».

Hau da, Euskal Pastoraltzaren arduradunen iduriko, kontuz ibili behar du elizak euskarari buruz, Nafarroan sentiberatasun ezberdinak direlako;

«Mesedegarri izanen litzateke», dio geroxeago, «denon artean, elkar ulertze eta elkarriketa giro bat sortu eta euskararen aldeko politika eskuzabal bat bul-tzatzea» (40).

Baina ez da ulergaitz samarra baieztapen hori? Zeren eta noiztik erabaki behar du giza-eskubideekiko jarrera jendearen usteak edo sentiberatasunak? Langileen eskubideak, herritarrek onesten badituzte soilik zaindu behar dira? Herrien eta jendeen arteko ondasun banatze egokia ezin da aldarrikatu, jendearen adostasunik ez bada? Abortuaren gaitzesteko, herritarren pentsaerari be-giratzan diote eliztarrek?

Baina lotu gakizkion sentiberatasun ezberdinen fenomenoari. Sentibera-tasunak, berezkoaz gain, hezi egiten dira. Zenbateko ahaleginean ari da Eliza, euskara eta euskal kulturarekiko sentiberatasuna lantzen? Erraterako, lehen ai-patu bezala, hizkuntza giza izaeraren alderdia dela irakasten; gizatasunarekin lotura duenez gero, sinemenarekin zerikusia baduela, sinemenik ez baita gi-zatasunik gabe, Vatikanoko II. Kontzilioak berak markatzen digun ildo jorra-tuz. 1974 eta 81eko apezpikuen idazkiak kenduta, Elizak urte hauetan euska-rari buruz erran duenak ia ez du lagundu kristau kontzientzia heltzen.

4.3.3. Hutsune larriak ditu Elizak euskararen erabilpenean gaur egun. Hor dugu Xabi Lasaren datu bilduma. Eta gehitzen ahal zaizkion bertze zenbait. Errate baterako, gaur prestatzen diren apez berriei ez zaie euskara jakitea es-katzen, ez dira elebidun egiten elizbarrutiko izaera kulturalari erantzuteko. Ma-li edo Nigeriara misio lanetara joaten den Europako apezaren lehenengo lana hango hizkuntza ikastea izaten bada, zergatik ez zaie arduradunei bururatzten, Nafarroan apez egiten denak euskara ikasi behar duela? Hemen ere tresnata-sun soila aintzat hartzen ez bada, behinik behin.

(38) Fernando Sebastián, «La conciencia cristiana ante el terrorismo de ETA», *Alfa y Omega* aldizkaria, 27-XII-2001, 4. or.

(39) «Artzapezpikuaren gogoetak», *Egunkaria*, 2002/1/11, 3 or.

(40) Juan Apecechea, *Diario de Noticias*, 2002/05/17, 5. or.

Apezpikutegetiko bulegoetan, euskarari buruzko apezpikuen dokumentuak jasota dauden etxean, eta hainbat zerbitzu publiko eskaintzen den lekuan, euskara ia hizkuntza arrotza da.

Guretzat hutsune diren horiek, ordea, ez dute kezka handirik sortzen arduradunengan. Euskara guti erabiltzen duela-eta, ez diote Apezpikutegetitik inori aisa deituko. Inoiz egin badute, nik ez dut sumatu. Baina euskara sobera erabiltzen delako kexak, bai, jakinarazi zaizkie apezei, behin baino gehiagotan. Apezpikutegetitik, bada, euskararen erabilera neurtzen eta murriztu nahian ibili eta ibiltzen dira. Jende gehiena euskalduna denean ere, elizkizuna euskaraz eta erdaraz erdira egitea egokitzen jotzen dutela dirudi.

4.3.4. Euskara berreskuratzeko eginkizuna? Hori ez du Nafarroako elizak aintzat hartu, lehen aipatu ditugun Mendez, Larrauri eta Cirarda apezpikuen dokumentuetan horrela adierazia badago ere. Euskaraz aritzea bai, bere neurrian, neurri murriztean. Baina euskararen alde aritzea ez omen da elizaren egitekoa: gaur den egunean apezei irakasten ari zaizkien irizpideak bide dira. Nahiz eta *Euskarari bai* kanpainari bere sinadura eman. Hau oraindik argiago utzi digu, behar bada, Fernando Sebastian artzapezpikuak, berriki salgai paratu duen *La Verdad del Evangelio* izenburuko liburuan.

Honela dio:

«Elizak euskarari babes zehatz eta berezia eskaintzea nahiko lukete batzuek... Nik ez dut jarrera hau onargarritzat jotzen, bi arrazoiengatik. Bat, egun euskarak Nafarroan nahiko errekonozimendu eta geriza baduelako, legearen eta dirulaguntzaren aldetik... Bigarrena, sakonagoa. Elizaren egitekoa ez da, ez kultur ez politika arlokoa, erlijio eta moralekoa baizik. Elizak ez du inon ere hizkuntza hau edo bertzea zabaltzen ari behar. Gutxiengo kultural bat persegitua gertatuko balitz, eta bere eskubideak zanpatuak, orduan soilik saiatzen ahal litzateke, eta saiatu beharko luke, zuzengabe tratatutako gutxiengo hori defenditzen. Baina ez da hau orain gure egoera. Jainkoari eskerrak» (41).

Ez dut uste azalpen handirik behar duenik honek. Baina ez dut erran gabe uzten ahal, elizgizon batek horrelakoak idazteak min handia sortzen didala.

Baieztapen nagusi batzuk azpimarratuko ditut:

Lehen eta egun izan dira eta badira eliztar euskaltzale sutuak, euskararen alde fin jokatu dutenak.

Elizak ez du, oro har, arduradunen aldetik batez ere, euskara euskal komunitate eskubidedun ikusi, ez du euskara euskaldunen hizkuntza eskubidedun ulertu.

(41) Fernando Sebastián artzapezpikua, «El euskera en la Iglesia», *La verdad del Evangelio*, Ediciones Sígueme, 2003, 665-668.orr.

Eta, ez du bere egin, salbuespenak salbuespen, euskararekiko atxikimenduak baduela kristau sinesmenarekin loturarik.

5. HONDAR GOGOETA: ELIZAREN ZENTRALISMOA

Lehenbiziko bi mendeetan ez bezala, gero eta erakunde zentralistagoa bihurtzen joan zen eliza. Eta nazio arteko botere, gero eta handiagoa. Vatikanoko azken Kontzilioak Jainkoaren herri izatea markatu bazuen ere (47), elizari buruz, eta elkargo-jitea hierarkiarentzat, eta hor ere aitzin-urratsak gauzatu arren urte batzuz, urratsak gibelera egin dira eta egiten ari dira. Nire ustez, elizak euskararen aldeko jarrera egokia hartzekotan, botere eta zentralismoko pentsaera eta jokaera utzi behar du, eta egitura aldatu.

Estatuekin bezala gertatzen da elizarekin. Botereak eta zentralismoak ez du aniztasuna maite, ez zaio aniztasuna komeni, ezta herritarren parte hartzea ere. Pentsamendua eta agintea zenbat eta buru eta esku guttiagok eduki eta erabili, orduan eta errazagoa da boteredunarentzat bere boterea handitzea, orduan eta errazago zaio boteredunari bertzeak menean edukitzea. Aspaldi erran zuen Nebrijak: hizkuntza inperioaren laguna da. Aginte bakarra, hizkuntza bakarra. Nola onartu hizkuntza ezberdin eta anitza, inperioa indartu nahi duenak?

VIII. Jagon Jardunaldiak

Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian

Data: 2004ko azaroaren 26a.

Lekua: Euskaltzaindiaren Arabako ordezkari-tza (San Antonio, 41 – Gasteiz).

Egitaraua:

16:30 Aurkezpena. Andres Urrutia, Jagon sailburua.

Sarrera. Jose Luis Lizandía, euskaltzaina.

16:45 "Eliza katoliko erromatarra eta euskara". Joseba Intxausti, euskaltzain urgazlea.

17:15 "Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik". Andres Ibañez, Gasteizko Teologia Fakultateko irakasle emeritua.

17:45 "Euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoral jardueran". Emilio Pérez, Aramaioko erretorea.

18:15 Elkarrizketa.

18:45 Azken hitzak. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

VIII. JAGON JARDUNALDIAK: Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian

*Gasteizen, Euskaltzaindiaren
ordezkaritzan, 2004ko azaroaren 26an*

*Andres Urrutia,
Jagon sailburua*

Arratsaldeon guztioi.

Hirugarrenez dator Jagon Saila, Sustapen Batzordearen bitartez, zuen aurrean, gaia «Eliza eta euskara» dela.

Gure ibilbidea, bistan da, pausoz pauso joan da. Horretara, duela bi urte Hendaian azaldu zen euskararen egoera, Iparraldeko elizbarrutikoa. Iaz Irunberrin antolaturiko jardunaldiei esker, Nafarroako elizbarrutien egoera jende aurrean jartzeko aukera izan genuen.

Aurten, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiona landuko dugu. Egun, hiru elizbarruti dira Euskal Erkidegoarenak, historian zehar gertaerak oso bestelakoak izan badira ere.

Horrexegatik, hain zuzen ere, lehen-lehenik Joseba Intxausti euskaltzainak adieraziko digu historiaren ikuspegitik, «Eliza katoliko erromatarra eta euskara».

Jarraian, har bitza Euskaltzaindiaren izenean eskerrik beroenak, Andrés Ibañez jaunak. Andrés Ibañez es profesor emérito de la Facultad de Teología de Gasteiz, y nos ilustrará sobre el euskera en el Seminario de formación de sacerdotes de Vitoria antes de la Guerra.

Azkenean, Emilio Pérez, Aramaioko erretorreak plazaratuko du euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoraltza-jardueran. Eskerrak berrari ere.

Horiek egoki zertzeko, Jose Luis Lizundia euskaltzainak sarrera laburra egingo digu, mendeetan zehar Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa batzen zituen Kalahorra elizbarrutiar buruzko xehetasunak emanez, eta, itxialdian, elkarrizketarako tartea, eta amaierako hitzak, Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren kontura.

Has gaitezen, beraz.

VIII. JAGON JARDUNALDIAK: GASTEIZKO ELIZAREN SORTZEA ETA EUSKARA

Gasteiz, 2004ko azaroaren 26an.

Jose Luis Lizundia Askondo

Sarrera honetan eta, dudan denborara mugatuz, XIX. mendean Eliza Katolikoak Euskal Herriarekiko bere baitako erakundetzea aipatzea nahiko nuke. Gaur eta, hemen, ez dut jardungo mende horren hasieran Napoleonen Konkordatuak nola ekarri zuen, alde batetik Iparraldeko parrokia guztiak diozesi berberean batzea, hots, Lapurdi, Garazi-Baigorri eta Arberoa artzipreztazgukoak, lehendik Baionakoak zirenak; Amikuze, Oztibarre eta Agaramontekoak (Navarre deitutako artzipreztazgukoak), orduarte Akizi atxikiak eta Zuberoakoak, Oloroekoarenak. Baina baita ere, Biarnoko guztiak, orduarte Leskarre edo Oloroen zeudenak, BAIONA-LESKARRE-OLOROeko elizbarruti handi eta nahasian (euskaldunak eta biarnesak), horrela populu biak bil araziz. Departamendua eta diozesa gauza bera, eta, horrela jarraituko, zoritxarrez.

Espainiako Erreinuan ere estatu liberalak nahi izan zuen egin hori. 1822an, liberal progresistek «trienio liberal» delakoan, lehen benetako probintzializazioa burutu zuten 52 probintziekin «Proyecto de división del territorio español» indarrean jarriz. Egile nagusia euskaldun bat, Jose Antonio Larrañendi Mugurutz Mendararra. Napoleoni imitatuz probintziak eta elizbarrutiak kopuru eta muga berberak izatea nahi zituzten. Absolutismoa berriaz ezarri zen eta Erregimen Zaharrera itzuli zen egoera, baina 1833an Javier de Burgos ministro liberalak burutu zuen gaur ezagutzen dugun probintzia banaketa. Berehala hasi ziren liberalok Kondordatu berrian lehengo asmoekin, baina agintean zeuden liberal moderatuak ez zuten lortu Frantziako eredu osoa, hori bai, lortu zuten zenbait elizbarruti txiki handiangoekin biltzea, hala nola Tuter Tarazonekoarekin eta abar, baina baita ere elizbarrutirik ez zuten probintziek lortzea, ez denek ordea.

Garaia etorri zitzairen arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrei obispadua lortzeko, paradogikoki bada ere Espainiako liberal jakobinoei esker. Calahorra-La Calzadako elizbarruti erraldoiak 553 parrokia galduko zituen Mendebal Euskal Herrian eta hori nekez irentsi zitekeen. Argudio asko erabili zituzten kontrakoek, bereziki kalonje eta elizgizon nagusiek, baina interesgarriak izanik ere, gaur euskarekikora mugatuko naiz. Horretarako Andrés E. de Mañaricua,

Demetrio Mansilla, Sebastián Insausti eta Juan Pérez Alhamaren *Obispos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la Diócesis de Vitoria*. Victoriensia, Publicaciones de lal Seminario de Vitoria, Vitoria, 1964 liburu mardul eta dokumentatua irakurtzea gomendatzen dizuet. Zuetariko batzuk ezagutzen baduzue ere Santo Domingo de la Calzadako Justo Barbagero abatarenak dira hemen aipagarri.

Abata kontserbadorea izango zen, ziur, baina Grazia eta Justizia ministro liberalari idatzi zion, Konkordatuaren ondorioz erabakita zegoen Gasteizko elizbarrutia, gauza ez zedin azken ahalegina egin guran. Bere «*Memoria o consideraciones sobre la reunión de las tres provincias vascongadas en su sólo obispado, con la silla episcopal en Vitoria*» oso adierazkorra da euskararen, euskaldungoaren eta euskal nazionalitateen (horrela dakar euskal nazionalismoa sortu aurretik) kontra argudiatuz. Hara hor pasarterik argigarrienak hitzez hitz:

Ministroari egindako gutunetik:

- «...me ha parecido deber prestar un servicio a mi futura iglesia consignando en la adjunta *Memoria* razones muy valederas contra el proyecto de unir aquellas tres provincias en un solo obispado».

Memoriatik:

- «Y estas razones no han podido ser otras que las que ahora precisamente se alegan para reunir las tres provincias en un solo obispado: el tener las misma legislación especial con igualdad de costumbres y tradiciones. Esa legislación especial es la que da a las tres provincias una especie de independencia que hace muy precaria su unión con España, si el vínculo político que las sujeta a la corona, no estuviese fortalecido con el vínculo canónico que las estrecha y hace dependientes de Castilla».
- «Si a la independencia administrativa y legislación especial de que gozan, se junta entonces la espiritual y eclesiástica, tienen todo lo necesario para gobernarse por sí mismos y ser de todo punto independientes».
- «Para conseguir este objeto (que ha debido parecer a nuestros Reyes de gravísima importancia), y para remover el principal obstáculo que se opone a la fusión de los pueblos en una misma nacionalidad, han procurado limitar el uso de la lengua vascongada, mandando que en todas las escuelas se enseñe por libros castellanos y empleando otros medios para generalizar el uso de este idioma, a cuya adopción en el pays (sic) no ha contribuido poco el clero, por la necesidad de ejercitarlo en sus relaciones con las capitales de las diócesis y comunicación con sus prelados. Por la perseverancia en estas medidas, y a causa también del mayor trato y roce con los castellanos durante la guerra, había llegado así a desaparecer el vascuence: en distritos enteros, limítrofes a Castilla».
- «Teniendo los vascongados. Obispos de su habla, cabildo y párrocos de su habla, se aferrarán más y más en ella, tratarán de extenderla por los límites de las tres provincias, ganando el terreno perdido y haciendo de ella una lengua na-

cional; y si a esto se agrega la mayor afición que cobrarán a sus costumbres, tradiciones y fueros, que en cierto modo se autorizan y sancionan, se habrá contribuido a formar en España una nacionalidad distinta, y una base de separación política para lo que más adelante quisieren invocar el principio de las nacionalidades».

Argi dauka beraz La Calzadako kalonje-abatak euskara eta euskaldungoaren mesedetan izan zitekeela hiru probintziek elizbarruti erakunde bateratua izatea. Politikoki bat ere lotsa gabe jokatuaz, bere Memoria horretan azken azken ahalegin bat egiten du, gutxienez ezinbestean sortzen bazen ere, hiru herrialdeon eremu osoa ez zedin hartu:

– «...y lo 3º, por las razones políticas indicadas que aconsejan más bien que la unión, el fraccionamiento de las tres provincias. Conservando a Pamplona, San Sebastián y Tolosa, que distan menos de ella que de Vitoria; a Santander y Burgos su territorio actual en Vizcaya y Alava; y a Calahorra y La Calzada, por ser la que más pierde, la mayor parte posible de esta última provincia», Araba alegia.

Horrela Bizkaiko Enkarterri eskualdea, Ezkerraldea barne, Santanderko elizbarrutian jarraituko zukeen; gauza bera, Aiara aldeko Tuterako artzipreztagua (Artziniena buru zuena); Gobiarango parrokiak Burgosekin eta Gipuzkoa gehiena, Debarroa salbu, Iruñerekin segituko zuen. Asegaitza zenez gure abat hori Arabako Hegoaldeak ere Calahorra-La Calzadarekin segitzea hobe.

Zorionez ez zuen lortu hiru probintzien eliz batasuna zapuztea. Hori frankismo garaian gertatuko zen, 1949ko azaroaren 2an, Aita Santuaren *Quo commodius* buldarekin, Bilbo eta Donostiako apezpikutegi berriak sortuaz, baina hori beste historia bat da. Nik bakarrik abat-kalonje horrek eliz erakundetze batek zer mesede edo kalte zekarzkion euskarari eta euskal nazioari ondotxo zekiela oroit arazi nahi izan dut. Oviedoko eta Iruñeko eliz probintziek frankismo beranduan eraiki zirenean, nola Araba eta Bizkaiko elizek Burgoskoaren eremuan gelditu ziren datorren urterako utziko dugu.

ELIZA KATOLIKO *ERROMATARRA* ETA EUSKARA

Haren hizkuntz hautapenei buruz zenbait ohar

Gasteiz, 2004-XI-26

Joseba Intxausti

«Eliza Katoliko *Erromatarra*» dio izenburuak, Eliza Katoliko horri eman ohi zaion izenlaguna azpimarratzeko asmoarekin.

Izan ere, historikoki *erromatartasuna* baldintza erabakigarria izan da Eliza Katolikoak Mendebaldeko bere hizkuntz politika hautatzean: aparteko erresistentziarik aurkitu ez zuenean, Eliza horrek Erromako hizkuntza, *latina*, hobetsi zuen bere bizitza ofizialenerako, ez beti molde eta maila berean, baina bai, funtsean, joeraz eta erabakiz gogo horri fermuki eutsiz. Eta hori kasik gure egunak arte.

Hala ere, ezaguna denez, jakin badakigu latina ez dela izan Eliza Katoliko Erromatarraren hizkuntza bakarra, baizik eta premia, komenentzia edo hobespenen arabera gainerako hizkuntzek ere izan dutela lekurik Eliza Latinoan, betiere garai eta inguruko girora egokituz.

Esan beharrik ez dago eliz bizitzan Euskal Herriko kristauoi hizkuntz hautapen horren barnean bizitzea egokitu zaigula, Europako Mendebalde guztiari bezala. Eta hor baldintza orokor batzuk egon dira, eliz kulturagintza-ren prozesua eta kultura orokorra ere bide jakin batetik eramán dituztenak.

Orrialde hauetan ez dugu deskribatuko hemengo historia hori bere osoan, baina bai jokalekuan izan ditugun arau nagusiak gogoraraziko, eta, lagin historikoren bat hartuta (Iparraldeko XVII-XVIII. mendeak), haiek ekarri zuten emaitza erakutsiko.

Euskal Herrikoa ez da izan inondik ere kasu isolatua; baina, bere arruntasunean, gurean zer nolako ondorioak izan dituen jakiten joateak badu interesik, euskararen kanpo-historia ulertuz joateko. Guretik at egon diren ikusbi-de eta historia zabalagoak baztertu gabe, noski.

1. ERLIJOAK ETA HIZKUNTZAK

Erljio-hizkuntzen arteko zerikusi, harreman edo eraginak ez dira bereziki Eliza kristauen kontua izan, erljio ez-kristauek ere historia soziolinguistiko iraunkor/aldakorra izan dute, eta aberatsa (1).

1.1. Erljio-hizkuntzen tradizio handiak

Erljio handiek hizkuntza hautapen jakinak egin dituzte, beren jator-buruetan eta gero. Gomutagarria da, gainera, hizkuntza batzuen historia idatzia bizitza erljiosoak sustaturik hasi zela, horretarainoko erabakigarritasuna izan baitute inoiz erljioek hizkuntzen mundu honetan.

Herri, Herialde eta Kontinente osoak besarkatu dituzten erljioen hizkuntz tradizioak hona ekarri besterik ez dago gertakari historiko horren alantzua barruntatzeko:

1. Hinduismoak (2) *sanskritoz* eman zituen bere liburu sakratu ugari eta aberatsak (Vedak, 1800-500 K.a.; loraldia: 1500-300 K.a.). Aurreko tradizio luze bati jarraiki, Panini gramatikariak finkatu zuen hizkuntzaren araua, hain zuzen testu erljiosoen fideltasun sakratua segurtatzeko xedearekin (K.a. V. mendean) (3).
2. Budismoak *palieraz* jaso zituen Buddha-ren hitzak eta mezuak, Buddha berak espresuki sanskrito ulergaitza baztertu eta hizkera herritarra (*prakrito* bat: paliera) hobetsi ondoren (K.a. V-K.o. II. mendeak); Indiatik at, palieraren tradizio budatar hori itzulpenetan jaso zen gero (Txina, Tibet, Birmania, etab.); Txinan, adibidez, 500 eta gehiago itzultzaileen Bulegoa antolatu zen lan horietarako (IV-V. mendeak) (4).
3. Judaismoaren liburu sakratuak funtsean *hebraieraz* eman ziren, eta juduen Liturgian bizirik eta finko geratu zen hebraiera; baina aramerak eta grekoak ere izan zuten lekurik judutarren Biblian (5).

(1) Lehen erreferentzietarako: SAWYER, J. F. A.; SIMPSON, J. M. Y. (ed.) (2001): *Concise Encyclopedia of Language and Religion*. Amsterdam: Elsevier.

(2) Hinduismoak, diogu, bere esanahirik zabalenean: vedismoa, brahmanismoa eta hinduismoa (adiera hertsian) barne dituela. (Ik. KÓNIG, F. (1964): *Diccionario de las religiones*. Barcelona: Herder. Ordena kronologiko batean, begira s. v. «Vedismo», «Brahmanismo», «Hinduismo»).

(3) Hinduismoa eta sanskrito: MANSION, J. (1931): *Esquisse d'une histoire de la langue sanscrite*. Paris: Librairie Orientaliste Paul Geuthner. Ik. Sawyer et al. 2001: 52-54. MORAL, R. del (2002): *Lenguas del mundo*. Madrid: Espasa-Calpe. S. v. «Sánscrito».

(4) Budismoa eta paliera: Mansion 1931: 118; Sawyer et. 2001: 15-20 (zenbait autore).

(5) Judaismoa eta hebraiera: SAENZ-BADILLOS, A. (1988): *Historia de la lengua hebrea*. Sabadell: Editorial Ausa. Hasteko, batik bat Biblia da «hizkuntza sakratu» honen arakasta, Testamentu Zaharraz geroztikoa: GONZALO MAESO, D. (1960): *Historia de la literatura hebrea*, Madrid: Gredos. Ik. Sawyer et al. 2001: 68-72 (M. Weitzman). TREBOLLE BARRETA, J. (1993): *La Biblia judía y la Biblia cristiana*. Madrid: Editorial Trotta.

4. Mendebaldeko kristau erromatarren artean *latina* nagusitu zen, baina ez hasieratik bertatik, zeren Erromako lehen kristauak mundu juduherenistatik baitzetozen, eta Erroman bertan kultura grekoak eta hizkuntzak itzal handia baitzuten. Latintzea geroago etorri zen, eta latin kristauaren eragin historikoa ere (6).
5. Bien bitartean, Ekialdeko Elizak bestelako bideak ezagutu zituzten, tokian tokiko herritarren hizkuntzak hobetsiz: Egipton koptera, Etiopian ge'ezera, Sirian siriakoa, Bizantzion grekoa, Herri eslaviarretan eslavieria zaharra, Armenian armeniera, etab. Esan dezagun kasu honetan hizkuntza nazionalak indartu zirela oro har, Estatu nazionalarekin edo gabe (7).
6. Erreforma Protestanteak (1517...) zeharo irauli zuen Erdi Arotik zetorren egoera latinoak, eliz bizitza ia osoa hizkuntza herritarretan ematean: Biblia, Liturgia, Predikua, Katixima, Administrazioa, eta partez bederen baina gero eta gehiago Teologia bera ere. Egiteko horretan Erreformatzaile handi guztiek izan zuten esku zuzena, pertsonalki itzultzaile bezala eta mugimendu erreformazaleen gidari gisa ere (8).
7. Arabiera klasikoa izan da *Ummah* (=‘eliza’) islamdarraren hizkuntza, eta hain horrela ikusi dugu hori, ze «arabiarra» eta «musulmana», biak, bat egin eta berdintzera heldu baikara sarritan, musulmantasuna arabiartasun linguistikorekin nahasteraino. Islam-ak arabiera du Meskita eta Eskola Korandarretan hizkuntza erabat nagusia (predikuak bestelako eskakizunak izan ditzake, noski), eta Historiak erakusten digunez, boterea lagun, beraietatiko eraginez *ere* gizarte zibil eta herri osoak arabiartu ditu Islam-ak. Hala ere, ez du jokabide horretan beti arrakasta bera izan, erresistentziarik ere egon baita (Pertsia, India, Indonesia edo Turkian, adibidez), eta bestalde, hizkera klasiko eta herriararren arteko betiko aldea izan da, eta da, herrialde arabiarretako buruhauste politiko, kultural eta erlijioso larri bat (9).

(6) Begira, besteak beste, Jedin-en *Historia de la Iglesia*-n zehar ageri dena (Barcelona: Herder, 1966). Erosoago eta labur nahiago bada: Sawyer et al. 2001: 27-42 (zenbait autore).

(7) Ekialdeko Elizak eta hizkuntza nazionalak: Bibliografiak ezagutzeko Brepols (Turnhout) argitaletxearen «Fils d'Abraham» bilduma begira daiteke. INTXAUSTI, (2004): «Elizak egin (ez) duen euskarazko kultura idatziaz», in: *Hemen*, 4.zenb., 2004, 63-80.

(8) Protestantismoaz: DELUMEAU, J.; WANEGFFELEN, Th. (19989): *Naissance et affirmation de la Réforme*. Paris: puf. 45-46, 111, 116-117, 288-289. LÉONARD, E. G. (1967): *Historia general del Protestantismo*. Barcelona: Edicions 62 (4 libk.); guri dagokigunaz hurbilagoak direnak: I, 263-314; II, 77-139.

(9) Sawyer et. 2001: 55-66, 162-166 (zenbait autore). Arabiera klasikitik modernoetarako barne-jauziaz, sintesi erosoak: BLAU, J. (1969): «L'apparition du type linguistique néo-arabe», in: *Revue des Études Islamiques*. 1969/2 (Aparteko inprimaldia: Paris: Libr. Orientaliste Paul Geuthner). Arabiera klasikoaren rol historiko, sozial, kultural, ideologiko eta politikoaz zerbait ja

Eta gatozen kristauen mundura. Hasieran, hizkuntzen hautapen batzuk ez ziren egin Eliza eta fededunen elkarteak herrietan inkulturatzeko asmorik gabe; baina, orduan eta gero baita, alderantziz, norberarena erbesteetan ezartzeko grinarekin ere. Burubide bikoitz horren adibide gisara, jada iradoki dugunetik Erroma Hiriko lehen kristauartea aipa genezake.

Lehen bi mendeetan Hiri hartako Eliza grekoz bizi eta hazi zen (ez ahan-tzi kristauak Ekialde helenistikotik zetozela, eta Testamentu Berria bera grekoz idatzi zela). Erromatar Kristautasunaren hizkuntz inkulturatzea ez zen ziurtatu Lazion III. mende-hasiera baino lehen. Lehen latintze horren ondoren, ordea, Eliza gaztearen latinak berriz ere Inperioko bideak eta jokamoldeak hartu zituen. Hori horrela, Mendebalde/Ekialdetan erdibanatutako Inperio ahulduko latina Mendebaldeko herriak latinez kristautuz indarberrituko zen, Erromako Elizaren hizkuntz hautapenaren ondorioz.

1.2. Berezko bilakaerak eta aldakuntza egitarautuak

Baina hizkuntzaren aukera hauek, ondorio guztiz iraunkorrekoak izan arren, ez dute hizkuntzen historia geldiarazten, ez barrutik, ez kanpotik. Horregatik, egoera eta bilakaera erlijiosoek, edo soziolinguistikoek, ezusteko emaitzak ere ekarri dituzte Elizara batzutan: herritarren ezpainetatik hasierako eliz hizkuntza galtzean, eliz Erakundeak misio-herrietako hizkuntza berriekekin edo gizarteko eleaniztasunarekin topo egitean. Horren guztiaren lekukoak dira *hildako* latin sakratua edo hartatik «sobera» *aldatutako* neo-latinak (erromantzeak...), Amerika aurkitu berriko hizkuntzak, edo betidaniko Ekialde Hurbil eleanitza.

Eliza Katoliko Erromatarraren latina, Eliza Armeniarraren armeniera *grabar*-a, Egiptoko koptera, maroniten siriera, ge'ezera etiopiarra edo Islam-aren arabiera klasikoa ez dira, dagoeneko, hizkuntza mintzatuak, diakroniak eta geografiki bere alda-lana burutu baitute horiengan. Honela, hain temati iraun ohi duten hizkuntza sakratuen eta belaunaldi fededun berrien artean eten deseroso bat agertu ohi da, azken buruan.

Nola sortu hor, adibidez, Liturgiaren eta herritarren arteko zubi berriak? Galdera, beste nolabait, aintzakotzat hartzekoa da ez erlijio-mundurako baka-rrik, inoiz baita bizitza zibil modernorako ere.

Eliza Katolikoan Vatikanoko II.ak (1962-1965) latinarekin egin duenaren kontrakoa egin du zenbait herri arabiarrek deskolonizatze ostean. Esateko, Al-

kiten hasteko bila lehen argibideak, Estatu Estatu: «L'aménagement linguistique dans le Monde» deritzan web-gunean: <http://www.tlfg.ulaval.ca>, Arabiera klasikoa (erlijioso korandarra) gaur egungo arabiera dialektal, tokiko arabiera gutxi-asko estandar, arabiera moderno orokorr(ar)en eta beste hizkuntza ez-arabiarren artean nola lekutzen den jakiten hasteko ere balio du batzuetan web-guneak.

jerian, Mauritanian edo Somalian, hiruretan, arabiera klasikoa hizkuntza ofiziala da, arrazoi sinboliko-politikoengatik eta hizkera horrek betidanik duen itzal erlijioso, historiko eta kulturalagatik.

1. Aljeriako biztanleak musulmanak dira ia denak, eta arabieraz ari dira gehienak molde batez edo bestez (% 72) baina bertako arabiera moderno ez da hizkuntza ofizial idatzia (berberera ez den bezala: % 27,4 mintzatzaile): arabiera klasikoak du ofizialtasun hori; besterik da, praktikak zer ematen duen gero (10).
2. Mauritaniako gizartea musulmana da eta arabiera hassaniya-z («mai-ruen» hizkuntzaz) ari da gehienbat (% 66 mintzatzaile: indartuz eta zabalduz doan arabiera nazionala delarik), baina arabiera klasikoa da hizkuntza ofiziala (1968an frantsesarekin batera, eta 1991etik hona, bakarra), beste hizkuntza nazional aitortuen artean. Gobernuaren azken hizkuntz politika praktikoak arabiera moderno laguntzen du. Horren guztiaren ondorioetako bat da Mauritaniako hizkuntza idatzi bakarrak arabiera klasikoa eta frantsesa izatea. Definizio teoriko eta praktiko zaileko egoera bizi du Mauritaniak (11).
3. Somalian, berriz, deskolonizazio-biharamunean somaliera aitortu zen hizkuntza ofizial bakartzat (1969, 1972), sozialki orduko eta geroko hizkuntza nazional nagusia izaki (% 72,5), eta azken hogeita hamar urteetan indartuz eta zabalduz joan dena. Somalierak, independentziaz hartu, zinezko iraultza sozio-kulturala ezagutu du (alfabeto latinoa hartu, eskolaratzea somalieraz egin, alfabetatze orokorra abian jarri, ofizialtasun bakarra finkatu). 1979ko Konstituzioaren arabera, arabiera klasikoa ere hizkuntza ofizial bilakatu da (nahiz eta horren nolabaiteko sostengu soziala litzatekeen arabiera herrian darabiltenak % 0,1 bakarrik diren). Somaliarrak musulmanak dira (Estatuaren erlijio ofiziala ere Islam-a da: 1979), baina Somalia ez da sekula arabiartu, eta arabiera (klasikoa) sinbolo bat baizik ez da: «la langue qui unit le peuple de Somalie avec la nation arabe dont il fait partie intégrante».

Ikusten denez, deskolonizazioek (laiko nahiz erlijiosoen) zaila izan dute hizkuntza erlijiosotik ihes egitea, arabiera klasikoaren kasuan aipatutako arra-

(10) Irakurtzekoa da, zinez, Mbarek Redjala-k 1970ean idatzitako lan hau: *Remarques sur les problèmes linguistiques en Algérie*. Paris: Paul Geurthner (aparteko inprimaldia). Oinarritzko informazioa du, azkeneko hogeitaz urteak hartzen ez dituen beste honek: GRANDGUILLAUME, G. (1983): *Arabisation et politique linguistique au Maghreb*. Paris: Maisonneuve & Larose.

(11) Egoeraren konplexutasuna ikusteko eta ikuspegi kritiko baterako: HALAOUI, N. (1997): «Langue dominante, langue rejetée: le Hassaniya en Mauritanie», in: *Diversité Langues*. I, 1997 (Laval Unibertsitateko web-gunetik jaso daiteke).

zoiengatik ez ezik eskola korandarretan herritarrek barneratu ohi dituzten kultur ohiturengatik eta tradiziozko gizarte-balioengatik ere (12).

Azkenean, badirudi kasu arabiar/musulman horiena baino samurragoa izan dela, oro har, Eliza eta herri kristauen historia, Mendebaldeko Estatu nazionalak lehenago indartu zirelako, modernitate kultural eta ideologikoak bere garaian bidea urratu zuelako eta Elizek berek ere hizkuntza eraberritze oso bat aitzina eraman dutelako, partez Erdi Arotik hasita eta bortitzago oraindik XVI. mendetik hona.

Euskararen eta euskaldungoaren kasua Mendebaldeko testuinguru kristau horretan jarri behar da, Protestantismo kalbindarraren ukitu batekin, baina ia osorik Eliza Katolikoaren lerro historiko nagusien barruan. Horregatik, Eliza honen barrunbe linguistikoari begiratu bat eman beharra daukagu, Elizaren eta elizetako hizkuntz eremuak zeintzuk izan ditugun jakiteko.

2. HIZKUNTZAREN ELIZAKO EREMU ETA BETEKIZUNAK

Eliza Katolikoaren hizkuntz historia bere osoan eta zuzen ulertzeko, beharrezkoa gertatzen zaigu, Eliza horren barnean hizkuntzaz baliatu diren eremu eta betekizun sozio-erlijiosoak zeintzuk (izan) diren begiratzea, funtsean horrek argituko baitu, azken buruan, hizkuntza bakoitzak bertan izan dituen presentzia, pisua, maiztasuna edo bazterketa (13).

Eremu eta betekizun horiek elkarrekin batera emateko ondoko laukia osatu dugu, irakurleari lagungarri gertatuko zaiolakoan:

(12) Ik. *Dictionnaire encyclopedique de l'Islam*. Paris: Bordas, s. v. «Coran, Psalmodie du» eta «Coranique, École». Gogora Erdi Aroko gure eskoletan Salmutegiak zuen lekua eta askoz georago ere, gure egunak arte kasik, testu erlijiosoak buruz ikasteak izan duen garrantzi pedagogiko-didaktikoa.

(13) Laukian ez ditut garatu Elkarte erlijioso berezietako hizkuntz egoera, jarrera eta joaerei dagozkienak, batez ere duten konplexutasun bereziagatik. Horretaz hasita daude azterlanak agertzen eta beraietara jo beharko du irakurleak: AGIRREBALTZATEGI, P. (1996): «Euskal Herria eta euskara: Kantabriako Frantziskotar Probintziaren erantzuna eta erantzukizuna», in: *Cantabria Franciscana*. 1996, L, 25-56. Eta ikertzaile berak: «Euskararen 'normalkuntza' Euskal Herriko Erlijioso-Institutuetan: Aldeko eta aurkako arrazoibideak. Frantziskotarren (ofm) adibidea», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (2004): *Euskal Herriko erlijiosoen historia. Familia eta Institutu Erlijiosoen Euskal Herriko Historiaren I. Kongresuko Aktak*. Arantzazu: efa. I, 534-552.

ELIZAKO HIZKUNTZAREN ERABILPEN-EREMUAK

1. HITZA ETA HITZAREN OSPAKUNTZA

Eremuak	Hedabideak	Tresnak
Liburu Sakratuak	Biblia	Jatorrizkoen edizioak Itzulpenak: ofizialak (Vulgata) eta libreak Atalkako argitalpenak Argitalpen osoak Argitalpen liturgikoak...
Liturgia	Meza Sakramentuak Orduen liturgia	Meza-liburu ofizialak Meza-liburu egokituak Meza-liburu itzuliak... Liburu ofizialak Liburu egokitu ez-ofizialak Liburu itzuliak (Praktika mintzatuak)
Paraliturgia	Bederatziurrenak... Ospakuntza gidatuak Guruzpidea Santuekiko jaiarak...	Argitalpen inprimatuak Ospakizun-gidoiak Irakurgai hautatuak Kantategiak...
Herri-erlijotasuna	Jaiarak (Santuak, Santutegiak) Herri-jaiak Erromesaldiak	Debozio-liburuak Erromes-liburuak Kantategiak Bideko-erritoak

2. HITZAREN APOSTOLUTZA (MISIOA)

Eremuak	Hedabideak	Tresnak
Magisteritza	Kontzilioetakoa Erromakoa Herrialdeetakoa Diozesietakoa Parrokietakoa Eliza eta santutegietakoak	Kazetaritza idatzia Irratiak Testu ofizialak Buletinak Parroki orriak Aldizkari bereziak...
Prediku arrunta	Iganderokoak Aro jakinetakoak Jaietakoak	Homiliak Garizumakoak... Panegirikoak
Prediku berezia	Herri-misioak Hirurrenak... Gogo-Jardunak	Sermoi-bildumak Liburuxkak Misio-lagungarriak
Kleroaren hezkuntza	Seminarioak Erlijosoen Ikastegiak	Testu-liburuak Eguneroko biziera
Katekesia	Haurren Katekesia Helduen Katekesia	Katiximak, Dotrinak Langai lagungarriak
Ereduen literatura	Historia sakratua Santuen hagiografia Autobiografiak	Bibliari iruzkinak Errezo-irakurgaiak Santuen bizitzak...
Idazlan teologikoak	Dogma Morala Izpiritualitatea Aszetika Mistika	Teologiako eskuliburuak Ikerlanak Itzulpenak Aldizkari bereziak Goi-dibulgaziokoak

3. TOKIKO ELIZ ERAKUNDEAN, GIZARTEAN, ETA MISIOETAN

Jarduerak	Eremu-guneak	Tresnak
Elizako kudeaketa	Gobernua Administrazioa Barne-harremanak: Eguneroko harremanak Unean uneko harremanak	Eliz Kodea Arautegiak Buletinak Txosten ofizialak Bulego-langai idatziak...
Eliz taldeen gidaritza	Institutu Erlijiosoak Institutu Sekularrak Hirugarren Ordenak Kofradiak Elkarteak Lagunarteak	Erregelak Konstituzioak Ordenako Liturgia Erakundeko literatura Taldekoko historia Taldekoko heziketa...
Gizarterako zerbitzueta	Ikastetxeak, herritarrentzako Erietxeak Zerbitzu sozialak Hedabide sozialak Kultura orokorreko partaidetza	Hizkuntz Irakaskuntza Hizkuntz hobespenak Bezeroekiko hizkuntza Euskarazko kazetaritza Kulturgintzako partaidetza linguistikoa
Misioetan	Misionologia Ikerlan bereziak Propaganda	Misioetarako ekimenak Erakusketak Orri eta liburuxkak

Laukiari bere iruzkina emanez, hasteko esan dezagun Kristautasuna «Liburuaren» erlijioetako bat dela (14), aipatu ditugun zenbaiten antzera: Goi-Agerkunde baten ondorio bezala ulertzen duela bere burua Elizak, errebelazio baten emaitza dela, alegia; Goi-Agerkundera hitzez emana izan zitzaioala, mintzatua eta idatzia batez ere. Horren fruitu da Biblia, kristau-herriari Jainkoa-

(14) Erlijio horiek beren Liburu Sakratuen kanona eratu izan dute, tradizioaren eta Kontzilioen bidez; ondorioz, liburu-bilduma ofizial horren erabilera eta itzulpenak garrantzirik behinena izaten dute, erlijio-hizkuntzen historian. Ik. TREBOLLE BARRERA, J. (1993): «Colecciones de libros bíblicos. Libros canónicos y no canónicos», eta «Historia del texto y de las versiones del Antiguo y del Nuevo Testamento», in: Treballe 1993: 157-270, 271-385. WIDENGREN, G. (1976): «La formación del canon», in: ID. (1976): *Fenomenología de la religión*. Madrid: Cristiandad. 527-544.

ren Hitza ematen dion liburua: hor daude sinestekoak, balioak, bizitzeko arauak. Azkenean, sinestunen Elkarteari (*Eliza* deituko da hori, adierarik zabalenean) Bibliak ematen dio zer pentsa eta zer maita.

Sinbolo, zeinu, keinu eta erritoen balioa ukatu gabe (izan ere Sakramentuak edo «portaera kristaua», adibidez, hor daude), Kristautasuna Hitzez goi-agertua da batik bat (hau da, hizkuntza mintzatuz), eta hitzeko mezu horren argitan eraikitako elkartasuna. Horrela ulertzen du Elizak bere burua. «Mezua» ulertu, bizi eta zabaldu hitzaren bidez egiten da batik bat Kristautasunean.

Oinarrizko datu horren gain laukiak sei maila ezberdinetan banatzen du Erakundearen barruko hizkuntzaren edo hizkuntzen presentzia:

1. Hitzaren liburua: Biblia.
2. Hitzaren ospakuntza: ohiko Liturgian eta Paraliturgian, eliz elkarte, bilera eta jaietan.
3. Hitzaren apostolutza: Magisteritza, predikua, katekesia, eliz hezkuntza, kazetaritza eta literatura, pentsamendua eta teologia.
4. Hitzaren kanpoko hedakuntza: Misioak, proselitismoa.
5. Erakundeko hizkuntza, barneko bizitzan.
6. Zerbitzuetako hizkuntza (zerbitzu sozialak).

Sei puntuetako lehenengo laurak Jainko-Hitzaren mezua jaso eta emateko dira, hau da, fededunen elkartasunari Hitza eman, berori elkarrekin bizi eta inguruari ere eskaintzeko.

Azken bi puntuak, ostera, «Eliza» deitua Erakunde erlijioso bihurtzen denean, berorren barruko elkartasunak eskatzen duen komunikabide-tresnari dagozkio: Erakunde barruko nahiz kanporako harremanek hizkuntzaren bat eskatzen dute, eta lehentxeago edo geroxeago hizkuntza ofizial edo para-ofizialak sortzen dira: agian Liburu Sakratukoa bera izan daiteke (hebraiera, grekoa, latina...), eta bera bakarrik, edota berorrekin batera besterik ere bai: alfabetoa asmatu berri zaien gotiko (IV. mend.) edo armeniera (V. mend.) beharbada, edo erromantze jaio berriren bat Erdi Aroan (XI-XIII. etan), hizkuntza nazional idatzi berriren bat XVI.ean, etab.

Maila-modu anitzetan txandaturaz, ordezkaturaz, trukaturaz lekutu izan dira Elizan herrien hizkuntzak, mailarik apalenetik goreneraino, egunerokotasunetik jai handietaraino, herriko seme apaizarekin etxeoaz baliaturaz edo urruneko Gotzainarekin hizkuntza arrotza erabiliz (edo isilduz) (15), teologia han-

(15) Ez dut sekula ahantziko Foru euskaldunean (Bizkaia) Bilboko Morcillo Gotzainak –segur aski horretarakoxe hautatutako– nexka-mutikoei jendaurrean gaztelania hutsez egin zien katixima-azterketa (1951-1954.etako data batean izan zen, eta beste askoren artean neu lekuko. Ikustekoa eta entzutekoa!).

dietan latinez jardunez eta herri xumeari sermoietan bere erromantzean mintzatuz (16).

Hizkuntza jakin baten eliz normalizazioa laukian ageri diren betekizunei, hau da, herritarren eliz premia guztiei eta eliz Erakundearen beraren bizitzari hautatutako hizkuntza horren bidez osorik erantzutean lortuko litzateke. Eta, mendeak zehar, nola bete den jakin beharko genuke, ez une mugatu batean, Elizbarruti jakin batean, baizik eta Euskal Herri osoan, berau kristautu zenetik hona.

3. ELIZA ETA EUSKARA ERDI AROAN

Erdi Aroak lekuko idatzi asko utzi du gure monasterio, eliza, herriko etxe eta enparauetan; baina hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren arteko eremu-banaketa eta elkarrekiko urruntasuna nabaria izan da gizartean eta Elizan. Herritar hizkuntzan bizi zen jendeari, bizitzako albistek modu formalagoan idatzita ematean, latinez idazten zizkioten elizgizonek eta eskribauek, adibidez. Horrela, gizarte guztiz elebakarreko artxibo-albistek beste hizkuntza bateko elebarkartasun «ofizialarekin» erantzuten zion paperetan. Bi errealitate linguistiko parekide eta elkar ezin ukituak balira bezala. Erdi Aroko azken mendean erret erromantzeen eta euskararen arteko joko bera izan zen hura.

Hizkuntza ugariren historian ezaguna den egoera da hori, eta lege zurruren eta malgutasun praktikoen artean ezaugarri propioak izango ditu horrek Elizaren bizitzan. Adibidez, badakigu Santo Tomas Akinokoak edo San Bonaventurak inoiz edo beste sermoiak herri hizkuntzaz egin zituztela, baina ez zuten idatzi sekula horrela: herrian sarritan herritarrez egin gero idaztean eskolako latinez eman ohi zen XIII. mendean. Mendeak pasatu ahala, geldiro-geldiro aldatuz joango den ohitura da hori guztia, baina, orduan ere, gehienbat erret hizkuntzei leku emateko, eta ez Estaturik gabeko mintzairaren mesedetan.

3.1. Latinak bahituriko eliz bizitza?

Hastapenez, Eliza ofizial Erromatarrarentzat latinak zernahitarako balio zuen, Sakramentuak emateko bezala predikurako. Latina galdu eta Goi-Esko-

(16) Bilakaera mendetako aldaera batean zetorrenez, zaila da une historiko bakoitzean (gehi leku jakin batean eta eliz eremu ezberdinetan) egoera zehazki nolakoa zen jakitea. Hizkuntza erromanikoen garapenak gero eta gehiago urruntzen zuen herritar arrunta latinetik, eskolatuen artean latina biziberritu ere egin zen bitartean (Ernazimendu karolingiarra); horregatik, unean uneko hizkuntzen mapak eta aurpegi soziolinguistikoak agintzen zuen praktikan, baina hizkuntz egoeretara moldatzen predikarien berezko gaitasunak, hizkuntz prestakuntza eta abildadeek edo trakeskeriak eta dorpeziak lagun ala oztopa zezaketen. Dena den, predikari handiak nazioarteko bilakatu izan ziren Erdi Aroan (Giovanni Capistrano-koa, Vicens Ferrer valentziarra, e. b.).

letara bildu zenean ere, Elizak oro har bereari eutsi zion: latina zen hizkuntza ofiziala, eta setati, ofizialtasun horretan bahituta gorde zituen Biblia, Liturgia, Zuzenbide Kanonikoa, etab. Historialariak oso kritiko ageri dira gaur egun Eli-za latinoaren jokaera horrekin.

Erroman ez zen zalantzarik izan, eta Gregorio Handiak (590-604), Aita Santu izan aurretik bost urte Konstantinoplan egin arren, ez omen zuen grekotik tutik ikasi. Hala baina, praktikan zalantza aukerarik ere egon zen mende haietako Europan (herri zelta, germaniar, eslaviar eta baltikoen Misioetan, adibidez: Irlanda, Alemania, Moravia, Danimarka, Eskandinavia).

Erreforma Gregoriotarrarekin hasita joan ziren zurrunduz gauzak (1050-1230), Zuzenbide erromatarraren funtsezko joerak indarberritzean (XII-XIII.etan), botereaz teoria politiko berriak lantzean (1179ko Lateran III.etik Bonifazio VIII.aren 1303ko *Unam sanctam* buldaraino, adibidez), eta erromantze gazte eta beste hizkuntza ez-latinoetara ireki partez, guztiei latina are bortitzago ezartzean, besteak beste Liturgian erromatartasuna berrindartuz ere.

Ondorioak nabariak izan ziren Iserloh-k deskribatu digunez, nabariak eta iraupen mugiezina izan zutenak, mendez mendez (17):

Desde el siglo XIII [...] la liturgia no fue ya sentida como servicio o culto de toda la Iglesia [...]. El pueblo quedó excluido hasta de las lecciones. No se hizo ningún ensayo de traducirlas y muchas veces quedaban recubiertas por el toque del órgano. La misa no era ya predicación de la palabra. La lengua ininteligible cerraba al pueblo todo acceso al sentido.

Hamarkadatan laudorioz aipatu izan den Erreforma Gregoriotarraren historia Gregorio VII.aren (1073-1085) aurretik eta ondoren burutu zena, orain kritika serioak jasotzen hari da historialarien aldetik, horretan eta bestetan.

Gomuta dezagun iganderoko Mezaren betebeharra legez 1215ean ezarri ziola Lateran IV.ak kristau herriari, eta asteroko aldizkakotasun finko hori ezartzen zen aldi bertsuan aipatutako testuak dioena ari zela gertatzen. Garaiko hamarkada batzuk (1184-1240) susmoz eta beldurrez betetakoak izan ziren, hasierako libertatea (laikoen predikua, adibidez) pausoz pauso lotu zutenak.

3.2. Euskal Herriko Elizan

Erdi Aroko ordu haietarako bataiatuta zegoen euskal herria, baina zinezko bere kristautze-bidean (beste Europako herri anitzetan bezala) Hitzaren eta prediku jatorraren beharretan, artean. Zer dakigu, bada, honetaz?

(17) ISERLOH, E.(1973): «La vida interna de la Iglesia [en la Baja Edad Media]», in: JEDIN, H. (1973): *Historia de la Iglesia*. Barcelona: Herder. IV, 866.

Euskal testu zaharretara goazela, hemen interesatzen zaigun eremuan uzta eskasa dugu zinez. Egia da, esan bezala, Erdi Aroko mundu idatzia lekuko eskasa, pobre eta engainagarria dela, jendeak idatzitik kanpo eta idatzi gabe bizi zuen errealtatea ispilatzeko, hau da, paperetan «ofizialki» latinez (eta onenean erromantzez) ematen zenak gaizki ispilatzen du garaiko hizkuntzen soziografia, eta euskara eta euskarazko gizartea ez da *entzuten* paperetan (18).

Horrela, irakurtzeko gaude oraindik Erdi Aroko Bibliaren atal itzulirik, edo sermoirik. Eliz paperen gain hainbat Historia «egin» da, eta agiri horiek izan dira historialariarentzat albiste-iturri preziatuak; baina euskararen lurraldeko Monasterioetako kontuak izan arren, ez dituzte ondasunak «euskaraz administratu», idatziz behintzat. Horra gure hutsune tradizional bat.

Katiximarik ere ez zaigu iritsi Erdi Arotik. Eta ez dezagun pentsa, badaezpada, Getariako Martinek (†1449), Parisen ikasitako Maisu eta Nafarroako Erret Kontseilari getariarrak, euskaraz kristau herriarentzat dotrinarik idatzi zizun, eta ez da iritsi guganaino haren *clara sonoraque vox* hura inongo euskarazko sermoi-liburutan, nahiz eta Basileako Kontzilioak miretsi ahal izan zuen haren ahots ozen eta garbia. Aitzitik, Martin-ena ez da juxtu Ubillos-en kasua (1707-1789): *Philosophia naturalis* bat hiru liburukitan kaleratu ondoren (1755, 1758, 1762), Teologia Irakasle honek *Christau dotriñ berri-ecarlea* zeritzan kristau-bide xume bat behintzat eman zigun euskaraz (1785), Getariakoaren garaietatik hiru mende eta laurden iragan ondoren.

Jakina da Historian iturrien isiltasunak ezer gutxi frogatzen duela, eta, norok daki, egunen batean ez ote dugun altxor ezezagunen bat aurkituko; baina froga hori ez dugun bitartean nahitaez uste beharko da Euskal Herriko Erdi Aro kristauan bostehun edo zortziehun urteko euskarazko hutsunea dugula, eliz kultura idatzian. Azpilkueta «Doktore Nafarra» horren lekuko, 1586an zera idatzi zuenean:

...un cántabro piadoso y docto que, hace más de unos 35 años, [...] tradujo al vascuence y enseñó esas cuatro cosas [=oraciones], junto con lo más importante de la doctrina cristiana, lo cual ojalá se hubiera hecho mil quinientos años antes [Azpimar. nirea].

Iturri idatzi eskolatuen falta horretan, adierazgarri gertatzen da ezagutzen dugun euskarazko otoitz-testu bakarra, latinezko *Breviarium* batean emana (c. 1425), baina herri-erlijiotasunaren adierazpena baizik ez dena («padre nuestro chiquito» bezala aipatu dena). Gu gabiltzan honetarako ezer gutxi, noski: nahi

(18) Euskararen lekuko filologiko anitz bada, noski, Erdi Aroko agirietan, eta hor dute beren harrobia «euskara zaharari» buruzko ikerlanek, Monasterioetako kartularioetatik hasi eta hirietako Gutunetara jauzi eginez, e. b. Ez naiz horretaz ari, gizartean bezala Elizan hiztunek ziztuzten euskararen erabilpen, ohitura eta hizkuntza(ar)ekiko jarreari buruz baizik. Azken buruan, Erdi Aroko biziera soziolinguistikoaz dihardut hemen.

bada, Katedralerako erreforma liturgiko erromatarra bai (19), baina herriaren-tzako euskarazko kultura idatzirik ez (20).

Hala ere, egon zen zerbait hobe eta berria egiteko paradarik: Arnalt Barbazan-ek bildutako Sinodoan (1354) urrunago joan gabe. Begira zer dioen horretaz Goñi Gaztambide historialariak (21):

Pero la importancia de este Sínodo está en que don Arnalt de Barbazán publicó en él un compendio de teología en lengua vulgar para uso de los rectores, vicarios y capellanes imperitos en la lengua latina. La obra presenta un carácter elemental y contiene una exposición sumaria de la doctrina cristiana. [...] Completada en algunos puntos en 1500, continuó siendo la base de la formación de un gran sector del clero aún en el siglo XVI.

Ohar eta argibide historiko hauek iruzkin gustagarrikerik mereziko lukete, baina bego informazioa bere horretan, besterik gabe.

Monasterioetako euskal lekuko apurrek eta Sinodoetako Arauek erakusten digutenez, euskara ez da agiri eliz zerbitzuetarako espresuki aintzakotzat hartuta. Lehenengo haiek mundu ekonomikoaz dihardute, beste ezer baino gehiago (zergak, dohaintzak, lurra, langileak, etab.); bigarrenek, berriz, eliz gobernurako ez dute aipatzen euskararik, gutxiago euskarazko idazlan pastoral edo teologikorik.

Hala ere, segurua da euskal gizarte elebakarrean nahitaezkoa zuela Elizak euskara ere erabiltzea, eta XVI. mendean agertuko dira berriaz horretaz diharduten arauak eta irizpideak. Joera horren lekukoa dugu –eta ez da seinale txarra– XVI.aren hasieran kristau Moja-Etxe bateko sarrera-zina, elkarren parean gaztelaniaz bezala euskaraz ere emana (Durango, c. 1520) (22).

Labur dezagun, oro har, egoera: Erdi Aroa amaitzean eliz euskararen burubide instituzional eta soziala oso gutxi normalizaturik dagoela esan behar

(19) GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979a): *Historia de los obispos de Pamplona*. I. Siglos IV-XIII. Pamplona: Gobierno de Navarra. 279-281.

(20) MICHELENA, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro. 57-59. Begira Barbazan Gotzainaren (1318-1355) erreforma liturgikoa: GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979b): *Historia de los Obispos de Pamplona. Siglos XIV-XV*. Pamplona: Ed. Univ. de Navarra/Insti. Príncipe de Viana. 168.

(21) Goñi Gaztambide 1979b: II, 152. Ez zen izan hura (1354) Barbazan-en garaiko Sinodo bakarra: gogora litezke 1325, 1330, 1346 eta 1349koak (Ib. 144-152). Ondoko Gotzainek ere izan zituzten Sinodo berriak, gobernu-arazo eta zeregin pastoralak zaintzeko: adibidez, 1357, 1360, 1373, 1388 (?), 1459, 1477 eta 1499 (Ib. 216-221, 255, 303-304, 538-541, 613-617, 662-665). Azpimarra ditzagun bi puntu: a) Lehendik ezarrita zegoen latinaren Iruñeko eliz Epaitegi-tako erabilera behartua mugatu egin zuen 1477ko Sinodoak; b) 1499ko Sinodo Konstituzioak bi hizkuntzatan eman ziren: bata latinez, aurreko Sinodoetako Arauekin batera emana izan zen, eta bestea gaztelaniaz (Azpeitian dago ale bakarra). Euskarazkorik ez da ageri.

(22) Historia honetan badu zeresanik, noski, Gotzainak ia beti arrotzak izateak (J. I. Tellechea-k et T. Azcona-k, bakoitzak bere aldetik azpimarratu dutena). Durangoko testua, ik: INTXAUSTI, J. (1985): *Euskal Herria*. Donostia: Jakin/Caja Laboral. I, 342.

da, idatzizko lekukorik ezak, frogatu ez bada, iradokitzen duenetik susma daitekeenez. Hona horren zenbait arrazoi argigarri:

1. Lehenik eta behin, Eliza Erromatarrean gaude: latinak hartuta du bere lekua (Liburu Sakratuan, Liturgiako ospakizunetan, Administrazio idatzian, Teologian, etab.).
2. Euskal Herriko Gotzainak arrotzak dira ia beti (Iruñean bezala, Kala-horra eta Baionan) (23).
3. Euskal Herria eta beroni dagozkion Diozesiak hainbat Eliz Probinzian banatuta daude, erdal lurraldeekin batera elkartuta.
4. Hemengo zerbaite berezia izan gabe, esan daiteke Klero diozesitarren heziketa urrun dagoela, artean, Trento ondoren berandu batean egingo diren ahaleginetatik (Sinodoen kezka eta deiak entzun besterik ez dago) (24).
5. Erlijiosoen «euskal ausentzia» kasik ulertezina da: Eskekoak hemen zeuden XIII. mendetik herriarekin harreman hertsian, hirietan bezala herrietan, baina, dakigunez, euskarazko mundu idatzian ez zuten deus eman (uste dugunez, besterik izango zen, noski, prediku-lan mintzaturan).
6. Eta datu larri bat: euskaraz ez du lortu euskal gizarte zibilean zegoen babes eta lekurik. Euskal Herriko Administrazio zibilak «ez daki» euskaraz, mintzatzan bai, idazten ez.
7. Laukian ageri diren eremu ezberdinetan gertatu zenaz apenas dakigun Erdi Aroko ezer, geroago ere gertatuko zaigunaren antzera (herrietako apaizen heziketa, katekesia, herri-erlijiotasuna, parrokiaren historia, etab.).
8. Mundu idatzi inprimatura gatozela, Brocar-ek 1490ean eman zuen argitara Euskal Herriko lehen liburua (*Manuale Pampilonense*, Iruñea), baina, ikusten denez, latinez.

Horrela iristen gara, bada, Aro Modernora, baina honi heldu aurretik, erlijio-hizkuntzen arteko harremanean zeresanik izan duten ezagun batzuk ekarri nahi ditut hona, gure nahi eta ezinen argigarri ere izan daitezkeelakoan, kontrastez.

(23) Ikus episkopologioak GOÑI GAZTAMBIDE-renean. Aipatutako Gotzainen historia (Iruñea), DIOCÈSE DE BAYONNE, LESCAR ET OLORON: *Annuaire 2002*, 43-47 (Baiona eta Oloroe), SÁINZ RIPA, E. (1994-1997): *Sedes episcopales de la Rioja*. Logroño: Diócesis de Calahorra y La Calzada-Logroño.

(24) MURO ABAD, J. R. (1994): «El clero diocesano vasco en los siglos XV y XVI: una imagen», in: GARCIA FERNANDEZ, E. (1994): *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*. Bilbao: upv/ehu. 53-82.

4. HETERODOXO, GUTXIENGO ETA AITZINDARIEN ARTEAN

Goiago Buddha aipatu dugu, eta haren jarrera pastoralara: Hinduismoaren sanskrito baina *prakrito* herritar bat nahiago izan zuela, alegia, paliera hobestean. Ez da izan hori budismoaren kontua bakarrik; aitzitik, erlijio-mugimendu edo erakunde berriren bat sortu denean eta beronek lehenengo batean hizkuntza erritual zahar batekin topo egin, mugimendu berriak hizkuntza herritarri heldu izan dio sarritan.

Kristautasunak ez zuen hobetsi, jaiotzean, Sinagogako hebraiera, eta arama (Palestina, Siria), grekoa (mundu helenistikoan) eta latina nahiago izan zituen (Mendebaldean); Armeniako Eliza nazionalak, eskueran zuen hastape-neko siriera utzi eta armeniera hobetsi zuen (IV-V. mendeak); era bertsuan, Protestantismoak latina utzi egin zuen fededun herritarrekiko harremanean (25), eta hizkuntza herritarrak hobetsi zituen.

4.1. Heterodoxiaren hizkuntzak (XII-XV. mendeak)

Erdi Aro Berantiarrek, XII-XV. mendeetan, mugimendu heterodoxo bizkorrek ezagutu zituen, eta neurri batean edo bestean guztiek ekarri zuten mahai gainera hizkuntzen erabileraren hau, mugimendu herri-herritarretan noski (valdestarrak, kataroak), baina baita lehen buruak teologoak izan zituztenetan ere (wycliffetarrak, hustarrak).

Lyon-dik zetozen valdestarrek, aurkezten zuten Bibliaren itzulpen herritarrak onartzeko eskatu zioten Lateran III.ari (1179), Walter Mapp ingelesak bere kronikan idatzi zuenez (26). Ez zen hori Lyon-go arazoa bakarrik.

Urte gutxi geroago, jada Inozentzio III.aren eskuetatik dakigu (1199) Metz-en bazela herritar laiko talde bat Bibliatik «Ebanjelioak, San Pauloren gutunak, Salmutegia, Job eta beste liburu asko Galiako hizkuntzara itzuli» eta «itzulpen horiek isilpeko bileretan erabiltzen zituena». Inozentziok ez zuen itzulpenen kontra deus esan, nahiz eta taldea eliz barnean birbideratu beharra

(25) Goi-Teologia egiteko, eta *Confessio* deituetarako ere, latina eurrez erabiliko da lehen belaunaldietan, ikusi besterik ez dago Luter, Melanchton, Zwingli, Kalbin eta hainbaten idazlan osoak, baina horrek berak ere denborarekin behera egingo du. Hautapen berria nondik zihuan ikusteko gogora Kalbin-en obra teologiko nagusiaren historia: *Institutio* deitua 1539an eman zen latinez, eta berehala frantsesera itzuli, 1541ean (gaztelaniaz Varela-k eman zuen, 1597an). Hortaz, Teologia bera ere (hizki larriz eman ohi den hori) herri hizkuntzan eman zitekeen, eta azken buruan halaxe emango zen.

(26) Valdestarren artean lehen egitekoetako bat izango da Bibliaren itzulpena eta berorren irakurketa pertsonala. Ik. AUDISIO, G. (1998²): *Les Vaudois. Histoire d'une dissidence (XIIe-XVIIe siècle)*. Paris: Fayard. 22. TOURN, G. (1991²): *Les Vaudois. L'étonnante aventure d'un peuple-église*. Torino: Claudiana. 14.

azpimarratu zuen. Garaiko ebanjelio-zaletasunaren arrastoan zetozen Bibliarekiko eske eta irrika haiek.

Kataroek ere bide berritzaile horretatik jo zuten, eta hain zuzen hizkuntzen erabilera berria izan zuten beren ezaugarrietako bat (27):

Un dernier détail explique également le succès du catharisme en Occitanie: les Parfaits parlaient et prêchaient dans la langue des peuples du Sud, c'est-à-dire en occitan, alors que le clercs de l'Église se flattaient de ne parler qu'en latin, langue que ne comprenaient ni le petit peuple ni même les petits féodaux.

Politika horrek katolikoak ere mugiarazi egin zituen, eta Sto. Domingoren Predikariek prestaturik egon behar zuten tokian tokiko herri-hizkuntzan jarduteko, predikuari zegozkionetan behintzat (28).

Erdi Aroko azken mendeetan, mugimendu heterodoxoen artean beste bi talde nabarmendu ziren, J. Wycliffe (1320-1384) eta J. Huss (1370-1415) Buru zituztela. Wycliffe ingelesak, hainbat lankiderekin batera, burutu ahal izan zuen Bibliaren lehen itzulpen ingelesa (1380-1381: gero *Bible of the Lollards* bezala ezagutua), XVI.ean etorriko zen Erreforma handiari eta beronen itzulpenei aurrea hartuz (29): W. Tyndale-renari (*New Testament* [Worms, 1526], Zaharrarekin osatuz joan zena) eta beronen gain egindako *King James Version* (1611) ofizial eta klasikoarenari (30).

Husstarren eta Eliza txekiarraren hizkuntz lana dago, jakina denez, Bohemiako nazioaren oinarrietan: Elizan ez ezik nazio haren beregaintasun-borrokari eliz hizkuntza trukatzeko gure egunak arteko ondorioak izan ditu (31). Kasu honetan, gainera, latinari eta alemanierari ere kendu nahiko zaizkio hartuta zituzten zenbait eremu eta zeregin.

Huss-ek bere *De Ecclesia* funtsezko obra teologikoa (1413) latinez eman zuen, baina horren ondoan txekieraren aldeko bere jarrera garbiki erakutsi ere bai, ideietan eta jardunean, ortografi erreforma ere sustatuz (*Orthographia Bohemica*, c. 1406) (32). Beronen ondoko mugimenduari zor zaio Biblia txekiarren berehalako loraldia.

Hizkuntzaren hau arduraren serioa zen husstarren artean, eta eztabaida-gai ere gertatu zen Eliza disidente hartan. Taboristek adibidez (husstarretako he-

(27) GARDÈRE, M. (1996): *Rituels cathares*. Paris: La Table Ronde. 35. Ik. BRENON, A. (1996): *Les cathares. Vie et mort d'une Église chrétienne*. Paris. Jacques Grancher. 99.

(28) LAMBERT, M. (2003): *La otra historia de los cátaros*. Madrid: Ediciones Martínez Roca. 191.

(29) STEINER, G. (2001): *Préface à la Bible hébraïque*. Paris: Albin Michel. 30.

(30) Steiner 2001: 51-52.

(31) MACEK, J.; MANDROU, R. (1984): *Histoire de la Bohême. Des origines à 1918*. Paris: Fayard. 119-121, 150-151. Mugimenduaren historia labur bat: HOLMES, G. (1984): *Europan: Jerarquía y revuelta, 1320-1450*. Madrid: Siglo XXI. 242-267.

(32) CHIZHEVSKI, D. (1983): *Historia comparada de las literaturas eslavas*. Madrid: Gredos. 106.

gal muturrekoenak), Meza osoa nahi zuten eman txekieraz, Pragako apaiz husstarrek partez bakarrik onartzen zuten bitartean (33). Honela, bada, hizkuntza ere arazo erlijioso bizia bilakatu zen hussismoaren baitan.

Hizkuntza herritarren eske hau ez zen heterodoxiaren monopolioa izan Erdi Aroko Elizan, eta, e. b., moldiztegia asmatu ondoren eta Erreforma Protestantearen aurretik Bibliaren itzulpen katolikoak ugari banatu ziren Europan; era berean, eremu bibliko horretan eta Elizako beste hainbat eremutan egon zen herritar kultura erlijioso idatzirako tokirik Erakunde erlijioso berean. Hau da gerora minorizazio nabaria nozitu duten zenbait herritako kasua. Gure geografia honetatik hurbil, kasuren bat edo beste aipa daiteke, Eliza Katolikoaren barneko ezinegon eta gogo haiek erakusten dituztenak.

4.2. Penintsulako hizkuntzak

Erdi Aroko Penintsula Iberiarra ez zen inondik ere elebakarra izan, nahiz eta ordurako erromatarraurreko hizkuntzak (euskara salbu) galdua zituen. Haiek ordezkaturiko zituzten hizkuntza berriak kanpotik etorrita edo bertan latinen ondorengo bezala jaiota agertu ziren: Bizantziarren grekoa, bisigotuen gotikoa, konkistatzaile musulmanen arabiera eta berberera, juduen hebraiera erlijiosoa, eta guztion ondoan eta ondoren mintzaira erromantzeak, mozarabieratik hasi eta gainerako guztietaraino.

Eleaniztasun neolatinoa XIII. mendean nabariki ageri da, finkatuta, bere nortasun kulturala ere bilatuz, baita mundu idatzian ere.

4.2.1. *Katalunia*

Hizkuntza erromantzeen artean, eliz prosa –prosa aberatsa, gainera– goizik sortu zuenetakoa izan zen katalana, Europako hizkuntza «handi» askori aurrea hartuz.

Izenak beren datekin ematea nahikoa izango da zertaz ari garen jakiteko: Ramon Llull eta bere produkzio erraldoia (c. 1232-p. 1315), Arnau de Vilanova (c. 1238-1311), F. Eiximenis (c. 1327-1409), A. Canals (1352-1419), V. Ferrer (1350-1419: sermoiak); M. Comalada, agian berea duen *Spill* (sic) *de la vida religiosa* hainbat bider itzulitakoarekin (1515; 11 hizkuntzatan 50 argitaraldi izatera iritsi zen XVIII.a arte) (34), etab.

(33) Macek/Mandrou 1984: 105-106, 119-120.

(34) MOLAS, J.; MUNTANER, J. (1979): *Diccionari de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions 62. (s. v. «Espill de la vida religiosa». Era berean, ik. «Literatura llatina feta als Països Catalans»).

Eliz letretako ondare erdiarotarra erreferentzi gunetzat geratu zen Kataluniako elizgizonen oroimenean, eta hori gure egunak arte. Adibideren bat nahi balitz, Josep Comerma (35) apaizaren *Història de la literatura catalana* (1923) begira liteke (36). XIII-XV. mendeak «osotasun» garaia bezala aurkezten ditu (*plenitud*), eta orduko produkzio entziklopedikoaren barruan ematen Lull eta Eiximenis (kapitulu oso bana), aszetika eta moraleko lanak, aldi berean eleberriaren ere «novel-la religiosa» deritzana jasoz; horri guztiari itzulpenen mundua gehitu behar zaio, batez ere Bibliarena eta gainerako eliz idazlanena. Hots, Comerma-k bezala, Renaiença-ko elizgizonek ere literaturaren urrezko aroa Erdi Aro hartan ikusi zuten, eta, azken buruan, orduko balio handietako bat bezala ulertu zuten garaiko eliz literatura (37).

Erdi Arotik honantzago, Aro Modernoko beheraldian ere (XVI-XVIII.etan) produkzio erlijiosoan erlatiboki bereari eutsi zion katalanak (38), nahiz eta ikusiko ditugun hizkuntzarekiko planteamalde kastilanozaleak jada XVII.eko krisi orokorrean agertuak ziren.

Modernotasun baten bezperan, Renaiença-n (1832...), literatura erlijiosoak ez zuen atzera egin, eta luma ezagunak eman zituen, gaien aldetik bezala idazleentik: Torras i Bages, Morgades, Ll. Carreras, C. Cardó, etab. Hamarkada haietan, Montserrateko Monasterioa edo «Foment de Pietat Catalana» bezalakoek eraman zuten mugimenduaren gidaritzza (39).

Badirudi Herrialde Katalanetan hizkuntzari bere betekizun sozialak –jendaurrekoak eta eliz eta herri-erakundeetakoak– betidanik ofizialtasun osoz eman zitzaizkionez, samurra izan zela halako eliz literatura izatea; haatik, Herri Katalanetan ere krisi politiko-instituzionalek izan zuten eliz hizkuntzarenean oihartzunik, katalanaren ohizko *status*-a mugiarazi nahiez.

Horren isla dira Kataluniako Sinodoak ere, beren gisara nagusituz zihon politika zentrala ispiilatzen baitute. Koiuntura bikoitz baten barnean

(35) Mossèn Josep Comerma (1887-1936) gironarra zen, apaiza (1910) eta Tarragonan Teologian graduatua, latina, erretorika eta literaturako irakaslea izan zen Gironan (1911-1927), Canet de Mar-eko Erretore egin zuten arte (1927-1936). Elizbarrutiko eta diozesiarteko Kateketika eta Pedagogiako Batzordeetan parte hartu zuen. Antzerti lanetan jardun zuen, eta eleberri argitaragaberaren bat ere badu. Ik. Molas/Muntaner 1979: s. v. «Comerma, Josep».

(36) COMERMA VILANOVA, J. (1923): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Editorial Políglota. (Begira XIII-XV. mendei eskaintzen dizkien orrialdeak).

(37) Comerma 1923: 79-139, 143-145, 187-199. *Kempis*-a, e. b., 1482an itzuli zuen Miquel Péres-ek katalanera.

(38) Gurearekin bere begira-moldean duen kidesasunagatik, biziki hurbila gertatzen zaigu XVIII. mendeaz ari den A. Comas-en ondoko kapitulu hau: «La literatura religiosa», in: RIQUER, M. DE; COMAS, A. (1964): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions Ariel. IV, 352-498. Hizkuntza eta pastoralak, sermoiak eta sermoi-bildumak, misioetako kantategia, katiximak, errituak eta sakramentu-bizitza, lagunarte eta kofradietako liburuak, santuen bizitza, bederatziurrun eta jaierazko liburuak, izpiritualitate-liburuak eta abar aurkezten ditu.

(39) MASSOT I MUNTANER, J. (1979): «Literatura religiosa» (s. v.), in: Molas/Muntaner 1979: 381-383.

suertatu zen hori: alde batetik, Trento-ondoko Erreformaren mareagorekin batera zetorrelako, eta, bestetik, Olivares-ekin Koroaren erdirakoitasunaren indarrez sustatuta.

Tarraconense Probintziako Sinodoetan (1429, 1591, 1636, 1637) eta Tarragona eta Urgell-eko diozesietakoetan (1566, 1578, 1635) agertu zen hizkuntzaren arazoa, eta ez bakarrik emandako arauetan, baita berorien aurreko eta inguruko eztabaidetan ere (1636-1646).

Xehetasunetan sartu gabe, esan dezagun artean betidanik onartutako katalana berezko hizkuntza dela Printzerrian, baina hamarkada horietan batzuek hizkuntza bakartzat daukaten bitartean, zenbait elizgizon hasirik dela gaztelaniari atak irekitzen, Herrialdeko hizkuntza katalanari derrigortasuna samurtu edo kentzeko gogoz.

Deigarria da 1591ko testu onartua, argitaratzean, belaxkatua agertu zela (1593), eta 1636koan eztabaida bortitza sortu, Kontzilioan bertan eta ondoren. Gutxi batzuek Arauak gaztelaniaren alde eraman nahi zituzten, hau da, Konde-Dukearen erret politika orokorrera moldatuagoa nahi zen Kataluniako Elizaren hizkuntz politika, Kataluniako Hierarkiaren osaketan bertan nabarmenduz zihoan norabide bereko joera, alegia. Izan ere, 1637ko Kontzilioa ospatzean, eliz Probintzia Tarragonatarrean Gotzain bat bakarra zen sortzez katalana (40).

Gaztelaniaren aldeko ideiak eta zenbait ahalegin beren bidea urratzen hasita zeuden, Elizak pastoraletan mendetako tradizio elebakarra hauts zezan. Artean, XVIII. mendeko haize borbondar zakarrak heldu gabe zeuden, baina jada atxeko atarian.

4.2.2. *Galizia*

Gure inguruetan ez da Katalunia bakarrik izan hizkuntzen arteko eliz haultapen orokor edo puntualak egin behar izan dituen periferia. 1975ean, Arauxo Gotzainak gogorarazi zuenez, «a situación orixinal» baten ondoren «o proceso da colonización cultural» bat jasan zuen Galiziak ere (41):

Andando o tempo, a vinculación política de Galicia a Castela trocouse en presión uniformadora, tendente a afogar a personalidade propia de Galicia. O

(40) Ondoko liburuxtan daude bilduta Kataluniako albisteok: PRATS, M. (ed.) (1995): *Política lingüística de l'Esglesia catalana. Segles XVI-XVII*. Girona: Eumo (Univ. de Girona). Gotzainen datua: 148.

(41) ARAUXO, M.-A. (1975): *A fe cristiá ante a cuestión da lingua galega*. Santiago: sept. 13. Galiziako kolonizazio linguistikoz Alonso Monterok eskaini zigan gogoeta historiko bat: ALONSO MONTERO, X. (1973): *Informe –dramático– sobre la lengua gallega*. Madrid: Akal. 127-151.

proceso iniciouse cos chamados Reis Católicos de Castela e Aragón, non sin encontrar fonda resistencia por parte dun pobo que se vía privado de algo que, moitas veces inconscientemente, consideraba sustantivo. Pro a forza do máis forte impúxose.

Gotzainak prozesu horren aurrean Elizaren jarrera zein izan zen galdezten du ondoren, zer egin zuen eliz Erakundeak alegia (42):

...si quixésemos resumir en poucas palabras o comportamento histórico da Igrexa galega, teríamos que recoñecer que, en definitiva, contribuíu a intensificar o proceso da alienación cultural. – Ao noso pobo transmitíase a fê cristiá xeralmente non na súa lingua cotidiá, senón na lingua castelá; e ensinabábase a rezar, ou mesmo a confesarse, en castelán e non en galego. Igualmente, na súa vida administrativa a Igrexa prescindíu do galego e valeuse do castelán.

Ondoren egoera eta jokabide horren arrazoiak ematen ditu: kanpotik ezarritako politika, Hierarkia arrotza, Eliz Probintziako lurralde-antolaera. Azken arrazoi honen garrantzia azpimarratzen du, gure historiarako ere are argigarriago gerta dakigukeen testu honetan (43):

Baixo a metrópoli compostelá incluíanse tamén dioceses non galegas, por exemplo Oviedo. Este factor determinou, en certo grado, toda a pastoral, e concretamente o emprego da lingua, sobre todo en certos casos, como nos Concilios provinciais.

Estatu- eta eliz politika horren aurrean, hizkuntzaren arriskuaz kontzientzia garbia zuten elizgizonak gogoratu bukatzen du Arauxo-k bere ohar historiko labur hau: Saco Arce, Sarmiento, López Ferreiro, Lago González (44).

Hizkuntza mugatuago hauek (katalana edo galegoa ditugu hemen adibide) izan dituzten eragozpen eta arrakastak gogoratzean, komeni da gutxiengo historiararen ez mugatzea, zeren eta, bestalde, Elizaren politika latintzaleak gutzientzat balio baitzuen eta latintzaletasun hori eliz garapen kulturean, herriri zegozkionetan, atzerakarga baitzen nonahi ere. Gaztela eta gaztelania dira horietako kasu bat.

4.2.3. *Gaztela*

XIII.ean iritsi zen gaztelania hitz-lauzko literatura sortzera, Zuzenbidea, Zientzia, Historia eta Jokuak emateko behar zuten prosa asmatuz batez ere (Alfontso X.a Jakituna; Errege: 1254-1284).

Eta eliz literatura? Egia esan, Eliza ez zebilen erromantzearen letra ederetatik erabat urrundurik, *Mester de Clerecía*-ren olerkigintzak (XIII.eko le-

(42) Arauxo 1975: 14-15.

(43) Arauxo 1975: 15.

(44) Alonso Montero 1973: 157-159. Sarmientoren zenbait testu.

hen partean) poliki asmatu zuen koblakari herritarrengandik (*Mester de Juglaría* deitu zenetik) eta garaiko eliz literatura latinotik dastatuz erromantzea lantzen: honetan maisua Gontzal Berceo-koa izan zen (†c. 1250).

Monjea zen Berceo, eta Errioxako Donemiliaga Monasterioan bizi izan zen; olerkia utzi zigun, eta harritzekoa da izenez ezagutzen den lehenengo olerkari gaztelau honek landu zuen obra eskerga: garai haietan hain maitea zen latinezko hagiografiatik «mirariak» eta biltzen saiatu zen, berak bere aldetik erromantze berrian eta bertsoz fededunei haien berri emateko: Andre Maria-ren Mirariak eta Santuen bizitzak (45). Berceo hau «bertsolari eskolatu» bat izan zela esan daiteke, fededunentzat «bertso-paper» luzeak landu zituen behintzat (46).

Errioxarra zen olerkaria, eta harentzat ez ziren arrotzak euskal mintzatzailleak eta euskara bera, hainbat jende euskaldun baitzuen auzoko (47), eta idazkietan euskararen aztarnarik ere utzi du (48); Menéndez Pidal-ek elebidun bezala aipatzen du Berceo (49). Dena den, baldintza eta inguru hori gorabehera, olerkaria ez zen euskarazko koblakari bilakatu, eta, latina utzita, *roman paladino* eskolatu bati heldu zion.

Egia esan, pentsa daiteke Nafarroan genituen monje-etxeetan euskarak aukera hoberik izan zezakeela *scriptorium*-en batean izkribatua izateko (Iranztzuko Monasterioa, adibidez, 1174koa dugu), baina ez zen horrelakorik gertatu, dakigunez. Eta Eskeko Fraideek (esan dugu) eta gure Diozesi ugarietako Gotzain eta apaizek ez zuten aurkitu modurik Erdi Aroan pauso hori emateko (50).

(45) BERCEO, G. DE (1992): *Obras completas*. Madrid: Espasa-Calpe. (Isabel Uria eta beste hainbatek paratutako edizioa). Berceo-ren eliz inguru kulturala ezagutzeko lagungarri ona izango da: SAUGNIEUX, J. (1982): *Berceo y las culturas del siglo XIII*. Logroño: Diputación Provincial. Hemen ukitu ditugunak: 103-119. Berceo-reekiko ikuspegi sozial kritikoa: RODRÍGUEZ PUERTOLAS, J. (coord.) (1981): *Historia social de la literatura española*. Madrid: Editorial Castalia. I, 74-81, 93-94: «Mester de clerecía e intereses creados. Gonzalo de Berceo»; Berceo-ren alde politikoa eta interes sozio-ekonomikoak ere gogorazten ditu kritikariak (94).

(46) Euskal Herriko bertsolari zaharrenak hain urrun suertatu ote ziren, gero, *Mester de Juglaría* hartatik? Ik. J. Azurmendi-ren gogoeta (pre)historikoa: AZURMENDI, J. (1980): «Bertsolaritzaren estudiorako», in: Jakin. 1980, 14/15. zenb., 139-164.

(47) MERINO URRUTIA, J. B. (19783): *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*. Logroño: Diputación Provincial. Ohartzekoa da Merinoarekiko «fazayna» XIII.eko dela (c. 1239), eta Errioxako pertsona-izen erdiarotarrak, beren datekin emanak, berezikiago erreparatzeak dira (18-19 eta 77-85. or.). Ikus, gainera: ORPUSTAN, J.-B. (1999): «L'espèce bascophone ancien», in: ID. (1999): *La langue basque au Moyen Âge (IXe-XVe siècles)*. Baigorri: Éditions Izpegi. 17-39.

(48) Michelena 1964: 56-57.

(49) MENENDEZ PIDAL, R. (1926): *Orígenes del español*. Madrid. 466.

(50) Diozesien berri jakiteko begira beza irakurleak zerau: GOÑI GALARRAGA, J. (2004): «Panorama histórico-geográfico de las Diócesis de Euskal Herria», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (2004): *Euskal Herriko erlijioaren historia*. Oñati: Arantzazu. I, 45-128. Bereziki baliagarria I. liburukiko 111. orrialdeko laukia.

Olerkigintzaren hastapen aberats horren ondoren, prosa erlijioso gaztelauak, ordea, ez zuen ezagutu Erdi Aroan katalanaren pareko loraldirik, ezta urrutitik ere (51), nahiz eta Berceo beraren belaunaldiko *Disputa del cristiano y del judío* aipatu behar den, hasteko; baina M. Pérez-en *Libro de las confesiones* bezalakorik ezingo da ahantzi (1316).

XVI. mendea iristean ere, garaiko teologo handiak Salamanka eta Alkalan latinez ari dira ia denak eta ia beti: eliz zientzia (eta besteak ere) artean latinez. Aldakuntza ez zen teologoen Eskolatik (Eskolastikatik) etorri, elizgizon ongi eskolatu eta batzuetan izatez teologo ere baziren baina kristau herri jantziari edo ez hain eskolatuari heziketa hobea eskaini nahi zietenengandik baizik.

Lantegi horretarako prest agertu zirenak ez ziren gutxi izan, eta bai kalitate onekoak. Jada 1500-1530.etan eliz liburu herritarren produkzioan abiada bizkorragoa sumatzen da (52), eta Urrezko Mendea bere indar betean loratuz doalarik, izen sonatuak agertuko dira: F. Osuna-koa (†1542), B. Laredo-koa (†1540), A. Guevara-koa (†1545), Pedro Alkantara-koa, (†1562), Diego Lizarrako-koa (†1578), bostak frantziskotarrak; Luis León-koa (†1591) eta P. Malón Etxaide-koa (53) (Kaskante, c.1530-Barcelona, 1589), biak agustindarrak; Juan Avila-koa apaiz diozesitarra (†1569); Ignazio Loiolakoa (†1556) eta geroago A. Rodríguez (†1616), josulagunak; Santa Teresa Avila-koa (†1582) eta Donibane Gurutzekoa (†1591), karmeldarrak; Luis Granadakoa (1504-1588) domingotarra, etab. (54).

Eskoletako Teologia egin gabe, eliz goi-literatura eskaini nahi izan zuten idazleok, Ikasketa Biblikoetatik, Eliz Gurasoengandik, Teologiatik kristautentzat aberasgarri izan zitezkeenak jaso eta modu atsegin eta ulergarrian eskueran jarri. Asmo honek, ordea, indarrean zeuden aurreiritziekin egin zuen topo. Erromantzearekiko uste zaharrek, partez Humanismoak ere bai (55), eta Kontrarreforma mesfidatiak balazta jarri zieten honelako ekimenei.

Orduko giroaren lekuko izan daitezke, *Los Nombres de Cristo* goi-dibulgazioko liburua gaztelaniaz idatzi zuenean, Frai Luis León-goak desarrazoiaik

(51) Aski adierazgarria da zer ematen digun GARCIA VILLOSLADA-k gidatutako *Historia de la Iglesia en España* argitalpenak, Erdi Aroaz dituen liburukietan: Kultura eta pentsamendu erlijiosoan katalanak ditugu agertzen direnak (II/2º, 180 eta hurr.), jaiertasun eskolatuan antzertia eta olerkia agertzen dira (II/2º, 291 eta hurr.) eta herri xumearen heziketa erlijioso urrikarria latina ez baztertuaren eta baliabide erromantzerik ezaren ondorioa ere bazen Gaztelan (291-292). Portugali dagokionez, ohar labur bat zerean ikus daiteke: SARAIVA, A. J.; LOPES, O. (198513): *História da literatura portuguesa*. Porto: Porto Editora. 151-156.

(52) García Villoslada 1980: III/1º, 363-371 (Gz. Novalín).

(53) Aurkezpen laburra: García Villoslada: III/2º, 486-488.

(54) García Villoslada 1980: III/2º, 327-361 (M. Andrés Martín: «Espiritualidad española en los siglos XV y XVI. Movimientos y disputas»), III/2º, 443-552 (B. Marcos: «Literatura religiosa en el Siglo de Oro español»).

(55) HINOJO, G. (1997): «Llatí versus vulgar: antecedents i conseqüències d'una polèmica», in: FELIU, F.; IGLÉSÍAS, N. (ed.) (1997): *Llengua i religió a l'Europa moderna*. Barcelona: Quaderns Crema.

haizatzeko eman behar izan zituen argibide zurigarriak (1585). Pasarteak, luzea bada ere, azaltzen duen arrazoibidearengatik merezi du hona osorik ekartzeari (56):

Y esto mismo, de que tratamos [Kristoren izenei buruzko gai teologikoa, alegia], no se escribiera como debía por solo escribirse en latín, si se escribiera vilmente: que las palabras no son graves por ser latinas, sino por ser dichas como a la gravedad le conviene, o sean españolas o sean francesas. Que si, porque a nuestra lengua la llamamos vulgar, se imaginan que no podemos escribir en ella sino vulgar y bajamente, es grandísimo error; que Platón escribió no vulgarmente ni cosas vulgares en su lengua vulgar; y no menores ni menos levantadamente las escribió Cicerón en la lengua que era vulgar en su tiempo; y por decir lo que es más vecino a mi hecho, los santos Basilio y Crisóstomo y Gregorio Nacianceno y Cirilo, con toda la antigüedad de los griegos, en su lengua materna griega, que, cuando ellos vivían, la mamaban con la leche los niños y la hablaban en la plaza las vendedoras, escribieron los misterios más divinos de nuestra fe, y no dudaron en poner en su lengua lo que sabían que no había de ser entendido por muchos de los que entendían la lengua.

Que es otra razón en que estriban los que nos contradicen, diciendo que no son para todos los que saben romance estas cosas que yo escribo en romance. Como si todos los que saben latín, cuando [=aunque] yo las escribiera en latín, se pudieran hacer capaces de ellas, o como si todo lo que se escribe en castellano fuese entendido de todos los que saben castellano y lo leen. Porque cierto es que en nuestra lengua, aunque poco cultivada de nuestra culpa, hay todavía cosas, bien o mal escritas, que pertenecen al conocimiento de diversas artes, que los que no tienen noticia de ellas, aunque las lean en romance, no las entienden.

Mas a los que dicen que no leen aquestos mis libros por estar en romance, y que en latín los leyeran, se les responde que les debe poco su lengua, pues por ella aborrecen lo que si estuviera en otra tuvieran por bueno. Y no sé yo de dónde les nace el estar con ella tan mal, que ni ello lo merece, ni ellos saben tanto de la latina que no sepan más de la suya, por poco que de ella sepan, como de hecho saben de ella poquísimo muchos.

Horrelako argudioak erabili behar izan zituen Frai Luis Irakasleak eliz prosa teologiko baten alde (57), Alfontso X.ak prosa profaua sortu eta hiru mende geroago ere. Oztopo horiei gaina hartuz, mende batean literatura eta pedagogia erlijioso aberatsa burutu zuen literatura gaztelauak, parte on batez

(56) GARCÍA, F. (ed.) (1944): *Obras completas castellanas de Fray Luis de León*. Madrid: bac. 673-674. Frai Luis-ek liburuaren bigarren argitaraldiari (1585) gehitutako 3. parteko «Eskaintza»-n ageri da jasotzen dugun testua.

(57) Eta ez zen bakarria izan Urrezko Mende hartan erdal idazle handien artean: beste hainbeste egin zuten hain zuzen Malón de Chaide nafarrak (Cascante, c. 1530-Barcelona, 1589) eta A. Orozko santu egin berriak (2002). Biak agustindarrak. Ik. B. Marcos-en oharra in García Villoslada 1980: 486. Etxaide-ren testua Azurmendi-k jasota du: «Habiendo yo comenzado esta niñería en nuestra lengua vulgar –gaztelaniaz, alegia– he tenido tanta contradicción y resistencia para que no pasase adelante, como si el hacerlo fuera sacrilegio...» (Intxausti 1985: I, 363).

aurreko hutsuneak ongi bete eta ondoko mendeei eredu herritar (*vulgar*) landua proposatuz.

Pentsamolde zaharrak gorabehera, honelako aitzindarien ahaleginez abia zitezkeen gainerako herri-hizkuntzak ere eliz prosaren bidetik. Baita euskara ere.

5. ELIZA ETA EUSKARA ARO MODERNO-GARAIKIDEETAN

Euskararen eliz erabilpenaren eta literaturaren historia batez ere Aro Moderno-Garaikideetan ezagutzen dugu. Ondoko orrialdeetan biei buruz esango dugu zerbait, alde batetik kronologia orokor bat proposatuz, eta bestetik, Iparraldeko lagin jakin bat miatuz (XVV-XVIII. mendeei dagokiena).

Baina, aurrera baino lehen, komeni da historia honetako oinarritzko datu batzuk hona biltzea, berauek baitira Elizako euskal historia bere funtsean baldintzatu dutenak.

1. Euskal Herriko eta hemengo Diozesietako erdaldun(dutako) lurraldeen pisua (geografia soziolinguistikoa: Euskal Herriko erdal herria).
2. Erromantzeen presentzia sozial eta ofizialak dakartzan mugak (euskararen ez-ofizialtasuna edo ofizialtasun eskasa).
3. Kanpotiko hizkuntz ezarpen ofizialak, legez nahiz praxiaz: herri-administrazio idatzi erdalduna, erret ordezkari erdaldunak, etab.
4. Euskal Herriko bertako kultur egitura modernoek eskasia, eta kultur profesionalen euskararekiko urruntasuna: Unibertsitateak, eskolak, moldiztegiak...
5. Euskal goi-ikasleen erbesteratzea (Alkala, Salamanka, Paris, Tolosa...), eta, ondorioz, gure Irakasle titulatuak maisugo galdua (atzerriko Unibertsitateetan: Paris, Bologna edo Coimbra-n, adibidez; nazioarteko Ordena Erlijosietan).
6. Klase euskaldun sozialetan sumatzen diren erdal joerak, eta garaiko jende eskolatuen kultur ohitura erdaltzaleak edo «euskaltzale» teorioak.
7. Euskara eskolaraturik eta euskal mintzatzaile alfabetaturik eza: hizkuntzaren eta euskaldungoaren tradizio eskolatu eskasa.
8. Elizan, derrigorrezko latinaren erabilerak jartzen dituen mugak: hau da, Elizak orokorrean duena eta, gurean, hierarkiaren erdalduntasun kronikoak areagotutakoa.

9. Diozesi eta Ordena erlijiosoen inkulturazio-kontzientzia ahula: egitarau orokorrik gabea eta jarraitasunik gabea.
10. Herrietako elizgizonen eskola-prestakuntza apala: Seminarioen eraketa XVIII.a arte atzeratuz joango da, gehienbat arrazoi ekonomiko-engatik.
11. Elizaren kultur ekonomia eskasa, betiere Diozesi aski pobreen bizkar zihoana (argitalpenak beti ziren garestiak) (58).

Oro har esan daiteke, Elizaren hizkuntz jokabidea ezin dela garaian garaiko euskal gizartearenetik guztiz aparte begiratu: gizarteko klase sozialek –elizgizonek gidatuta ere bai, noski– nahiago izan zuten eliz eraikin ederrak jaso, eliz argitalpen pobre, praktikoa edo ederrak egin baino. Bestelakorik ere proposatu izan zen, noski, testamentuetan, ondarea eskolaren bat sortzeko utziz, baina horrelakoetan batez ere ikasleengan premiazko eta nahitaezko erdal gaitasunak sortzeko izan ohi zen, ez euskalgintzari lagutzeko.

Dena ere euskaldungoarentzat zama astuna, gaztelania indar betean zeto-renean: hemen eta euskaldunen atzerriko zereginetan, Inperioan alegia.

5.1. Eliz euskararen kronologia (1500-2000)

Euskaldungoaren eta eliz Erakundearen arteko hizkuntz harremana hark eta honek, biek, epekatu eta ezaugarritatu dute. Hortaz, bien historiak eduki behar dira gogoan, elkarrengan eten gabeko eragina izan dutelako. Hori gogoan hartuz, ondoko kronologia hau proposatuko nuke:

1. Lehen urratsak (1500-1596).
2. Eliz arauak, eta 1. idazketa-loraldia (1596-1728).
3. Hegoaldeko 1. eliz ekarpen idatzia (1729-1875).
4. Eusko Pizkundeko ekarpenak (1876-1937).
5. Gerraondotik Kontzilio-ondora (1937-2000).

Egituraketa kronologiko honek ahal den neurrian esparru-sozial ezberdinak hartu nahi ditu aintzakotzat (sozial orokorra, elizakoa, politikoa, etab.), eta kulturaren alde ezberdinak ere bai (literatura, hizkuntz politika, eliz mugimendu kulturala, euskararen historia, etab.).

(58) Tellechea Idigoras-ek azpimarratu du Iruñea, Kalahorra eta Baionako Diozesien ekonomia apalarena. Sáinz Ripa-renean begira daiteke inguruko Diozesien artean Kalahorrakoak zuen balioespen ekonomikoa.

5.1.1. *Lehen urratsak (1500-1596)*

XVI. mendean gaude, Ernazimenduan, Amerika aurkitu berria duen gizarte batean, humanistekin elkarrizketan (Erasmus bera hurbil dugula), berehala Erreforma Protestantea ezagutuko duen Europan eta Kontrarreformari ekingo dion Eliza Katolikoan, bi Monarkia lehiakideren artean (eta zerbitzuan); artea eta kultura modernoa ez dira arrotzak Euskal Herrian, eta zenbait euskal herritar hortik zehar dabil arte-lanak ontzen; era berean, Elizako hierarkian bezala armadan, Koroaren Administrazioan idazkari eta eskribau gisa, ekonomia bizkortzen arrantzale, garraiolari, merkatari, teknikari eta konkistatzaile bezala... Mundua zabala da garaiko euskaldunentzat.

Nabarmenezkoa da euskarazko predikuari begira Ignazio Loiolakoaren eta Luku Gotzainaren arteko gutuneriak erakusten duen ardura, eta behingoz hartu ziren erabakiak. Aukera horretan, behintzat, eliz goi-gidari jakitunek gogoan dute Euskal Herrian euskaraz jardun beharra. Erreforma Katolikoaren emaitza izan ziren, prediku-lan berriak (1551-1553) eta lehenengo katixima (1561).

Testuinguru horretan ari ziren, bada, urak mugitzen; baina hortik harago noraino jo zitekeen?

Esan daiteke hiru aldiz behintzat heldu zitzaiola euskarazko idazketa-lanari, Elizatik nahiz kanpotik: a) Etxeparek lehenengo, bere amodiozko bertsoak eta olerki erlijiosoak eskainiz (Erdi Arotik Ernazimendurakoan zubi eginenez), b) Leizarragak bigarren, Biblia itzuliz (Eliza kalbindarraren proiektuaren altzoan), c) eta hirugarrenez, eliz Erankundeak berak, Pastoraltzan lehen urrats xumeak ematean.

Hiru ahaleginok ez zuten, ordea, berehalako segidarik izan, eta ez dirudi Lazarraga kaleratu gabearen aurkikunde berri isolatuak uste hau bere osoan aldaraziko digunik. Elizen mundutik so eginik, Leizarragarena izan zen lanik helduena, osoena, baina Gerrate Erlijioso eta Kontrarreforma katolikoko izozteak eta haizeek eraman zituzten zuhaitz gaztearen fruituak.

Eliz mundu idatziaren euskalduntzea hutsaren hurrengoa izan zen XVI. mendean: dotrinaren bat edo beste. Hala ere, euskal predikuan emaitza hobeak izan genituen, edo behintzat ardura arretatsuagoa jarri zen eremu horretan, eta haxe da segur aski mende hartako lorpenik onena. Ikusiko dugu zerbait.

5.1.2. *Eliz arauak, eta I. idazketa-loraldia (1596-1728)*

Kontrarreformen eta Barroko katolikoan gaude. Trentoko Kontziliotik badi dira hogeita hamar urte pasatuak (1562-1596), bildu da hainbat Sinodo Kalahorran bezala Iruñean, baina neurri handi batean hastear dago, oraindik, euskal Elizaren berreraketa eta zinezko inkulturazio linguistikoa.

1596ko data sinbolo erraz bat da: Hegoaldean urte horretakoa dugu Be-tolatzaren dotrina (*Doctrina Christiana en Romance y Bascuence*, Bilbo), eta Iparraldera urte berean heldu zen Pedro Agerre, ondoko literatur loraldirako gizon ardatza.

Bestalde, 1728a dugu Larramendik bere «euskal apostolutza» hasi zuen urtea (*De la antigüedad y universalidad del bascuence*, Salamanka): geroago ikusiko denez, Eskola berri baten hasiera, hain zuzen hurrengo urtean agertu baitzen, gainera, euskal gramatika (*El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Salamanka).

Bi data horien artean zer? Lehen begiratu batean esateko, ezeren gainetik zinezko eliz prosaren sorrera eta lehen goraldia Iparraldean, Hegoaldea kultur garapen horretatik urrun zegoen bitartean. Iparraldeko goraldi horretan bi epealdi ditugula esango genuke: XVII.eko lehen erdia (Sara-Donibane inguruetan), eta ondoren, Iraultza arteko segida sostengatua.

Idazleek ez ezik, eliz laguntza ofizialek eragin zuzena izan zuten produkzio horretan, eta euskara idatziaren historian eliz jendeari zor zaion ekarpenik ederrenetakoa egin zen orduan. Oro har, eliz Pastoraltzaren zerbitzuko argitalpenak izan ziren, eta ahalegin horretan euskarazko idazketarako ildo erdugarria iradoki eta landuta geratu zen.

Bi molde ezberdinetan hasiko dira lanak Hegoaldean eta Iparraldean. Hegoaldean batez ere lehen Katekesiari dagozkion erabakiak eta argitalpen gutxi batzuk ezagutzen ditugu, ofizialki Elizbarrutiek bultzatuak (Kalahorrako Sinodalak, 1621). Iruñeko Diozesian Nafarroa eta Gipuzkoako euskal elebarkatasun orokorra aintzakotzat hartuz jokatu nahi izan zen (horretaz Gotzain-ohar-rrak errepikatuz doaz).

Iparraldean, oster, haurrentzako Katekesi zeregin hori ahanzi gabe, helduei eta eremu zabalagoei begira lan egin zen, argitalpenen tamainak erakutsiko digunaren arabera. Zalantzarik gabe, Hierarkiaren sostengua erabakigarria gertatu zen alor horretan. Diozesitarrekin batera, idazle protagonisten artean Ordena erlijiosoen ere aurkitu zuten lekuri.

5.1.3. Hegoaldeko 1. eliz ekarpen idatzia (1729-1875)

Josulagun baten inguruan dator egun-argitara aro berri hau, Manuel Larramendik (1690-1766) sustaturik, alegia. Agian, inoiz euskararen munduan ezagutu den gidaritzarik nabariena da Larramendirena, bere bizialdian eta ondoko mende betean. Hau da garai honen ezaugarrietako bat.

Mugatzen eman ditugun bi daten artean, mugarri jakin bat jar daiteke, josulagunak Euskal Herritik eta Espainiatik iraitziak izan ziren urtean (1767). Horren aurreko hogeita hamar urteetan, josulagun gutxi batzuek bideratu zu-

ten Hegoalderako idazketa-eredu berria, Iparraldekoa ezagutzen zuena, baina beregainki jokatuz definitua.

Lagundia erbestera zutenetik, Hegoaldeko elizgizonek piztu berria zen lastergia eskuetan hartu, eta gogoz eta lanez eutsi zioten hasitako bideari. Eusko Pizkunderaino luzatu zen hori, luma berriak lanera erakarrit eta idazlanak metatuz. Nahiko maiz, lanok, ordea, ez ziren kaleratu ahal izan idatzi eta berehala, eta batzutan idazleak hil ostean, urteak pasatuta, eman ziren argitara. XIX. mendeko liburugintza, partez bederen, XVIII.eko uzta ere bada.

Azken Gerrate Karlistak eta Hiru Probintzietako Erakunde-krisiak ezarri zuten, euskarazko idatz-produkzioan ere (1875-1876) aro honen azken muga.

Lehenengo ekinaldi hartan josulagunek berek burutu zituzten lanak: Larremendik, Kardaberazek, Mendiburuk. Ondoren, apaiz eta erlijiosoen lagunartea zabalduz joan zen, izan ere garaiko beste ezaugarria hauxe baita Hegoaldean: diozesitarren eta fraideen aldi bereko produkzioa. Izenak errenkan datoz: Mogeldarrak, Añibarro, Gerriko, Astarloatarak, Frai Bartolome, Lizarraga, Zabala, Uriarte, Lardizabal...

Esan beharra dago, bestalde, eliz gaiez idazteaz gain euskararen inguru-lanak sortzen direla garai honetan: josulagunek euskararen izenona, *corpus*-aren ezagumendua (hiztegi eta gramatika) eta eliztarren artean ere hizkuntzarekiko kontzientzia eta estimua landu zituzten. Bere urak Eusko Pizkunderaino zabalduko zituen olatua izan zen hau, batzuetan euskararen *status*-a ere hobe-beharrekoa zela iradokiz.

Hegoaldean lehenengo aldiz mende askotan, kristau euskaldunak beren fedeaz zer irakurri izaten hasi ziren hamarkada haietan, eta herrietako apaizek liburu ongi hornituak eskuratu ahal izan zituzten beren predikua aberasteko.

5.1.4. *Eusko Pizkundeko ekarpenak (1876-1937)*

«Eusko Pizkundera» deitu izan duguna, batez ere gertabide sozial orokorra da, ez Elizara eta ez literaturara bakarrik bildua.

Iparraldean bertatik bertara eta lehenagotik ezagutzen zituzten Iraultza politikoaren ondorioak (han oso bizirik ageri zirenak) Hegoaldera ere iristen dira, azkenik. Bizpahiru gerra ere galdu dira, Foruak defendatzen; Industri Iraultza eta inmigrazioa iritsi dira Euskal Hegoaldera, eta abertzaletasunak hartu du bere bidea eta indartuz doa. Hori baino zerbait lehentxeagoa (1862), Hiru Probintziek badute, gainera, beren Diozesia (Gasteiz), alboetako zenbait eskualde oraindik hortik kanpo izan arren.

Iparraldea eta Hegoaldea bi inguru politiko ezberdinei erantzun beharrean aurkitzen dira: Hexagonoan, III. Errepublikako eztabaida politiko-erlijiosoari,

eta Penintsulan Cánovas-en Izanberritze alfonsotarrari. Bietan ere, elizgizonek ez dute beren ekimena moteldu nahi, eta euskaltzaletasun abertzaleak eztenkatuta ere bai, Elizako euskarazko zerbitzuen indarberritzeari ekiten diote.

Gasteizko Sinodoan bezala (1884) Baionako Diozesiko une ezberdinetan (1910, 1921), euskararen gutxieneko eliz erabilpena behinik behin ofizialki segurtatu zen, predikuan eta katekesian, baina, zorionez, praktikan Elizako erabilera idatziaren arazoa aherentzi gabe.

Idazle eliztarrak agertu eta estimatu ez ezik, eliz elkarte euskaltzaleak ere sortu ziren Diozesietan, ofizialak edo ez hain ofizialak: Jaungoiko-Zale, adibidez, Bizkaian. Elizgizonek euskal gogoia bizkor ari da, eta eliz barneko ekimenekin batera (Kristau Ikasbideak berritzea, Apaizgaitegietako euskal eskolak, argitalpen pastoralak, etab.), eliztarrek garaiko euskal kulturagintza orokorrean ardura eta balio handiko lanak burutuko dituzte batzuetan: Azkue edo Tx. Agirrek Euskaltzaindian (59), euskararen sustapen sozialean Aitzol-ek, bertsoarritza birdefinitzen (M. Lekuona), etab.

Elkarren lana osatuz eta aurrekoei segida emanez, euskarazko eliz katezaritza abian jarri zen Baiona, Donostia, Bilbo eta Iruñean. Klero diozesitarren ekarpena handia da, eta inoiz edo beste laikoekin elkartuta jardungo dute.

Ordena Erljiosoa ere saiatu ziren XX.eko lehen laurdenean euskal katezaritzaren eremu hori abiarazten, aldi berean beren eliz elkarteetako laguntzako eliz liburuak idatziz. Azpimarratzekoa da 1936ko gerra-aurreko batzuen ekarpena (josulagun, kaputxino edo karmeldarrena, adibidez).

Oro har esan daiteke aro honetako Hegoaldean hizkuntzarekiko ardura pastorala ez ezik kulturala ere indartu egiten dela elizgizonek artean, eta Elizako zenbait sektore kezkatik adi-adi begiratzen diola inguruan garatzen ari den euskalgintzari. Iparraldeko apaizeriak bere tradizioari segida duina ematen dio, eta lehenengo aldiz du aukera Hegoaldeko indar euskaltzaleekin elkartzeko (Hendaia, Hondarribia: 1901-1902; Euskaltzaindia, 1919).

5.1.5. *Gerraondotik Kontzilio-ondora (1937-2000)*

Bi epealdi nabari eman behar dira hirurogei urte horietan: gerratik Kontziliario doana, eta Vatikanoko II.etik mendearen bukaera artekoa. Lehen tarte hartan, Hegoaldean Espainiako politikak ezartzen dituzten baldintzak; bigarrenean, ostera, batez ere Eliza barruko bilakaerak agintzen du Euskal Herriko Elizan ere, eta beronen euskaltasunean. Iparraldean 1939-1945.eko gerratik Kontzi-

(59) Erljiosoen Euskaltzaindiko lanaz: ARANA MARTIJA, J. A. (2004): «Erljiosoa Euskaltzaindiko jardura eta bizitzan», in: Intxausti 2004: I, 317-320.

liorainokoa batasun bat da, eta ondokoan, Hegoaldeko arazo eta irtenbide berak ditu Iparraldeak ere.

Penintsulan, gerrako etena (1936-1937) gogorra gertatu zen, oro har, euskal kulturarako, eta baita Elizako euskaltzale ekintzaleentzat ere, Diozesietan bezala Ordena Erljiosoetan: ez zen falta izan hildako eta afusilaturik, ezta erbesteraturik ere. Kanpora joanak sakabanatuta, eta barruan geratutakoak, lokarri motzez harturik.

Lehenengo hamar-hogei urteetan ez zen samurra gertatu gerra-aurrean hasitako bideari berriro ekiten: Seminario eta eliz Ikastegietatik erabat desagertu zen euskara, argitalpenak itxi egin ziren, euskal idazle eliztarrek ez zuten izan idazlanak argitaratzerik, etab.

Predikua bera ere erabat gaztelaniaz ezarri nahi izan zuen Gobernuak (1938) (60), baina herri handiagoetako lehen estualdien ondoren, partez bederen birbideratu ahal izan zen arazoa Gasteizko Diozesian.

1920etan sortutako dotrina normalizatuei bidea moztu egin zitzaizen berehalako gerra-ostean, ortografia eta testu zaharrak ezarritz. Predikuan bezala katekesian, euskararekiko gobernu-giro ofizial zitalak bere higatze-lana egin zuen, noski; baina herrietako –batez ere txikienetako– euskarazko egoera zaindu ahal izan zen. Herri-misioen goraldikoan, 1955-1965.etan, euskarak hiri eta herri handienetan galdu bazuen ere, txikiagoetan misiolari herritarrek euskaraz lan egin ahal izan zuten.

1950etik aurrera (frantziskotar eta karmeldarrek egin zuten lehen ahalegin emankorrena), aldizkariak eta zenbait liburu argitara eman ahal izan ziren, eliz elkarten zerbitzurako; urte batzuk geroago datoz josulagunak eta kaputxinoak.

Kontziliaora heldu aurretik, Elizako zenbait indar euskaltzalek lortu du eliz euskarari gutxi-asko bere betiko leku mintzatua ematea, baina idazki ofiziale-tan apenas duen lekurik euskarak, eta gerra-aurreko eliz garapen idatziari (eliz goi-literaturari) ezarri zaizkion trabak ezin gainditurik dabil eliz jendea.

Hala ere, apaizgaitegietako belaunaldi gaztea prest ageri da (1956...) bere ahotsa jaso eta eliz euskalgintza bultzatzeko, filosofian, teologian eta zernahi moldetako eliz zientzietan.

Vatikano II.a gertatu zen XX. mendean euskarak Elizako bizitzan presente izateko muntarik handieneko aukera: zinezko bihurtzea izan zen bera. Eta hori bi arrazoiengatik, gutxienez: proposamen teologiko berria zelako (ireki eta aldakorragoa), eta hizkuntzei, latina albora uzteko erraztasunarekin,

(60) INTXAUSTI, J. (2000): «Euskararen erabilpen-debeku eta arauak lehen Gobernu frankisten eliz politikan (1937-1940)», in: Ormaetxea et al. (2000): *Txillardegi lagun-giroan*. Bilbo: UEU. (193-230. or.).

Liturgia osora eta eliz zeregin guztietara iristeko legezko abagunea eman zielako.

Handik honako historia da Euskaltzaindiko biltzen garen jardunaldiotan aztertu nahi izan den hizkuntzaren eliz iragana (itzulpenak, azalpen ofizialak, urratsez urrats egin den euskalduntzea, argitalpenak, etab.).

Ondoren, aipatu ditugun aldi horietako bi atali dagozkienak jasoko ditugu hemen: «Lehen urratsak», *Eliz literaturaren aurrekariak* aurkeztean, eta «Eliz arauak, eta 1. eliz ekarpen idatzia», *Eliz literaturako lagin bat: Iparralde-a-z* jardutean.

Lan honetan ez ditut aurkeztuko Elizaren euskalduntze erlatiboan protagonista izan diren pertsonaia (61) eta taldeak (62) (nahiz eta zertxobait esango dudan, azalpenak eskatzen didan heinean). Hemen batez ere emaitza behinenak gogoratuko ditugu: lege eta arauak, ideiak, portaera linguistikoak, argitalpenak, etab. Hautatu dugun gaiari jarraikiz, erreforma protestanteaz ez da esango deus orrialdeotan, nahitaez aipatzekoa izan arren (63).

5.2. Eliz literaturaren aurrekariak (c. 1530...)

Euskal literaturaren historia bitan banatuta ageri da, eliz euskararen iragana bezalatsu: Hegoaldea / Iparraldea. Bidasoaz gora, 1545ean ustekabeko lehenengo euskal liburua agertu zitzaigun, bat-batean; bazirudien aurrekaririk gabe zetorrela, ingururik gabe.

Baina, zerbait lehenago eta ondoren, badakigu Hegoaldeko kristau kezkatuen artean eliz erreformazaleek euskara zegokion tokian jarriz lan egin nahi zutela behintzat, eta lehentxeago edo geroago euskara mintzatuari ez ezik idatzitari ere bide eman beharko ziotela. Hona horren guztiaren zantzu batzuk.

5.2.1. Trento bukatu aurrekoak (a. 1563)

Han-hemengo gertakari solteek (eta batzuetan elkarrekin lotuek) euskararekiko jarrera eta gogo berriak pizten ari zirela emango ligukete aditzera (c. 1530-1563).

(61) Idazle eta protagonista pertsonalak Villasante-ren lanean bilduta daude oro har: VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la literatura vasca*. Bilbao: Senda.

(62) Elizako taldeez ere ari den lan honek lagun dezake: INTXAUSTI, J. (1998): «Taldea euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak)», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (1998): *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak. Donostiako Udako XII. Ikastaroak. 1993ko Uztaila*. Bilbo: ehu. 17-56.

(63) INTXAUSTI, J. (1995): «Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformaren ilun-argitan», in: RIEV. XL, 1995, 119-160.

Ernazimenduak hainbat hamarkadatan bere ibilaldia bete du, eta ez da erabat arrotza gurean. Hastapenean, Koroa irekita ageri zaigu Humanismora, eta Erasmodik, adibidez, buru eta bihotz asko irabazi ditu Penintsulan (1534a arte, eta geroago ere); bestalde, Trento aurreko Karlos V.aren erreforma-zaletasunak lagunduta badago gogorik Eliza berritzeko. Urrunago (urrunago, diot, zeren Joana Albretekoaren erreforma-asmoak jaiotzeke baitaude), Erreforma Protestanteak berak ere ez zuen, artean, bere azken hitza esan.

Euskal Herrian gertaera esanahitsuak ditugu, gainera: Iruñeko kalonjeek Gotzain euskalduna eskatzen diote Karlos V.ari (1539), Jesusen Lagundia sortu da (1539) eta laster dei egingo zaio Euskal Herritik (1551), Oñatin Unibertsitatea eraikitzen du Mercado Zuazola-k (1540), Etxepare bere liburu idatzi eta argitaratzera doa (Bordele, 1545), euskal jatorriko Gotzain bat dator Kalahorrara (1545), San Ignazio harreman zuzenean dago Kalahorrako Gotzain honekin (1545-1553), Enperadoreak Joan Zumarragokoa Gotzain (1533) eta Artzapezpiku (1547) aukeratu du, eta hiltzean (1549) Arantzazu eta Durangora bidaliko ditu honek bere liburuak (Erasmus barne); Trento-koari bide egiteko, Sinodoak ospatuko dira (horietako bi Gasteizen: 1546, 1553).

Izena eman gabe aipatu dudana Kalahorrako Gotzain horrek garrantzia du hemen: *Joan Bernal Díaz Luku* da bera (Juan Bernal Díaz de Luco, 1495-1556), orduan eta denbora luzez euskal pastoraltzaren aldeko sustatzaile finena. Eta hemengo bere Gotzainaldiko epe laburrean bizkorki mugitu zena.

Sevillan jaioa zen bera, elizgizon baten (aita subdiakonua zuen) eta Luku herriko Maria Lekeitio-koren haurra (1495). Ez dakigu euskararik zekien ala ez, baina segur aski ez zitzaion hizkuntza hau arrotza gertatzen. Kalahorrara etorri eta berehala Gasteizen egin zuen egonaldi eta Sinodo bat, Kalahorran bertan egiteko partez. Bizkaira ere egin zuen Bisitaldi sonatu bat, arazo zaharrak bideratzeko. Luku intelektual eta kanonista sonatua izan zen, eta Indietako Kontseilu Gorenekoa, Karlos V.ak Trento-ko bere Gotzain-taldea osatzeko deitu zuena. Hainbat argitaraldi izan zuten beste lanen artean, Lukuren *Practica criminalis* zeritzanak (1543) 26 edizio ezagutu zituen XVI. mendean. Luku 1556an hil zen, eta maite zuen amaren sorterrian ehortzi zuten azkenik, Arabako Luku herrian (gaur egun ere hango elizako aldare aurrean ikus daiteke haren hilobia) (64).

Luku-ren biografia eta historia intelektuala hurbilenetik aztertu duen Tomás Marín-ek zera idatzi du (65):

(64) Biografia pertsonala eta eliztarra, idazlea eta kanonista, Trentoko gurasoa, zaletasun linguistikoak, Kalahorrako Gotzainaldia, San Ignazioarekiko harremanak eta pastoraltza euskaldun baten aldeko apustua ezagutzeko: INTXAUSTI, J. (1996): «Euskararen Eliz erabilpena eta Luku Gotzaina (1545-1556)», in: *Sancho el Sabio*. VII. 1997, 243-274. Orain, Gotzainaldiari buruz: Sáinz Ripa 1994-1997: III, 219-244.

(65) MARIN, T. (1952): «La Biblioteca del obispo Juan Bernal Díaz de Luco (1495-1556)», in: *Hispania Sacra*. V, 1952, 267.

...además de obispo, Padre de Concilio y Consejero de Indias, fue jurista eminente teórico y práctico, versadísimo en teología y ciencias eclesiásticas (...), profesor de lenguas clásicas y cultivador de la historia, escritor fecundo, buen literato y sabio de vastísima erudición un poco al modo de aquellos humanistas coetáneos suyos que llegaban a disertar de omni re scibili.

Ignazio Loiolakoa eta Luku adiskideak izan ziren, bata Lagundiaren etorkizunaz eta bestea Euskal Herriko Pastoraltza hobete batez interesaturik zeudelako batik bat. Tarteko harremanetan eskutitz-multzoa sortu zen (1545-1552), eta Lagundiaren Erromako Artxiboetan gordeta geratu ziren geroztik gutun haiek. Erabilitako arazoetan lan pastoralarena dago tartean, euskarazkoa ere mintzagai dutela.

Une hartako gure eliz pertsonaia giltzarri hauen kezkek ezagutzea merezi du, 1550eko inguru haietan euskarari sortzen ari zitzaizkion aukera berrien albisterik izateko. Honela diote hautatu ditudan atal hauek (66):

Y como yo sé quán sancta y sana es la [doctrina] que enseñan todos los de la Compañía de V. m., ternia por gran felicidad, si V. m. encargase á alguno ó algunos della, que me ayudasen á doctrinar el Obispado. Y por esto, cuan affectuosamente puedo, le pido por merced, que haga tan gran limosna á aquella tierra, y á mí tan gran caridad y socorro spiritual, que me embie alguno de sus compañeros, que me ayude, speçialmente de los bascongados; pues V. m. sabe bien quánta nesçesidad tiene aquella tierra, donde se habla esta lengua, de buena doctrina [...]. Y pues V. m. en ley de charidad deue más á aquella tierra que á otra alguna, justo es que no falte en esto, espeçialmente en tiempo que el Prelado della la pide y desea. [1545koa da gutuna. Azp. nirea].

Yo creo bien que V. m. no tiene olvidadas las ánimas de su naturaleza [jatorri berekoak, alegia]; pues entre las otras de todo el mundo (de cuya saluación tiene mucho desseo) tienen estas particular razón para que V. m. se acuerde de ellas, mayormente estando tan ynformado, como está, de la gran necesidad que en aquella tierra ay de doctrina, y de la imposibilidad que ay para que allí se pueda plantar, sino por personas naturales de la mesma lengua, y de la falta de eclesiásticos vascongados [euskaldunak, alegia] que puedan y quieran aplicarse á predicar por aquella tierra. Y aunque yo tengo todo esto por cierto, por lo que en ello me va no puedo dexar de tornar á encomendar a V. m. que, por amor de nuestro Señor, no pierda el cuidado de hazerles bien [...], pues no ay en el mundo prouinçia á quien sea tan obligado; y es cosa justa que ganen aquellas ánimas en auer nuestro Señor criado en sus tiempos vn varón de tanta charidad y zelo, natural de la misma tierra. [1551koa da gutuna. Azp. nirea].

Muy gran merced recibiré que scriba V. m. al doctor Araoz [josulagunen hemengo Aita Probintzialari] y al duque [Frantzisko Borjakoari], para, quando fuere venido, que tengan particular cuydado de hazer ocupar los clérigos, que

(66) Monumenta historica SI / Epist. Mixt. I, 210-211; Epist. Mixt. V, 720; Epist. Mixt. V, 755-756.

tuuieren doctrina, vascongados, en predicar en su lengua las más vezes que pudieren, y repartiéndose por la tierra, pues sabe V. m. la necesidad que ay en ella de doctrina, y la falta de personas que se puedan y quieran ocupar en ello. [1552koa da gutuna. Azp. nirea].

Hortaz, argi dago Kalahorrako Gotzaina, Hegoaldearen parte on bat hartzen zuen Diozesiko Burua, euskara aintzakotzat hartuz ari zela pastoraltza egitarautzen: premiazkoa ikusten zuela predikua euskaraz ematea, kalitateko predikua, elizgizon prestatuak erakarriz (adibidez, Frantzisko Borja-koa Oñatin egongo zen 1551-1552.etan, eta Bergaran eman zuen bere lehenengo Meza).

Garaiko «euskaltzaletasunean» (betiere euskaltzaletasun pastorala, noski) Luku ez zen bakarrik aurkitu, eta Ignazio Loiolakoaren eta josulagunen lan-kidetza izan zuen herrietan misioak euskaraz emateko.

Ez ziren bakarrak. Euskal goi-hierarkiako zenbaitek sentiberatasun berria erakutsi zuen hamarkada haietan hizkuntzarekiko; Mallea-k gogorarazi zigun Zumarraga Artzapezpiku durangarraren zaletasun bera (67). Esan behar da, gainera, 1530.eko hamarkadaz gerostik behintzat harreman pertsonalak ere izan zituztela Lukuk eta Zumarragak (hemen, bide batez bada ere, ezingo da ahortzi Zumarraga-ri zor diogula Etxeparearen aurretik ezagutzen dugun testu zaharrik luzeena: 1537ko gutuna) (68).

Zumarragak Mexikon ere ikusi zuen bezala, zinezko kristauarte egiteko premiazkoa zen herritarren hizkuntzei Elizan eremu berriak ematea. Galduta dugu 1561eko S. Eltso-ren *Doctrina Christiana... en Castellano y Vazcuence* hura (Iruñea) (69), ondoko hamarkadetan ikusiko dugun ardura kateketikoaren aitzindaria; baina urte bertsuetan hasi eta XVII.ean barrena Arabako Lautadako pastoraltzan sumatzen dugun euskararen presentzia agiriztatua hor dago, hain zuzen bide batez lekuko horiek balio izan diote M. Portilla-ri eskualde horretako hizkuntzaren erro sozial irmoa baieztatzeko (1556-1557, 1565-1569, 1607, 1614) (70). Nahitaezkoa zen, nonbait, Trento-ondoko zeregin berrietan ere herritarrekin Araban euskara erabiltzea.

(67) MALLEA-OLAETXEA, J. (1992): «The private Basque World of Juan Zumarraga, firsts Bishop of Mexico» in: *Revista de Historia de América*. (IPGH, México). 1992, n. 114, 41-60. Gainera, ID. (1988): Juan Zumarraga. *Bishop of México and the Basques: The Ethnic Connection*. Reno: Basques Studies Program. [Argitaragabea]. Ik., azkenik, *Euskera*. XXXIV, 1989-1, 311-319.

(68) OTTE, E. (1979): «Juan de Zumarraga vasco», in: *Les cultures ibériques en devenir: essais publiés en Hommage à la mémoire de Marcel Bataillon (1895-1977)*. Paris: Fondation Singer-Polignac. 489-496.. Ik. *Euskera*. XXVI, 1980, 4-14.

(69) VINSON, J. (1891): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Orain: Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983. 5. or.

(70) PORTILLA, M. (1979): «Datos y noticias sobre el vascuence en Alava (siglos XVI y XVII)», in: *Norte Express. Extra. Fiestas de la Virgen Blanca*. 1979: 56/50 [sic].

5.2.2. *Kontzilioaren arrastoan (Hegoaldea: c.1563-1728)*

Gatazka erlijioso eta politikoei aurre egin beharrean aurkitu zen Euskal Herria XVI. mendeko bigarren erdialdian: gerra erlijiosoak Iparraldean, Monarkia espainolaren politika kontrarreformista Hegoaldean. Gerra haiek eka-rritako hondamendiaren golkoan itoko da euskal Eliza kalbindarraren proiektua: Leizarraga eta bere lankideek lana burututa, argitara emanda utzi zuten (1571), baina hedatzeko tresna politiko ofizialik gabe (1572: San Bartolome Gaua).

Trentoko Kontzilioa bukatu da (1563), eta erreformarako arauak eman dira. Hemen, Euskal Hegoaldean, Erret Zaingoak (azken buruan, Erregek berak, «Estatu-arazotzat» jo ditzakegunetan behintzat) eta Gotzainek gidatu beharko dute berori, Aita Santua urrun baitago eta Felipe Erregea biziki interesatua (1556-1598).

Hasteko, Diozesien barruti geografikoak aldatuko dira, Iruñea eta Baiona arteko mugak birmoldatuz (arriku protestanteari aurre egin nahiez dela esaten da) (71), Obserbantzia deituriko adar erreformatuen bidez Ordena Erlijiosoak Koroaren politikari hertsiaigo lotuko dira (72) eta berorien Probintziak Gaztela aldera eramán (Nafarroa izango da galtzaile nabarmena) (73). Guztientzako abia-unea urte berean jarri zen: 1567.

Ondoren, Kontrarreforma itogarria nagusituko da. Ez da erraza jakiten zenbateraino baldintzatu zuen horrek euskararen eliz erabilera orokorra, eta batez ere espero zitezkeen garapen berriak.

Garbi dago euskarazko Biblia katolikoaren prestakuntza ez zela egon orduko lehentasunen artean; era berean, alor kateketikoan Pio V.aren *Catechismus Romanus* mardula (1566) ez zuen inork euskaratu... Hala ere, bazen munduan euskaraz ere bazekien teologo, moralista eta legegizonik; hori bai, dena esan behar da, gehienak erbestean zebiltzanak eta, lan, latinez edo gaztelaniaz lan egiten zuten. XVI. hartan euskarazko gure uzta Pio V.aren hura askoz ere laburragoa izango zen: Betolatzaren *Doctrina Christiana en Romanze y Basquenze* (Bilbo, 1596) (74).

(71) Goñi Galarraga 2004: 85-92.

(72) Azalpen orokorra: GARCIA ORO, J. (2004): «Conventualismo y Observancia. El proceso de las Reformas religiosas en el País Vasco y en Navarra, durante el Renacimiento», eta frantziskotar komentutarren kasua: FERNANDEZ-GALLARDO, G. (2004): «La supresión de los franciscanos conventuales en Navarra (1566-1567)», bi idazlanak: Intxausti 2004: 555-567, 598-808.

(73) García Oro 2004: 561-563. Frantziskotarrei buruzKO xehetasunak: URIBE, A. (1996): *Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: efa. 75-88.

(74) Bi/hiru hizkuntzen artean nolako aldea izan genuen ikusteko: AZURMENDI, J. (1985): «Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herrian», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): *Euskal Herria*. Arantzazu: Jakin/Caja Laboral. I, 357-386; berezikiago: 362-369.

Hain zuzen, Kristau Ikasbidearen hau izango da euskal Sinodoek berezi-kiago zaindu nahi izango duten eremua, baina, horra pasatu aurretik, beste puntu jakingarri bati eman behar diogu begiratu labur bat.

5.2.2.1. Ordena Erlijosioak

Orain arteko honetan Diozesiak aipatu ditugu gehienbat; baina Ordena Erlijosioen sarea ongi eta aspalditik errotuta ageri zaigu XVI. mendeko Euskal Herrian. Are gehiago, 1450 eta 1650 artean Eskeko Ordenek eta Jesusen Lagundiak sare hori hertsiago harilduko dute euskal Kostaldeko Herrialdeetan, Bizkaian lehenengo eta Gipuzkoan gero. Komentuak, predikari-etxe ez ezik, zenbait kasutan, Ikastetxe ere bilakatuko dira, eta, atzekoz aurrera nahi bada, josulagunen historia irakasleena batik bat eta, ondoren, predikariena izango da (75).

Ez da, artean (XVIII.ean Kardaberaz-ekin bezala), haurren euskarazko eskolatzearena aipatuko, baina badakigu Kristau Ikasbidea euskaraz ematen jardun dutela lehen josulagunek (1554) (76), eta predikuarena hasieratik bertatik izan zela zeregin ongi zaindua.

XIII.az geroztik finkatuta zeuden Eskeko Ordenetan XVI.ean aurkituko ditugu euskarazko predikuarekiko ardura adierazten duten agiriak. Komentu berriak sortu edo berrantolatzean, fundatzaileek eta erreformatzaileek, baldintza jakin batzuek jarri ohi zituzten (lehen kasuan *capitulaciones* eta bestean *estatutos* deitzen zirenak).

Frantziskotarretan bada honelako testuetan euskarari dagokionik, eta deigarrietakoa Arrasateko komentuari Joan Araotz fundatzaileak eman ziona dugu (1579). Araotz-ek euskararen eskakizuna kargudunen izendapeneterako baldintza bezala aipatzen du (erreguzko baldintza bazen ere) (77):

Item digo que es mi voluntad y deseo que el Rector Guardián de dicho Colegio sea en todo tiempo Religioso que sepa hablar y predicar en nuestra lengua Bascongada, porque su doctrina puede hacer mucho fruto en la villa y su comarca en servicio de Dios y beneficio de los fieles cristianos naturales de ella.

(75) Frantziskotarren kasua: INTXAUSTI, J. (2004): «Frantziskotarren Euskal Herriko historia», eta PINEDO, I. (2004): «Jesuitas en el País Vasco / Navarra», in: Intxausti (ed.) 2004: 353-354 eta 574-577. Era berean: Uribe 1996: 290-310. Fraidegaien prestakuntzarako Ikastegiak ez ezik herritarrentzako Eskolak ere izan zituzten frantziskotarrek. Josulagunen historia Malaxetxebarriak eman zigun: MALAXECHEVARRIA, j. (1926): *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII*. San Sebastián: Libr. e Impr. San Ignacio de Loyola.

(76) Malaxechevarria 1926: 33.

(77) INTXAUSTI, J. (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. 82-83 (Ik. Arrasateko hau ez ezik Zarauzko komentuko agiri-faksimila ere, testu transkribatuekin batera).

Pido y suplico a los muy Reverendos Religiosos Padres Definidores y Capítulos Provinciales de ella, e inter capítulos, que provean siempre de Rectores Guardianes de este Colegio a Sacerdotes Religiosos de esta nuestra antiquísima lengua Bascongada, [...] y si no lo pudiesen hacer cómodamente, no les obligo a ello, pero tórnoles a supricar lo mesmo, dexando por mi equidad en sus manos lo que yo tengo en las mías [Azpm. nirea].

Erljiosoen euskal predikuaren ardura honek, zalantzarik gabe, XVIII. mendean eman zituen emaitzarik onenak, josulagunen artean eta batez ere frantziskotarretan (Zarautz, 1746-1840) lehenengo, eta beste Ordenetan (karmeldarretan, adibidez) berehala. Badirudi Diozesiek, beren aldetik, ahalegina Katekesi mundura zuzendu zutela bereziki, predikuarena errazegi fraideen esuetan utziz (78).

5.2.2.2. Kalahorrako Sinodoak eta euskal katekesia

Kalahorran bezala Iruñean Sinodo ugari bildu zen XVI-XVII.etan, baina ez zuten izan maiztasun bera eta ez ziren bildu erregularitasunez: Kalahorran, adibidez, 16/17 Sinodo dauzkagu XVI.ean, eta 4 bakarrik XVII.ean. Sinodo guztiek ez zuten pisu bera izan, batzuek arlo ekonomikora mugatu ziren, eta ez zen egin beti Konstituzio edo Arau Sinodotarren argitalpen inprimaturik, eta honelakorik egin zenean, Sinodo bakoitzaren aurretik indarrean zeuden Arauak ere jaso ohi zituen edizio berriak (79).

Guri dagokigun honetan, Kalahorra-ko Arau Sinodotarren bi edizio ditugu aintzakotzat hartzekoak (1621ekoa eta 1700ekoa) (80). Euskarari dagozkion izenburuak bakarrik ekarriko ditugu hona (81):

CONSTITUCIÓN X. *Que los Prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christianas, en language acomodado a las Provincias.* [Pedro Manso-ren Araua da hau, 1600].

CONSTITUCIÓN XI. *Dase forma de cómo se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vaquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas.* [Pedro de Lepe-ren Araua da hau (1698), eta 1700ean lehenengoz inprimatua].

(78) Ikus Sáinz Ripa 1994-1997: III, 84, 334, 384-385.

(79) Arau Sinodotarren segidakotasun horren zenbatekoa ezagutzeko ikus, adibidez: Sáinz Ripa 1994-1997: III, 357, 389, 500.

(80) Pedro González de Castillo Gotzainak argitaratu emandakoa: (1621): *Constituciones Synodales del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Viuda de Alonso Martín. Pedro de Lepe Gotzainari zor dioguna: (1700): *Constituciones Synodales antiguas, y modernas del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Antonio González de Reyes. Ik. faksimilean azalak eta zenbait testu: Intxausti 1990: 81-82.

(81) Testuak Rementeriak osorik emanda: Agirrebaltzategi/Amundarain 1975: xviii-xix.

CONSTITUCIÓN XII. *Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence.* [Pedro Manso-ren Araua da hau, 1600].

Aurrekoen erabakiek eta praktikak erakutsitakoa osatzen duen Lepe-ren Arauak honela dio (1698ko Sinodokoa da) (82):

Don Pedro Lepe, en Logroño, año de 1698. Es nuestro ánimo que la Constitución antecedente [X.a alegia] se observe como sana, y saludable, en quanto ser pueda. Mas aviendo mirado con atención todas las cosas que pueden ayudar à este santo intento en las Provincias Vazcongadas, hallamos que no es fácil dar impresso texto, ó explicación de Doctrina Christiana, que uniformemente pueda servir en todas las tierras, en donde se habla este Idioma, por la mucha diferencia que ay del Vazquence de unos lugares à otros, según la mayor o menor distancia, que entre ellos ay, de la fuente, y origen de la lengua Vazquence: de donde nace, que en unos pueblos no se entiende aquella lengua perfectamente, la qual en otros es usual, y materna. Y para dar forma con que todos tengan explicación conveniente de la Doctrina Chritiana: Ordenamos y mandamos, s.s.a. que se haga una breve explicación de ella, por persona docta, en cada una de aquellas partes, en donde es común, y sin óbice alguno el Idioma Vazquence: y esta se comuniqué a los Curas de aquella circunferencia, en donde se habla el Idioma, con aquel uso de voces. Lo qual encomendaremos à personas inteligentes, y de doctrina: que sin duda alguna las ay en el Vazquence. Y hablamos de experiencia, por haver encontrado en todas partes Sacerdotes con caudal de Sciencia, muy competente para enseñar a otros. Y el quaderno, que en cada parte se hiziere, fácilmente se puede dar à la imprenta, para la mayor facilidad en la comunicación.

Hauk izango ziren, 1862a arte, Kalahorrako Diozesian indarrean egon ziren Arauak. Hirurak dira interesgarriak, baina Lepe-rena areago, euskalkiei erreparatzen dielako eta elizgizonen prestakuntzaz dioenagatik. Lepe hau ez zen maingua.

María Moliner-en gaztelaniazko hiztegiara joaten bazarete, esaera zahar hau aurkitu ahal izango duzue: «Sabe más que Lepe», edo «Sabe más que Lepe, Lepijo y su hijo», eta hiztegiak, errakuntza kronologiko batekin bada ere, berorien esanahia eta historia azaltzen dizkigu: ‘ser muy astuto’ esan nahi omen du, eta «del n. de D. Pedro de Lepe, obispo de Calahorra –siglo XV–, famoso popularmente por su sabiduría» omen dator esaera. XVII.ean Kalahorrrak izan zuen Gotzainik baliozkoena izan zen agian.

Aipatutako Pedro Manso 1593.1612), Pedro Gz. de Castillo (1614-1627) eta Pedro Lepe (1686-1700) Gotzainen albisteak biltzeko Sáinz Ripa-ren liburura jo behar da (83). Kristau Ikasbideak (‘dotrinak, katiximak’) argitaratzea eta predikua egokiro antolatu eta zaintzea guztiz premiazkoa zen garai haietan, fededunen beharrei eta klero diozesitarraren ezinei aurre egiteko, izan

(82) Constituciones Synodales 1700: 126-127. or.

(83) Sáinz Ripa 1994-1997: III, 327-364 (P. Manso), 369-396 (P. Gz. de Castillo) eta 485-504 (P. Lepe).

ere herrietako apaizen prestakuntzak ez baitzuen ematen, orokorrean eta Seminario faltaz, Lepek bere Arau Sinodotarrean aipatzen dizkigun gutxi batzuen maila onik. Seminarioaren eratzea atzeratuz joan zen luzaro, Kalahorrakoa 1781ean eraiki zen arte (84). Hutsune horren ondorioz nabaria zen apaizeriaren kultura apala (85).

Arauk arau, oraindik ere jakiteko egarriz gaude lege haiek eliz burubi-de praktikoan nola bete ziren. Rementeria-k eman zigan argitara euskal Katiximen historia, bere azterlan zabalago baten laburpen gisa, baina azken hau, uste dudanez, bere osoan ez da kaleratu. Rementeriaren «Euskal «Kristau Ikasbideen» historia laburra», *Kristau Bidea* izenburuarekin argitara emandako «Nimegako Katekesi Institutuaren» (Herbehereak) liburuko hitzaurrea da (86).

Rementeria dotrinen ugaritasunaz mintzatzen da. Euskaraz argitara emandakoek Ripalda (1591) eta Astete-renak (1599) izan zituzten jatorrizko testu edo iradokizun. Asteterena 30 aldiz baino gehiagotan eman zen argitara; Ripalda, gutxiago (87). Zalantzarik gabe, euskal argitalpenen historian ugariena izan dena dotrina hauena da (88).

5.2.2.3. Iruñeko Diozesian

Sinodoekin edo Sinodoetatik kanpo, Nafarroan ere Iruñeko Diozesiak ez zion ez-ikusi egin aurrean zeukan gizarte euskaldunari, Jimeno Jurio-k «Política, religión y lengua en el siglo XVI» kapitulu batean erakutsi digun bezala (89). Baina kosta zitzaion ondo! Rojas y Sandoval-ek (1588-1596) Sinodoa bildu zuen 1590ean, eta Arau Sinodotarrak laster eman ziren argitara: euskaldunen euskarazko zerbitzu pastoralaz ez da deus ageri (90). Bestalde, ez di-

(84) Sáinz Ripa 1994-1997: III, 84, 85, 86-87, 390, 486, 503; IV, 203-208.

(85) Sáinz Ripa 1994-1997: III, 49, 75, 83-86.

(86) AGIRREBALTZATEGI, P.; AMUNDARAIN, D. (zuzendari/zuzentzaileak) (1975): *Kristau Bidea*. Arantzazu: Jakin. XVII-XXIV. Ik., gainera, AGIRRE, P. (1998): «Belaiperez», in: *ASU*. XXXII-2, 340-351.

(87) Asteteren edizio-multzo baten berri: Vinson 1891: 62-64 zenbakiak (1742-c.1760), 67 (1862), 68 (1821-1866), 69 (1849, 1889), 70 (1867-79), 74 (1744-1854); Ripaldarena: Vinson 1891: 94-97. Astete eta Ripalda-ren dotrinek Espainian izan zuten hedapenaz: García Villoslada 1980: III/1º, 363-367.

(88) Vinson 1891-k gutxienez ondoko zenbaki hauetan ematen du dotrinen berri: 6 (Beto-latza, 1596), 64 (Beriain, 1626), 24 (Ripalda, 1656), 25 (Pouvreau, 1656), 41 (1686), 42 (Zubia, 1691), 43 (Belapeire, 1696), 44 (Maitia, 1706), 45 (Otxoa Aringoa, 1713), 52 (Artzadun, 1731), 54-55 (Harostegi/Lavieuxville, 1733), 57 (Eleizalde, 1735), 60 (Aulan-Akize, c. 1745), 65 (Arrue, 1858), 66 (1864, 1887), 84 (Lariz, 1757-1773), 71-73 (*Iruñea*, 1826-1875), 126 (Ubillos, 1785).

(89) Jimeno Jurio 1997: 67-101.

(90) Jimeno Jurio 1997: 83. Sinodoaz orokorrean: GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1985): *Historia de los Obispos de Pamplona*. IV. Siglos XVI. Pamplona: Ed. Univ. de Navarra/Insti. Príncipe de Viana. 562-565.

rudi 1596ko *Cartilla para enseñar a leer a los niños, con la doctrina cristiana* hartan euskaraz ezer sartu zenik.

Dena den, hizkuntza arrazoiengatik, Elizaren Administrazio zuzenak eskatzen zituen gutxieneko neurri batzuk hartuta zeuden: Diozesiarentzat eta bertako Gotzaintzat Nafarroa ez zen elebakarra, eta ez zen tratatu behar halakotzat; aitzitik, herri eta gizon-emakume euskaldunak daude, alde batetik, eta erdaldunak, bestetik. Hasteko, errealitate bikoitz horren egiaztapenaren frogarik ageriena 1587ko Erregistro sonatua da, Nafarroako herrien hizkuntz araberako geografia aurkezten duena (91).

Eta ondoren eta ondoan, Pastoraltzako hizkuntz eskakizun aitortuak daude (92) eta Gotzainen Bisitaldietako oharretan ikus daitezkeen lekukotasun idatziak, 1600.eko bueltan agertzen zaizkigunak (93). Manso Kalahorra-n ari den bitartean, Mateo de Burgos^{oim} Gotzaina ari da Iruñean (1600-1606) erabakiak hartu eta arauak ematen. Beronen Gotzain-Bisitaldietan errepikatuz joan den esaldi bat dago (94):

Item que el abad [=Errektoreak] declare el Santo Evangelio todos los domingos y fiestas de guardar, y enseñe la doctrina cristiana a sus feligreses en vascuence explícitamente, de manera que lo entiendan y deprendan.

Honek guztiak, Pastoraltzarako apaiz euskaldunak eskatzen zituen (95), eta herrien administrazio eta justizia onerako eskribau, epaile eta interpretariak ere (96). Euskarak bere ofizialtasun-maila zuen, Iruñeko Diozesian, Administrazioako paperak euskaraz ematera iritsi gabe, noski, baina predikuan eta katekesian arrazoizkotasun normaldu mintzatu bat ofizialki onartu eta ezarriz. Horretan Erret Administrazioak baino arreta eta irizpide zabalagoak zituen Elizak, nahiz eta Erret Kontseiluko Ordenantzek ere aintzakotzat hartzen zuten Nafarroako izaera elebiduna, zeharbidez onartuz lekuko euskaldunen euskarazko azalpenen balio juridikoa (1594) (97).

Baina, zalantzarik gabe, Errektoreek tresna idatziak ere behar zituzten dotrina mintzatua ongi finkatuta uzteko. Horregatik, Bilbon bezala (Betolatza, 1596) Iruñeko Diozesian, lehenik Kristau Ikasbideak prestatzen dituzte, seguraski zerbait zabalagoren itxaropena galdu gabe: esan dugun Eltso-rena (1561),

(91) Aurkezpena eta oharra: Jimeno Jurio 1997: 83-95. Muga-marra bezala baino aldatuz doan mugalde gisara ulertu behar da horko lurralde banaketa.

(92) JIMENO JURIO, J. M. (2004): *Retroceso Histórico del euskera en Navarra*. Pamplona: Pamiela. 28-29, 32-33, 36, 49, 55, 125-126, 133-138, 146-149, 158-160, 186, 196-212, 219-225, 230-234.

(93) Jimeno Jurio 1997: 104-107.

(94) Jimeno Jurio 1997: 109.

(95) Jimeno Jurio 1997: 111-114.

(96) Jimeno Jurio 1997: 114-118.

(97) Jimeno Jurio 1997: 114.

diru faltaz argitara ez zen Ripalda-ren itzulpen gipuzkoarra (Arrieta, 1609) eta, agian, galduta dugun besteren bat. Izatez, Mezaz eta Ikasbideaz diharduten Beriain-en bi liburuxkek emango diote une honi bere ukitu nafarra, argitaratzearekin batera ekimen horren arrazoiak ere adieraziz: *Tratado... de oir Misa* (1621) eta *Doctrina Christiana* (1626) (98).

Elizbarrutiko euskararen ofizialtasun-maila horrek bere horretan iraun zuen. Horren lekuko adierazgarria da (bere alde on eta eskasagoekin), XVIII.aren hondarretan funtzionari *bascongado* eta *romanzado*-en arteko auzia.

1512az geroztik joera gaztelazaleak indar berriak hartuta ditu Nafarroan, eta euskara, aldi berean, ahulago ageri da: Aldatu behar baldin bazen, zer zen, bada, aldatu behar zena ofizialtasun hartan? Galdera honek, eta beronen inguruko eskubideek eta interes kontrajarriek auzitara jo zuten, eta artxibo-papereetan zehazki jarrai daiteke eztabaida XVIII.eko hondarretan (99).

Kalahorran bezala Iruñean, eliz euskara idatzi baterako (eta predikurako) lehenengo urratsa emanda zegoen, bada; baina hurrengo handiagoetarako Hegoaldean ez zen bildu aski indar eta erabaki: Iparraldeak hartu zion aurrea Hegoaldeari, beste Eliza batetik Leizarragak berrogei urte lehenago Eliza Katolikoari bezala. Eliz euskara idatziaren bigarren aukera gertatu zen hau.

5.3. Eliz literaturako lagin bat, Iparraldean (1596-1789)

Euskara idatziaren eliz historia osoari heldu gabe, Aro Modernoan ikus daitekeen lehenengo ahalegin handiari begiratuko diogu hemen, idazleok zer eman zuten ikusteko ez ezik, Hierarkiak ere lehenetsunak non jarri zituen jakiteko.

Eremu horretan, esan dugunez, bi data sinboliko hartu ditugu mugapen kronologikoa ezartzeko:

1. 1596koa, alde batetik: urte hartan heldu zen Pedro Agerre «Axular» Iparraldera. Eliz Erretore berri hau (1600) gertatu zen gero Lapurdiko idazle-talde baten aitagoia. Urte-modu haietan, 1598an, Bertrand Etxauz etorri zen Baionara Apezpiku, eta honengan aurkitu zuten lehen apaiz idazleek aterpe hierarkikorik onena.

(98) Rementeria 1975: xix, xxi. Jimeno Jurio 1997: 79 (Azpilkuetak aipatua).

(99) JIMENO JURIO, J. M. (1998): *Navarra, Gupuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Pamplona: Pamiela. Jimeno Jurío 2004: passim.

2. 1789koa da beste mugari kronologikoa: Frantziako Iraultza. Iparraldearentzat historia mota berria hasten da Iraultzarekin, eta euskarazko idazketan ere aski berritasun eragingo du gertakari hark, euskal Literatura eta Eliza luzaro markatuko dituena.

1596-1789 urteek ia bi mende osatzen dituzte, eta lehenengo loraldiaren ondoren (1617-1643), segida sostengatua ezagutu zuen euskara idatzi inprimatuak. Orduan eta gero (kasik XX. mendeko azken laurdena arte) eliz argitalpenak izan ziren nagusi, alde handiz, euskal produkzioan; baina,aldi berean, egon zen idazletan jende paisanorik, eta gaietan elizatik kanpokorik ere. Produkzio ez-eliztar honek badu interesik gero ikusiko dugun eliztarraren esanahi historikoa hobeki ulertzeko ere.

5.3.1. *Ekoizpen ez-eliztarra*

Garaiko euskal idazle ipartarren artean, elizgizonak ez diren bi izen leinargi bederen baditugu: Allande Oihenart (†1657) eta Joanes Etxeberri Sarakoa (†1749), idazle jakitunak, idazle erlatiboki emankorrak; beste gutxi batzuekin osatuko zuten gai ez-eliztarrak erabiliko zituztenen taldetxoak. Gainerakoan, horien ondoan, dozena-erdiren bat lagun dugu.

Euskara gai-eremu ez-eliztar ezberdinetara eramango duten hauetako gehienak sekularrak izango dira, herritar eskolatuak (100). Bi mediku ditugu (Etxeberri Sarakoa eta Ihartze), legegizon bat (Harriet notarioa, baina Oihenart ere abogatu zen) eta maisu bat (Egiategi); bestalde, gai «mundutarrak» erabiltzen bi apaizek behintzat lagundu zuten (Mikoleta bilbotarrak eta Kardaberaz josulagunak). Gainerakoen albiste zehatzik ez dut eskura.

(100) Ondoko laukitik kanpo utzi ditugun hiru izen sekular gogoratu nahi ditut hemen: Lazarraga, Garibai eta Oihenart; dakigunez, hirurak ere puntareneko izenak gure historian: azken biak errefrau eta olerтира mugatu ziren, eta lehenengoaren obra galdurik egon da orain arte. Lazarragaren testuak Internet-en aurki daitezke (www.gipuzkoakultura.net/lazarraga), eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara emandako CDrom-ean: *Lazarragaren eskuizkribua. XVI. mendea*. Pentsan iruzkinik ez da falta izan, eta bidean da jada hainbat azterlan. Edizio transkribatua, aldakin faksimilarekin batera inprimatuta, Urkizuk paratu du lehenengoz: PEREZ DE LAZARRAGA, JOAN (2004): *Dianea & Koplak*. Donostia: Erein. –Garibai-ren *Refranes y Sentencias*-en edizio kritikoa: LAKARRA, J. (1996): *Refranes y Sentencias (1596)*. Ikerketa eta edizioa. Bilbao: Euskaltzaindia.– Oihenart-en obra: OIHENARTE (1971): *Atsoitzak eta neuritzak*. Donostia: Editorial Herri-Gogoa. (Larresoro-k prestatutako argitaldia. E. Goyhenetxeren hitzaurrea). Ikus, gainera, VARII (1994): *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker 8, Bilbao, Euskaltzaindia.

Hona, bada, eskuartean dugun zerrenda laburra:

GAI EZ-ELIZTARRAK EUSKAL PROSAN (1617-1789)

Urtea	Idazlea	Izenburua	Gaia
1620	Voltaire	Thresora hirur lenguaietakua (101)	Hizkuntzak
(1653)	R. Mikoleta	Modo breve de aprender la lengua vizcayna (102)	Hizkuntza
1677	P. Etxeberri	Itsasoko nabigazionekoa (103)	Nabigazioa
(1692)	M. Dasantza	Laborarien abisua (104)	Nekazaritza
(1712...)	J.Etxeberri Sarakoa	Obras Vascongadas (1907) (105)	Hizkuntza...
1741	M. M. Harriet	Gramatika eskuaraz eta frantzesez (106)	Hizkuntza
1761	A. Kardaberaz	Euskeraren berri onak (107)	Erretorika
1783	M. Ihartze	Mirikuntzaren gainekoak (108)	Sendagintza
1785	J. Egiategi	Filosofu huskaldunaren ekheia (109)	Filosofia
1789	Lapurdiko Biltzarra	Botuen eta instrukzioenen Kaierra (110)	Politika

(101) Ik. Vinson 1891: 55-64. or. (12. zenb.). 1620 ingurukoak izan daiteke lehen edizioa eta datatu edo datatugabeko ondoko inprimaldiak izan zituen gero: 1642, 1684, s. d., s. d., s. d., s. d., 1845, 1872.

(102) Villasante 1961: 97-98. or. Vinson 1898: 667, 786, 789. or. Lehen argitalpena 1880an egin zitzaion.

(103) Izenburua osorik: *Librvrhauada jxasoco nabigacionekoa. Martin de Hoyarزابalec egiña Francezes. Eta Piarres Detcheverry, edo Dorrec escararat emana*. Baiona, 1677. Vinson 1891: 129-132 (37. zenb.); Villasante 1961: 94.

(104) Villasante 1961: 94. or. Daranatz-ek paratutako edizioa: RIEV/RIEB. V, 1911, 585-600.

(105) Urkixori zor zaio izenburu horrekin egindako lehenengo edizio osoa: (1907): *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas por JULIO DE URQUIJO E IBARRA*. Paris: Paul Geuthner. Bere garaian argitaratu emandako idazlan bakarra: (1718): *Lau-Urdiri gomendiozco carta, edo guthuna*. Baiona: Mateo Roquemaurel. Vinson 1891: 100. or. (47. zenb.); Villasante 1961: 101-107. or.

(106) Harrieten idazlanaren izenburua: (1741): *Gramatica eskuaraz eta francesez, compo-satva francez hitzcuña ikhasi nahi dutenen faboretan*. M. M. HARRIET, Notari Erreialac. Baiona: Fauvet alarguna eta J. Fauvet. Vinson 1891: 185. or. (61. zenb.); Villasante 1961: 108. or.

(107) Kardaberaz-en idazlan hau apartekoa da autore beraren gainerakoan artean, eliz gaia ez darabilelako. CARDABERAZ, A. (1761): *Eusqueraren berri onac: eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac: Cura Jaun ta escola maisu celosoai Jesus-en Compañiaco Aita Agustín Cardaberaz ec esqueñtcen, ta dedicatcen dieztenac*. Iruñea: Antonio Castilla. Vinson 1891: 208. or. (91. zenb.); Villasante 1961: 141-146. or. Edizio kritikoa: ALTUNA, P.; ZULAIKA, E. (2004): *Evsqueraren berri onac*. Bilbo: Euskaltzaindia.

(108) Titulu osoa: *Miricountzaren gaineco popoulouiaren faltac, libourou, oficio hartaco eçtirenen arguitceco, Miricountzaco therrmino bada eta eçbada cerbitzatou behar içandirenen es-plicacioniarekin. De Ihartze, Escoutari, Miricou, eta Erregueren Miricou icendatouiçac eguina*. Paris, 1783. Vinson 1891: 233-234 (124. zenb.).

(109) Izenburu osoa: (1785): *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia. Juseff Eguittegy, Zuberoan Errejent denaren obra. Frankfort-en Beiñat Edelman-en Moldizkidiatik*. Frankfort: B. Edelman. Edizio kritikoa: PEILLEN, Tx. (1983): *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

(110) Vinson 1891: 248-250 eta 251 (133-141. eta 144. zenb.). RICA, M. (1975): «Tra-duction en basque de termes politiques sous la Révolution», in: ASJU. IX, 3-175.

Voltaire-ren idazlana salbu (seiren bat argitaraldi Iraultza-aurretik), gainerako argitaratutako guztiek edizio bana izan zituzten hemen aintzakotzat hartzen dugun epealdian eta adierazita dauden urteetan. Baina, data parentesi artean dutenak (Etxeberri Sarakoaren idazlanetako «Lau-Urdiri Gomendiozko Karta» izan ezik: 1718) beren garaian argitara gabe geratutakoak ditugu. Hortaz, berez murrizta den produkzioa are murriztazago bilakatu zitzaizen garaikoei; isildurik geratutakoa, gainera, obrarik estimagarriena izan zen, zenbait aldetatik (Etxeberri Sarakoarena).

Beraz, nabardura horiekin, bere garaian ezagutu ahal izan ziren laukiko idazleak hauek ditugu: Voltaire, P. Etxeberri, Harriet, Kardaberaz, Ihartze eta Egiategi. Sei luma ezberdin, eta azken orduko Lapurdiko Biltzarra.

Euskal prosa ez-eliztarra, bada, muga oso hertsietan zebilen, artean. Gainerako literaturetan gertatu izan denaren antzera, olerkiaren atzetik etorri zen hitz-lauzko lanketa, eta paremiologiari edo olerkiari errazago heldu zioten gure idazleek, prosa-lanari baino (111). Errefrauen mundu hori ez dugu jaso laukian, ezta idazlan guztiz laburrak ere (112).

Jatorrizko edizioen orrialdeetan, hiru argitalpeni aitortu behar zaio lehenengotasuna: Vinson-en datuen arabera, Harriet-en *Gramatika*-k 512 orrialde zituen, 465 Ihartze-ren liburuak eta Voltaire-ren *Thresora* 280 orrialdetara iritsi zen; esan bezala, azken honek, gainera, edizio-kopuru errespetagarria izan zuen. Eskueran den aipatutako edizioan ikus daiteke Egiategiren ekarpena.

Burututako lanean hizkuntzaren gaia da gainerakoen ginetik, nagusi eta zabal: Voltaire, Mikoleta, Etxeberri Sarakoa bera, Harriet, Kardaberaz. Euskara buruhaustea da, ikasi eta irakatsi behar dutenez (nolabait ere elebarkatasunaren kanpoarekiko isolamenduari gaina hartu beharra); bestalde, inguruan entzuten diren euskarari buruzko eztabaidetatik geure mesedetan zerbait ikasi beharra sentitzen da (Etxeberri Sarakoa), edo euskara duintasun berri batera eraman nahia (Kardaberaz).

Horren ondoan, bizitzako premia praktikoak ere agertzen zaizkigu: laborari eta arrantzaleen ekonomia eta lana (P. Etxeberri eta Dasantza), eta garai-ko hainbeste izurrite eta gaixotasun menderatu ezinen artean, osasuna zaindu beharra (Ihartze). Eta gutxienean espero genezakeena: «Filosofo huskaldun» bat agertu zitzaigun, non eta Alemaniako Frankfort-en kaleratua Frantziako Iraultzaren bezperan (1785).

(111) URQUIZU, P. et al. (2000): *Historia de la literatura vasca*. Madrid. UNED. 71-73, 151-155, 214-217. Gogora hainbat biltzaile: Garibai (1592, 1596), Zalgiz (c. 1610), Voltaire (1620), Isasti (1625), Oihenart (1657, 1664), Bela (a. 1667), Larramendi (1745), Egiategi eta abar (hauek ere ez denak bere garaian argitara emanak).

(112) Ez ditugu bildu hona hamar-hogei orriko liburuxkak, eta liburu eginagoetara mugatu gara. Horretan, Dasantzaren lana izango litzateke salbuespen bakarra (RIEV/RIEB. V, 1911, 585-600).

Hauek izango lirateke beren testu-masagatik, gero ikusiko ditugun garai bereko idazle eliztarren idazlanen parekoak izan daitezkeenak. Gai biziki ezberdinak dituzte, eta hastapen llabur honek ez zuen lortu eremu bakoitzean euskal prosa finkaturik sortzea: betiere ahalegin solteak eta segidarik gabe-koak izan ziren.

Garai berrien aldakuntza unean, sinbolikoak gertatu ziren Lapurdiko Biltzar-rrak bere diputatuei euskaraz emandako *Kaierra* eta berehala Iraultzak sustatu zituen itzulpenak, gure euskal Erakundeek lehenago egin ez zutena behingoz behintzat eginez: erakundeetako bizitza eta ideia politikoak euskaraz eman (113).

Beren bakantasunean beste hainbat perla dira idazlanok, eta, esan bezala, salbu Voltaire-rena (9 edizio), ia beti argitaraldi bakarrekoak, eta inoiz orrialde gutxikoak ere (Dasantza-ren kasua, e. b.).

Oro har, uzta ez zen izan aberatsegia (baina bai batzuetan ausarta), eta garaiko hitz-lauzko idazlan handi, ugari eta hedatuena ez dira hauek izango, ondoren ikusiko ditugun argitalpen eliztarrak baizik.

6.2. Argitalpen eliztarrak

Bi epetan bana genezake Iparraldean XVII-XVIII. etako eliz literatur historia: Axularren Erretore-aldiak hartuko lukeena bata (1600-1643), eta haren inguruko idazle-taldearen ondorengoa bestea, mende eta laurden pasatxoa bersarkatuko lukeena (1650-1789).

Eliz idazketaren lehen loraldiak bere alde eta kontra izandako egokiera historikotik nahitaez hona ekarri beharra dago garaiko hainbat joera, kezka eta gertakari, batzutan geureak eta bestetan testuinguru orokorretik gu ere ukitu gintuztenak.

Besteak beste ondoko hauek, behintzat, badute zer ikusirik euskal eliz literaturaren loraldi honekin:

1. Trento-ondoko eliz Erreforma (1562...), Frantzia osoko Eliza eta Euskal Iparraldekoa ekimen berrietara bultzatu zituena (114).
2. Erreforma kalbindarraren parioa hurbila eta arriskutsua izan zen Eliza Katolikoarentzat, eta hark mahai gainean utzitako eliz euskara idatziaren proposamena, teorikoa eta praktikoa, hor zegoen betiere (Biblia, Katekesia, Otoitz-liburuak) (115).

(113) Vinson 1891: 248-250. or.; Urquizu et al. 2000: 274-276.

(114) Ik. «La renaissance catholique dans la première moitié du XVII^e siècle», in: LATREILLE, A. et al. (1963): *Histoire du catholicisme en France*. Paris: Spes. II, 271-349. MOREAU, R. (1970): *Histoire de l'âme basque*. Bordeaux: Imprimerie Taffard. 209-238.

(115) Intxausti 1995: *passim*.

3. Triskantza odoltsu eta mingarria izan zen Frantziako Erlijio-gerrena, Nafarroako Erregina tarteko zelarik (1562-1598).
4. Berrikitan (1609-1611), morisko espainolen bat-bateko etorrerak zenbateraino astindu ote zituen Lapurdiko kostaldeko lurak? Erronka sozio-erlijioso berriei erantzun beharra erakusten zuen horrek ere (116).
5. Bertrand Etxauz-ko apezpikuaren babesba badirudi erabakigarria izan zela, Baionako Gotzain zelarik, noski (hogei urtez: 1598-1618); baina baita geroago ere, hil arte (Tours, †1641): Hierarkia, beraz, hor dago kultur ahalegin honen hasieran, Axular-ek berak eta lagunak aitortzen digutenez (117).
6. Baina egokiera aparta idazle protagonistak berak dira: apaizarte euskaldun prestatuago baten presentzia –batzuetan Unibertsitateetan ibilia– erabakigarria suertatu zen (118).
7. Ziburuko frantziskotar errekoletoen komentuak eskaintzen zituen aukerak (bilera-leku eta apaizentzako Ikastegia) ez ziren galdu, nonbait, izan ere Etxauz-ek asmo guztiz sortua zen komentu-etxe hau (1611). Herrietan banandutako apaizek lagunarte kezkatu eta eskolatuagoa izan zuten bertan (119).

Badirudi aipatu izan den garaiko jasoaldi ekonomikoa ez dela, beste gabe, aintzakotzat hartzekoa, eta hipotesi hori eskuera dauden datu berrietara ekarri behar dela (120). Historian jakina denez, batzuetan egoera eskasago edo txar bat sustagarri ere gerta daiteke gizartean (ekimen berriak pizteko, iraultzara jotzeko, etab.), eta garaiko zailtasunek ere «lagundu» egin zuten, itxuraz.

Ezingo dugu esan gabe utzi beste datu jakingarri bat: Baiona eta Oloroko Apezpikuei dagokiena. Bi Diozesietan zenbait Gotzain euskaldunekin topo egiten dugu, kalitateko gizonak dira eta euskarazko pastoraltzaz ardu-

(116) ECHEGARAY, B. (1945): «¿Se establecieron los moriscos en el País Vasco de Francia?», in: *Bulletin Hispanique*. XLVII, 92-102.

(117) AXULAR, P. (1976): *Gero (Después)*. Arantzazu: Jakin/efa. 4-9: «Gomendiozko karta», inondik ere protokolo hutsa ez dena.

(118) Hala ere, badirudi, Hegoaldean bezalatsu Iparraldean ere, Seminariorik ezean apaizgaien prestakuntza nahikoa mugatua zela. Moreau 1970: 218-219.

(119) Axular 1976: 13. «Egun batez, konpainia on batean». Materre-erikoko xehetasun guztiekin ez bada ere, gogoan har Villasanteren oharra. Ziburuko komentu horren historia ik.: INTXAUSTI, J. (1998B): *Euskal historialariak eta frantziskotarrak. Azterketa historiografikoa*. Arantzazu: efa. 170-178.

(120) GOYHENETCHE, M. (2001): *Histoire Générale du Pays Basque*. III. *Évolution économique et sociale du XVIe au XVIIIe siècle*. Donostia: Elkarlanean. 47-65, 109, 169-171.

ratuak; beren laguntzaz edo erabakiz emango da argitara hainbat argitalpen, XVII-XVIII. mendeetan (121). Episkopologio honen historia egiten hasi gabe (122), aski izan bedi hemen beren izenak eta Gotzainaldiak adierazita uztea:

GOTZAIN EUSKALDUNAK (BAIONA, OLOROE, XVII. MEND.)

Apezpikua	Egoitza	Gotzainaldia	Urteak	Orotara
B. Etxauz	Baiona	1598-1618	20	–
Cl. de Rueil (123)	Baiona	1621-1628	7	–
J. Oltza	Baiona	1643-1681	38	Baiona: 65
A. Maitia I	Oloroe	1597-1623	26	–
A. Maitia II	Oloroe	1623-1646	23	–
A.F. Maitia III	Oloroe	1659-1681	22	Oloroe: 71

Hau da, 65 urtetan euskaldunak izan ziren Baionako Gotzainak XVII. mendean, eta Oloroen, berriz, Maitia-tarrek, hiruren artean, 71 urteko Gotzainaldi euskalduna bete zuten. Datua gogoan izatekoa da, uste dugunez.

Aterpe horiekin eta testuinguru zabal hartan loratu zen eliz idazketa katolikoaren udaberri hau. Banan-banan, egindako guztiaren berri ematea ezinezkoa dugu hemen, baina argitalpenen lagin bat bederen aurkeztu nahi dut. Hona, bada, argitalpen nagusien zerrenda hautatu bat.

(121) Moreau 1970: 209-216.

(122) Ik. VEILLET, R. (1910): *Recherches sur la Ville et sur l'Église de Bayonne*. Bayonne/Pau. I, 189-202 (Etxauz), 204-209 (De Rueil), 228240 (Oltza).

(123) Etxeberri Ziburukoak (1626) euskaldun berritzat edo emana, bere liburuari egindako laudoriozko eta fidagarriegia ez den testu batean. Moreau-k ere bai (213).

IPARRALDEKO IDAZLEEN ELIZ ARGITALPEN LARRIENAK (1617-1789)
(Katolikoan eliz eta fede-bizitzarako liburuak)

Urtea	Idazlea	Liburua	Orriald.	Ediz.	Oharrak
1617	Estebe Materre	<i>Dotrina christiana</i> (124)	383 ²	5	
1635	Joanes Haranburu	<i>Devocino escuarra</i> (125)	512 ¹	5	
1636	Joanes Etxeberri	<i>Eliçara erabiltceco liburua</i> (126)	542 ¹	3	
1641	P. Argaignarats	<i>Avisu eta exortationea</i> (127)	372	1	
1643	P. Agerre Axular	<i>Gvero</i> (128)	623 ¹	2	
1656	Silvain Pouvreau	<i>Guiristinoaren dotrina</i> (129)	307	1	Richelieu-ren itzulpena
1664	Silvain Pouvreau	<i>Philotea</i> (130)	557	1	S.Frantzisko Saleskoarena
1665	Silvain Pouvreau	<i>Gudu espirituala</i> (131)	334	1	Scupoli-ren itzulpena
1686	Bernard Gasteluzar	<i>Eguia catolicac</i> (132)	479	1	
1716	–	<i>Exercicio espirituala</i> (133)	371 ²	7	
1720	Mixel Xurio	<i>Jesus Cristoren imitacionea</i> (134)	426	4	Kempis-ena
1731	Grazien Haroztegi	<i>Bigarren Catichima</i> (135)	467 ¹	3	Lavieuxville Apezpikuarena
1749	Joanes Haraneder	<i>Philotea</i> (136)	569 ¹	1	S. Frantzisko Saleskoarena
1750	Joanes Haraneder	<i>Gudu izpirituala</i> (137)	355 ¹	1	Scupoli-ren itzulpena

(124) Vinson 1891: 51-55; Villasante 1961: 69-70. Ik. DEDIEU, h. (1977): «Etienne Materre, franciscain français écrivain d'expression basque», in: *Bulletin du Musée Basque*. 1977, 97-100.

(125) Vinson 1891: 74-76; Vinson 1898: 542; Villasante 1961: 72.

(126) Vinson 1891: 76-78; Villasante 70-71 (2. edizioko orrialdeak).

(127) Vinson 1891: 85; Villasante 196: 72.

(128) Vinson 1891: 86-92; Villasante 1961: 72-83.

(129) Vinson 1891: 98-99; Villasante 1961: 83-86.

(130) Vinson 1891: 109-114; Villasante 1961: 83-86.

(131) Vinson 1891: 114-123; Villasante 1961: 83-86.

(132) Vinson 1891: 135-137; Villasante 1961: 90-91.

(133) Vinson 1891: 149-160; Vinson 1898: 568-570; Villasante 1961: 112.

(134) Vinson 1891: 162-166; Villasante 1961: 107-108.

(135) Vinson 1891: 178-180; Vinson 1898: 571-572; Villasante 1961: 113. Gogoan har bedi *Bigarren Catichima*-ri dagokion oinarizko Katixima txikia, hainbat argitaraldi izan zituena (Vinson 1891: 173-178; Vinson 1898: 571-572).

(136) Vinson 1891: 197-198; Villasante 1961: 108-109.

(137) Vinson 1891: 198-199; Villasante 1961: 108-109.

Urtea	Idazlea	Liburua	Orriald.	Ediz.	Oharrak
1758	Baionako Diozesikoa	<i>Eucologia Tipia</i> (138)	547+ccxx	2	Frantsesekotik itzulia
1759	M. G.	<i>Jesusen Bihotz sakratuaren... devocionea</i> (139)	512 ²	1	Frantsesetiki tzulia
1775- 1777	Beñat Larregi	<i>Testamen çaharreco eta berrico historia</i> (140)	377+454	1	Royaumont-en obra itzulia
p.1775	– (Barkoxekoa)	<i>Uscara libria</i> (141)	350 ⁱⁱ	1	
1778	Alexandre Mihura	<i>Andredena Mariaren Imitationea</i> (142)	305	1	Hérouville-ren itzulpena
1782	López	<i>Perfeccioniaren pratica</i> (143)	466	1	A. Rodríguez- en itzulpena
1784	Andre Baratzart	<i>Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea</i> (144)	312 ²	2/3	

Iturria: Vinson 1891, Vinson 1898. – Oharrak: Orrialdeen zifra-ondoan eman ditugun superindizeek datuaren edizio-iturria adierazten dute. – Orrialdeen kopurua ez da erabakarrekkoa, baizik eta obra bakoitzeko aipatu edizioan ageri diren orrialdeen motakoa (liburuen arteko orrialdeetako testu-masa berdinu gabea, hortaz).– Edizioen kopurua 1617-1789. urteen tartekoa bakarrik da (ondokoak ez dira hemen jaso).

Lauki honetan ditugun liburuak urte haietan Iparraldean Elizari buruz edo elizarako argitara emandako argitalpenak dira (1617-1789), baina argitalpen haietako edizioen batean 300 orrialdetatik gora izan zituztenak bakarrik eka-ri ditugu hona. Hau izan da laukirako jarri dugun muga, betiere testu-masarik handiena izan zutenak aintzakotzat hartuz, eta balio kualitatiboak albora lagaz (literatur nahiz teologi balioak, esaterako). Beraz, ondoko iruzkinak, eza-rritako muga horien barruan ulertu behar dira (145).

Argitara emandakoak dira, eta ez garai haietatik geratu zitzaizkigun es-kuizkribuak, Haraneder-en Testamentu Berriaren antzera bere garaian egun ar-

(138) Vinson 1891: 205-206; Vinson 1898: 579; Villasante 1890: 113. Ematen ditugun orrialdeak 2. ediziokoak dira (1790).

(139) Vinson 1891: 206-207; Villasante 1961: 111.

(140) Vinson 1891: 224; Villasante 1961: 109-110.

(141) Vinson 1891: 1*, 243-247; 1**, 589-590. Villasante 1961: 113.

(142) Vinson 1891: 226-228; Villasante 1961: 112 (riev/riev IV, 1910, 478).

(143) Vinson 1891: 228-231; 1898: 587; Villasante 1961: 112.

(144) Vinson 1891: 234-237; Vinson 1898: 587-588; Villasante 1961: 110-111.

(145) Salbuespen txiki bat egin dugu, orrialde-kopuru hori 1789tik ondorengo edizioen ba-teen gainditu duen birekin: *Uskara libria* eta *Jesusen Bihotz*-ekin. Haren lehen edizioak (p. 1775) 142 or. bakarrik izan zituen, baina ondoren etorri zen edizio-sail handian (gutxienez 14 izaterai-no) inoiz 386 or. ere izan zituen (1851). Bigarrena, berriz, 1. edizioko 159 orrialdeetatik 512tara pasatu zen 1831n.

girik ikusi gabeak (1740) (146), orduan eta Hegoaldean geroxeago bezala, honelakorik egon baitzen Iparraldean ere (Axular-en «bigarren partea» galdurik dela ere pentsa daiteke!) (147), eta ez derrigorrez zentsura ofizialagatik, arrazoi eta ezin ekonomikoek edo ardurarik ezak horretara eramanda baizik.

Inprimategietan argitara emateko bideak ez zuten, segur aski, sasirik gabekoak izan behar Iparraldean. Badakigu zinez hiri honetako moldiztegi batean inprimatutako lehen liburu 1642koa dela, Vinson-ek esaten digunez (148), eta handik aurrerakoetan ere Baionatik kanpo egin (behar) izan zirela sarritan inprimaketa-lanak geroago ere, XVII.ean noski, baina baita hainbat aldiz XVIIIean ere.

Erran gabe doa, Iparraldeko produkzio osoa aztertu nahi bada (eta ez, hemen egingo dugun lehen hurbilketara mugatu), idazlan larrien hauen ondoan beste hainbat ekarri beharko genukeela hona, et, gainera, kasu batzuetan ez euskal literaturan gutxien entzun edo argitaratuak izan direnak, e. b., Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* (hamarren bat edizio XVII-XVIII.etan).

Gisa berean, nola ahantzi Kristau Ikasbideak, Baionak bezala Oloroek beren diozesietarako hain sarritan atera zituztenak? Zalantzarik gabe, hauek izan ziren (izen eta egile batekin edo besterekin), herritarren eskuetan sarrienik eta gehien zabaldutako eliz argitalpenak. Batzuetan ofiziosoa izan ziren, baina indarrik handiena Katixima ofizialek izan zuten, noski: Pouvreau (1656), Belapeire (1696), Maitia (1706), Aulan (c. 1745), etab. Katixima herritar apalen ondoan inoiz edo bestetan apaizentzako ketekesi-liburuak ere agertu ziren, Lavieuvville/Haroztegi-ren hura bezalakoak (1731).

Jaiera edo deboziorikozko liburuak –sarritan, lehenengoan txikiak, eta gero, hurrengo argitaraldietan haziz joan ohi zirenak– aipatu beharra dago. Gehienak ez dira ageri laukian, orduan (1617-1789) eta gero izan zuten indar guttiarekin, baina garbi dago beren argitara-maiztasunak aditzera ematen digunez, liburu estimatu eta erabiliak izan zirela: otoitzak, kantikak eta santuen bizitzak batera etortzen ziren horrelakoetan. Biblia urrun zegoenez, Iparraldeko kristau katolikoek debozio- eta gogoeta-liburuei heltzen zieten, batez ere. Ikusiko dugu.

Argitalpenen aurreko bi laukiak alderatuz gero (ez-eliztarrak / eliztarrak), lehen begiratuan nabari ageri zaigu gai ez-eliztarren eta elizakoen artean ageri den aldea, idazletan bezala idazlanetan. Ez-eliztarren artean hor ia dena jaso dela esan genezake, zegoen guztia; beste bigarren lauki honetan, berriz, hautatu gutxi batzuk bakarrik, eta, hala ere, eliztarrok beren hautapen mugatuan

(146) Haraneder-en hau Harriet-ek kaleratu zuen 1855ean (Baiona: E. Lasserre), eta berrikitan egin da edizio kritikoa: HARANEDER, I. (1990): *Jesu Christoren Evangelio Saindua*. Bilbo: Euskaltzaindia. (Patxi Altina-k paratua).

(147) Villasante 1972: 96, 121-122.

(148) Vinson 1891: xxviii.

askotxoz ere ugariagoak dira ez-eliztarrak baino, kopuruz eta mamiz: haietatik, hamar idazle aipatu ditugu, bakoitzari lan bana dagokiola (Etxeberri Sarakoa dugu salbuespena); beste hauetan, aitzitik, 21 obra aipatu behar izan ditugu, 18 egilerenak. Bederatzi obra dira XVII.ekoak, eta 12 XVIII. mendekoak.

Garaiko Hegoaldearekin erkatzen bada, Iparraldeak ia mende eta erdiko aurrerapena duela ikus dezakegu: Materreren lana 1617koa dugu, baina Hegoaldean zinezko liburu-idazketaren lana Mendiburu-rekin hasi zela emanez, 1747a arte ez dugu aurkitzen tamaina bertuko libururik (149).

Laukiratu ditugun idazleek zein soslaia sozial eskaintzen dute?

Denetik dagoela esan genezake: apaiz diozesitarrak eta erlijiosoak (baita Iparraldean etxerik izango ez duen josulagunen bat ere), diozesitarren artean Erretore eta Bikarioak (Axular, Argaignarats, Xurio, Harizmendi, etab.), euskalki ezberdinetako idazleak (Lapurditik Zuberoaraino). Azkenik, atzeritarrak ere baditugu, hortxe ausart eta behargin saiatu, bertakoak lotsarazteko moduan.

Dakidanez, herritar laiko eta emakumerik ez da ageri; baina segur aski emakumezkoak izan ziren eliz liburuen erabiltzailerik finenak, *Gero*-ren ale zahar batean ikus daitekeenari jarraiki: «Marianna Galharrague jingoitico ethecho andria da liburu hunen jabea», idatzi zuen bertan etxeokandre baten eskuak (150).

Laukitik, lehendabizi, estreinako bultzada handia eman zutenak gogorazi behar ditugu, Donibane eta Sara ingurukoak. Segida izango zuen euskarazko lehen idazketa abiarazi zuten, hizkuntzaren *idatzasuna* ahalbideratuz; baina ez hori bakarrik: idazketa hori kalitate handi batez hornitu eta loratu zuten, eta ondokoentzako *idatz-eredua* proposatu. Praktikotasunari ez ezik (mezua pasarazteari, alegia), duintasunari eta edertasunari ere begiratu zioten.

Laukian daudenak (Materre, Haranburu, Etxeberri, Argaignarats, Axular) aipatu behar dira, eta baita hor izendatu gabeak ere: Harizmendi, Klaberia, etab. Talde hark elkarren arteko hurbiltasun nabariak erakusten ditu: bata besteen liburuetan onarpen-ofizialak ematen, laudoriozko bertsoak edo hitzaurreak idazten ageri zaizkigu (151).

Batzuetan idazle bat berak liburu bakarra baino gehiago idatzi zuen, nahiz eta laukian ez denak agertu: Etxeberri Ziburukoak hor agerian duena ez ezik

(149) MENDIBURU, S. (1747): *Jesusen Bihotzaren devocioa*. Donostia: B. Riesgo Montero. 387 orrialde; berehala izan zituen beste bi argitaraldi (Iruñea: 1747, 1751), jaiera honek orduan hartutako indarrari erantzunez, noski.

(150) INTXAUSTI, J. (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 85.

(151) Villasante, L. 1972: 90-93.

(*Eliçara erabiltececo liburua*, 1636), beste bi badiu: *Manual devocionezcoa* (1627) eta *Noelac* (1631). Beraz, luma-ofizioko gizona zela esan beharko genuke, «goren kalitateko pertsonaia, eskolatua eta humanista» izateaz gain. Idazten ziharduen garai berean, inguruko lagunei eta euskalgintza berriari bere itzal eta jakinduriaz beste, zituen gidari-dohainak ematea izan zen Etxeberriren zerbitzurik onena.

Idazle-kalitatean guztiok lehenatasuna aitortu dioguna dago: Pedro Agerre *Axular*. Salamankan eskolatua zen Pedro Agerre (1592-1595) (152). Iparraldera joatean (1596), artean ez zen apaiz, izan ere 1596an apaiztu baitzuen Tarbeko Apezpikuak; hortaz, heldutasun onean ordenatu zen, eta zergatik ez dakigula, bere Iruñeko Diozesitik (berea bai, baina jaiotzezkoa ez zenetik (153)) Baionakora pasatu zen (154), eta hasteko, Donibane Lohizunen jarri bizitzen, 40 urte zituela. Saran Erretore izango zen hau (1600-1644) bere heldutasun betean inguratu zen herri horretara. Badakigu predikari onaren sona zuela jada 1601ean, Enrike IV.aren gutun batek dioenez (155). Zahartzaro adinduan, jada hiltzear zelarik, kaleratutako *Gero* (1643), urrundik zetorren prediku-lanen emaitza da. Begi-bistan dagoenez. *Axular* liburu bakarreko idazlea dugu, bizitza osoko liburua osatu baitzuen argitaratutako hartan.

Ongi bertokoak ziren horien ondoan gogoratzekoa da hastapen haietan bi atzerritar nola jarri ziren euskaraz idazten: Estebe Materre eta Silvain Pouvreau. Materre fraide frantziskotarra zen, Saran ikasi zuen euskara eta, inondik ere, euskal apaizarteko giro hartan sartu zen berehala. Berarena izan zen Donibane-Sarakoen lehen liburua: *Dotrina christiana* (1617). Materre-ri bere Probintzia erlijiosoko gobernu-kargutan ibiltzea egokitu zitzaion, beharbada lehenik edo Baionan, baina baita La Réole (Gironde) eta Tolosan ere. Horrek moztu zion, beharbada, hemengo idazle-lana.

Silvain Pouvreau belaunaldi bat geroagokoa da, eta bere argitalpenak 1650-1670.etan eman zituen. Bourges-en jaio, Euskal Herrira etorri eta Saint-Cyran-en idazkaria izan zen; giro hartan euskara ikasi zuen, eta handik urte batzuetara Bidarteko Erretore bilakatu (1640-1644). Laukian ditugun idazleen artean emankorrenetakoa da, Etxeberr Sarakoa eta J. Haraneder-en ondoan. Laukian hiru liburu dituen bakarra da Pouvreau: *Guiristinoaren dotrina* (1656), *Philotea* (1664) eta *Gudu espiritual* (1665). Hirurak dira itzulpenak eta azken bi hauek izpiritualitatearen historian «klasikoak», Euskal Herrietik joan eta gero Parisen kaleratuak. Zinez, funtsezko lan bati heldu zion euskal-

(152) Itziar Mitxelena-k aurkitu zituen Salamankako urte hauetako matrikula-agiriak (1972). Ik. Villasante 1972: 36, 1. oh.

(153) Urdazubi sorterrria Baionako Diozesikoa zen 1556an; pentsa daiteke politikak ezarritako diozesiarteko muga-aldakuntza administratiboak (1567) ez zituela aldatu berehala herritarren Iparralderako joerak, bide eta topografiak ere jendea hara bideratzen zutenean.

(154) Villasante 1972: 38-40.

(155) Villasante 1972: 41.

dun berri honek; zoritxarrez, argitara eman bai, baina ez ziren pasatu lehenengo ediziotik aurrera (156).

Idazle emankorrenen artean sartu behar dira XVIII.eko bi izen, gutxienez: Joanes Haraneder eta Beñat Larregi. Berriz ere, biak dira itzultzaileak, eta Haraneder-en kasuan, itzulpen errepikatuak ditugu, gainera: hau da, Pouvreau-ren lana berririo egin zuen Haraneder-ek lauogeit urte geroago, hark bezala *Philotea* (1749) eta *Gudu espirituala* (1750) ostera euskaratuz eta argitara emanez. Errepikapenaren hau eliz literaturako paradoxetako bat da, Kempis-ekin ere behin eta berriz jazoko dena.

Beñat Larregi-k hartu zuen egitekoa ere zabala izan zen, bi liburuki marduletan emana, eta hau ere itzulpena: Royaumont-en *Testamen çahharreco eta berrico historiao* (1775-1777). Kristau izpiritualitateari begira egindako lanak dira Haraneder-en eta Larregi-ren hauek, eta berauena osatzera etorri zen A. Rodríguez-en *Perfeccioniaren pratica* (1782), Jesusen Lagundiko tradiziotik zetorrena eta López-ek euskaratua.

Ikus daitekeenez, euskal eliz produkzioirik handiena itzulpenena dugu, eta nabaria da kultura beregain batek behar duen baino askoz harago doan itzulpen-gintzaren aurrean gaudela. Euskarazko eliz literaturak, Donibane-Saran halako beregaintasunez jaiotakoak, gerora ez zuen zaindu ahal izan bere testuan hasierako originaltasuna (bere mezuan behintzat segur aski erlatiboa zena), nahiz eta aitortu behar den itzulpen-lanak Teologian eta Izpiritualitatean hizkuntzari eskatzen zizkion trebeziak ontzen lagundu zuela.

Itzulpenen ondoan, azpimarratzekoagoa da mende eta erdi honetan ekoizpen originala egin zutenena: Etxeberri Ziburukoa, Axular, edo Gasteluzar-ena, adibidez. Hitz-lauz eta bertsoz, bietara, egindako azkeneko honen lana merituzkoa izan zen. Euskal Herritik kanpo bizi behar izan zuen Gasteluzar-ek, Pauen, baina euskaldunei behatuz idatzi zuen, eta gero badakigu herritarrek gogoz jaso zizkiotela bere bertsoak elizkizun arrunt eta bestelako ospakizunetan.

Burututako hau guztia ez zen agortu emaitza eman zutenen belaunetan; alderantziz, egindakoa ondokoentzat zinezko ondarea izan zen, eta hainbat kasutan Iraultza-ondoan argitaraldi berriak ezagutu zituzten obra haiek. XIX. mendean, aurrekoetako hauek dira berrargitara emanak, adibidez: Xurio-ren *Imitationea* (4 edizio), Haraneder-en *Philotea* eta *Gudu espirituala* (ed. bana), *Eucologia Tipia* (5 ed.), *Uscara libria* (15 ed., gutxienez) eta apenas aipatu dugun Baratzart-en *Guiristinoqui bicitceko* (12 ed. gutxienez). Liburu txikiagoen artean (laukian jaso gabeetan, alegia) ez da falta horrelakorik: Harozte-giren *Guiristinoen doctrina*-k (1733) XVIII.ean bederatzir argitaraldi izan ondoren, hurrengo mendera luzatu zuen bere bizialdia beste lau edizioekin.

(156) Euskara-frantsesa hiztegi bat ere utzi zuen, baina ez zen bere garaian argitara eman. Villasante, L. 1961: 85.

Axular-en kasua berezia da: 1864an Iparraldean hirugarren edizioa eza-gutu ondoren, XX. mendean Hegoaldean piztu zen *Gero*-rekiko interesa, lehenagoko Añibarro-ren bizkaierazko itzulpenetik hasi eta Urkixo, Lekuona eta Villasante-ren edizioetara nahiz Euskaltzaindiaren edizio faksimileraino (157). Eliz liburu hau euskaldun anitzentzat literatur liburu bilakatu da, hizkuntzaren eskola.

Oro har, 1617-1789.eta Iparraldeko argitalpen larrienek gehien landutako eremuak ondoko hauek izango lirateke:

1. Elizarako eliz liburu orokorrak: aldi berean meza eta sakramentueta-rako testu lagungarri, jaiertzako otoitz-bilduma, kantategi eta inoiz ha-giografia ziren liburuak daude lehenengo. *Exercicio espituala* edo *Eucologia Ttipia* dira adibide onak, edo zubererazko *Uskara libria*.
2. Katiximak: Herriarentzakoak dira ugarienak (laukian ageri ez badira ere) eta apaizentzako «Maisu-liburuak» dei ditzakegunak, Katekesira-ko liburu gidariak. Katiximen hau da Hierarkiak gehien lagundutako eremua.
3. Izpiritualitate-liburuak: Etxerako liburu irakurgarriak dira, bakarka edo sendian irakurtzekoak; normalean, kanpoko Maisu handien obrak di-tugu hauek (*Philotea, Imitacionea*).
4. Jaiera bereziatarako liburuak: Ongi hiltzen laguntzekoak batzutan; ga-raiko zaletasun eta interesei ere erantzuten diete honelakoek (adibidez, Jesus-en Bihotzaren debozioari, XVIII.ean).
5. Predikurakoak: Laukiak partez bakarrik islatzen du (*Gero*) honetarako apaizei proposatutako gida-liburuak, baina ezin dira ahantzi eremu honetan inprimaturik eman ziren langaiak (iganderoko Ebajelio-ondoko oharrak: *Pronus* deituak, esate baterako).
6. Bibliaren mundua: Biblia oso modu mugatuan iristen zen herrira (norberaren etxeko irakurgai arrunt izatera heldu gabe, eta ia beti Liturgia ofizialaren kariatara); hutsune hori estaltzeko Larregik itzulitako *Tes-tamen çaharreco eta berrico historiao* dago (1775-1777) jasotako ze-rrendan, Hegoaldean XIX.ean Lardizabal-ek eskainiko zuenaren antze-koa.

Katekesi-eremuan Hierarkiaren ardura zuzen eta iraunkorra ageri da, ka-sik zerbait programatua, baina, gainerakoan, badirudi ekimen pribatuek da-kartenaz baliatzen dela eliz Erakundea, eta zinezko eliz inkulturazio teologi-ko-linguistiko egitarauturik ez dela abiarazten. Iparraldeak egin zuen ekarpen aski aberats hau, eskasa eta maingua dela esan liteke, nahiz eta laukitik kan-

(157) Ik. Villasante 1972: 120-131. AÑIBARRO, P. A. (2001): *Gueroco guero*. Bilbo: Eus-kaltzaindia. Blanca Urgell Lázaro-k paratutako edizio kritikoa.

poan geratu diren 300 orrialdeetatik beherakoak ere hobeki begiratu behar diren, azterketan ondorio egiaziak eskuetan izateko.

6. ATZERA BEGIRATU BATEAN

Ikusi ditugunetatik (eta ez dira begiratu beharreko denak, gutxiagorik ere) zein ondorio atera dezakegu euskarak edo eliz Erakunde barruko euskaldunek Eliza Katoliko Erromatarrean bizi izan duten hizkuntz trataeraz?

Azterketa jarraitu ahal izateko zenbait datu orokor aurreratu nahi izan ditugu hemen, gogoan hartu beharrekoak direlakoan. Lehenik, «Liburu-erlijio» unibertsal handiek hizkuntzekin (izan) dituzten harreman hertsia gogorazazi ditugu; Kristautasuna ere testuinguru orokorrago horretan dago.

Atal-galduka ibili gabe, aztergaiari bere osoan so egiteko («Eliza/Euskara» gaiari, alegia) eta Elizako hizkuntz(ar)en eremuak definituz joateko aztergai izan daitezkeen aurkezpena egin dugu lauki batean; lauki teoriko osagarri eta zuzengarria da hori.

Horren ondoren Erdi Aroaz egin dira azpimarraketa batzuk, arazo honetan mende haiek ahantziegiak ditugulakoan; Aro Moderno-Garaikideetarako azterketa-kronologia bat proposatu dugu, eta Iparraldeko liburu-lagin bati gain-begiratu eman (XVII-XVIII. mend.), oraingoz gaia agortzeko asmorik gabe.

Ikusitakoetatik beharbada bidezkoa da ondorio batzuk atera edo hipotesi batzuk bederen egitea, Aro eta eremu ezberdinei begira.

1. Zer esan euskaldunen kristautzeaz? Kolonizazio politiko eta erlijiosotatik gertatu izan denaren arabera, eta Euskal Herriko erromatar kolonizazio kulturalak zekartzan urei jarraiki, lehen kristautzean zenbait hirritako euskaldun elebidunekin –eta berorien bidez– hasiko zen Eliza bere mezu mintzatu pasatzen. Lehendik edo orduan latindutako euskaldun elebidunak dira, bada, euskaldun elebarrengana iristeko bitartekariak. Hizkuntza mintzatuak bete zuen egiteko hori, eta jakin ez dakigu aldi bertsuan ezer idatzirik egon zenentz. Hau da aurkitu dugun hutsune historiko larri bat, lehen kristau-euskara idatziarena.
2. Zer pentsa gure Erdi Aroaz? Euskal Herriko kristautzeaz izan diren eztabaidak gorabehera, gurera bilduz (hau da, hemengo lehen Eliza kristauak hizkuntzarekiko izan zuen burubideaz galdetuz), ikusi dugu Erdi Aroak ez digula utzi euskarazko testu bibliko, liturgiko edo pastoralik (hortaz, mila edo, nahiago bada, bostehun urteko hutsunea). Euskarazko predikurik egon zela, halaberharrez segurutzat eman dezakegu, baina horren lekukorik ere ez dugu. Beren tradizio kultural (jatorri beneditarreko Monasterioak) eta pastoralarengatik (Eskeko Ordenak) ga-

rrantzizko ekarpen idatziak egin zitzaketen Ordena Erlijiosoen, daki-gunez, ez zioten aurkeztu halakorik euskaldungo kristautuari.

3. Aro Modernoan, Hegoaldean bezala Iparraldean, Elizak ofizialki go-goan hartzen du euskara, ofizialtasun mugatu batekin, Katekesi eta Predikura begira batez ere, eta praktika hori eliz gobernu baterako premiazkoztat ikusten den neurri edo unean (Trento ondoko arau eta sin-esgaiak zabaldu eta berritzeko, adibidez). Hortik aurrerako hizkuntz erabilpen eta garapenak (Biblian, teologian, izpiritualitatean, adminis-trazio idatzian eta abarretan) ez ziren eraman modu egitarautu batean, ez eremu eremu, ezta denbora-segidatasun batekin ere. Bestalde, egindako lanean ere desoreka eta desberdintasun nabarmenak daude Euskal Herriko Lurralde, Diozesi eta klero ezberdinen artean. Badirudi, gainera, Diozesien eraketak eta ezaguna den Hierarkiaren erdal-duntasun jarraikorrek (batez ere erbesteetako politikek ezarriak) zerikusi handia izan dutela Elizaren hizkuntz normalkuntza hain mugatu horretan.
4. Euskararen historia sozial orokorrean lekutu behar da elizako hau ere: botere politikoak, interes sozial orokorrak eta aipatu ditugun beste arrazoi zehatzek zama handia izan dira Elizarentzat Euskal Herriko bere hizkuntz inkulturazioan, oro har Mendebaldeko Europa honetako herri minorizatu guztietan bezala eta Estaturik izan ez duten edo gal-du dutenetan bezala.
5. Eliza Erromatar latinoak teorian (eta praktikan, hein batean) izan dituen bi hizkuntz politika orokorren artean (Misioetarakoa, Mendebaldeko Estatuetarakoa) Euskal Herriari bigarren honetan egotea egokitu zaio, baina, latinen ondoan, Estuetao hizkuntzak ere Elizan lehia-kide eta nagusi dituela. Kasurik onenean, euskararen Elizako presen-tzia oso ezberdina izan da hizkuntza mintzatuan eta idatzian, latina hobetsi izan zen eremuetan eta hizkuntz hautapen libreagoak izan dituztenetan.
6. Eliza Erromatarrak berez izan dituen muga guztiekin ere, hainbat Go-tzainek eta elizgizon saiatuek ekoizpen idatzi estimagarria burutu zuten XVII. mendetik aurrera Iparraldean eta XVIII.etik hona Hegoaldean. Gure liburugintzako katalogoek ongi erakusten dute hori, eta are nabarmenago egindakoa Herri-Erakundeek egin ez zutenekin alde-ratzen bada.
7. Euskararen eliz normalkuntza historikoak eskatuko zukeena aditzera emanda dago Elizako hizkuntz eremuak jasotzen dituen laukian: ez dirudi, adibidez, ez Iparraldeko goraldiak, ez hemen ia begiratu gabe gelditu den Eusko Pizkundeak normalkuntza teoriko hartako eremu guz-tiak bete dituztenik.

8. Esandakoak osatuz, eta bukatzeko, nabarmen dezagun hogeigarren mendearen aparteko interesa: beste herrialdeetako Eliza Katolikoan bezala, Euskal Herrikoaren hizkuntz politikak normalkuntza-abagune paregabea ezagutu du, mendetako tradizioa irauliz (Vatikano II.a), horrek erakutsi dituen aurrerapauso nabariek, eta geldirik geratu diren hainbat eremurekin. Badirudi, belaunaldi baten epe motzean, lanari ekitean historia osoko funtsezko arazoak batera azaleratu zaizkigula.

Orrialde hauek azterlan berrietarako gonbita izan nahi dute, gure iragana begira-puntu zabaletatik so egin eta euskaldungoaren hizkuntz bizitza bere garapen eta bilakaera sozialean gero eta hobeki ezagutzeko.

Bibliografia

Bibliografia honetan ez da jasotzen euskal idazlan zaharren aipurik («klasikoenik», esan dezagun), aipatu behar zirenak laneko oharretan jasorik baitaude. Aitzitik, orokorrean eta bereziki gure literaturaz edo historiaz diharduten azterlanak, eta lanerako erabilitakoak, ekarri nahi izan ditugu hona.

- AGIRRE, P. (1998): «Belaiperez», in: *ASJU*. XXXII-2, 340-351.
- AGIRREBALTZATEGI, P. (1996): «Euskal Herria eta euskara: Kantabriako Frantziskotar Probintziaren erantzuna eta erantzukizuna», in: *Cantabria Franciscana*. 1996, L, 25-56.
- ALONSO MONTERO, X. (1973): *Informe –dramático– sobre la lengua gallega*. Madrid: Akal.
- ARANA MARTIJA, J. A. (2004): «Erljiosoa Euskaltzaindiko jarduera eta bizitzan», in: *Intxausti 2004a*: I, 317-320.
- ARAUXO, M. A. (1975): *A fe cristiá ante a cuestión da lingua galega*. Santiago: SEPT.
- AUDISIO, G. (1992): *Les Vaudois. Histoire d'une dissidence (XIIIe-XVIIe siècle)*. Paris: Fayard.
- AZURMENDI, J. (1980): «Bertsolaritzaren estudiorako», in: *Jakin*. 1980, 14/15. zenb., 139-164.
- AZURMENDI, J. (1985): «Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herrian», in: *Intxausti 1985*: I, 357-386.
- BERCEO, G. DE (1992): *Obras completas*. Madrid: Espasa-Calpe. (Isabel Uria eta beste hainbatek paratutako edizioa).

- BLAU, J. (1969): «L'apparition du type linguistique néo-arabe», in: *Revue des Études Islamiques*. 1969/2 (Aparteko inprimaldia: Paris: Libr. Orientaliste Paul Geuthner).
- BRENON, A. (1996): *Les cathares. Vie et mort d'une Église chrétienne*. Paris. Jacques Grancher.
- CHIZHEVSKI, D. (1983): *Historia comparada de las literaturas eslavas*. Madrid: Gredos. 106.
- COMERMA VILANOVA, J. (1923): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Editorial Políglota.
- DEDIEU, h. (1977): «Etienne Materre, franciscain français écrivain d'expression basque», in: *Bulletin du Musée Basque*. 1977, 97-100.
- DELUMEAU, J.; WANEGFFELEN, Th. (19989): *Naissance et affirmation de la Réforme*. Paris: PUF.
- DIOCÈSE DE BAYONNE (2002): *Annuaire*. Bayonne.
- ECHEGARAY, B. (1945): «¿Se establecieron los moriscos en el País Vasco de Francia?», in: *Bulletin Hispanique*. XLVII, 92-102.
- FELIU, F.; IGLÉSÍAS, N. (ed.) (1997): *Llengua i religió a l'Europa moderna*. Barcelona: Quaderns Crema.
- FERNANDEZ-GALLARDO, G. (2004): «La supresión de los franciscanos conventuales en Navarra (1566-1567)», in: Intxausti 2004a: 598-808.
- GARCIA FERNANDEZ, E. (1994): *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*. Bilbao: UPV/EHU.
- GARCIA ORO, J. (2004): «Conventualismo y Observancia. El proceso de las Reformas religiosas en el País Vasco y en Navarra, durante el Renacimiento», in: Intxausti 2004a: 555-567.
- GARCIA VILLOSLADA, R. (ed.) (1979): *Historia de la Iglesia en España*. Madrid: BAC.
- GARCÍA, F. (ed.) (1944): *Obras completas castellanas de Fray Luis de León*. Madrid: BAC.
- GARDÈRE, M. (1996): *Rituels cathares*. Paris: La Table Ronde.
- GLASSÉ, C. (1991): *Dictionnaire encyclopedique de l'Islam*. Paris: Bordas.
- GOÑI GALARRAGA, J. (2004): «Panorama histórico-geográfico de las Diócesis de Euskal Herria», in: Intxausti 2004a: I, 45-128.
- GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979a): *Historia de los obispos de Pamplona. I. Siglos IV-XIII*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

- GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979b): *Historia de los obispos de Pamplona. II. Siglos XIV-XV*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- GONZALEZ DE CASTILLO, P. (1621): *Constituciones Synodales del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Viuda de Alonso Martín.
- GONZALO MAESO, D. (1960): *Historia de la literatura hebrea*, Madrid: Gredos.
- GOYHENETCHE, M. (2001): *Histoire Générale du Pays Basque. III. Évolution économique et sociale du XVIe au XVIIIe siècle*. Donostia: Elkarlanean.
- GRANDGUILLAUME, G. (1983): *Arabisation et politique linguistique au Mahghreb*. Paris: Maisonneuve & Larose.
- HALAOUI, N. (1997): «Langue dominante, langue rejetée: le Hassaniya en Mauritanie», in: *Diversité Langues*. I, 1997.
- HINOJO, G. (1997): «Llatí versus vulgar: antecedents i conseqüències d'una polèmica», in: *Feliu/Iglesias 1997*: 59-86.
- HOLMES, G. (1984): *Europa: Jerarquía y revuelta, 1320-1450*. Madrid: Siglo XXI.
- INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): *Euskal Herria*. Donostia: Jakin-Caja Laboral.
- INTXAUSTI, J. (1995): «Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformaren ilun-argitan», in: *RIEV*. XL, 1995, 119-160.
- INTXAUSTI, J. (1997): «Euskararen Eliz erabilpena eta Luku Gotzaina (1545-1556)», in: *Sancho el Sabio*. VII. 1997, 243-274.
- INTXAUSTI, J. (ed.) (1998a): *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak. Donostiako Udako XII. Ikastaroak*. 1993ko Uztaila. Bilbo: EHU.
- INTXAUSTI, J. (1998b): «Taldea euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak)», in: *Intxausti 1998a*: 17-56.
- INTXAUSTI, J. (2000): «Euskararen erabilpen-debeku eta arauak lehen Gobernu frankisten eliz politikan (1937-1940)», in: *Ormaetxea et al. 2000*: 193-230.
- INTXAUSTI, J. (ed.) (2004a): *Euskal Herriko erlijiosoen historia. Familia eta Institutu Erlijiosoen Euskal Herriko Historiaren I. Kongresuko Aktak*. Arantzazu: EFA.
- INTXAUSTI, J. (2004b): «Frantziskotarren Euskal Herriko historia», in: *Intxausti (ed.) 2004a*: 347-373.
- INTXAUSTI, J. (2004c): «Elizak egin (ez) duen euskarazko kultura idatziaz», in: *Hemen, zenb.*, 2004, 63-80.

- ISERLOH, E.(1973): «La vida interna de la Iglesia [en la Baja Edad Media]», in: Jedin 1966...: IV, 857-883.
- JEDIN, H. (1966...): *Historia de la Iglesia*. Barcelona: Herder.
- JIMENO JURIO, J. M. (1998): *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Pamplona: Pamiela.
- JIMENO JURIO, J. M. (2004): *Retroceso Histórico del euskera en Navarra*. Pamplona: Pamiela.
- KÖNIG, F. (1964): *Diccionario de las religiones*. Barcelona: Herder.
- LABAYRU IKASTEGIA (2001): *Iglesia y euskera / Eleiza eta euskera*. Bilbao: Inst. Labayru Ikastegia.
- LAMBERT, M. (2003): *La otra historia de los cátaros*. Madrid: Ediciones Martínez Roca.
- LATREILLE, A. et al. (1963): *Histoire du catholicisme en France*. Paris: Spes.
- LECLERC, J. (2004): «L'aménagement linguistique dans le Monde». Laval Unibertsitatea: <http://www.tlfq.ulaval.ca>.
- LÉONARD, E. G. (1967): *Historia general del Protestantismo*. Barcelona: Edicions 62 (4 libk.).
- LEPE, P. (1700): *Constituciones Synodales antiguas, y modernas del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Antonio González de Reyes.
- MACEK, J.; MANDROU, R. (1984): *Histoire de la Bohème. Des origines à 1918*. Paris: Fayard.
- MALAXECHEVARRIA, J. (1926): *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII*. San Sebastián: Libr. e Impr. San Ignacio de Loyola.
- MALLEA-OLAETXEA, J. (1988): *Juan Zumarraga. Bishop of México and the Basques: The Ethnic Connection*. Reno: Basques Studies Program. (Argitaragabea).
- MALLEA-OLAETXEA, J. (1992): «The private Basque World of Juan Zumarraga, firts Bishop of Mexico» in: *Revista de Historia de América*. (IPGH, México). 1992, n. 114, 41-60.
- MANSION, J. (1931): *Esquisse d'une histoire de la langue sanscrite*. Paris: Librairie Orientaliste Paul Geuthner.
- MARIN, T. (1952): «La Biblioteca del obispo Juan Bernal Díaz de Luco (1495-1556)», in: *Hispania Sacra*. V, 1952, 263-312.

- MASSOT I MUNTANER, J. (1979): «Literatura religiosa» (s. v.), in: *Molas/Muntaner 1979*: 381-383.
- MENENDEZ PIDAL, R. (1926): *Orígenes del español*. Madrid.
- MERINO URRUTIA, J. B. (19783): *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*. Logroño: Diputación Provincial.
- MICHELENA, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.
- MOLAS, J.; MUNTANER, J. (1979): *Diccionari de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions 62.
- Monumenta historica Societatis Iesu*. Roma.
- MORAL, R. del (2002): *Lenguas del mundo*. Madrid: Espasa-Calpe.
- MOREAU, R. (1970): *Histoire de l'âme basque*. Bordeaux: Imprimerie Taffard.
- MURO ABAD, J. R. (1994): «El clero diocesano vasco en los siglos XV y XVI: una imagen», in: García Fernández 1994: 53-82.
- ORMAETXEA et al. (2000): *Txillardegi lagun-giroan*. Bilbo: UEU.
- ORPUSTAN, J.-B. (1999): «L'espace bascofhone ancien», in: ID. (1999): *La langue basque au Moyen ge (IXe-XVe siècles)*. Baigorri: Éditions Izpegi. 17-39.
- OTTE, E. (1979): «Juan de Zumarraga vasco», in: *Les cultures ibériques en devenir: essais publiés en Hommage à la mémoire de Marcel Bataillon (1895-1977)*. Paris: Fondation Singer-Polignac. 489-496.. Ik. *Euskera*. XXVI, 1980, 4-14.
- PINEDO, I. (2004): «Jesuitas en el País Vasco / Navarra», in: Intxausti (ed.) 2004: 574-577.
- PORTILLA, M. (1979): «Datos y noticias sobre el vascuence en Alava (siglos XVI y XVII)», in: *Norte Express. Extra. Fiestas de la Virgen Blanca*. 1979: 56/50 [sic].
- PRATS, M. (ed.) (1995): *Política lingüística de l'Esglesia catalana. Segles XVI-XVII*. Girona: Eumo (Univ. de Girona).
- REDJALA, Mbarek (1970): *Remarques sur les problèmes linguistiques en Algérie*. Paris: Paul Geurthner (aparteko inprimaldia).
- REMENTERIA, J. M. (19 75): «Euskal Kristau Ikasbideen historia laburra», in: NIMEGAKO KATEKESI INSTITUTUA (1975): *Kristau Bidea*. Arantzazu: EFA. XVII-XXV.

- RIQUER, M. DE; COMAS, A. (1964): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions Ariel.
- RODRÍGUEZ PUERTOLAS, J.. (coord.) (19812): *Historia social de la literatura española*. Madrid: Editorial Castalia.
- SAENZ-BADILLOS, A. (1988): *Historia de la lengua hebrea*. Sabadell: Editorial AUSA.
- SAINZ RIPA, E. (1994-1997): *Sedes episcopales de la Rioja*. Logroño: Diócesis de Calahorra y La Calzada-Logroño.
- SARAIVA, A. J.; LOPES, O. (198513): *História da literatura portuguesa*. Porto: Porto Editora.
- SAWYER, J. F. A.; SIMPSON, J. M. Y. (ed.) (2001): *Concise Encyclopedia of Language and Religion*. Amsterdam: Elsevier.
- STEINER, G. (2001): *Préface à la Bible hébraïque*. Paris: Albin Michel.
- TOURN, G. (19912): *Les Vaudois. L'étonnante aventure d'un peuple-église*. Torino: Claudiana.
- TREBOLLE BARRERA, J. (1993): «Colecciones de libros bíblicos. Libros canónicos y no canónicos», eta «Historia del texto y de las versiones del Antiguo y del Nuevo Testamento», in: Trebolle 1993: 157-270, 271-385.
- TREBOLLE BARRETA, J. (1993): *La Biblia judía y la Biblia cristiana*. Madrid: Editorial Trotta.
- URIBE, A. (1996): *Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: EFA.
- URQUIZU, P. et al. (2000): *Historia de la literatura vasca*. Madrid. UNED.
- VARII (1994): *Oihenarten laugarren mendeurrena*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- VEILLET, R. (1910): *Recherches sur la Ville et sur l'Église de Bayonne*. Bayonne/Pau.
- VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la literatura vasca*. Bilbao: Senda.
- VINSON, J. (1891): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Orain: Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983.
- WIDENGREN, G. (1976): *Fenomenología de la religión*. Madrid: Cristianidad.

**GASTEIZKO APAIZTEGIA ETA
EUSKARA GERRA AURRETIK /
EL SEMINARIO DE VITORIA Y EL EUSKERA
ANTES DE LA GUERRA CIVIL**

Vitoria /Gasteiz, 26-XI-04

*Andrés Ibañez,
Gasteizko Teologia Fakultateko
irakasle emeritua*

1. Mateo Múgica Urrestarazu (1870-1968)

Es posible que en la historia de la diócesis de Vitoria no haya existido un obispo con una vida tan dramática como la del Mons. Mateo Múgica, nacido el 21 de septiembre de 1870 en Idiazabal (Guipúzcoa) y fallecido a los 98 años en Zarauz. Nos referimos a un personaje cuya centenaria existencia se vio ensombrecida no sólo por la ceguera provocada por el glaucoma en los últimos años sino por las cuatro guerras y dos destierros de signo diferente que tuvo que soportar. La vida deparó un cruel destino a este eclesiástico íntegro e integrista, amante del País Vasco y de su lengua, pero también de España y de la monarquía alfonsina. Dotado de una recia personalidad, sus actitudes fueron muy controvertidas en el campo humano, religioso y político. Mientras unos diocesanos alababan su talla intelectual, la firmeza y la reciedumbre moral, la fidelidad a la Iglesia y su dignidad mostrada en los dos exilios, otros, en cambio, criticaban su integrista eclesial, el sentido excesivamente estricto de la obediencia eclesiástica, su adhesión a la monarquía y, a menudo, a la cruzada de Franco. En cualquier caso, nadie podrá negar la labor pastoral desarrollada en sus tres diócesis: Burgo de Osma (1918-1924), Pamplona (1924-1928) y Vitoria (1928-1937). Durante estos años veló por el cumplimiento de las leyes eclesiásticas (*Observantia legum ecclesiasticarum*) procurando conservar la pureza del vestido femenino y el desfile de modas.

* * *

M. Múgica hizo sus estudios primarios en Beasain, pasando más tarde a la Universidad de Oñate donde estudió latín, retórica y filosofía; finalmente, se doctoró en teología en la Universidad de Salamanca. Tras ser ordenado sacerdote por el Obispo de Vitoria, Mons. Fernández Piérola, se estrenó como

coadjutor en la parroquia de Usurbil (Guipúzcoa). Pero pronto volvió al Seminario Conciliar de Vitoria donde enseñó latín, retórica y filosofía y, más tarde, Sagrada Escritura. En octubre de 1903 obtuvo el cargo de canónigo lectoral del Cabildo Catedralicio de la capital alavesa y el 19 de mayo de 1918 fue consagrado obispo en la Catedral de Sta. María. Durante estos años destacó en la enseñanza, y por su afición al euskera, a la oratoria y a la música. En 1906 dirigió la *Schola Cantorum* del Seminario, compuesta de unas 100 voces, en la Basílica de San Pedro en Roma con ocasión de la beatificación de Valentín de Berrio-Ochoa. Es justo también tener en cuenta sus pastorales y sermones en euskera y la traducción vasca del cap. XVII de *El Quijote de la Mancha*.

Tras una década de ausencia como obispo por tierras castellanas y navarras, vuelve a su diócesis vitoriana haciendo la entrada solemne el 24 de junio de 1928. Fue recibido con claras muestras de afecto y alegría en las tres capitales vascas donde los diocesanos veían finalmente a un obispo nacido en Euskal Herria y, además, vascohablante. En su primera Carta Pastoral, Mons. Múgica muestra su gratitud por «los triunfales y cariñosísimos recibimientos» (BOOV, 15-IX-1928:428). Se entrega a una intensa actividad pastoral: visitas a las parroquias; Acción Católica; peregrinaciones (Roma, Lourdes y Tierra Santa en cinco ocasiones); el cargo de presidente de la Unión Misional del Clero; el cuarto Congreso de Música Sacra; congresos marianos y eucarísticos (Colonia, Malta, Madrid), mostrando su acendrado nacionalismo español.

Pero su obra cumbre, el hito histórico más importante de su paso por Vitoria fue, sin duda alguna, la construcción (llevada a cabo por el arquitecto y sacerdote vizcaino D. Pedro de Asua (1890-1936) e inauguración del Seminario Mayor (1930) iniciado por su predecesor Fray Zacarías Martínez en 1926. El día 28 de septiembre de 1930 fue inaugurado solemnemente con la asistencia del Rey Alfonso XIII; el Delegado del Papa Pío XI, Cardenal Ruffini; el Nuncio Apostólico de su Santidad, Mons. Tedeschini; numerosos arzobispos y obispos. Mons. Múgica bendice el gran órgano de la iglesia pública arrancando a sus teclados las primeras notas «sentado delante del órgano, con todo el religioso boato de su mitra y capa pluvial, interpreta la Marcha Real Española –como homenaje a Cristo Rey– y la Marcha de San Ignacio –como himno secular de nuestro pueblo» (BOOV, 6-X-1930:728). A pesar de ello, D. José Calvo Sotelo (1893-1936), en nombre de la derecha española, tildará al Seminario de Vitoria de *batzoki* y *nido de separatistas*. Por ello, en una ocasión, Mons. Múgica se verá obligado a interrogar bajo juramento solemne al Rector D. Eduardo Eskarzaga si en el Seminario se hacía «política nacionalista o cualquiera otra política de partido».

* * *

En medio de un ambiente polémico muy tenso, el 14 de abril de 1931 se proclama la II República en España. Mons. Múgica había pensado siempre

que «la República había sido y sería manantial inagotable de toda clase de maldades». Por ello, por su acendrado monarquismo y por los ataques a la República fue desterrado por orden del Ministerio de Gobernación. El 17 de mayo sale de Irún y se establece en La Puye (cerca de Poitiers) en un monasterio de las Hijas de la Cruz (31-VIII-1931) hasta que regresa a España el 13 de mayo de 1932, pero no a Vitoria sino a Bujedo (Burgos) de donde pasa definitivamente a su diócesis vasca el 11 de abril de 1933 (BOOV, 1-V-1933:252).

El 18 de julio de 1936 estalla la guerra civil y el Cardenal I. Goma prepara un documento en el que se formula a los católicos de forma categórica la prohibición *Non licet* de adherirse a la República, fraccionando así las fuerzas ante «la hidra marxista de siete cabezas». El Cardenal de Toledo presiona a los dos obispos vascos, Mons. M. Múgica y al vizcaíno Mons. Olaechea (Pamplona) y éstos suscriben y publican la «instrucción pastoral» ante el estupor de los republicanos y el rechazo total de los nacionalistas vascos. Sin embargo, más tarde ante las elecciones que se anuncian, el Vicario General de Vitoria, D. Jaime Verástegui, publica una nota (con la aprobación de su obispo) en la que se afirma que «es indiferente desde el punto de vista católico votar a cualquiera de las candidaturas católicas que luchan en la diócesis». Esto desagradó sobremanera a los militares (Franco, Mola, Cabanellas, Millán Astray, Beorlegui, Camilo Alonso Vega, etc.), eclesiásticos (Cardenal I. Goma) y civiles (José Luis Oriol). Era obvio que Mons. Múgica estorbaba en sus planes de reforma en el clero por lo que se especuló incluso con la posibilidad de asesinarlo. Rechazada tal hipótesis por la posible resonancia internacional negativa para la cruzada, se optó por la solución del destierro.

* * *

A Mons. Múgica no le garantizaron su permanencia como Obispo de Vitoria ni sus explícitas muestras de apoyo a la cruzada durante los primeros meses del alzamiento, ni la pastoral conjunta *Non licet*, ni las bendiciones impartidas a los requetés que iban al frente de batalla, ni la entronización de la imagen del Sagrado Corazón de Jesús en la sede de la Falange, ni la cesión del Seminario como hospital de guerra, ni las sumas de dinero recogidas en las colectas de las parroquias en favor del «triunfo del ejército salvador». El plan urdido entre la diplomacia vaticana (Cardenal Secretario de Estado, Eugenio Pacelli), con la connivencia del Cardenal I. Goma, y la Junta Militar de Burgos convenció finalmente a Mons. Múgica a pesar de su rechazo inicial. El 14 de octubre de 1936, después de aceptar la destitución impuesta de su vicario general y tras nombrar como sustituto suyo al canónigo donostiarra D. Antonio Pérez Ormazabal, Mons. Múgica emprendió una salida que no encontraría el camino de regreso hasta once años más tarde, en 1947, pero ni aún entonces, como obispo residencial. Se habló oficialmente de una renuncia «voluntaria» pero en realidad fue un arreglo amañado mediante su viaje

pastoral a Roma para asistir al II Congreso Internacional de la Unión Misionarial del Clero (11, 12 y 13 de noviembre de 1936) de la que era presidente en España. Los aplausos que resonaron el día 13 al presentarse D. Mateo ante el público contrastan con las humillaciones que tuvo que sufrir durante su estancia de ocho meses en Roma. El 14 de febrero D. Antonio Pildain, canónigo magistral y profesor del Seminario de Vitoria, además de diputado en las Cortes en Madrid, era consagrado Obispo de Canarias en Roma. La Junta Militar de Burgos contando con la diplomacia vaticana vetó la presencia de D. Mateo en esta ceremonia religiosa, a pesar de la disconformidad del nuevo obispo y de la tristeza de Mons. Múgica.

* * *

Los acontecimientos históricos se suceden de forma cruel para el Obispo de Vitoria. En junio de 1937 recibe una carta del Cardenal I. Goma en la que le anuncia la redacción de una «Carta del Episcopado Español» a petición del Jefe del Estado. El 28 de junio de 1937, como respuesta escrita en Frascati (Italia), D. Mateo muestra al Cardenal el estado anímico en que vive:

«llevo más de ocho meses alejado de mi diócesis! [...] podría suscribir el documento cuando yo estuviese en mi puesto física y personalmente [...] deseo y pido al Señor el triunfo del generalísimo Franco sobre todos los rojos».

Dos ausencias muy significativas resaltarán en la lista de prelados firmantes de este documento: la del Cardenal tarraconense Mons. Francisco Vidal i Barraquer y la del aún Obispo de Vitoria que se niegan a firmarlo. Más aún, Mons. Múgica en un escrito dirigido a la Santa Sede explica claramente las razones de su negativa. En contra de lo que afirman los obispos españoles él muestra su desacuerdo diciendo que la Iglesia en la España de Franco no es libre. Denuncia también el asesinato de

«nutridísimas listas de cristianos fervorosos y de sacerdotes ejemplares»,

a la vez que protesta por presentar en el documento

«a la ciudad de Bilbao como un pueblo blasfemo».

Con el ánimo de acallar definitivamente la voz del Obispo de Vitoria, la Junta Militar de Burgos, contando con la venia del Cardenal I. Goma y el consentimiento del Vaticano, nombra Administrador Apostólico de Vitoria al vizcaíno Mons. F. Javier Laucirica que el 4 de septiembre de 1937 toma posesión de la diócesis vasca, sin mencionar siquiera el nombre de su predecesor en la homilía de su presentación en la Catedral (BOOV, 1-X-1937:353-356). Durante casi un año (octubre 1936 - septiembre 1937) D. Mateo conservó siempre la esperanza de volver a su amada diócesis. Pero esta ilusión se desvaneció con el nombramiento de su sucesor de quien Franco comentaba que

«es un hombre que hablará de Dios hablando de España».

En vista de que su presencia en Roma no tenía ya ningún sentido, se marchó

«haciendo el mayor sacrificio de mi vida»,

y buscó acomodo en Bélgica durante varios años. En una carta escrita al Cardenal I. Goma el 22 de febrero de 1939 en Gooveind se defiende

«con la libertad de quien nada tiene que perder»,

y defiende también

«a los nacionalistas vascos por tratar de conservar su lengua, tradiciones [...]»,

en contra de las falsas acusaciones del Primado de Toledo.

* * *

En 1940 las tropas nazis invaden Holanda, Bélgica y Francia y D. Mateo pasa a Pays Basque Nord/Iparralde residiendo en Ustaritz y Cambó. En una ocasión es detenido y conducido a la Citadelle de Donibane Garazi donde fue humillado y vejado por las fuerzas alemanas durante varios días. En el mes de abril de 1945,

«restablecido del glaucoma que me amenazó dejarme totalmente ciego»

escribe una dolorosa, sincera y profunda reflexión, a petición de D. José Miguel Barandiarán en la casa *Bidartea* (Sara) de éste. Es, sin duda alguna, uno de sus escritos más valientes y claros, una noble confesión hecha a

«su compañero de tribulaciones» a la vez que «dignísimo e inteligentísimo profesor».

El documento se titula «Imperativos de mi conciencia» (1945) y está escrito, una vez liberado de las trabas que le

«obligaron a guardar silencio desde fines de 1936 [...]; un ruego, que yo no podía desatender, me fue transmitido para que callara ‘por el momento’».

Pero ocho años más tarde puede decir en público lo que confesó antes al gran Papa (Achilles Ratti) Pío XI (1857-1939).

Ya en octubre de 1936 Mons. Múgica elevó a la Santa Sede la primera protesta contra los abusos del bando insurgente. En ella defendía a sus diocesanos

«injustamente perseguidos, vejados, castigados, espoliados por los representantes y propagandistas del ‘Movimiento Nacional’».

Finalmente, en 1947 puede regresar a Euskal Herria y residir en la Villa *Montemar* de Zarauz hasta el 27 de octubre de 1968, prácticamente ciego durante los últimos años. Murió rodeado del cariño de sus familiares, amigos, y

también del respeto y comprensión de muchos de sus antiguos diocesanos. Sus restos descansan en el altar mayor de la Catedral de Santa María de Vitoria, cuyo obispo Mons. Peralta, con ocasión del sermón de la misa funeral de D. Mateo Múgica y Urrestarazu, resumió la dramática vida de éste con las siguientes palabras:

«Contradicciones, abandonos, desprecios, calumnias, ingratitudes, enfermedades, la prolongada ceguera [...]» (BOOV, 31-X-1968:311).

Goian bego!

* * *

2. José Miguel Barandiaran (1889-1991)

José Miguel Barandiaran Ayerbe nació a las 6 horas de la mañana del 31 de diciembre de 1889 en el caserío *Perune-zarra*, en el barrio *Murkondo* de San Gregorio de Ataun (Guipúzcoa). Fue el benjamín de una familia numerosa de nueve hijos (cinco chicos y cuatro chicas, de las que tres fueron monjas) del matrimonio formado por Francisco Antonio Barandiaran y María Antonia Ayerbe. Cursó la primera enseñanza en Ataun, siendo un estudiante mediocre debido al inhumano sistema pedagógico empleado por el maestro que usaba todos los textos en castellano para niños que lo desconocían completamente. Si la escuela era detestada por el niño Joxemiel, el hogar familiar, en cambio, se convirtió en el mejor centro de aprendizaje en el que el futuro patriarca de la cultura vasca iba almacenando en su interior leyendas, dichos, mitos, creencias, vidas de santos como la de *Sta. Genoveva de Bravante*, contados por su madre junto al fogón de la cocina.

Con 14 años ingresa (con Manuel Lekuona) en noviembre de 1904 en la Preceptoría de Baliarrain (Guipúzcoa) donde cursa los estudios de latín y humanidades, aprobando los dos primeros años de latín en un solo examen. Al año siguiente fallece su madre a la edad de 56 años, quedando marcado de por vida el corazón de aquel niño. En 1906 pasa al Seminario Conciliar de Vitoria donde supera con brillantes calificaciones los tres cursos de Filosofía y cinco de Teología. Joxemiel destaca por su afición a las ciencias y, en especial, a la física, sin descartar el terreno de las lenguas (francés, inglés y alemán). Es nombrado profesor de Física antes de finalizar la carrera sacerdotal. Al acabar los cursos de Filosofía obtiene, además, el título de Maestro en la Escuela Normal de Vitoria.

Durante los años de teólogo no se conforma con lo que dicen los textos de clase y cuestiona algunas verdades defendidas hasta entonces como axiomas, formulándose preguntas sobre el origen del mundo y el sentido de la vida humana. Intenta asociar la ciencia con su fe religiosa, mientras apare-

cen las primeras sombras en el firmamento de su fe. En una época en la que la enseñanza oficial sobre el origen del mundo discurría por los senderos del creacionismo antievolucionista, el joven seminarista opta por las cronologías científicas, más cercanas a las teorías de C. Darwin (1809-1882) en su libro *El Origen de las Especies* (1859). Acuciado por esos interrogantes, comienza a hurgar en el pasado remoto del pueblo vasco como campo de sus investigaciones científicas. El interés por los estudios etnográficos, prehistóricos, arqueológicos y por la Historia de las Religiones marcará en adelante su larga vida de intensa actividad (1916-1990). Tras acabar el cuarto de teología (1913), emprende un viaje a Leipzig en cuya universidad se matricula en un curso de Sociología de los Pueblos, impartido por el profesor de filosofía Wilhelm Wundt (1832-1920). Este encuentro marcará en adelante su quehacer científico, que se basará en datos, en la constatación y en el esmero por la exactitud, convirtiéndose en fotógrafo de la realidad y no en teorizador de ella.

El 19 de diciembre de 1914 recibe la ordenación sacerdotal en Vitoria de manos de su obispo, Mons. Melo y Alcalde, y celebra su primera Misa en Ataun. Poco después es enviado a ampliar los estudios de Teología a la Universidad Eclesiástica de Burgos donde obtiene la licenciatura. En 1916 es nombrado profesor de Matemáticas del Seminario Conciliar de Vitoria. Comienza entonces a publicar los resultados de sus primeras investigaciones en la revista *Euskalerraren Alde* (1916), escribiendo su primer artículo «Ataun en la Edad Media. El antiguo Castillo». El 15 de agosto de 1917 es importante porque conoce en Ataun al vergarés Telesforo Aranzadi Unamuno (1860-1945), catedrático de la Universidad de Barcelona, y al vitoriano Enrique Eguren (1888-1944), catedrático y Rector de la Universidad de Oviedo, formando así el grupo conocido como «los tres tristes trogloditas». Comenzarán las primeras excavaciones conjuntas en Aralar, prologando sus tareas durante veinte años (1917-1936), hasta la última campaña en la cueva *Urtiaga* de Itziar (Deva). En 1918 inician la exploración de las cuevas de Satimamiñe (Kortezubi, Bizkaia), y J. M. Barandiaran participa además en el Congreso de Estudios Vascos de Oñate, en el que se funda *Eusko Ikaskuntza* (Sociedad de Estudios Vascos), del que será nombrado socio-fundador en 1919.

En 1920 es designado Vicerrector del Seminario Conciliar de Vitoria, y al año siguiente funda la «Sociedad de Eusko Folklore» y la revista *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore*, que, con algunas interrupciones, perdurará hasta 1975. En 1925 esta sociedad cae en desgracia porque el Rector del Seminario le retira su confianza al tildar de ‘mamarrachadas’ sus «Anuarios». Aun así, J. M. Barandiaran es nombrado Rector del Seminario Menor de «Aguirre», simultaneando este cargo con las ocupaciones de Vicerrector del Seminario Conciliar. El joven Rector promueve cambios profundos en el sistema educativo, especialmente en el campo científico. Al año siguiente publica la revista *Gymnasium* buscando la iniciación científico-literaria de los seminaristas de la diócesis. En 1927 y 1929 ingresa como miembro corres-

pondiente en la Real Academia Española y en Euskaltzaindia, respectivamente.

La década siguiente será muy importante, y a la vez dramática, en la vida de J. M. Barandiaran. El 28 de septiembre de 1930, con asistencia del Obispo Mateo Múgica y del rey Alfonso XIII, se inaugura el nuevo Seminario Conciliar de Vitoria, y el 14 de abril de 1931 se proclama la II República, que terminará con el inicio de la Guerra Civil el 18 de julio de 1936. El estallido bélico sorprende a J. M. Barandiaran —en compañía de T. Aranzadi— en plena dedicación arqueológica en la cueva de *Urtiaga* (Itziar); por ello, el 20 de septiembre se ve obligado a huir por mar a San Juan de Luz, embarcando en el puerto de Motrico. Se hospeda temporalmente en Anglet, en el convento de una de sus hermanas, y en la abadía benedictina de Belloc (Urt, Laburdi). Durante un año se aloja en el Seminario de Bayona y pasa tres años en Biarritz hasta 1940, año en el que se muda definitivamente a Sara (1940-1953). En esta fecha las tropas de Hitler invaden Francia y llegan a Iparalde. J. M. Barandiaran es obligado a confinarse y es trasladado al norte de Francia a un lugar cercano a Alençon (Normandía), pero, tras una breve estancia, puede volver a Sara, donde las autoridades alemanas le permitirán proseguir investigando.

En el año 1945 Mons. Mateo Múgica, anciano y exiliado, escribe desde su residencia de Cambó (Laburdi), a petición del profesor de Ataun, el documento «Imperativos de mi conciencia. Carta abierta al presbítero D. Miguel Barandiaran». Se trata de una profunda reflexión sobre su actuación pastoral durante la Guerra Civil y es, además, la noble confesión que redime a un hombre desterrado en dos ocasiones. Al año siguiente J. M. Barandiaran crea en su domicilio «Bidartea» de Sara el «Institut Basque de Recherches» (1946-1951) y publica, como boletín, la revista *Ikuska*. En 1947 funda en Bayona la «Société Internationale des Basque» con la colaboración de P. Lafitte, M. Intxausti, T. Monzón, M. de la Sota, J. Bilbao, M. Legasse, etc., publicando la revista *Eusko-Jakintza*. Además, viaja por Europa (Bruselas, Londres y París), asistiendo a congresos internacionales y dando conferencias. Es una ocasión propicia para dar cauce a la sabiduría almacenada en tantas investigaciones y describir la larga lista de dólmenes, estelas funerarias y crónlechs hallados en *Jentilbaratza* (Ataun), *Aralar*, *Aizkorri*, *Borunda* (Ataun), *Altzania*, *Entzia*, *Elosua* (Placencia), *Urbasa*, *Belabieta* (Elduayen), *Santimamiñe*, *Lumentxa* (Lekeitio), *Bolin-koba* (Abadiano), *Silibranka* (Mañaria), *Urtiaga* (Itziar) eta (Deva), etc.

El 20 de octubre de 1953, después de 17 años en el exilio, J. M. Barandiaran regresa a su pueblo natal. Es invitado por el Rector de la Universidad de Salamanca, Antonio Tovar (a instancias del Ministro de Educación, J. Ruiz Jiménez), a impartir un ciclo de 12 conferencias en la nueva cátedra «Manuel Larramendi» de lengua vasca. En 1954 planifica la investigación en el País Vasco peninsular y reemprende sus actividades de antaño: *Urtiaga* (1955), *Lezetxiki* (1956-1957), *Atxea* (Forua, 1959), *Aitzbitarte* (Rentería, 1960), *Axlor* (Dima, 1960), *Altzerri* (Orio, 1962), *Marizulo* (Urnieta, 1963), etc. En 1964

la Universidad de Navarra le ofrece la cátedra de Etnología Vasca, impartiendo temas sobre cultura vasca hasta el curso 1979-1980.

Con tantos méritos adquiridos no podían faltar los homenajes, los reconocimientos oficiales ni los honores. En 1962 «La Academia Errante» (J. Oteiza, J. Caro Baroja, L. M. Santos, etc.) le dedica en Ataun un homenaje. Al año siguiente es nombrado académico de número de Euskaltzaindia, y en 1973, miembro honorario del Instituto Americano de Estudios Vascos. Las medallas de oro se multiplican también al final de su itinerario cultural: «Ayuntamiento de Gasteiz» (1979), «Gobierno de Navarra» (1989), «Bellas Artes de Madrid» (1989), «Ayuntamiento de Donostia» y «Diputación Foral de Álava». Es también investido «Doctor Honoris Causa» por la Universidad el País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (1978), la Facultad de Teología de Vitoria (1980), la Universidad de Deusto (1986) y la Universidad Complutense de Madrid (1987). Al cumplir los 100 años recibe la Medalla de Honor de Euskaltzaindia y es nombrado «Hijo Predilecto de Bizkaia» por la Diputación Foral de Bizkaia, como lo fue, asimismo, en 1982 por la Diputación Foral de Guipúzcoa. En 1990 la Fundación Sabino Arana le otorga el Premio Anual, y al siguiente es distinguido con la Gran Cruz de la Orden de Carlos III.

El 31 de julio de 1991 recibe en su hogar «Sara-Etxea» a los Reyes de España, D. Juan Carlos y Dña. Sofía, y en agosto es ingresado por primera vez en el hospital de Ntra. Sra. de Aranzazu de Donostia. El 17 de diciembre se presagia ya su inminente muerte y en la madrugada del día 21 fallece acompañado de su fiel sobrina Pilar. Al día siguiente Mons. J. M. Setién celebró la Misa funeral en la Parroquia de San Gregorio y los restos del pequeño gran cura fueron inhumados en el cementerio local.

J. M. Barandiaran fue un vasco universal y un sacerdote sencillo de vida ejemplar, que supo conversar con los sabios del mundo, pero también con los niños, los ancianos y los aldeanos. Incansable y metódico en su trabajo, frugal en la comida y abstemio en la bebida, entrañable y afable con todos. Un vasco que defendió su lengua materna porque la consideró como el único testimonio viviente de la prehistoria europea.

EUSKARAREN EGUNGO EGOERA GASTEIZKO ELIZBARRUTIKO PASTORAL JARDUERAN

*Gasteiz, Euskaltzaindiaren Arabako
ordezkaritza, 2004-XI-26*

*Emilio Perez,
Aramaioko erretorea*

1. ATARIKOAK

1.1. Agurra

Euskaltzainburu, euskaltzain eta entzule guztioi, agur t´erdi.

Euskararen egungo egoera ‘Gasteizko Elizbarrutiko pastoral jardueran’. Gaia ez da berria Euskaltzaindiarentzat. Dagoeneko, aztertua duzue Baiona, Iruñea eta Tuterako elizen euskararen erabilera pastoralara. Nik neuk birritan azaldu dut gai hau Gasteizko Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluan.

1.2. Txosten honen asmoa

Euskal pastoraltzan dabilen abade baten testigantza jasoko duzue. Ez dut nire burua inoiz maisutzat hartu, eta ez diot inori leziorik eman nahi, are gutxiago hizkuntzaren maisu erne zaretenoi. Arabako Elizaren ahuleziak eta indarguneak nabarmentzeko ez dugu azterketa soziologikoa egin beharrik. Urteetan euskararen alorrean eta pastorgile euskaldunekin lanean ibiltzeak lekuko zuzena egin naute. Bildutako datuak eta esperientziak agertuko dizkizuet, antzeman ahal izan dezazuen nolako pozak eta atsekabeak bizi ditugun Arabako elizkide euskaldunok.

1.3. Txosten-egilearen ikuspuntua

Gaian murgildu aurretik, eta azalpen honen nondik norakoak ulergarriago egiteko asmoz, euskararen alorrean egin dudana ibilbidea argituko dizuet.

Gasteizko Teologia Fakultatean oinarri batzuk ikasi ondoren, oraindik apaizgai nintzela, Aramaiora bidali ninduen Bikario Nagusiak, euskara ikas nezan. Zergatia, Seminarioko azken urteetan euskarazko klaseetara joan

izana. Egia esanda, Izaskun Arruek, Olabide Ikastolaren andereño sortzailak, euskara gogoz maitatzen erakutsi zion, Urduñako apaizgai «soriano» hari.

Aramaion bederatzi urtez ibili nintzen, abade gazte nintzela. Nirekin beste sei abade ziren. Baserritarren artean euskaldundua, Eskoriatzako Irakasle Eskolan alfabetatu nintzen. Gasteizera aldatu ninduten, Aramaion hiru abade utzita, saiatu nintzen Pilar Parrokiako euskaldunekin eta Olabide ikastolan apaiz-lana egiten, Aramaion ikasitako inkernu guztiarekin. Holako baten, Larrauri Gotzainak Euskal Pastoraltzaren Zerbitzuburu izendatu ninduen. Gotzaindegian lan garrantzitsua egin behar nuelako, bulego eta guzti jarri zidaten.

Berriro ere, Aramaiorako bidea hartu behar izan nuen. Pilar Parrokian ordekatat, apaiz ordenatu berri bat utzi nuen. Orain abade bakarra naiz Aramaion. Zortzi parrokiak eta hamabost ermitak nire kargu. Guztira hogeitalau teilatu eta zortzi hilerri. Soinean daramatzat gotzaindegiko ardurak, itzulpenak errazten dituen posta elektronikoa esker.

2. ARABA BERE KOPURUETAN

2.1. Arabako biztanleak

Gasteizko Elizbarrutiaren mugen barruan, Urduña eta Trebiñu barne, 300.000 pertsona bizi dira. Hiriburuan 217.604. Laudion 19.070; Amurrión 8.376; Agurainen 3.946; Urduñan 3.936; Oionen 2.354; gainetiko herriak askoz txikiagoak dira. Gehienek 100 biztanle baino gutxiago dute. Horietatik zenbat elizkide? Neurriaren arabera. Gehienak bataiatuak dira. Domeketako mezetan parte hartzen dutenen kopurua oso apala da. Dena den, hori argitzea ez da gure geure gaurko kezka.

2.2. Arabako euskaldundua

Euskararen esparruan «gutxi aurreratu dugu azken bizpahiru hamarkadetan» diote batzuk. Araban gauzak errotik aldatu dira. Azken eroldaren datuek adierazten digutenez, Arabako euskaldunak oso gutxi izatetik, gaur %13,4 izatera pasatu dira. Gasteizkoak %14,7 eta ia-euskaldunak %20.

Urte asko ez direla, zalantzan jarri zituzten Arabako euskaldunduei buruzko datuak. Kopuruak puztuta zeudela zioten. Gogora ekarri nahi dut Madrillgo *Tabula V* enpresa kontratatu zutela Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak plazaratutako datuak guztiz fidagarriak ez zirelakoan.

Denok dakigu euskararen bilakaera azken 40 urteotan handia izan dela Araba osoan. XX. mendean Arabako hainbat herri euskara galdu bazuen ere.

Euskararen atzerakada etengabea gelditu egin da. Aspaldidanik familiaren barruan ez da euskararen galerarik. Salbuespenak salbu.

Euskara ez dago gaur egun Aramaio eta Legutiano inguruetan mugatuta. Arabako zazpi taldeetan eta udalerrri guztietan gertatu da. Gasteizen biltzen den euskaldunen kopurua benetan adierazgarria da.

2.3. Hazkundearen eragileak

Euskararen zabalkundea handia izan da. Baina ez da izan, besterik gabe, Arabara etorritako gipuzkoar, bizkaitar eta nafar euskaldunen emaitza. Zergatiak ugariagoak dira.

Euskararen aurkako neurriak ahuldu egin ziren, euskal zaletasunak gora egiten zuen bitartean. Arabako euskaldunak protagonismoa hartzeko prestatu-rik zeuden eta mugitu ziren. Adibidea Olabide ikastolaren sorrera 1963an. Lehenengo ikasleak arabarrak ziren, Anituak zuzentzen zuen «Escuela de Aprendices» horretan ikasitakoen seme-alabak (1).

Guraso arabarrek euskara irakatsi nahi diete seme-alabei. Hauxe dugu funtsezko arrazoiak ikastolak sortzeko eta euskal ereduaren aldeko aukera egiteko.

Euskal erakundearen Hezkuntza sistemak bere fruituak ematen ditu. Elebitasuna bermatzen duten B eta D ikastereduak gora doaz. A ereduaren ahultzen ari da, nahiz eta Araban oraindik pisua izan, batez ere lanbide hezitan eta Elizaren ikastetxeetan.

Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko ahaleginak aspaldikoak dira. Aipagarrienak *Umandi* eta *Apraiz* genituzke. Euskaltegiaren milaka lagun dira euskara ikasi dutenak. AEK, IKA, UDABERRIA, HABE, IRALE eta abarren fruituak ikusten ditugu.

Eragile guztien bildumak eragin du Araba osoan euskaldunen ugaritzea. Honez gero, euskararen dimentsioak berriz aztertzeak dira Araban.

2.4. Arabarren hizkuntza gaitasuna

Euskararen ezagupena azkarki zabaltzen ari da urte hauetan. Euskalduntze prozesua areagotzea normalizat jo beharko genuke, besteak beste, ikastolan hezitako lehen belaunaldiak oraintxe hasi direlako aita-amak / guraso izaten. Honen ondorioz gero eta ume gehiagok izango du euskara ama-hizkuntza.

(1) Anitua eta haren abade lagunak aipatzeko modukoak dira: Reparaz, Enekotegi, Narbaiza, Zirarda, Ros, Ibisate. Adiskidetasunak eta euskalzaletasunak lotzen zituen. Eliza mailako ekimen garrantzitsuei eman zieten hasiera. «Escuela de Aprendices» hori gero Elizbarrutiko Eskola Politeknikoa bihurtuko da, edo Arkauteko Nezakari Eskola. Narbaiza arduratu zen *Olabide* ikastolaz.

Inork ez dezala ahaztu, Arabako euskaldun gehienek euskara eskolan edo ta euskaltegian ikasia dutela. Familiek eta kale giroak ekarpen txikia eskaini ahal izan diote euskalduntzeari. Beraz, neurri handi batean, euskaldun berrien lurraldean bizi gara. Alor askotan ez dago zuzeneko erreferentzia euskaldunik. Askoren gaitasun komunikatiboak baditu mugak.

3. GASTEIZKO ELIZBARRUTIA BERE KOPURUETAN

3.1. Pastoralgileak

Apaizak: 275. Horietatik 110 apaizek badute 70 urte eta gehiago.

Parrokiak: 465. Hiriburuan 40. Mila biztanletik gorako herrietan, 16 parrokia, horietatik lau Laudion. 500 eta 1000 biztanlekoen artean 10 parrokia. Eta parrokia gehienak 340ren bat 50 biztanletik beherako herri txikietan daude.

Artziprestaldeak: 15, Trebiñu eta Urduña barne.

Fraide eta Moja

Klausurako mojak: 142 bizi dira, 12 komentutan. Euren adinera heltzea, opagarria.

Hezkuntza eta osasun arloko 589 erlijiosa; 55 komunitate txikiagotan banaturik.

Erlijosok 185 dira, 26 komunitateetan antolatuta.

Elizaren eraginpeko ikastetxeak: 26.

3.2. Elizbarrutiko helburuak eta minak

Berez, kristau guztiek, laiko, erlijioso eta apaiz, Jesu Kristoren Ebanjelioa ahalik eta leialen bizi behar dute, eliz elkartea osatuz eta herriari zerbitzurik jatorrena emanez. Baina, horrekin batera, bizitzaren legeak bete behar dituzte. Izan ere, biologiak iruzur gutxi onartzen du. Kristau fededunen urteak urte dira; eta elizkidegoa larriki zahartzen ari da.

Mendebaldeko kultur-giroa iruntzi behar du, lixeriketa oso astuna bazaio ere.

Euskal Herriko giro politiko gaiztotua jasan egiten dute eta kalterik latzenak sofrizten dituztenak errukiz ikusi eta apalki eskuzabaltasunez lagundu nahi diete.

3.3. Arabako Kristau euskaldunak

Arabako Elizak bere funtsezko ezaugarrien artean euskara kontenplatu du. Hala ere, ez dugu gaur gaurkoz Arabako kristau euskaldunen proportzioa be-

reizterik. Biztanleria orokorraren barruan kokatzen dira eliztarrak. Bide bereirik doa lehenengo kristauen jokaera. Gogoan hartzeko modukoa da, Diogneto izeneko kristau bati bigarren mendean eginiko gutuna:

Kristauak ez dira gizon-emakumeengandik bereizten, ez euren jaioterri, ez euren hizkuntza, ez euren ohiturengatik. Ez dira bizi euren bazter-auzoetan; ez dute hizkera arrotzez hitz egiten; ez dute biziera nabarmenik eramaten (*Diognetori gutuna, V*)

Gaiaren erdigunera iritsi gara. Oraintxe arte esandakoarekin garbi utzi nahi izan dut, gure Elizaren helburu, eskakizun eta ahaleginik preziatuena ez datorrela, hain zuzen, hizkuntzaren arlotik.

Elizaren seme-alabok, gainetiko euskaldun guztien antzera, soziolinguitikaren bi lege nagusiak betetzen ditugu nahitaez. Hau da, Espiritu Santuak ez digu saihesten hiztunen proportzioaren legea. Hizkuntza-gaitasunaren kontuetan ez dago esaterik *supplet ecclesia*.

Bestela, euskal gogorik eta adorerik ote dagoen, Arabako Elizan? Agian ez, batzuk nahiko luketen neurrian. Arabako Elizari geldokeria egotzi ote die-zaiokegu? Ikus dezagun dena atalka, azaleko iritzi orokorretatik ihes eginik.

4. EUSKAL PASTORALTZA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAN

4.1. Abiapuntua

Oraindik gogoratzen ditugu paper, hormirudi eta ekintza guzti-guztiak erdaraz egiten zirela. Elizbarruko erakunde batzuk errefraktarioak izan dira euskararen munduan.

Bizitzan badira une bereziak pertsonen eta taldeen bizitzan. Horrelako bat izan zen Elizbarrutiko Batzarra euskal pastoraltzako. Hiru urtez (1989-1991), 5.000 elizkide ibili ginen 500 taldetan antolaturik. Talde gutxi batzuk euskaraz aritu ziren. Baina euskarak aipamen zuzen ugari izan zuen prozesu osoan. Batzarraren Idazkaritza Nagusiak bazekien Nafarroan gertatu zena, euskararen alde egindako proposamen guztiak atzera gelditu zirela, gehingoaren bidez. Garbi genuen Arabako Elizak ez zuela jarriko euskara bere gai kuttunen artean. Horregatik saiatu ginen euskararen aldeko proposamen guztiak jasotzen gai bakoitzeko erabakietan. Baina ez genion inori aukerarik eman botoen bidez euskararen aldeko proposamenak atzera botatzeko.

Honetan geunden, Katedralean egin behar genuen azken ospakizuna prestatzen. Euskarari zenbateraino tartea utzi behar genion aztertzen ari ginela, ohartu ginen Idazkaritza Nagusian hartan bertan 29 kideetatik, 10 baino gehiago gai ginela hartutako azken erabakiak kristau herriari ele bietan aurkezteko. Harridura eta poza, biak batera, ulertu genuenean Elizaren borrokan geunden taldekide haiek, euskararen borrokan ere murgilduta ginela. Ospakizuna oso

ondo prestatu zen, euskarari inoizko tokirik handiena emanez. Sensibilizazio berezia sortu zen.

4.2. Pastoralgile euskaldunak

Bere txikitasunean, Arabako kristau euskaldunek ez dute zarata handirik egin. Bidezkoa zaio edonori, beraz, kristau euskaldunik ba ote den galdetzea. Gehiegi ez garelako, eta asmakerietan ez gabiltzala ziurtatzeko, hemen aipatuko ditut, behintzat, kristau hauen zerbitzuan ari diren apaiz euskaldunak, hobeto esanda, kasu gehienetan euskaldunduak.

4.2.1. Parrokietako abadeak

Lehenengo apaizaren izena, gero nongoa den, eta azkenik, non dagoen apaiz:

Jesus Mari Elejalde: Aramaixoarra. Elosu-Ubidean dago abade.

Andoni Armentia: Apellaniz, Okondo.

Ciriako Molinuevo: Gasteiz, Audio.

Juan Carlos Pinedo: Gasteiz, Audio.

Félix Placer: Ozaeta, Zigoitia.

José María Salazar: Eskota, Legutiano.

Jabi Zubiaurre: Gasteiz, Murgia. Apaiztu berria.

Josemari Galdos: Erreterria. Frantziskotarra. Izarra.

Koldo Larrañaga: Azkoitia. Caicedo de Yuso.

Benito Martínez de Zuazo: Larrainzar. Armiñon.

Gotzon Pérez de Mendiola: Caicedo Yuso. Amurrio.

Patxi Larrauri: Rivabellosa, Urduña.

Josetxu Lag: Gasteiz, Agurain.

Txusma Atauri: Kanpetzu, Agurain.

Joseba Llamas: Alegi. Klaretarra. Gasteizko Ariznabarrako San Paulo.

Iñaki Oregi: Murgia. Gasteizko Lakua-Bizkarrako Santa Maria Josefa.

Unai Ibañez Berriozabal: Legutiano. Gasteizko Pilareko Andra Maria.

Satur Yanguas: Miranda. Gasteizko San Jose Aranako.

Txema Arzalluz: Errezil. Pasiotarra. Gasteizko Gure Aita.

4.2.2. Apaiz misiolariak

Ekuadorren: Martin Areta Buradon, Gatzagakoa; Benjamin Respaldiza, Artziniegakoa; Josetxu Apellaniz eta Antonio Madinabeitia, gasteiztarrak.

4.2.3. *Euskara ikasteko apaiz liberatuak*

Ikasturte honetan, Fernández Oribe, IRALEN. Bande, Lazkaon.

4.2.4. *Abade jubilatuenak*

Haien artean dozenatik gora daude jatorriz euskaldunak direnak, gehienak 80 urtetik gorakoak dira: bizkaitarrak (Abaitua, Arraibi, Otazua, Yarza) nafarren bat (Arizti), eta sei gipuzkoar (Barandiaran, Bello Portu, Garai, Larrañaga, Latiegi, Oñatibia), arabarrak (Nafarrate) aramaioarra. Las Heras-ek eta Ibisatek antzina ikasi zuten euskara.

4.2.4. *Hil berriak*

Hauek ez ditugu zenbatzeko, baina, inolaz ere ahazteko: Agirre Arrieta, Ros, Bergaretxe, Ibagutxi. Orainago, 2004ko urrian bertan, hil zaigu Josemari Larrarte, pasiotarra, Eusko Legebiltzarraren sorreran lehen itzultzailea izan zena, besteak beste.

4.3. **Erlijosak**

Gasteizko Elizbarrutian bizi diren erlijiosoen artean, badira euskaldunak, komentu gehienetan, gainera. Ezin dut zenbakitan zehaztu, baina hiru euskaldun baino gehiago aurki, jarraian aipatuko dudak fraidetxe bakoitzean: Karmeldarrak, frantziskotarrak, biatoristak, marianistak, salestarrak, klaretarrak, jesuitak, pasiotarrak, Estibalizko beneditarrak.

4.4. **Erlijosak**

Ez dut zehazterik erlijiosa euskaldunen kopurua. Baina etxe gehienetan euskaldun bat baino gehiago aurkitzea ez da batere harrigarria, bai moja kontemplarien artean (klaratarak, karmeldarrak...) bai osasun eta irakaskuntzan dabilzanan artean (Vedrunak, Berrizkoak, Neverskoak, Merzedariak, «Hermitas», Karitatearen alabak, Ursulinak...) Erlijiosa hauek euskara gorde badute, gehien bat euren familiari esker izan da. Arabako emakumezkoen komentueta euskarak leku gutxitxo izan duen susmoa dut. Hauetako askori euskara nahiko ahazturik gelditu zaio. Moja euskaldun berri batzuk ezagutzen ditut.

4.5. **Apaizgoa utzitakoak**

Atal honetan beste dozena bat abade-ohi euskaldun sartuko genuke. Horietatik sei eskolak jaso ditu; bi euskaltegiek; hiru unibertsitateak. Bestalde, Gasteizen hainbat abade-ohi eta fraide izandakoak bizi dira. Elizetan inoiz horrelako argazkiak atera daitezke: mezaburuaren aldamenean lau abade-ohi: organo-jolea, kantu-zuzendaria, ohargilea eta irakurlea. Adibide haua *Pilar* parrokian hainbatetan gertatu da.

4.6. Apaiz elebidun hartzaile pasiboak

Apaiz euskaldun berrien kopurua nabarmena da. Agian ez dute inoiz maisuen maila lortuko, baina milaka eta milaka ordu eder sartua du Arabako apaizgoak euskaraz ikasten eta batzuk irakasten, isilean, normalki, eguneko lehenengo orduak erabiliz, oporrak euskara ikasten inbertituz.

Agian, ez zaie eliz-zerbitzurik euskaraz gehiegitan eskatuko. Agian, erdi lotsaturik daude euskara bide erdian gelditu zaielako. Agian, euskararekiko ezina adieraziko dizute. Baina, ziur nago, gure Elizari eta herriari funtsezko giroa eskaini diotela Arabako toki askotan euskaraz normaltasunez aritu ahal izateko.

5. EUSKAL PASTORALTZARAKO OINARRIAK

5.1. Oinarri historikoa

Gaur poza adierazi beharko genuke Arabako Elizan jarraipen positiboa izan delako mendeetan zehar euskararen mesedetan. Díaz de Luco, Betolaza, Prestamero, Olabide, Urretzarazu, Narbaiza, Anitua, Basterrika, eta beste asko, –gehienetan, oso garai zailetan–, nabarmendu ziren euskararen aldeko ahaleginetan.

5.2. Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren bultzada

Pozik hartzen ditugu aintzat Vatikanoko II. Kontzilioaren gogoetak. Beranduago eginiko beste eliz-dokumentuek ere garbi erakusten digute Elizak nolako sentiberatasun argia izan behar duen herrien izakera osatzen duten kulturaren eta, era berezian, hizkuntzaren aurrean.

- Elizak bere historiaren hasieratik, herri ezberdinetako kontzeptu eta hizkuntzen bidez adierazten ikasi zuen Kristoren mezua eta, horrez gainera, filosofoen jakinduriaraz janzten ahalegindu zen; eta guztia, Ebanjelioa, bai guztien ulermenera eta bai jakintsuen eskakizunetara, komeni zen eran egokitzearen. Egiaz, errebelatutako hitzaren prediku egokitu honek, ebanjelizatze ororen lege izan behar du. Izan ere, honela, Kristoren mezua herri guztietan nor bere erara adierazteko aukera indartzen da eta, era berean, Elizaren eta herrietako kultura ezberdinen arteko harreman bizia eragiten da (*Gaudium et Spes* 44).
- Sarritan bertako hizkuntzaren erabilera oso ongi etor liteke herriarentzat. Horregatik, bai mezatan eta bai sakramentuak ematerakoan eta liturgiako beste arlo batzuetan, toki handiagoa eman dakioke, batez ere irakurgai eta oharpenetan, otoitz batzuetan eta kantuetan (*Sacrosantum Concilium* 36.2).
- Paulo VI.ak, *Evangeli*i Nuntiandi entziklikan gogorarazten digu: Ebanjelizazioak indar eta eraginkortasun asko galtzen du, gogoan hartzen ez baditu ebanjelizatu nahi duen herria, bere hizkuntza, bere zeinuak eta sinboloak; kezka sortzen dioten galderei erantzuten ez badie; bere bizitza konkreturaino iristen ez bada (E.N. 63).

- Gasteizko Elizbarrutiko Batzarreak (1991) gure kultur-gatazkaren aurrean erantzukizunez beteriko sinesmena bizitzera dei egiten zigun: Gure herrian bizi diren gaztelarren eta euskararen bi kultur ezberdinen erdian: adiskideturik da goen eta adiskidetzaila den Elizaren testigantza emateko dei sakona entzuten du Gasteizko Elizbarrutiak. (VI. Gaia, 10. helburua). Antzeko aipamenak aurki daitezke Elizbarrutiko Batzarrean: V. 9 eta 10; X. 11 eta 12.

6. KRISTAU ELKARTE EUSKALDUNAK

6.1. Arabako herri euskaldunak

Aramaioko bederatzi parroketan, *Arexola*, *Azkoaga*, *Barajuen*, *Etxaguen*, *Gantzaga*, *Ibarra*, *Untzila*, *Uribarri* eta *Oleta/Otxandio* ondokoa, barne. 1500 biztanle; horietatik 80 pertsonak ez dakite ia ezer euskaraz. Beste 125 pertsona, euskara jakin arren, ez dira gauza euskaraz moldatzeko.

Liturgia guztia, euskaraz egiten da, bederatziruarenak eta erromeriak barne. Ibabeko Kofradiak euskaraz egiten ditu liburuko aktak eta oharpenak. Jendearentzako informazio idatzia ele bietan ematen da.

Familia erdaldunak, zuzenean inplikaturik daudela, ele bietan egiten da, baina kantak eta familiaren eskerrona euskaraz nahiago izaten dute.

Katekesiko guraso gehienekin euskaraz egiten dugu; bateren batek euskaraz ondo ez dakienean, asko baldintzatzen du hizkuntza-dinamika.

Laudion, *Legutianon* eta ondoko *Elosun* eta *Urrunagan*, euskaldunen proportzioa nabari jaitxi egiten delako, eredu elebidunetan moldatzen dira.

6.2. Gasteizko Kristau Elkarte Euskaldunak

Eliza Zerbitzu osoa (liturgia, katekesia, elkarte antolamendu finkoa, abadea) euskaraz eskaintzen duten parrokia edo gurtza-lekuak aspaldidanik egonkor mantendu dira: *Pilar*, *Gure Aita*, *Estibaliz*, *Jesus Langilea*, *Jesu Kristo Berpiztua*, *Xabierko San Frantzisko*. Ariznabarrako *San Paulo* parrokiak elebitasunaren aukera nabarmena egina du. Eliztarrak, oro har, gutxitu egin dira.

Euskal Elizbarrutietako agiri ofizialak erabiltzen dituzte: Bataio, ezkontza, hildakoena. Elkarteen barruko dinamikak, diru-kontuak, bilerak eta aktak ere euskaraz egiten dira. Elizkizunak duintasunez ospatzeko badago hainbat baliabide.

Elkarte euskaldun hauek dira Euskal Herriko gainerako Elizbarrutien fruituak hartzen dituztenak: Itzulpen liturgikoak (*Irakurgaiak*, *Meza Liburua*, *Orduen Liturgia*, sakramentuen *erritualak*...); kanta liburuak (*Aranburu* klasikoa, *Gora Jainkoa* sailekoak, *Lazkaoko Meza Abestiak*, Loiolako *Cantos Religio-*

sos; Arantzazuko 5 *Kanta Dezagun-cantemos*, Belokeko 4 *Ezkila, J. Elezkanorenak, Berri Ona Kantuz...*); musika erlijiosoaren 50 zinta inguru; aldizkariak (*Karmel, Arantzazu, Mintzo ta kantu, Fededunak, Hemen...*); Gotzainen Idazkien euskarazko bertsiokak eta abar.

Euskaraz argitaratzen diren liburu erlijioso gehienak itzulpenak dira, baina lan batzuk meritu handi-handikoak dira: Vatikanoko II.a, Asisko San Franzisko, eta Teresa Lisieux-koa. Deustuko Erlijio Kulturaren Bildumak ongi baino hobeto bete du teologian geneukan hutsunea. Urteak beharko dira ahalegin erraldoi hauei zukua ateratzeko. Hauetaz gain, bada zer erosi euskarazko erlijio-liburuen artean.

Hauekin gutxi balitz, Elizbarrutietako eta erlijiosoen web guneetan hainbat baliabide eder aurki dezakegu euskaraz.

Dena den, Arabako pastoralgile euskaldunak, jasotzaile diren neurrian, erabiltzaileak dira. Hori gehien bat ikusten da katekesian.

6.3. Umeen katekesia

Ekintza honek jende eta baliabide asko inplikatzeko du: katekista, ume, guraso, abade. Baliabideen aldetik lan asko daroa sei mailetako umeen liburuak prestatzeko; gehiago katekisten gidaliburuak. Euskal Elizbarrutietako elkarlanak ahalbidetzen du liburuen duintasun maila, bestela ezinezko litzateke. Lan talde zabala egon da murgilduta prozesu osoan.

Ikus-entzuteko baliabideak prestatzea ere lan interesgarria izan da. 40 bideo-kasete euskara ulergarri izatea lortu da. Ez da txantxetako marka. Euskal Elizbarrutiek batera, Ikastolen Federazioa eta Erlijiosoak ibili dira. Gabezia gabezia, euskarazko katekesian aukera egokiagoak ditugu bideoetan, gaztelaniaz dabilzanak baino. Inoiz, erdal katekesiko umeek bideoak euskaraz ikusi dituzte, probetxuz.

Gasteizko zentroetako eta Laudio, Amurrio, Urduña, Aramaio eta Legutianoko katekesiek iraunkor diraute. Guztira 680 ume ziren igaz katekesia euskaraz eskaintzen zuten zentroetan. 70 katekista euskaldun inguru ari da lanean. Eskariaren eta eskaintzaren arteko oreka gutxitan gertatzen zaigu. Gehienetan katekista helduak falta dira. Elizbarrutian 4.115 ume ziren gaztekerazko katekesian. Araban 13.631 ikasle dira Lehen Hezkuntzako sei mailetan.

6.4. Eskolako erlijio irakaskuntza

Elizbarrutian 36 irakasle dira, ikastetxe publikoetan eskolako erlijio gaia euskaraz irakasten dutenak. Badute gaitasun akademikoa: diplomatu eta lizentziatuak dira. Badute euskaraz irakasteko legezko maila, ofizialtasun osoz aitortua. Badute Erlijioaren irakaskuntzarako titulu espezifikoa. Badute Gotzainen baimena. Guzti horien azpian, ordea, borroka latza dute eskolan.

Ikastetxeetan ikasle-taldea sortzea kosta egiten da. Hainbat ikastetxetan ez dute aukerarik ere eskaintzen. Beste batzuetan hamaika traba jartzen dizkiete. Eta taldea sortu eta gero, parekotasun ezarik larriena sortzen da. Erlijioek badute programa eta eginbidea. Baina erlijioa aukeratu ez dutenentzat, kasu gehienetan, ez dago eskaintzeko moduko gogoeta etiko adostua. Ondorioz, ikasgai hauen izaera kolokan da aspaldiko urteetan, maila akademikoaren eskakizunak zehaztu barik.

Egoera honek irakasleengan nekea eta ezina sortarazten ditu. Ez dute baldintza onik bakez eta probetxuz lana egiteko.

6.5. Euskal Pastoraltzaren Zerbitzua

Elizbarrutian talde eta esperientzia desberdinak daude. Denek elkarren beharra sentitzen dute. Koordinazioa dute amets.

Antolamendu arloan urrats txiki baino esanguratsuak ematen ari dira. Euskal Pastoraltzaren Zerbitzuan apaiz talde batek aspaldidanik jarraitzen du lanean. Asmoz, laster sortuko da Euskararen Arloko Pastoral Kontseilua, euskaraz ari diren toki desberdinetako pastoralgileen ordezkariak osaturik. Leku batzutan badute pastoral batzorde edo batzarra, beti tokian tokiko parroketan eta pastoral-barrutietan txertaturik.

Talde honen arduraduna, idazki honen egilea da. Ez du aginte mailarik; baina bere parrokiari euskara bultzatu nahi izan duenari beti erantzun dio. Elizbarrutian zerbitzu hau jarri denetik ezinbesteko erreferentzia bihurtu da. Gehienetan itzulpen beharrak asetzen dituelako; baina, baita ere, nora jo ahalbidetzen duelako.

7. ELIZBARRUTIKO ERAKUNDEAK

Euskaldunak lanean ari dira, baina nolako laguntza jasotzen dute Elizaren erakundeetatik?

7.1. Gotzaina

Asurmendi Gotzainak gaztelaniaz betetzen ditu ia bere eginkizun guztiak; baina Gasteizera etorri zen unetik tarte bat eskaini dio euskarari. Astero du hitz-ordua euskarako irakaslearekin (Izaskun Arrue). Igarri egiten zaio, jendaurrean irakurtzen duena ulergarri gertatzen baita. Oporretan aste pare bat erabili ohi du euskara ikasteko. Azken udaldian Arantzazun izan zen.

Meza euskaraz ospatzeko moldatzen da. Musikaria izateak eta kantarako dohainak asko laguntzen diote. Elizbarruti mailako ospakizunetan hitzaldiaren zati batzuk euskaraz ematen ditu.

Behin baino gehiagotan, eliztar eta elizgizon batzuen bekozkoa ikusi du, elizkizun batzuetan euskara «gehiegi» erabiltzeagatik. Batzuk «euskaldunen menpekotzat» daukate, «euskal abertzaletasunez kutsaturik». Ez dago horrelako beldurrik. Dena den, Euskal Pastoraltzan gabiltzanok eskertu diogu euskararekiko duen jarrera. Apaiz askok badute non ikasi. Beste egoera batean ez genuke gauza bera esango.

7.2. Gotzain Kontseilua

Elizbarrutian gorengo arduradunak dira: Bikarioak eta Idazkari Nagusiak. Gaztelaniaz moldatzen dira. Inoiz euskaldun bat suertatu da taldean. Orain euskara gehien dakiena gotzaina da. Hasiera samarretik Euskal Herriko Elizbarrutien eskutik ibili dira euskal gaietan: Itzulpen liturgikoak, Argitalpenak, Katekesia, Pastoral Idazkiak, eta gainetiko euskal arazoetan. Gehien bat Gotzaina eta Bikario Nagusia arduratu dira.

Finantziazioari buruz, orain dela 27 urte, Euskal Elizbarrutiek hitzarmen bat egin zuten eta aurrera jarraitzen dute. Aldaketak egiten dira partaideen arabera. Bilbo, Donostia, Gasteiz, bakarrik edo Iruñekoekin batera, edo Baionak ere parte duen, edo argitalpen ekumenikoa denean protestanteek ere parte dute. Adibidez, orain *Elizen arteko Bibliaren* bigarren argitalpena dute eskuen artean. Goitik behera aztertu dute Biblia osoa Euskaltzaindiaren azken 10 urtetako erabakiak gozoan hartuta. Liburua eta CD bat agertuko da. Arabako Elizak dagokion zatia ordainduko du.

Euskal Pastoralta, apaiz eta fraide euskaldunen esku utzi dute. Elizbarrutiko Euskararen Arloko Pastoral Kontseilurako iradokizunak eginak dizkigute.

Euskal Herriko Elizbarrutietako Artzipreste eta Arduradunen topaketak antolatzen dituzte, batzutan Loiolan, beste batzutan Arantzazun. Beste horrenbeste egiten dute erlijiosa-erlijiosoen buruekin. Arabako Elizari horretatik on baino ez datorkio.

Badute gehiago egiterik? Dударik gabe, askoz gehiago egin zezaketen. Euren gabeziak eta inertziak ondo ezagutzen ditut. Ez badute jarrera oso euskaltzalea ere, ez dira itxiak. Euskal Pastoraltzaren eragozpen handienak ez ditugu hemen aurkituko.

7.3. Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua

Pastoral Kontseilua Kontzilioko eskakizuna da. Elizbarrutiko Batzarraren ondoren eratu zuten. Honen konposaketa: 34 laiko, 12 abade, 10 erlijioso-erlijiosa eta Gotzaina bere bikarioekin. Harrigarria da oraingo kontseilukideen gaztetasuna eta prestaera maila. Batzar Nagusiaren iradokizunak jaso eta Pastoral Egitasmo berriak lantzea da haren egitekoa.

Pastoral Kontseiluak adostasun zabalez onartu ditu euskal pastoraltzaz egin zaizkion bi proposamenak. Lehenengoan, Euskal Pastoraltzaren Zerbitzua-aren helburuak eta programa aurkeztean, 60 botoetatik bi boto bakarrik izan ziren kontrakoak; eta bigarrenean, euskarari buruzko gomendioak onartzean, bozka guztiak aldekoak ziren, boto zuri bat izan ezik. Horrek aditzera ematen du, Arabako Elizaren barruan badagoela euskararen aldeko giroa. Baita, euskal pastoraltzaz gabiltzanok nahiko ondo ezagutzen dugula geure errealitateari zer eska diezaiokegun.

8. EUSKARA ELIZBARRUTIKO ARLO PASTORALETAN

Gure Elizbarrutian egiazko aurrerapausoak eman ditugu euskararen erabilpenean. Hori pastorgintzaren edozein arlotan ikus daiteke. Honez gero Elizbarrutiko erakunde askok gogoan dute euskararen errealitatea.

8.1. Katekesia

Oraintxe arte esandakoa eta gehiago egiten dute. Adibidez helduen katekesitako materialak prestatu. Katekisteei begira egindako *Catequistas* aldizkarian laburpen txiki batzuez gain, orri batzuetako testuak euskaraz eman dituzte.

Katekesiko liburudendak, euskarazko eskaintza borobilik ez badu ere, oinarriko liburuak eskaintzen ditu, baita azken argitalpenak ere. Batez ere umeei begira: *Biblia* irudidunak, kantak...

Agurainen eta Urduñan, adibidez, katekesi saioak hasi aurretik erabiltzen da euskara, apaizak horretarako gai direlako eta ume guztiak horretarako jarrerara ona dutelako. Kanpetzun bi katekista euskaldunak dira. Euren taldeek euskaraz egiten dute katekesia, arazo berezirik gabe. Kasu hauetan guraso gehienek gaztelaniaz jarraitzen dute umearen fede heziketa, nahiz eta gogoz onartu katekesian ere euskararen presentzia jarraitua.

8.2. Gazteak

Elizbarrutiko sailarik dinamikoena da. Ekintza ugari plazaratzen du. Esku-orriak noiznahi ateratzen dituzte. Hormirudiak, deialdiak, *web gune* berezia. Denetan dute leku bat euskararentzat. Euskal Zerbitzuari galdera eta eskaera dozenaka egiten dizkiote.

Gazte Sailaren dokumentu nagusiak: *Gaztaro* 1, 2 eta 3 elebietan argitaratu zituzten. Oraingo Plan Estrategikoa, *Garai berriak* deiturikoa itzultzen ari dira. *Gazteen berriak* du izena sail honen aldizkariak. Artikulu batzuk euskaraz egin dira. Laburpen txikiak ugariak dira.

Atsedean Taldeak, Elizbarrutiko Gaztetxoen elkarteak, ele bietan aritzeko akordioa hitzartu dute. Euskal Herriko Eskautek hizkuntza biak erabiltzen dituzte sistematikoki.

8.3. Liturgia

Nabarmen hobetu da euskararen erabilera Elizbarruti osoari dagozkion ospakizunetan.

Elizbarrutiko Batzarraren klausura ospakizuna ondo apaindu zen: euskal kanta ugari, ohargile elebidunak, bertso jarriak. Batzarraren hamaika gaietako azken erabakiak ele bietan aurkeztuak izan ziren. Jakinekua, gaztelania izan zen nagusi, baina euskarak oso leku duina izan zuen elizaren itzelezko ekitaldi batean. Euskaldunak oso pozik irten ziren katedraletik.

Antzeko zerbait moldatu zen Larrauri gotzainaren agurrean eta Asurmendiren etorrera egunean. Ospakizunak oso ondo irten zirelako, euskararen presentzia nabarmena tartean, nolabait ospakizun-eredua finkatu zen. Harrezkero, ohitura bihurtu da Elizbarrutiko ospakizunetan euskara dexente sartzea: Kantak, Mezaren erantzun batzuk, irakurgairen bat, oharpenak, hitzaldiaren zati batzuk, eskariren bat...

San Prudentzio, Krisma Meza, apaizgintza, apaizgintzaren 50. edo 25. urteurrenak, Lourdesko erromesaldia, Andra Maria Zuriaren eguna, bakearen aldeko ekitaldiak, eta abar momentu bereziak bihurtu dira. Nekez ospatuko dira euskarari aukera nahikorik eskaini gabe.

Bestalde, gehitu egin da elebitasunaren sarrera ohizko gaztelaniazko ospakizunetan, batez ere eliz-kantak haurrak diren mezetan. Erdal eta euskal abestien arteko proportzioa eta maiztasuna guztiz aldatzen da parrokia batetik bestera. Jaunartze egunetan gertatu da, erdaldunak % 80 izan arren, erdaraz % 20a baino ez egitea; jakina, onarpen guztiz zabalez.

Parrokia batzuk badute euren bidea euskarari ekiteko. Beste batzuk ez, eta egun gehienetan ez zaio lanik falta Euskal Zerbitzuari. Orain bataio baterako laguntza. Orain hileta elizkizunerako. Gero kantaren bat. Hurrengoan partitura eta guzti. Jaunartzeak datozela; herriko jaiak direla; errotuluak jarri behar dituztela, esku-orria atera behar dutela. Gasteiz hirian eta Arabako herrietan nahiko zabalduta dago jokaera hau.

8.4. ETBko mezak

Honez gero 120 baino gehiago dira ETBko Arabatik emandako mezak euskaraz. Gutxienez 35 lekutatik. Azkenekoak Manurgatik eman dira, urrian. Printzipioz bertako parrokiako elizkideek hartzen dute parte, beti ere albokoan laguntza hartzen dutela. Adibidez, Manurgako Meza horietan Zigoitiko hainbat euskaldun agertu zen, baita parrokoaren lagun gasteiztar batzuk ere, kantuan eta organoan laguntzen. Gasteizen antolatzen direnean elkarte euskaldunen batek laguntzen du.

Dena den, urte bete igaro da ETBko meza-ordua aldatu zutenetik. Orain goizeko 9etan da. Ordu hori ez da batere egokia nagusi eta ezinduentzat. Ez dut esango ETBk eskubide batzuk urratu dutenik, ez. Bakarrik esan nahi dut aitona-amona euskaldun askori ezinezko bihurtu diotela meza euskaraz telebistan ikustea. Erdarara pasatu dira asko eta asko, ordu egokiagoa dutelako. Honen harira, Meza horietan parte eginkorra izan dugun apaiz askori oinarritzko irizpideak aldatu dizkigute. Osasuna urratuta dutenentzat ez bada, zer-tarako eta norentzat eman telebistatik Meza? Pantailan dotore agertzeko? Ez. Ameriketako erdaraz ikus dezaten? Ez. Nonbait, ETBkoek ahaztu egin dute Elizan zerbitzua dela klabea eta nori zerbitzu egin garbi ez badago, arazo larria.

8.5. Seminarioa eta Teologi Fakultatea

Ikasleen kopurua, laikoak barne, irakasleen parekoa da. Irakasleen maila, oro har, guztiz inbidiagarria. Andres Ibañez, nire aurretik berba egin dizuena, adibide ona izan duzue. Gaur ez da apaizgairik Gasteizen. Baina urtero egiten da Seminario eguna. Kanpaina horretan lan bikaina egiten dute. Material guztiak hizkuntza bietan argitaratzen dituzte. Aurtengoak, guztira, 30 orri izango ditu euskaraz, apaizgoaz gogoeta luzea dakarrela. Bestalde, zelan ez dizuet esango Seminarioko liburutegia ederra dela, oso. Euskarak badu leku txikitxo-ren bat. Beste edozein hizkuntzatakoa baino txikiagoa. Liburutegia liburuz elikatzeko, hiru aldizkari argitaratzen dituzte: *Lumen*, *Surge*, eta *Scriptorium Victoriense*. Gainera, Victoriensia bildumak 71 doktorego tesi baino gehiago eman ditu argitara.

Euskara ikasteko aukera eskaintzen du Fakultateak. Bada irakaslea. Noiz-bait aukerako ikasgai batzuk euskaraz eman dira. Lizentziaturarako tesina batzuk euskaraz landu eta defendatu dira.

Euskal Herriko Erlijioso Bizitzaren Teologia Institutuak Seminarioan bertan du bere egoitza. Lan gehienak *Frontera / Hegian* gaztelaniaz argitalpenetan ematen dituzte. *Hemen*, erlijio gogoetarako aldizkaria plazaratu berria dute euskaraz.

8.6. Komunikabideak

Elizbarrutian bada *Nagusia* aldizkaria. Ez duzue gauza askorik euskaraz aurkituko. Ez dago debekurik euskara sartzeko. Baina nork idatzi? Badira berripaperak. Gotzaindegiak bat ateratzen du, urtean lau bider edo. Euskara gutxi darama, baina beti azalduko da 6 edo 8 tokitan, sumario gisa, laburpen moduan, inoiz zutabe bezala. Karitasekoek ere bi hilabetekaria eta urteko txostena argitaratzen dute. Azken urteetan hasi dira euskara sartzten. Misioetakoek ere aldizkari formalago dute, *Los Rios* izenekoa. Euskara gutxi sartzten dute, baina inoiz ez dira gelditzen erdara hutsean.

Web orriak ugarituz doaz gure Elizan. Badakit ahalegin handiak egiten dituztela oinarritzko edukiak euskaraz jartzen.

8.7. Solidaritate kanpainak

Gure Elizbarrutian hainbat kanpaina edota diru-bilketa egiten da urtero. Egun jakinetan egin arren, garaiz iragartzen dira hormirudien bidez. Haur Misiolariak; Gosearen Aurkakoa, Euskal Misiolariena. Karitasek kanpaina bereziak egiten ditu Ostegun Santuz, Kristoren Gorputz-Odol Santuen egunean, eta Gabon aurreko domekan. Urrian Domund eguna dator. Kanpaina guzti hauek euskaraz badu adierazpidea. Hormirudiak, Mezatarako lagungarriak, pegatinak, margotzeko marrazkiak, bideoak, kantak. Batzutan eskolarako baliabide pedagogikoak ere lantzen dituzte.

Hemen ez dago dena esaterik. Atal garrantzitsuren bat geldi daiteke aipatu gabe. Esate baterako, herri txikietako apaizen taldeak edo Euskal Herriko Apaizen koordinakundeak agiri eleanitzak egiten dituzte. Nire ustez, oinarritzkoenak agertu dizkizuet. Jakingarri izan daiteke Elizbarrutiko Artxibo Historikoan eta Arte Sakratuaren Museoan badirela langile euskaldunak.

9. ZAILTASUNAK EUSKARAREN ERABILERA PASTORALEAN

9.1. Euskaldunen proportzioa txikia izatea Arabako gizartean. Kristau euskaldunena oraindik txikiagoa. Apaiz euskaldunak, bistan da, gutxi batzuk baino ez gara.

9.2. Euskara ondo ez ezagutzea. Ondo alfabetatuak gutxi dira Elizan, bai elizkideen artean, bai pastorgileen artean. Gotzainen pastoral idazkiak, eliztar gehien gehienek nekez irakurtzen dituzte euskaraz.

9.3. Pastorgile euskaldunak, lan hirukoitza egin behar izaten du. Bate-tik, kristau euskaldunei euskaraz zerbitzua egin; bestetik, euskaltzale erdaldunei euskaraz egin dezaten laguntza eman, eta, azkenik, inguruko erdaldunak ere erdaraz zerbitzatu.

9.4. Oharpen txikia izan euskararen garrantziaz, bai Elizarentzat eta bai Euskal Herriaren etorkizunerako. Ematen du batzuei pareko egiten zaiela euskaraz egitea eta abertzale sentitzea. Euskal sentierak, berriz, ez du ordezkutzen euskara. Beste muturretako batzuk oso begirune gutxi erakutsi diote euskarari.

9.5. Itzulpenaren menpe. Euskaldunok Elizan gehienetan azkar egin behar izan diren itzulpenen menpe bizi gara. Bibliaren eta liturgiaren testuak, oso ondo eta egoki moldatuta daude euskarara. Lar ondo, askoren ulermen mailarako.

9.6. Gorabehera politikoen zurrunbiloak, indarkeria odolzalea barne, euskararen errealitatea osoa astintzen du. Euskara mugimendu politikoen tresna

bilakutzen denean, handitu egiten da euskaldunen arteko mesfidantza. Bakean eta patxadaz lan egiteko giroa falta denean, irabazi gutxi dago alor gehiengotan. Gutxienez, indar galera izugarria gertatzen da. Herri honen indarrak ez dira mugagabeak.

9.7. Euskalgintzako zati esanguratsu baten eta elizaren arteko etena, gero eta larriagoa da. Ez da Elizarentzat ona. Bestalde, euskal gizarteak ez du bertako Elizaren lanik mardulenak ezagutzen. Penagarria benetan.

10. GOMENDIOAK ELKARTEENTZAT

Gasteizko Elizbarrutian euskarari leku egokiago egiteko ondorengo gomendioak onartu zituen Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak..

1. EUSKARA IKUSARAZI: Elebitasuna kanpoko agertokietan arduraz zaintzea: parrokiaren izena, errotulazioa, hormirudiak, agiri-ofizialak, oharak...

2. EUSKARAREN ALDEKO JARRERA ONA BILATU: Elkaratearen bitartean tentuz eta gozotasunez elebitasunari bide ematea: harreran, bileretan, agurrak egitean, abesti, otoitz eta abarren bidez.

3. LANA AURRERA ATERAKO DUTENAK BILATU: Talde pastoral elebiduna prestatzea, parrokiaren edo artziprestaldean, laikoak, erlijioso-erlijiosak eta apaizak barne direla, eliz-zerbitzuak euskaraz burutu ahal izan dezaten duintasunez: Eukaristiak, hileta-elizkizunak, Bataioak eta gainetiko sakramentuak, baita beharrezko itzulpenak ere.

4. GUTXIENEN BALIABIDEAK LORTU: Oinarrizko liturgi-liburuak euskaraz edukitzea, gutxienez Gasteizko eta herri nagusietako parrokia eta gurtza-lekuetan: *Biblia, Meza Liburua, Irakurgaiak*, sakramentuen erritualak, abestiak....

5. EUSKARA ERABILI, BAINA SAKABANATU GABE: Ohizko liturgi ospakizunetan euskarazko abestiak tartekatzea, Euskal Pastoraltzaren Zerbitzuak aukeratutako kanta sorta laburra aprobetxatuz.

6. EUSKALDUNEI KATEKESIA EUSKARAZ ESKAINI. Katekesia euskaraz parrokiaren bertan eskaintzea edo zerbitzu hori artziprestaldeko albo-ko parrokiaren hartzeko bideak erraztea. Gazteen pastoralgintzan ere berdin jotzea.

7. ARTZIPRESTALDEEN EGINKIZUNA AZTERTUARAZI. Artziprestaldeetan ospakizunak euskaraz egiteko bideak aztertu eta irtenbide bat bultzatzea.

8. ELIZBARRUTIKO ERAKUNDEEI EUSKARA ZAINTEZKO DEITU. Elizbarrutiko erakundeek plazaratzen dituzten solidaritate, formazio edo otoitzerako kanpainetan baliabide elebidunak prestatzea eta eskaintzea.

- Hormirudi elebidunak hasieratik elebidun asmatu behar dira. Letra ugariak ez du laguntzen. Hitz jokoek itzulpen zaila dute. Sarri ez du balio gaztelania edo euskara hutsezko kartelak. Biok dira beharrezkoak.
- Euskararen ikuspegitik Elizaren euskarazko mezuak, gehien bat, gazteei eta umeei begira egin behar dira, euskara ezagutzen dutelako. Adibidez: marrazkiak, ikur-hitzak, pegatinak, oharrak, otoitz laburrak, dinamikak, esku-lan txikiak, ikus-entzutekoak...
- Kanpaina bat Elizbarruti batek baina gehiagok bultzatzen badu, hobe da elkarren artean lan egitea, bakarka antzerako gauzak egiten ibiltzea baino.

9. EUSKAL ZERBITZUA DENEI ESKAINI. Gai hauetan sor daitezkeen galderak, zalantzak edo zailtasunak argitzeko Elizbarrutiko Euskal Pastoraltzaren Zerbitzura jotzea.

Etxea Jaunak eraikitzen ez badu
alperrik ari dira etxegileak (127. Salmoa)

Eskerrik asko zuen gonbite eta arretagatik.

Esan dut.

**IX. JAGON JARDUNALDIAK: «ELIZA ETA EUSKARA
BILBOKO ETA DONOSTIAKO ELIZBARRUTIETAN»**

Bilbo, egoitza, 2005-XII-16

JAGON IX. JARDUNALDIAK

Aurkezpena

Bilbo, egoitza, 2005-XII-16

*Andres Iñigo,
Jagon sailburua*

Euskaltzaindiak bere betebeharrak nagusiak bideratu ahal izateko bi atal ditu, *Iker* eta *Jagon* Sailak. Euskara ikertzea dagokio lehendabizikoari eta jagotea edo zaintzea bigarrenari. Bigarren honek, *Jagon* Sailak alegia, euskararen erabilera zertan dagoen ikustea eta aztertzea du helburuetako bat. Gauza jakina da Eliza euskararen euskarri izan dela mendeetan zehar eta bere eragina erabakigarria gure hizkuntzaren erabileran.



Baina garaiak aldatzen dira eta garaiekin batera egoerak. Horregatik, *Jagon* Saileko Sustapen batzordeak, egoera hori hurbiletik ezagutu nahian, komenigarri jo zuen gaur den eguneko errealitateari pultsua hartzea, euskararen erabilerearen termometroan merkurioa nontsu kokatzen den ikustea.

Andres Urrutia orduko *Jagon* sailburuak lehenengo Jardunaldien aurkezpenean zioen Iparraldeko *Herria* astekarian agertutako albistea izan zela, besteak beste, gai hau garatzera bultzatu zuena. Zer zela eta? Albiste horren arabera kezka nagusia sortzen ari zen Elizaren zereginetan euskararen erabilera maldan behera zihoalako, euskararen betiko euskarria zalantzan eta kinka larrian jartzen ari zelako.

Euskal Herri osoko ikuspegia izan nahi eta egitaraua hiruzpalau urtez garatzea pentsatu zen. Euskal Herria bat izanik, hiru lurralde administratibotan zatitua baldin badago, oraindik zatituago dago eliz administrazioan, zortzi elizbarrutitan alegia: 3 Iparraldean (Baiona, Leskar eta Oloroe); 2 Nafarroan (Iruñea eta Tuter); 3 Euskal Autonomia Erkidegoan (Gasteiz, Bilbo eta Donostia).

Gure ibilbide honek 2002an izan zuen hasiera. Hendaian egindako Jardunaldietan azaldu zen Iparraldeko hiru elizbarrutietako egoera, 2003an Irunberrin aurkeztu zen Nafarroako bi elizbarrutietako azterketa sakona, 2004an Gasteizen izan genuen bertako elizbarruti historikoarena eta gaur amaiera emateko Bilbo eta Donostiako elizbarrutietako ordezkari bana dugu hemen. Eskerrak eman nahi dizkiegu bere kolaborazioagatik eta, besterik gabe, hitza eman.

EUSKARAREN ERABILERA BIZKAIKO ELIZAN: IRIZPIDE NAGUSIAK

*Bilbo, Euskaltzaindiko egoitza,
2005.eko abenduaren 16an*

A. M. Unzueta Zamalloa

ABIAPUNTUKO OHARRAK

1. Eliza gizon-emakume boluntarioz bildutako elkarte da. Sarrera dohain da eta, sartzean, eliztarra eskubideen jabe egiten da. Hauen artean, fedea areagotzeko behar diren laguntzak (formazioa eta sakramentuak batez ere) daude. Fededun bakoitzak laguntzok bere hizkuntzan hartzeko eskubidea osoa du, beraz, hizkuntza guztiak baitira ofizialak Elizan Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren. Aniztasuna dagoenean, denen artean landu eta berriztatu behar dira bideak, elkar konbentzitzuz, nekez dekretuz.

2. Helburuak zehazten du Elizaren izana. Nortasuna eta zeregina bat bera dira, beraz. Elizaren izana eta zeregina ebanjelizatzea da, hau da, Jesukristoren berri ematea hitzez eta egitez. Horregatik, ebanjelizatzean izan behar du oinarria edozein erabakik (hizkuntzaren erabilerari buruzkoak ere bai).

3. Euskararen zabalkundea dela eta, elizbarruti bakoitzaren egoera nahiko desberdina da. Are gehiago, diozesiaren barruan ere, euskararen mapa oso desberdina izan daiteke. Eta, estu hartuta, eskualde askotan ere, parrokiak eta inguruak bereiztu behar izaten dira. Honenbestez zera esan nahi da: Bizkaian, esaterako, elizbarruti osorako argibide nagusi batzuk besterik ezin direla pentsatu eta horren aplikazioak eskualdeetan eta parroketan egin behar direla.

4. Inkesta soziologikoa hasi berri dago Bilboko Elizbarrutian. Beraz, datu zehatzik ez dago oraindik. Ahalik eta lasterren bildu eta zabaltzeko asmoa dago. Parrokiak eta elizbarrutiko zerbitzu nagusiak agertuko dira bertan. Era berean, erakundeotan erabiltzen diren irizpideak eta arazoak aipatuko dira hemen. Beste alor batzuk (Elizaren eskuetan dauden ikastetxeak, klinikak edo nagusien egoitzak, esaterako) ez dira agertuko.

ARGIBIDE OFIZIALAK

Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak izandako saio biren ondoren, 2002. urteko martiaren 1ean, Gotzainak ondorengo argibideok jarri zituen indarrean elizbarrutirako:

1. Fedearen heziketan, batez ere erlijio esnaera fasean, familiak duen garrantzia gogoan hartuz, eskolako irizpideari besterik gabe jarraitu beharrean, aintzakotzat hartu behar da etxeko hizkuntza edo lehen hizkuntza. Azken erabakia gurasoen eskuetan utz daiteke, elkarriketa izan ondoren.

2. Liturgiarako oinarrizko irizpidearen iturriak Kontzilioak esandakoetan bilatu behar dira: alde batetik, eliztarren partaidetza osoa, jakinekua eta gogotsua bultzatzean (ik. SC 14 eta 21), eta bestetik, Jainko herriak liturgi ekingizaren egile bezala duen nortasunean (ik. SC 26). Toki eta une bakoitzean baten den elkartearen hizkuntza pluraltasuna jaso behar da elizkizunean. Elizbarrutiko elkarte guztiek, guztion fedea ospatzean, elizkizunaren atal bazuatan hizkuntza biak erabili ahal izan dezatela bilatu behar da. Hizkuntza baten alde egiteak ez du esan nahi bestea galarazi behar denik.

3. Agiri ofizialak eta elizbarrutirako zerbitzuetatik datorren informazioa euskaraz eta erdaraz emango da. Inguruko txikiagoetarako berri ematean ere, hizkuntza biak erabiliko dira, tokian tokiko egoera soziolinguistikoari ahalik eta egokien jarraituz.

4. Terminologia bateratua eta Euskaltzaindiak onartutako idazkera erabiltzea bultzatu behar du Bikaritza Nagusiak.

ARLOZ

Katekesia

Bi arazo agertzen dira batez ere arlo honetan: lehenengoa, euskararen eza-gutzak eta erabilerak proportzio desberdina dutela umeen artean eta katekisten artean. Hau da, eskabidea eskaintza baino zabalagoa da. Tarte hau gutxitzeko ez da nahikoa euskaraz egitea; hori baino lehenago sinestudun izan behar da, eta honetan arazo handiak ditu Elizak, erreleboa dela eta.

Beste arazoa lehen aipaturiko lehen argibidean agertu da: katekesiaren hasieran, batez ere gurasoek nolabaiteko erlijio ardura dutenean, eskolako eredu ez da besterik gabe egokiena. Guraso askoren irizpidea eskolakoa da; hau da, umea D ereduaren dabilenez, katekesia ere euskaraz har dezala. Baina fedearen transmisioa eta bere lehen pausuak esnatzeko eta bideratzeko, askoz ere inportanteagoa da etxeko hizkuntza. Hau ezin da inposatu, baina gurasoek hortaz jabetzea inportantea da.

Hasierako bigarren oharrean esandakoa agertzen da hemen: Elizaren lehenengo ardura ez da euskararen (edo beste edozein hizkuntzaren) zabalkundearena, baizik eta fedea transmititzearena.

Liturgia

Vatikanoko II.ak, liturgiako hizkuntza guztien duintasuna eta balioa onartuz, euskara ere hizkuntza ofizial egin zuen Elizan. Kontzilioaren oinarria edo abiapuntua bide-erakuslea da liturgiaren eta Eliza osoaren erreformarako. Hauxe da, hain zuzen: «fededun guztiak liturgi ospakizunetan oso-osoan, ohar-tuki eta era aktiboan esku hartzera zuzentzea» (SC 14). Helburua, beraz, zera da: «ahal den neurrian kristau-herriak erraz ulertu eta, ospakizun oso, bizi eta elkarteari dagokion erakoan esku har dezala» (SC 21). Hori bultzatzen duena onuragarria da eta hori oztopatzen duena, kaltegarria.

Irizpidea edo helburua honetan hauxe da: ahalik eta euskararik gehien erabili, elkartearen egoera linguistikoaren arabera. Elkartea konkretua da, hau da, elizkizun batean biltzen dena. Galdera: bada zerbait euskara hutsean egiterik? Elizkizuna bakarra denean (hileta, ezkontza, bataioak, igandeko Meza bakarra), ez da erraza, gehienetan partaide denak euskaradunak ez baitira izaten. Eskaintza zabala denean (igandero Meza bat baino gehiago dagoenean, hau da, parrokia edo herri handietan), hizkuntza egoeraren arabera edo euskararen aldeko aukera egitearren, ahal denean, Meza bat eskaintzen da euskaraz. Honelakoetan ordua izaten da arazoa, euskaraz egiten dutenak gutxiengoa izaten baitira gehienetan. Horrez gainera, kontuan izan behar da, Mezara joateko ordua ez dela erabakitzen gaur egun hizkuntzaren arabera, baizik eta jaiegunerako nor berak izan dezakeen planaren argitan.

Dena den, sarri askotan, irizpide teorikoen eztabaida biderapen praktikoa baino gehiago kostatzen da. Hau da, elizkizuna hizkuntza eta hizkera aldetik ondo prestatu eta ospatzen denean, apenas erreparatzen da hizkuntza bien arteko proportzioa.

Atal hau amaitu aurretik, irizpidea ez bada ere, Euskal Herriko elizbarrutietan nahiko zabaldua dagoen uste sendo hau agertzea komeni da: elebidunak eta elebakarrak dauden elkartean hizkuntzen erabilera bakegintzarako sakramentu – hau da, ezaugarri eta tresna – bihur daiteke.

Formazioa

Umeen katekesitik aurrerako pausuak sar daitezke hemen. Eskaintza apala bada, apalagoa da eskabidea. Gogoan izan behar da, gaurko krisia azken ur-

teotan euskaldunduta eta alfabetatuta daudenengan agertzen dela argien eta indartsuen.

Eliz ekintzetan edo pastoraltzan dihardutenen formazioa gehienbat erdaraz egiten da, euskaldunek ere parte batez teologiazko gaiak erabiltzean eragozpen dezenteak izaten dituztelako. Honen iturri bat honetan dago: euskaraz sortu eta landutako kontzeptu eta material larregirik ez dago. Behin maila batera helduz gero, itzulpena da nagusi.

Teologia ikasleen kopurua ere oso apala izanik, bai Seminarioan eta bai Fakultateetan euskaraz taldetxo bat biltzea ia ezinezko egiten da. Ikasle baikoitzaren zaletasunetik dingilizka dago arlo hau.

Beste era bateko galdera da, zenbateraino den beharrezkoa euskara abade edo arduradun izateko Bizkaian. Baloratu egiten da, dudarik gabe, ahal den neurrian. Hau da: ez da erabakigarria edo kasu guztietan ezinbestekoa. Garrantzia badu, baina berea, hau da, neurri batekoa. Gotzainaren erreleboa izan zenean, Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak ez zuen euskaraz egitearena irizpide derrigorrekoen artean jarri, baizik eta garrantzitsuen artean. Antzera gertatzen da beste arlo batzuetako arduradunak aukeratu eta izendatzean. Batzuetan, nahi izan arren, ez da kandidaturik izaten.

Euskararik ez dakiten abadegaien euskara ikastea dela eta, hainbat faktore sartzen dira. Seminarioak ahaleginak egiten ditu, baina kontuan izan behar dira ikaslearen kapazitatea eta bizimoduak erakusten dion premia, batez ere.

Informazioa

Elizbarrutiko zerbitzu nagusietatik ateratzen den informazioa hizkuntza bietan joaten da ia hutsik gabe. Inoiz, presaka edo oso epe laburrean bidali behar bada zer bait (prentsa agiriren bat edo) erdaraz bakarrik ere joan da, baina horrelakoak kasu bat edo beste baino ez dira.

Eskualde edo herrietan ahoz edo idatziz zabaltzen den informazioan euskara gutxi erabiltzen da, oro har. Proporzioa gehienetan euskararen kaltetan doa, gehiengoaren hizkuntza ez bada. Honen arrazoiak era askotakoak izan daitezke: norik euskaratu ez dagoela, errepikapenik gabe denek uler dezatela (ahoz emandakoetan batez ere), ardurarik eza, sormen falta.

Itzulpenak

Elizan erabiltzen den euskara idatzia itzulpena da neurri handi batean. Hizkuntza minorizatu bezala, euskara bere inguruko hizkuntzak baino askoz ere apalagoa da. Nolabaiteko menpekotasunean bizi da eta hala izan beharko

du, seguru asko. Badago egon euskaraz sortutakorik ere: kantuak, gogoetak, poemak, otoitzak, artikuluren batzuk...

Elizan erabiltzen diren testuak (biblikoak alde batera utzita) latinetik edo gazteleratik euskaratuta daude gehienbat: latinetik, Eliza osorako testu ofizialak; gaztelaniatik gainerakoak. Baina hori esan ondoren, itzulpen onak duen kreaio alderdia azpimarratu behar da. Oraintsu argitaratutako artikulua baten zera irakur zitekeen:

Convendría dejar claro que, salvo intromisiones de advenedizos que deshonran el gremio, la labor de los traductores resulta con frecuencia reparadora de los estropicios y las torpezas del texto original, a la vez que insustituible, por mucho que ahora se empiecen a divulgar ciertos programas informáticos de traducción automática. Programas que nunca lograrán suplantar ese aporte de sensibilidad e intuición lingüística que permite a un traductor salvar y dejar intacta la furtiva belleza del texto original (Juan Manuel de Prada, *Semana*, 2005.XI.06).

Liturgiako euskaraz egin diren itzulpen ofizialetan froga daiteke argi eta garbi itzultzaileen goraiapamen hori.

Baina eguneroko eliz bizitzan arazo dezenteak sortzen dira itzulpenak egin eta agertzean, bizkor, zehatz eta askatasunez joka dezakeen itzultzaile askorik ez dagoelako. Honetan ere borondate ona, beharrezkoa izan arren, ez da nahikoa eta boluntarismo gerta daiteke. Hainbat lankide eta pastoralgile daude Elizan euskaraz oso ondo egiteko gai. Baina zerbait argitara eman behar denean, nekez ausartzen dira euskaraz jartzera, edo alfabetaturik gabe daudelako (hainbat euskaldun *zahar*) edo erraztasunik ez dutelako (hainbat euskaldun *berri*, EGA titulua izan arren).

Eguneroko itzulpen lanari, batez ere idatziari (euskal) sormena falta zaio sarritan. Hori dela eta, euskaraz irakurtzen ari denak behin baino sarriagotan erdarara jo behar du edukia ulertzeko. Bestalde, itzulpen estuegia errepikapena suertatzen da euskal irakurlearentzat, bera baita elebiduna. Testu ofizialetan sormenaren edo askatasunaren neurria ez da handia itzultzailearentzat, baina bai bestelakoetan.

Bizkaiera ala batua?

Kasu bakoitzean erabakigarria zera da: norentzat den jakitea. Galdera horri ematen zaion erantzunak argitzen du jokabidea. Gauza laburretan (lemak, tituluak, kontsignak edo antzerakoak), batua erabiltzera jotzen da. Gehienbat alfabetaturik daudenentzat euskara batua erabiltzen da sarritan, beti ez bada ere. Formazio teologikorako materialetan euskara batua erabiltzen da. Liturgiako oharra eta lagungarriak bizkaieraz egiten dira. Parrokietara bidaltzen den informazioa bizkaieraz doa. Esan bezala, hartzailea epaile.

AMAITZEKO

Orain arte esandakoa bi puntutan laburbil daiteke:

1. Hartzaileek erabakitzen dute Elizan euskararen eta beste edozein hizkuntzaren erabilera: zenbat, noiz, nola eta zein eratakoa. Komunikabideak irakurle, entzule edo ikusleen zerbitzurako eta hauen eskabideen arabera eratuta dauden bezala, hizkuntza arloan ere emititzen duenak hartzaileari begira egon behar du, hizkuntza komunikabide nagusia dela, hau da, gizon-emakumeok komunikatzeko dugun tresnarik ederrena dela kontuan izanik.

2. Elkarre osoa (elizbarruti, parrokia, elkarre txiki zein komentu) izan behar da kontuan irizpideak eta erabilera bera zehaztean. Kristau elkarre oso gizon-emakume desberdinek osatzen dute eta elkartasuna da bere helburu eta jomuga. Denen izaera, iritziak eta sentipenak kontuan hartzeko, elkarrizketa beharrezkoa da, eta lur honetan bakea eta adiskidetasuna erein eta landu nahi duen Elizari sakramentu gertatzen zaio ahalegin hori.

Eskerrik asko.

**EUSKARAREN ERABILERA DONOSTIAKO
ELIZBARRUTIAN GAUR EGUN**
Euskara idatzia eta ahozko euskara

Bilbo, egoitza, 2005-XII-16

Eustasio Etxezarreta

Sarrera

Euskal elizbarrutietan euskararen erabilera nola doan jakin nahirik, Euskaltzaindiko *Jagon* Sailak eraturako Jardunaldietara deitu gaituzue horren berri ematera. Azken urteotan beren azalpenak eginak dituzte hiru euskal Elizbarrutitako ordezkariak: Baiona-Leskar-Oloroekoek lehenengo, 2002. urtean Iruñeko eta Tuterako elizbarruti-ordezkariak ondoren, 2003. urtean eta Gasteizkoek azkenik, joan den urtean, 2004an.

Bilboko eta Donostiako Elizbarrutien txanda dugu oraingoan. Anjel Mari Unzuetak bere hitzaldian esan berri dituen irizpide nagusiak baligarriak dira orokorrean gure eremuko eliz jarduerarako. Guk onetsi eta geure egiten ditugu printzipio horiek. Gure txosten honetan euskarak gure Elizbarrutian duen erabilerari begiratu diogu zuzenean.

Txostenaren eremua

Ezertan hasi baino lehen, argi utzi dezagun zenbait puntu. Gauza jakina bada ere, esan dezagun Donostiako Elizbarrutia esatean Gipuzkoako probintziaz ari garela, lurralde honetako eliz jardueraz, alegia, euskararen erabilerari dagokionean. Eta Eliza Katolikoaren esparrura mugatuko dugu geure txosten honetako azalpena; badira, izan ere, Gipuzkoan beste eliz elkarteak: Ebanjelikoak, beste protestante-elkarteak, musulmanak, baita ortodoxoak ere..., baina ez dugu horien ezagupide behar adinbat zehatzik haien izenean hitz egiteko.

«Gaur egun» esatean, bestalde, euskararen erabileran bilakaera bat izan dela adierazi nahi dugu; gaur egungo egoera azken urteotan emandako pausoen ondorio dela, alegia; eta txosten honetako informeak batez ere oraingo

egoerari begiratzeko badio ere, euskararen erabileran egin behar izan dugun ibilbideaz zerbait esan beharko dugu, gainez gain bada ere. Eta ibilbide honen nondik norakoa adieraztekoan, Vatikanoko II. Kontzilioa hartuko dugu mugari gisa, hau da 1964az geroztiko 40 urteak.

Azpitituluan, azkenik, «euskara idatzia» eta «euskara erabilia» edo ahozko euskara aipatzen ditugu, euskararen bi era horien erabilera nolakoa den adierazteko gure elizbarrutian gaur egun. Hain zuzen, eliz bizitzan eta jardueran behar-beharrezkoak ditugu oinarrizko testuak eta idazkiak, bai elizkizunetarako eta katekesi-hezierarako, baita maila guztietan irakaspena emateko eta eguneroko bizitzak dakartzkigun eskakizunei erantzun ahal izateko ere.

Nolanahi ere, euskara idatzia esatean ez dugu ahaztu behar, eliz literaturaren zati handi batek duen berezitasuna: Bibli taldeetan, liturgian, katekesian, erlijio-hezieran, etab., erabiltzen diren testuak, idatziak izanik ere, aldi berean ahoz erabiltzeko eginak eta pentsatuak daude. Beraz, ahozkotik hurbil egon behar duten testu idatziak dira.

Aztertzea da, bestalde, zenbaterainokoa den gure eliz giroan euskararen ahozko erabilera, zer-nolako prestaera edo alfabetatze-maila daukagun eta nolakoa den gure euskararen kalitatea. Elizan darabilgun euskarari buruz egin dugu orain baino lehen azalpen bat, Euskaltzaindiak 1978an Bergaran egingo VIII. Biltzarrean, «Euskal Herriko Elizaren Jokabidea Euskarari buruz» titulupean (1).

Egia da, gure elizbarrutian ez dugula dekretu moduan emandako gotzainidatziki berezirik, parroki lanetan euskara erabiltzera zehazki behartzen duenik. Aztergai izan izan da euskararen erabilera apaiz Batzordeko, edota Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluko eta beste batzarretan; baina, adostutako txostenik ez da argitara eman. Bada, bai, han-hemenka oharren bat edo beste, apaizei horretaz arretatsu izatera dei egiten diena. Kontua da, puntu hau hasieratik onartua izan zela eta ez dela inoiz zalantzan jarri izan gure elizbarrutian. Gurean ardura, batez ere, euskara idatziaren nolakotasunak aztertzean jarri izan da. Gainera, garaian garaiko eran bada ere, gure Gotzainak berak izan dira beren jokabideaz egin behar hau aurrera eraman dutenak eta, neurri batean, aitzindari ere izan direnak.

Gogora dezagun, 1964an Lorentzo Bereziartua Gotzainak, Espainiako Gotzainen Batzarraren aurrean liturgia euskaraz ere ospatu behar zela adierazi ondoren, gure Elizbarrutiko itzulpen-taldea sortu zuela. Geroago, 1968ko abenduan, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra euskara batuari buruz egin berria zenean eta, beraz, eliztarren artean ere kultur giro berri bat sortzen ari zela ikusirik, Jazinto Argaña Gotzainak, Iruñeko eta Bilboko Gotzainekin ba-

(1) Ikus *Euskera*, 1978-2, 829-855. orr. Hitzaldi hartan aurki daitezke Kontzilio ondorengo lehenengo urteetako historiari eta lanei buruzko datu zehatz ugariagoak.

tera, eta Baionako Gotzainaren oniritziarekin, elizbarruti desberdinetan ari ziren itzulpen-talde autonomoak talde bakarrean biltzeko erabakia hartu zuten. 1975ean, Setien Gotzainaren eskutik, aurrerago aipatuko dugunez, euskarazko eliz argitalpenak bideratu ziren eta «Idatz» Elizbarrutiko argitaletxea sortu zen, bereziki euskarazko eliz argitalpenak egiteko.

I. EUSKARA IDATZIAREN IBILBIDEA GURE ELIZAN

Euskara idatziari dagokio, batez ere, aurreko oharretan aipatzen genuen bilakaera. Orain 40 urte, 1964an, Kontzilioaren eraginez Meza-liburua euskarara itzuli behar izan zenean bere otoitz, Bibliako irakurgai eta salmoekin, euskararen egoera, eta bereziki euskara idatziaren egoera, ez zen gaurkoa.

Ez naiz ni inor, Batzar honen aurrean historia alorreko irakasle-lanetan hasteko. Baina gogora ekarri nahi nuke, orduan sortu zirela egiaz euskara bateratzearen aldeko mugimendua eta alfabetatzeari buruzko irizipideak; eta orduan hasi zirela lehenengo pausoak ematen. Gero, 1968an jarri zuen Euskaltzaindiak Arantzazun euskara batuko eraikuntzaren lehenengo harria esan dezakeguna. Eta urteak behar izan ziren euskararen normalkuntzarako oinarriak sendo jartzeko.

Gure Elizaren jokabideari dagokionez, ahaztezina den beste puntu bat euskararen arazo honen inguruan sortu zen borroka bizia da, euskara batuaren aldekoen eta kontrakoen artean. Eliz barruan suma zitezkeen bi alderdi horiek. Apaiz gazteak eta ikasleak ziren, batez ere, euskara batuaren aldekoak. Gogora dezagun, esate baterako, Donostiako Seminarioko apaizgaiek, 1966. urtean hasita, ikasgaiak euskaratu eta elkarri pasatzen zizkietela gure Elizbarrutietako hiru seminarioetako ikaskideei, batuan idatziak, jakina.

Baina Elizako sektore garrantzitsu batek euskara batuaren mugimenduari aurre egiteko jarrera hartu zuen. Ez ziren horretarako arrazoiak falta, hasieran behintzat. Izan ere, Euskaltzaindia bere iker-lanak egin eta erabakiak hartzen hasi zen arte, idazle bakoitzak bere moduko batua egiten zuen; oraindik eratu gabea zegoenez, euskara horretan egindako lehenengo idazkiak ez ziren askotan oso ereduagarriak; eliz giroko jendea, adin bateko apaizak batik bat, euskara alorrean ordu arte izen bat zutenak, alboratuta sentitu zuten beren burua; hainbat jenderi eta eliz arduradunei beraiei kezka sortarazten zien nabarmena zen batuaren aldeko idazle gazteen presioak: hauts asko harrotu ondoren ez ote zen, berehalako batean, ahaztuta ezerezean geratuko asmo hori.

Eliza euskara baturantzako bidean

Horiek eta beste arrazoi batzuk medio, kontua da, izugarritzko buruhaustea sortzen zuela une hartan euskara batuaren ikur bereizgarria zen «H»ak. Ondorioz, Eliza, orokorrean hartuta, ez zen bete-betean euskara batuaren bidean sartu. Bete-betean esan dut; izan ere, gauzak axaletik begiratuta ez badirudi ere, egia da, batzuen haserreak haserre, jarrera arduratsua hartu zutela gure Gotzainek beren aholkularien laguntzaz, eta ahalegin zintzoa egin zuela gure Elizak baturantzako bidea onartzen.

a) *Datu adierazgarri batzuk*

Bizpahiru datu eman genitzake euskara batuaren aurrean Elizak izan duen jokabidearen adierazgarri. Hasiera batean, euskal elizbarruti bakoitza bere aldetik hasi izan arren itzulpen-lan hauetan, gerora, 1969an, Elizbarruti arteko ordezkariekin itzulpen-talde bakarra eratu izana bada pauso bat baturantzako bidean. Aurrerantzean oinarrizko itzulpen bakarra egin izan da euskaraz, nahiz eta gero hiru argitalpenetan eman: lapurteraz, bizkaieraz eta... gipuzkera osatua esan izan den horretan.

Beste datu bat: Donostiako Gotzain Laguntzailea zen Jose Maria Setienek, euskal Elizbarrutietako Gotzainek hala eskatuta, euskara idatziari buruz gure Elizak egoera hartan hartu beharreko bidearen azterketa eta planteamendua egin zien gotzainei. Bi urtetan zehar hainbat bilera egin, batzuen eta beste-ten iritziak entzun eta hainbat eliz arduradunen ikuspegiaren argira egindako azterketaren ondorioz, sortu zen 1975ean Eliz Idazki Ofizialetarako batzordea, Setienen beraren ardurapean.

Eliz argitalpenetan euskara bi maila edo eredutan erabiltzea izan zen erabakia:

a) alfabetatuak zirenentzat edota alfabetatze-bidean zebiltzanentzat –haur eta gazteentzat batez ere– egiten ziren argitalpenak euskara batuan egingo ziren, ikasle horiek beren liburuetako ikasgaiak era horretan idatziak zituztenez, ez baitzegoen arrazoi objektiborik bide hori ez hartzeko;

b) alfabetatu gabeko eliztarrei zuzenduak zeuden beste argitalpenak, beriz, gipuzkera osatua esaten zitzaion euskarari.

Elizak ahalegin zintzoa egin zuela baturantzako bidea onartzen esaten dugunean, horren egia azaltzen duen beste puntu bat «gipuzkera osatua» delako euskara-motaren nolakotasunak dira. Lehen adierazi dugu eta gauza jakina da, orain dela 40 edo 30 urte eliztar askori eta bereziki euskarazko itzulpenak egiten aritu zirenei onartezina gertatzen zitzaizela euskara idaztean «H»a sartzea eta «ñ» eta «ele bikoitza» («ll») uztea. Azken batean, borroka horretan pedagogiarik gabe jokatu, edota pedagogia ondo erabili ez izanaren ondorioz, kontrako muturrerako bidea hartu zuten.

Hala ere, eta, lehen genioen bezala, itxura batean besterik badirudi ere, gipuzkera osatuan-edo egindako argitalpenetan, «H», «ñ» eta «ele bikoitza» («ll») alde batera utzi izan arren, onartu egin ziren euskara batuaren beste ezaugarririk gehienak, edo asko behintzat; hala nola, deklinabidea bere osoan, hiztegia neurri handi batean, eta aditz-jokorik gehienak, alde batera utzirik gure eliztarrentzat berriak eta arrotzak gertatzen ziren aditz-jokoak, ulergaitz egin zezaketelako entzun hutsez jaso behar zen testua. Era horretan argitara emandako testua entzulearentzat ez zen hain urruti gelditzen euskara batuan idatzitakotik.

Bada oraindik beste ñabardura bat agerian jartzea eta azpimarratzea komeni dena. Eliz Idazki Ofizialetarako batzordeak hartutako erabakien artean, beti ere baturantzako bidean jardutea zegoen; esan nahi da, itzulpena egitekoan, ahalik eta eremu zabalagoko euskaldunentzat egokia izango zen testua lortu nahi zela; eta argitaratzekoan ere euskara batua zela norabidea eta helburua. Une hartan aurrerago joatea egoki ikusten ez zelako, gipuzkera osatua erabiliko bazen ere argitalpen batzuetan, euskara baturako bidea prestatzen zihuan heinean helburu hartara iristea zen asmoa.

Eta hala gertatu da. Poliki-poliki gauzak errazten joan ziren. Batetik, euskararen normalkuntzarako lanabesak eskura izan ditugu Euskaltzaindiak egindako ikerketa eta emandako araudiei esker. Bestetik, ikastetxe, unibertsitate, komunikabide eta orokorrean kultura munduan sartu da euskara, eta erabili egin da, guztiontzat etxeko eta ezaguna bihurtzeraino neurri batean. Gainera, hasierako haserre eta amorru haiek arintzen joan dira, denborarekin ia deseginak gelditzeraino. Horiek eta beste arrazoiak medio, ia konturatzeke bezala, urte gutxiren buruan eta inolako etenik gabe euskara batuaren munduan sarturik dago gure Eliza azken 20 urteotan.

b) *Elizaren jokabidea*

Gogoratu dugu, batera samar gertatu zirela Kontzilio ondorengo eliz itzulpenak eta euskara batuaren aldeko mugimendua eta Euskaltzaindiak hori guztia bideratzeko egindako lanak. Gauza bat argi utzi nahi genuke hemen: Elizak bere argitalpenak egitekoan hartu zuen jokabidea ikusita, norbaitek pentsa dezake, Euskaltzaindia eta euskal kultur mundua alde batera utziz eta nolabait horien kontra hartu zuela bere erabakia, euskararen akademia paralelo baten pare jarriko balu bezala bere burua.

Baina, gauzak ez dira egiaz horrela. Begirada batean hala badirudi ere, eliz lanetan ari izan garenok ez dugu inoiz zalantzan jarri, ez Euskaltzaindiaren prestutasuna eta autoritatea, ez erabakien bidezatasuna eta balioa. Eliza lanetan aritu izan garenok geure bidea hartu izana ez da Euskaltzaindiaren aurrez aurre euskarari buruzko beste «jakinduria» eskaintzeko asmoz izan, baizik eta une hartan oraindik eliz giroa eta fededunen prestaera ez zelako aski egokia ikusten arau horiek guztiak erabiltzeko, beti ere kontuan izanik nola-

koa zen gure eliztarren alfabetatze-maila, eta ahoz aldarrikatu eta belarritz entzunez jaso beharreko testuak zirela.

c) *Euskara idatzia elizbarrutiko beste eliz alorretan*

Arreta guztia liturgiarako egindako itzulpen eta argitalpenetan bakarrik ari gara jartzen, baina ez dira horiek kontuan hartu beharreko bakarrik. Egia da esanahi berezia dutela hauek, itzultako testuen eta argitaratutako liburuen kopuruagatik, horietan aritu izan den taldea euskalki desberdinetakoa zelako eta talde horrek markatu zituelako eliz euskararen ezaugarriak.

Baina, liturgiako liburuaz gainera, badira Elizak bere jardueran erabiltzen dituen era askotako beste argitalpenak: katekesiko eta erlijio-hezierako testuak, Gotzainen pastoral idazkiak, beren eliz lanetan Gotzainek hilero-hilero eliztarrei idatzi ohi dizkieten gutunak eta idazkiak, Gotzaindegiko Aldizkari Nagusia ia erabat elebitan argitaratzen dena, igande eta jaiegunetako Mezetarako lagungarri gisa euskara hutsean argitaratzen den *Mintzo eta Kantu* izeneko aldizkaria, Gotzaindegiko Idazkaritza eta Ordezkaritza guztiek egin ohi dituzten gutun eta mezuak, hedabideekiko harremanak eta bidaltzen zaizkien informazioak, parrokiako artxibo-liburuak, eliz ateetan jarri ohi diren iragarki edo kartelak, parrokietan eliztarren artean banatzeko egin ohi diren orriak eta batzar-deiak, etab.

Orokorrean, eliz bizitza eta pastoralgintza aurrera eramateko egin ohi diren mila eratako idazki eta argitalpenak euskara batuan egiten ari gara aspaldidanik Donostiako Elizbarrutian, esan dezagun duela 20 urtez geroztik, nahiz eta beti-beti batek nahiko lukeen bezain euskara txukuna ez erabili.

Gaur egungo teknologia berriak ere erabiltzen ari gara. Donostiako Elizbarrutiak badu bere WEB orria, www.elizagipuzkoa.org, euskaraz ere gatzelani bezain ongi hornitua. Katekesirako eta eskolan ematen den erlijio-hezierarako lagungarri gisa baditugu 40 bideo-zinta euskarara itzuli eta bikoiztuak, Bibliako pertsonaia, Jesusen parabola, ipuin, sakramentuen azalpen, etab., gai dituztenak.

d) *Beste erakundeak*

Aparteko arazorik gabe igaro dira gure Elizaren bizitzan euskara batuan ren gai honi buruz azken 20 urteak. Bitarte horretan garrantzi handiko itzulpen eta argitalpenak egin dira, euskara batuan noski, eliz alorreko euskal kulturari dagokionez. Esanahirik handieneko pare bat aipatuko ditugu beste askoren adierazgarri. Bata, katoliko eta protestanteen arteko elkarlanean itzuli eta euskal elizbarrutietako Gotzainen eta Bibli Elkarte Batuen ardurapean argitara emandako *Elizen Arteko Biblia*; aparteko esanahi erlijioso eta kulturala duen gertaera izan da argitalpen hau; une honetan, hain zuzen, egina dugu bigarren argitalpen eraberritua, eta testua CDan eta interneten emateko azken ukituak egiten ari gara, biak batera kaleratzeko.

Horrekin batera, kontuan hartzekoak dira *Erljio Kulturaren Bilduma* izenburupean, irakasle- eta euskalzale-talde batek Deustuko Unibertsitatearen babespean argitara eman berria duen 25 liburuz osatutako sorta eta Kontzilio-ko dokumentuen euskarazko argitalpena. Biblia, Teologia, Morala eta Kristauaren Bizitza lantzen dituzten liburu hauek euskaraz ematearen helburua, ikasle, irakasle eta maila desberdinetako hekuntza-lanetan ari direnei material egokia eskaintzea izan da.

Guk txosten honen lehenengo zati honetan egin dugun azalpena elizbarrutiari dagokio, batez ere, Gotzaindegia eta parrokiei, alegia; baina Elizaren jarduera hori baino zabalagoa da. Ez ditugu ahaztu behar erlijioso-erlijiosen ikastetxeak, aldizkariak, irratiak, etab. Are gutxiago, Lazkaoko Beneditarrek, Arantzazuko frantziskotarrek, Loiolako jesuitek eta Urretxuko pasiotarrek, besteak beste, euskara lantzen egin duten lan aipagarria.

Atal honi bukaera emateko esango dugu, azken urteotan eliz liturgiako liburu guztien errepaso egiten ari garela, argitalpen eraberrituak egiteko asmoz. Batetik, itzulpena bera da aztertzen ari garena, 40 urtetako itzulpen-esperientziak eta *Biblia* euskaraz izateak ematen digun laguntzaz baliaturik; eta, bestetik, liturgi liburuetako euskara gaurkotzen dugu batua bere ezaugarri guztiekin onartuz.

II. AHOZKO EUSKARA

Elizaren jardueran euskararen ahozko erabilerari eskainiko diogu bigarren parte hau. Irudipenetan eta oinarrizko daturik gabe ez aritzearren, galdeketa bat egin dugu geure elizbarrutietako apaizen artean, parroketako jardueran euskara zenbateraino erabiltzen den jakiteko. Beraz bigarren zati honetan datuak emango ditugu batik bat; soziologoak hitz egingo du, nire ahoz bada ere.

Inkestaren bidez jasotako datuak:

Soziologoak prestatu digun txosten hau ez da ikerlan osoa, aurrerapen bat baizik; ez diogu betarik eman azterketa osoa eta sakona egin ahal izateko. Hala ere, baliagarriak izango dira datu hauek.

Hemen aurkeztuko ditugun datuak, bestalde, parrokiei dagozkienak dira; parrokie-tako jarduera bakarrik jasotzen da; datuak bilduak dauden arren, ez da oraindik beste hainbat erakunderen azterketa egin: Gotzaindegiko pastoral sail desberdinak, Seminarioa, Pio XII.a Erljio Zientzietarako Goi Ikastegia, erlijioso-erlijiosen ikastetxeak, etab.:

Puntu honetan, Power-Point sistema erabiliz zenbait daturen aurkezpena egi-tearekin batera, datu horiei buruz soziologoak idatzitako azalpenak egin ziren; baina ikerketa soziologikoa ez dago oraindik bukatutzat emana; han egin genuen azalpena presaka egindako aurrerapen bat besterik ez zen; horregatik ezin dugu hemen argitara eman, ondorioak ere behin-behinekoak baitziren. Ikerketa-lan hori burutzen denean, argitaratu eta ezagutzera eman ahal izango dugu.

Soziologoaren txostenaren osagarri esango dugu, Gotzaindegiko kargudun gorenek ezezik erdi mailako arduradunek ere, guzti-guztiek ez bada ere, ia denek euskara menderatzen dutela. Esan behar da, gainera, 1972an gotzain egin zutenez geroztik, Jose Maria Setien eta orain Juan Maria Uriarte, azkeneko gure bi Gotzainak, izan direla arduratsuenak Elizaren jardueran euskara normaltasun osoz erabilia izan dadin.

Seminarioari dagokionaz, irakasleek gaztelaniaz ematen dituzte beren ikasgaiak; baina ikasleek hobeto menderatzen dute euskara, eta euskaraz egin ohi dituzte beren azterketak eta lanak. Euskara jakitea eskatzen zaio Gipuzkoan apaiz izan nahi duenari.

Pio XII.a Erljio Zientzietarako Goi Ikastegian eliza lanetan sartuta dauden edota sartu ahal izateko prestatzen ari diren laikoak dira ikasleak. Oinarritzko heziketa-ikastaroa euskaraz ere eskaintzen zaie eta badute egokiera ikasgaiak euskaraz entzuteko eta azterketak ere euskaraz egiteko.

Zenbait gogoeta

Euskararen ahozko erabileraren zenbatekoak aipatu ondoren, beste galdera batzuk datozkigu burura. Aztertu beharreko gauza bakarra ez da zenbat hitz egiten den euskaraz; kontuan izatekoak dira, alde batetik, zein euskara-mota egiten den ere; nolako aldea dagoen, alegia, idatzitako euskararen eta ahoz egiten denaren artean; zenbateraino ari den sartzen idatziz erabiltzen den euskara batua ahozkoan ere. Ahozkoan, bestalde, ez da berdin etxean edota lagunartean egin daitekeen hizkera, eta jendaurrean egiten dena; berdina ez den bezala, orokorrean apaizek egiten dutena eta alfabetatu gabeko eliztarrek egiten dezaketena.

Beste alderdi bat, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak hizkuntz kalitateari buruz dioena da: kalitatea ez dagoela gramatika ondo erabiltze hutsean. Euskararen hiru maila bereizten dituzte: zuzentasuna, jatortasuna eta egokitasuna.

Galdera hauen aurrean ez dugu oraindik balio-iritzi zehatzik gure elizbarrutirako. Orokorrean esan genezake, hori da gure ustea, apaizek aski ongi zaintzen dutela jatortasuna eta egokitasuna; agian, ez hain ondo zuzentasuna; beren alfabetatze-maila ez da, gehienetan behintzat, ikasketak eginez lortutakoa, entzun, irakurri eta erabiliaren bidez lortua baizik. Eliztar arruntak, berriaz, ahoz erabiltzen duen hizkera, bere bizitzako beste esparruetan egiten dena izan ohi da, eta, beraz, bere inguruan ere erabili ohi dena.

Jendaurrean egiten dena jantziagoa dela esan dezakegu. Ez, noski, idatziz egiten denaren maila berekoa; beste hizkuntzetan ere horrelako zerbait gertatzen bada, are gehiago euskaraz. Baina jendaurrean egiten dena ez da etxean eta lagunartean egiten dena ere, jantziagoa baizik.

Zenbait kezka

Esanak esan, aitortu beharra daukagu behin baino gehiagotan erosokeriaz edota eliztar erdaldunen presioaz ez dela behar bezala zaintzen euskararen erabilera.

Euskarazko argitalpenak askoz urriago zabaltzen dira; irakurri, berriz, oraindik gutxiago. Ikusten da, erdaraz moldatua dagoela gure arteko askoren pentsatzeko era, eta zail gertatzen zaio askori eta askoz ahalegin handiagoa eskatzen dio pentsamendu-liburua irakurri eta sakontzea.

Zailtasun berezia sumatzen da batzarretan edota talde-bileretan euskara erabiltzeko. Elizatik kanpo ere bizitzako edozein alorretan gertatu ohi den bezala, taldea euskaldunez eta erdaldunez eratua dagoenean, erdara nagusitu ohi da: nekagarri egiten delako elebitan aritzea, presioa nabaritzen delako...

Inoiz kexaren bat edo beste etortzen zaigu Gotzaindegira hiletak edota haurren lehenengo Jaunartzeak direla eta... Ez da beti erraza denekin ondo asmatzen. Hiletei buruzko pastoral aholkuetan esana dago, ondo zaindu behar dela hizkuntzen erabilera; baina horrekin batera esaten da, baita ere:

hileta-ospakizunean zein hizkuntza erabili jakiteko, irizpide orokorrak hartu behar direla oinarri, hau da: nola eraturik dagoen batzarra (zenbatsu erdaldun eta euskaldun, alegia), ulergarritasuna, liturgi osagai bakoitzaren izaera, lagungarriak, etab. Dudarik gabe –jarraitzen du aholkuak–, kontuan izan beharrekoa da hildakoaren ingurunea eta senitartekoen nahia; baina ez da ahaztu behar, ospakizuna ez dela familiarena, kristau-elkartearena baizik.

Lehenengo Jaunartzeak direnean, badira parrokiak ospakizuna erdaldunentzat egun batean eta euskaldunentzat beste batean jartzen dutenak; baina sarritan gertatzen da, euskal haurren gurasoak edota gurasoetakoren bat ez dela euskalduna, eta horiek ere kontuan hartzekoak dira.

Kezka hauei erantzun nahirik, gure elizbarrutirako onartua daukagun eliz eremuan esana dago, euskararen erabilera gauza normaltzat hartzea eta elebitasunaz egoki baliatzea joan-etorri handiko kontua direla bizikidetzat lortze-bidean.

Eta bost urteotarako Elizbarrutiko Pastoral egitarauan eskatua dago, «euskararen benetako erabileraren azterketa» egin behar dugula, non gauden eta nola aurrera egin behar dugun jakiteko. Eskari hau betetzera etorri da egin berria dugun galdeketa.

Kontuan hartzen dugun gaia da, beraz, eta une egokian etorri dela uste dugu *Jagon* Jardunaldiak direla medio euskararen erabilera gure elizbarrutian nola dagoenaren berri ematera egin zaigun deia. Lagungarri izango da, zalantzarik gabe, Euskaltzaindiaren aurrean gaur egin dugun aurkezpen hau euskararen erabilera eta kalitatea zaintzen jarraitzeko Donostiako gure Elizbarrutian.